

HAUTESKUNDE PROGRAMA

Aurkibidea

0. EUSKADIREN ERALDAKETA POLITIKORAKO PROGRAMA	4
I. ALOR PUBLIKOA ESKUBIDEEN BERME GISA	7
1. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA	9
2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA	27
3. ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA	41
4. KULTURARAKO ESKUBIDEA	45
5. KIROLA EGITEKO ETA AISIAKO ESKUBIDEA	55
6. JUSTIZIARAKO ESKUBIDEA	59
7. INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA	65
8. SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA	69
9. JUSTIZIA FISKALAREN BERMEAK	73
II. EKONOMIA SOZIALA ETA BERDEA	80
10. LAN JUSTIZIAREN ETA ENPLEGU DUINAREN BERMEAK	82
11. ERALDAKETA EKOLOGIKOA ETA INDUSTRIA-EREDU BERRIA	95
11.1. TRANTSIZIO ENERGETIKOA	95
11.2. TRANTSIZIO AGROEKOLOGIKOA EUSKADIN	99
11.3. NATURA KONTSERBATZEA	107
11.4. NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA BASOGINTZA POLITIKA	117
11.5. URA, ZARATA, AIREA, HONDAKINAK	129
11.6. INDUSTRIA-EREDUA	140
11.7. LURRALDE-ANTOLAMENDUA	153
11.8. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA	154
11.9. ANIMALIEN BABESA	162
12. HORIZONTE DIGITALA	166

Aurkibidea

III. ZAINKETEN GIZARTE BERRI BATERANTZ EUSKADI FEMINISTA BATEAN

174

13. ZAINKETAK GUZTION ON GISA	176
14. FEMINISMOAK ETA BERDINTASUNA	178
14.1. POLITIKA FEMINISTAK	178
14.2. DIBERTSITATEA GARA – LGTBI ESKUBIDEAK	191
15. ESKUBIDE SOZIALAK	195
15.1. ADIN-POLITIKA SEKTORIALAK	195
15.2. INKLUSIO ETA BABES SOZIALA	209
15.3. MIGRATZEKO ESKUBIDEA	224
15.4. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA INDARTZEA	233

IV. LURRALDEA, HIZKUNTZA ETA BIZIKIDETZA

236

16. LURRALDE-EREDUA: PLURINAZIONALITATEA, AUTOGOBERNUA ETA ERREPUBLIKANISMOA	237
17. LURRALDEA ETA HIZKUNTZA	242
18. BAKEA, MEMORIA ETA BIZIKIDETZA	246

GEHIGARRIA: EUSKADI DEMOKRATIKOAGOA ETA KOLABORATIBOAGOA

256

19. ERAKUNDE DEMOKRATIKOAGOAK, GARDENAGOAK ETA PARTE-HARTZAILEAGOAK	257
20. EUSKAL GIZARTE ZIBILAK EKARPENAK EGITEN DITU	263

0. EUSKADIREN ERALDAKETA POLITIKORAKO PROGRAMA

0. EUSKADIREN ERALDAKETA POLITIKORAKO PROGRAMA

ELKARREKIN alda ditzakegu Euskadiko politikak

2024–2028 legealdirako ELKARREKIN PODEMOSen hauteskunde-programa hau Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatearen egoerari buruzko diagnostikoaren isla zehatza da, ezker eraldatzailearen ikuspegitik modu kolektiboan eraikitako diagnostikoaren isla.

Jakitun gara, oro har euskal gizartea bezalaxe, Euskadiko mapa politikoa aldatzen ari dela eta une honetan alternantzia politikorako aukera zabaldu dela; alternantzia-aukera hori, berez, euskal herritarren gehiengoaren sentimendu eta eskaeraren isla baino ez da, bestelako herrialde-eredua ekarriko duen politika egiteko beste modu baten aldeko sentimendua eta eskaera.

Ezkerrari politika erabilgarriak, eraldatzaileak eta aurrerakoiak eskaintzeko ardura eskatu behar zaio, euskal gizarteari kudeaketa- eta bizikidetzak-eredua berritzeko zabalitzen zaion aukera baliatu ahal izan dadin. Atzean utzi behar dira, beraz, Euskadin denbora luzez jardun duten eta guztiz agortuta dauden formula neoliberal eta kontserbadore horiek, alor erkidearen narriadura larria eragin duten formula horiek. Eusko Jaurlaritzak inplementatutako politiken ondorioz, Euskadi, gaur egun, zaurgarritasun- eta ziurgabetasun-egoeran dago. Horren erakusgarri dira zerbitzu publikoen narriadura, pribatizazio sistematikoa, industria-sarearen galera, ekonomiaren prekarizazioa, larritasun ekologikoaren aurreko pasibotasuna, ia erabateko energia-mendekotasuna, biztanleek eroste-ahalmena pixkanaka galtzea, herri-klaseen pobretzea, etxebizitza-eskubidea gauzatzeko ezintasuna eta, azken batean, ongizate-estatuari eusteko ezintasuna eta herritarren osotasunerako bizimodu duinerako baldintza materialei eusteko ezintasuna.

ELKARREKIN PODEMOSen, euskal ezker gisa, geure gain hartzen dugu erantzukizun hori; izaitez, badakigu aurrean ditugun erronka politiko eta sozialetarako soluzioak ez direla etorriko EAJk eta PSEk osatutako koalizio-gobernuen inertziatik, bi alderdi horiek eliteen interesak lehenesten baitituzte jendearen premien gainetik. Era berean, konponbide horiek ez dira hegemonia nazionalistaren aldaketa baten eskutik etorriko, baldin eta gure herriaren alor identitarioaren ikuskera esentzialista mantenduko badu eta gure herriak behar dituen aldaketa materialak ahaztu eta arlo soziala arlo nazionalaren atzetik jartzen badu.

Gure espazio politikoak ausardia erakutsi du boteretsuenek ezarritako estatus quoari beldurrik gabe aurre egiteko, eta, nahiz eta guri garesti ordainarazten saiatu diren, ausardia horri esker, eskema bipartidista baztertzailaekin haustea lortu dugu, jarduera politikoa demokratizatu dugu, eta posible ez zirela esaten zitzaizkigun gizarte-aldaketak lortu ditugu. Horixe bera posible da Euskadin ere, eta hori gauzatzeko une egokian gaude. Hori dela eta, ELKARREKIN PODEMOSen hurrengo urteetarako programa autonomikoa ez da epe laburreko neurrietara mugatzen; izatez, ikuskeran bertan, bere gain hartzen du Euskadin politika berriak eskatzen dituen eraldaketarako funtsezko ardatzen identifikazioa eta gehiengo sozialak lortu nahi duen herri-eredu berria.

Amaitu berri den legealdia COVID-19aren pandemiaren itzalpean sortu zen. Pandemia horrek irakaspen ugari eman zizkigun alor publikoaren balioari buruz eta babes sozialaren garrantziari buruz. Horrenbestez, legealdi honek porrot egin duen ereduaren —pandemia horretan ikusi zen bezala— alternatiba erreala izan behar du. ELKARREKIN PODEMOSen programa ezkerretik ematen dugun erantzun zorrotza da. Lehenik eta behin, uste dugu Euskadi nagusiki ezkertiarra dela eta hori agerikoa dela hautestontzietan, baina anomalia bitxi bat gertatzen da: politika kontserbadoreekin gobernatzen da beti. Bigarrenik, soilik ezkerretik eman dakieke amaiera Euskadin hain denbora luzez aplikatzen ari diren eredu zaharrei. Ezkerretik, eta lan kolektibo eta pluralaren bidez, eskaintzen ditugu euskal herritarren benetako premiei erantzuten dieten garaian garaiko ideia berriak eta konponbide berriak.

Aldaketa sakonak behar ditugu. Politika baliagarria eta herritarrentzako etorkizuneko konponbide zehatzak. Ezkerra behar dugu. Euskadin iritsi da berritzeko garaia.

Herritarren parte-hartzetik eta herritarrentzat sortutako programa

ELKARREKIN PODEMOSek ordezkatzeko duen euskal ezkerra da Euskadirako berritze horren bermea, Espainiako gobernuan izan ginen bezalaxe. Betikoen aurrean eta euskal gizartearen aberastasun nagusiak pixkanaka ahultzen dituzten errezeta zaharren aurrean, gure ezaugarri bereizgarrienak erreferentziatzat hartzen dituen eredu berri baten alde egiten dugu: Euskadiren izaera kooperatiboa, elkartasun- eta berdintasun-balioak, aniztasun identitarioa, ongizatearen eta alor erkidearen ideia, naturarekin duen harreman estua...

Hain zuzen ere, hortik sortzen dira gure proposamena egituratzen duten eraldaketarako ardatz nagusiak. Euskadik beste herri-eredu bat eraikitze behar dituen eraldaketa-ardatz horiek identifikatzeko bidean, ELKARREKIN PODEMOSek “Euskadi Berria Eraikitzen” gogoeta- eta eztabaida-prozesu kolektibo eta parte-hartzaileari ekin zion, eta prozesu horren emaitza da ondoren eskaintzen diren filosofia, konpromisoak eta proposamen programatikoak.

Prozesu parte-hartzaile horri ekin genion, gure Programa eratu aurreko urrats gisa, jakin baitakigu zeharkakotasuna eta lankidetzaren beharra direla Euskadiko espazio eraldatzailearen ez-augarri nagusia —gizarte-mugimenduek osatutakoa izan, edo sindikatuak osatutakoa izan edo politikariek osatutakoa izan—. Dimentsio halabeharrez parte-hartzaileari eta gure erakundeen demokratizazioari eta gardentasunari zuzendutako neurri programatikoak aditzera eman ondoren, Programa honen eranskinean, eskerrak eman nahi dizkiegu hauteskunde-programa osoagoa eta inklusiboagoa egiteko proposamenak egin dizkiguten gizarte zibileko eragile guztiei.

“Euskadi Berria Eraikitzen” prozesuan oinarrituta, lau eraldaketa-ardatzek egituratzen dute ELKARREKIN PODEMOSen hauteskunde-programa: “Publikoa dena eskubideen berme gisa”, “Ekonomia Soziala eta Berdea”, “Zaintzen gizarte berrirantz Euskadi Feminista batean”, eta “Lurraldea, Hizkuntza eta Bizikidetzatza”. Lau ardatz horiek argi islatzen dute eztabaida sakonak egin behar direla eta proposamenak eskaini behar direla zernolako herri izan nahi dugun hautatze aldera.

Hona hemen, gure proposamenak eta konpromisoak.

I. ALOR PUBLIKOA ESKUBIDEEN BERME GISA

XX. mendearen amaieratik aurrera nagusitutako iraultza kontserbadoreak honako alderdi hauek zituen ardatz: enpresa handiari zergak jaitea, gastu soziala murriztea, merkatuari botere guztia ematea, ekimen pribatuak erabateko askatasuna izatea eta, azken ondorio gisa, sektore publikoa suntsitzea. Iraultza hori oraindik ere arrastoa uzten ari da XXI. mendean.

Eskuinarentzat, zerbitzu publikoak arazoa dira, eta, efizientziaren argudioa tarteko, pixkanaka zerbitzu publikoak pribatizatzen jarraitzen du eskuinak. Hala ere, frogatu den moduan, pribatizatzek EZ ditu efizienteago egin, eta, gainera, horrek eragin larria izan du kontrol publiko eta demokratikoan eta herritarren ongizate-maila murriztu du.

Horrexegatik, ELKARREKIN PODEMOSek, ezkerren erantzukizunetik eta konpromisotik, eta apustu estrategiko gisa, bere gain hartzen du zerbitzu publikoen defentsa. Euskadin ere, ikuspegi pribatizatzaile horrek, askotan “lankidetza publiko-pribatua” eufemismoaren pean aurkezten bada ere, arazo larriak eragin ditu gure zerbitzu publikoen kalitatean. Ildo horretan, arreta berezia merezi dute bi bloke nagusiek, hau da, osasunak eta hezkuntzak —halaxe adierazten dute euskal herritarrek beren kezka nagusietan—.

Administrazio batek oinarritzko zerbitzuak kanpora ateratzen dituenean, eta zerbitzu horien kudeaketa erakunde pribatuen esku uzten duenean, eskubideak jada ez daude bermatuta. Horixe da, hain zuzen ere, ELKARREKIN PODEMOSen programa honek lehengoratuko duena.

Gure iritziz, alor publikoa eta guztiona dena indartzearen bidetik eraikitzen da herria, norberaren erosteko ahalmenaz kanpo bermatzen diren eskubideak indartzearen bidetik. Zerbitzu publikoak dira herritarren ongizatearen bermea, eta zerbitzu horien kudeaketa publikoa berme demokratikoa da.

Zerbitzu publikoek, hain zuzen, saihesten dute Euskadi bi abiaduretan garatutako herria izatea. Izatez, alor publikoak ahalbidetzen du herritar guztiek, salbuespenik gabe, bizimodu duina izatea Euskadin.

Horregatik guztiagatik, eta Euskadirentzat beste herri-eredu baterako beharrezkoa den eraldaketaren lehen ardatz gisa, ELKARREKIN PODEMOSek neurriak proposatzen ditu alor publikotik bermatu behar diren herritarren eskubide guztien inguruan —Hezkuntzatik eta Osasunetik hasi, eta Etxebizitzarekin, Kulturarekin, Kirolarekin, Aisiarekin, Justiziarekin, Informazioarekin, Seguratasunarekin edo Zerga Justiziarekin jarraituz—.

ELKARREKIN PODEMOSek herritarrentzako eskubideen alde egin du. Alor publikoa hautatu du.

1. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

ESKOLA PUBLIKOA

- Egungo Hezkuntza Legea indargabetuko dugu, eta Hezkuntza Publikoa hezkuntza-sistemaren ardatza izango dela bermatuko duen beste Hezkuntza Lege bat onartuko dugu.
- Titulartasun eta kudeaketa publikoko ikastetxeen sarea handituko dugu, hezkuntza-etapa eta -modalitate guztietako eskolatze-premia guztiei erantzun dakien. Arreta berezia eskainiko zaio hezkuntza goiztiarrari, eta 0-3 urte bitartekoentzat behar beste plaza publiko sortuko dira.
- Legez blindatuko dugu Hezkuntza Publikoaren finantzaketa, eta aurrekontu-partida modu progresiboan handituko dugu, barne-produktu gordinaren % 7aren baliokidea den zenbatekora iritsi arte, UNESCOk gomendatzen duen ildotik.
- Irakaskuntza publikoaren erabateko doakotasuna bermatuko dugu, lehen haurtzarotik unibertsitatera bitartean, eta behar beste baliabide jarriko ditugu, barnean direla material didaktikoak, liburuak, jangela-zerbitzua eta eskola-garraioa. Horrez gain, egoitza-bekak edo soldata-bekak emango ditugu, bekak behar dituzten ikasleentzat.
- Legez ezarriko dugu Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) eskaintza publikoaren doakotasuna, plantillak indartuko ditugu, eta haur-eskoletako plaza kopurua handituko dugu; horretarako, eskaerari eskualdeen arabera eta familien kontziliazio-premien arabera erantzungo diogu, eta arreta berezia eskainiko diegu guraso bakarreko familiei.
- Haur Hezkuntzako etapak bere heziketa-ibilbide propioa duela ziurtatuko dugu, halako moldez non haur-eskoletan matrikulatuta dauden 0-3 urteko haur guztiek ikastetxe publikoetan matrikulatzeko aukera izango duten.
- Oker deituriko “borondatezko kuoten” kobrantzari amaiera emango diogu, eta itunak ezartzeko legeak eskatzen dituen gainerako baldintzak bermatuko ditugu. Hezkuntza-itunak aniztasuna bere gain hartzeko konpromiso minimo batzuekin lotuko ditugu.
- Irakaskuntza-kuotak kobratzeko orotariko jardunbide irekiak edo estaliak desagerraraziko ditugu, eta Hezkuntzan behar den finantza-gardentasuna bermatuko dugu. Ziurtatuko dugu ikastetxe pribatuek edo diruz lagundutakoek jarduera osagarrien edo zerbitzuen kontzeptupean egiten dituzten kobrantzak onartzeko prozedurak EHAA-n argitaratzen direla, urtean behin gutxienez, eta onartutako kopuruak eta kontzeptuak argitara ematen direla.

- Hezkuntza-itunak arian-arian desagerraraztera joko dugu, itunpeko ikastetxe pribatuak ikastetxe publikoen sare bakar batean borondatez eta modu negoziatuan integratzearen bidez eta ikastetxe horietako irakasleak integratzeko eta homologatzeko neurrien bidez.
- Berehala utziko ditugu bertan behera ikasleak arrazoi ekonomiko, ideologiko edo bestelako ezaugarri kultural edo pertsonalengatik hautatzean ezkutuko mekanismoak erabiltzen dituzten ikastetxeekin sinatutakoak. Eskaerari erantzuteko behar adina plaza publiko dauden eremuetan, ez dugu ikasgela berri bat bere ere itunduko.
- Euskal Hezkuntza Sistemaren eskola-segregazioaren aurkako estrategia zabalduko dugu. Onarpenei, hezkuntza-itunei eta zuzendaritzari buruzko dekretuak aldatuko ditugu.
- Segregazio modu guztien aurkako Hezkuntza Inklusiorako Euskal Plana prestatuko dugu. Planak behar besteko zuzkidura ekonomikoa izango du, eta helburua izango da eskola-porrota geldiaraztea eta hezkuntza-sisteman segregazioa eta bazterketa jasaten duten kolektiboak bereziki barnean hartzea.
- Dibertsitate funtzionala eta premia bereziak barne hartuko ditugu aniztasunari erantzuteko dekretuan, betiere hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan. Bermatuko dugu desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten ikasle guztiak sartzen direla haiek hartzeko eta laguntzeko behar beste baliabide espezializatu dituen hezkuntza-sistema batean.
- Hizkuntza-ereduen egungo esparrua gaindituko dugu, euskara ardatz duen eredu eleaniztun batera begira. Eredu horrek ez ditu ikasleak hizkuntzen arabera sailkatuko edo bereiziko; hizkuntza-aldaketa, transferentziak eta hizkuntzak ikasteko metodologia berriak abian jarriko ditu, eta bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko beste hizkuntza batean gaitasun-maila homologatuak lortzeko aukera emango du. Eredu soziolinguistikoak kontuan hartuko ditu, beharrezkoak diren ibilbideak eta lorpen-epeak planteatu daitezkeen.
- Eskola Publikoarentzako Plan Estrategikoa egingo dugu, eta plan estrategikoa horretan askotariko jarduketak barne hartuko dira kalitatea hobetzeko, ikastetxeen balio erantsia hobetzeko, egungo plantillak sendotzeko, hezkuntza-figura berriak sortzeko, irakasleen egonkortasuna bermatzeko, eta azpiegiturak berritu eta hobetzeko. Besteak beste, Plan horrek gizarteko eragile guztiak inplikatuak dituzten hezkuntza-proiektu komunitarioak bultzatuko ditu, baita Hirugarren Sektore Sozialak hezkuntzako aisialdian, hezkuntza arautuan eta gizarteratze soziolaboralean garatuko dituen proiektu berritzaileak ere. Helburua izango

da arrakalak murriztea eta pertsona bakoitzak bere potentzial maximoa lortzeko tresnak izatea. Proiektu hauek hartzen dira aintzat: familia zaurgarriei laguntzeko programak; gizartea eraldatzeko lankidetzak- eta hezkuntza-programak; irisgarritasun teknologikoa hobetzeko eta arrakala digitalaren aurka borrokatzeko ekimenak; eta osasun mentaleko edo ongizate emozionaleko arazoak dituzten haur, nerabe eta gazteei buruzko ikerketa-proiektuak.

- Elikadura osasungarri eta jasangarriko politika ezarriko dugu hezkuntza-sistema osoan. Tokiko produktuen eta produktu ekologikoen kontsumoa sustatuko dugu, elikadura-subiranotasunaren irizpideetatik eta produktu horiek banatzea eta merkaturatzea bultzatzen eta errazten duten tresnen bidez. Herritarrentzat eskuragarriago egingo dira. Horrez gain, merkaturatze-zirkuitu laburretatik datozen produktuak bultzatuko ditugu.
- Eskola-jantokien eredua aldatzeko lan egingo dugu, eta haien adjudikazio, gardentasun eta kontroleko prozeduretan hobekuntzak sartu. Horrenbestez, behar-beharrezkoa izango da sistema osagarri baten oinarriak zehaztea, kudeaketa berritzaile eta deszentralizatua aukeratzen duten ikastetxeek aukera bideragarriak izan ditzaten.
- Azkenik, Hezkuntza Komunitatearekin elkarlanean, eskola-jantokien kudeaketa deszentralizatuko ereduak aztertuko ditugu, horien bideragarritasun tekniko, juridiko eta administratiboaren ikuspuntutik. Zerbitzu publikoko izaerari eutsiko zaio, baina ikastetxeek berek kudeatu ahal izango dituzte eta/edo tokiko erakundeekin elkarlanean kudeatu ahal izango dira.
- Eskatzen duten ikastetxe guztietan sukalde indibidualak zein komunitarioak eraikitzea ziurtatuko dugu, ikastetxe horiek zer jantoki-zerbitzu mota nahi duten erabaki ahal izan dezaten.
- Hasteko, hezkuntza-komunitate osoarekin batera, informazio-prozesu bat jarriko dugu abian, eskola-jantokien zerbitzuen kontratazio-agirietako oinarri tekniko berriak kontrasta daitezen; horrela, zuzeneko kudeaketa-zerbitzua adjudikatzeko irizpideek ahalik eta babesik handiena izan dezaten lortu nahi da.
- Eskolak, erakunde publiko den heinean, ezinbesteko izaera laikoa izan dezan bermatuko dugu, eta, beraz, erlijio-sinbolorik gabeko gunea izan dadin eta eduki konfesionalik gabeko hezkuntza-curriculum izan dezan.

- Matrikulaziorako udal-bulego bakarrak abian jartzea sustatuko dugu. Bulego horietan informazioa emango zaie familiei eta prozesu informalak saihestuko dira.
- Eskolaz kanpoko programak indartuko ditugu, eta ikasle guztiek programa horietan sartzeko aukera izango dutela bermatu. Era berean, saihestuko dugu Guraso Elkarteek programa horiei aurre egin behar izatea edo familien ordainketekin ordaindu behar izatea, eta kalitate-eta berrikuntza-eskaintza bermatuko dugu.
- Hezkuntza Sailak duela urte batzuk bertan behera utzitako Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Jardueren Programak berreskuratuko ditugu, ikastetxeei eta familiei eskola-liburutegietan eta adierazpen artistikoan laguntzeko baliabide gisa, esaterako arte plastikoetan eta musikan (haur-abesbatzak, musika-taldeak, dantza, natura eta ingurumena, komunikabideak eta informazioaren tratamendua).
- Ikasgelak ingurunera ireki daitezen sustatuko dugu, baita familien elkarreragina eta komunitate osoarentzako hezkuntza-prestakuntza ere.
- Euskadiko mugikortasun jasangarri, osasungarri eta sozialarekin konprometituta egongo den Eskola Bide Seguruen Sarea sortuko dugu, haurrek eskolara joateko eta hirigunean mugitzeko izan behar duten autonomia eta hiri-segurtasuna indartu dezan. Baliabideak jarriko ditugu, udalerri guztietan egon dadin ikastetxe guztietara bide seguruetatik iristeko aukera hori.
- Udaleko eskola-kontseiluen, ikastetxeko eskola-kontseiluen eta Eskola Publikoko Kontseiluaren jarduerak inplementatzearen eta hedatzearen alde egingo dugu.
- Ziurtatuko dugu hezkidetza feminista izango dela hezkuntza-arloko esku hartzearen esparrua, eta horren inguruan egituratuko direla curriculumeko edukiak, balio-sistema eta ezkutuko curriculumak. Horixe izango da gizarte zuzen, solidario, inklusibo eta erantzunkide baten garapenean aurrera egiteko oinarria.
- Indarkeria matxistaren aurkako balioetan eta benetako berdintasunean hezteko aukera emango duten hezkuntza-politika publikoak sustatuko ditugu, desberdintasun estrukturala desagerraraz dadin eta etorkizuneko belaunaldiak gizonen eta emakumeen arteko errespetuan eta berdintasunean haz daitezen.

- Derrigorrezko sexu-heziketa integrala sustatuko dugu hezkuntza-ziklo osoan. Etapa bakoitzera egokitutako eduki espezifikoekin eta hezkuntza-sisteman osorako zeharkako edukiekin. SKOLAE gisako programak hartuko dira erreferentzia Euskadin abian jarri beharreko programarako.
- Ibilbide artistikoak berreskuratuko ditugu, bai musika eta dantzakoak, bai arte plastikokoak eta ikus-entzunezkoak. Horrenbestez, hala nahi duten ikasleek prestakuntza artistikoa jaso ahal izango dute zentro espezializatuetan, eta ikasketa horiek eta Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketak bateragarri egin ahal izango dituzte.
- Kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzaileari buruzko prestakuntza eta edukiak emateko plan espezifikoak garatuko ditugu.
- Hezkuntza-esparruan, borondatezko ekintzaren eta parte-hartze sozialaren balioaz sentsibilizatuko dugu.
- Jarduera fisikoa sustatuko dugu ikastetxeetan (ikus Kirolerako Eskubidea).
- Egungo Eskola Mapa birdiseinatuko dugu, errealitate berrira egokitu dadin, hezkuntza-eskaintza planifika dezan —irakaskuntza publikoko matrikula-eskaera bakar bat ere ez da erantzun gabe geratuko—, zero urtetik batxilergorainoko edo heziketa-zikloetarainoko eskaintza duten eskola-eremuak berrantola daitezen, Hasierako Lanbide Heziketako Programen eta Eskolatze Osagarriko Programen eskaintza zabal dadin eta irakaskuntza publikoa hezkuntza-sistemaren erdigunean koka dadin.
- Eskola Publikorako Plan Estrategikoa onartuko dugu. Plan horrek eskola publikoaren kalitatea hobetzeko zenbait jarduketa sustatuko ditu, hala nola eskola publikoko ikastetxeen balio erantsia hobetzeko neurriak, egungo plantillak sendotzeko jarduketak, hezkuntza-figura berrien sorrera, irakasleen egonkortasuna eta ikastetxeen azpiegiturak berritu eta hobetzea. Era berean, Plan horrek ikastetxeen perimetroa handitzea sustatuko du, eta, horretarako, ikastetxe publikoak sortuko dira hirigune berrietan, plaza publikoen kopurua handituko da plangintza-mekanismo eraginkorrenen bidez —batez ere hiri-eremu trinkoenetan—, eta eskola publiko batean plaza nahi duten familia guztiek plaza hori lortzen dutela ziurtatuko da.
- ISEI-IVEIren Urteko Planaren barruan, ekitatea eta inklusioa behatzeko lan-ildoak gehituko dugu. Lan-ildo horrek lurralde bakoitzaren egoerari buruzko datuak bilduko ditu, emaitzei, ekitateari, segregazioari, kontzentrazioari eta baliabideei dagokienez.

- Inklusioa garatzeko eta gainbegiratzeko institutua sortuko dugu. Organo hori Euskal Hezkuntza Sistemari integratuko da, eta metodologia inklusiboak tratatzeaz eta irakasleak arlo horretan prestatzeaz arduratuko da, irakasleek inklusiorako eraldaketetan duten jarrera, aurrerapena eta inplikazioa indartu dadin, betiere hezkuntza-sistemak testuinguru bakoitzean dituen eskakizunen arabera. Institutu horrek hezkuntza, gizarte eta osasunaren arloko zerbitzuekin koordinatuta jardungo du, eta, hala, hezkuntza-inklusiorako erantzun integrala, koherentea eta eraginkorra bermatuko du.
- Gaixotasun bat duten haur eta nerabe guztiei kalitateko hezkuntzarako eskubidea bermatuko diegu tratamenduaren fase guztietan:
 - Hezkuntza inklusiboa, zuzena eta kalitatekoa jasotzeko eskubidea bermatuko da eta tratamenduan dauden adingabe guztiek derrigorrezko hezkuntzatik haratago ikasketekin jarraitu ahal izateko behar dituzten baliabideak eta laguntzak eskainiko dira.
 - Eskolara erregularitasunez bertaratzea eragozten dieten gaixotasunak (minbizia, adibidez) dituzten ikasleen integrazioa errazteko metodologiaren eta balioen arloko prestakuntza egokia bermatuko zaie irakasleei.
 - Eraginpean dauden ikasleen familia-elkarteen eta ikastetxeen arteko lankidetzari indartuko da.
 - Haur eta nerabeen minbiziari buruzko eta haur eta nerabeei eragiten dieten beste gaixotasun batzuei buruzko dibulgazio- eta sentsibilizazio-ekintzak sustatuko dira.
- Gaitasun handiko ikasleei arreta emateko irakasleentzako prestakuntza-plana sortuko dugu, baita gaitasun handietan erreferentzia diren profesionalen plataforma bat ere, Euskadiko ikastetxe guztietan ikasle horiek behar dituzten malgutasun- eta aberastasun-neurriak ezar daitezen.
- Orientazio-taldeak indartuko ditugu ikastetxeetan, erantzun integrala eta pertsonalizatua eman dezaten. Orientatzailearen irudia psikologoekin, kale-hezitzaileekin eta gizarte-langileekin osatuko da, eta, hala, gaur egungo lanak egiteaz gain, ikasleei eta ikastetxeetako langileei osasun mentalaren arloko prestakuntza eta laguntza emango zaie.

- Adituekin eta hezkuntzaren arloko eragileekin gogoeta egitea bultzatuko dugu. Gogoeta-prozesu horretan aztergai izango dira: egungo digitalizazio-prozesua; ikastetxeen eta irakasleen baliabideak, denbora eta ahaleginak; eta horrek ikasleengan, eduki didaktikoetan eta, oro har, irakaskuntzan duen eragina.
- Esparruen araberrako lanari eta irakasgaiak curriculumean duten antolaketari buruzko gogoeta-prozesua sustatuko dugu, adituekin eta hezkuntza-eragileekin. Gogoeta-prozesu horren bidez, ekintza-ildo erkideak bilatu nahi dira, baliabideak optimizatu nahi dira eta hezkuntzaren kalitatea lortzea eta xede horietatik aldentzen diren gaiak zuzentzea helburu duten eta edukietan eta metodologietan oinarritzen diren esperientziak partekatu nahi dira.

ESKOLA INDARTZEA, ESKOLAKO ERAGILEEN ESKUTIK

- Irakasleen lan-baldintzak arautzeko sindikatuarekin lortutako akordioak beteko ditugu, eta negoziatio-mahaiak mantenduko ditugu etengabeko hobekuntzara begira. Irakasleen lanari prestigioa emango dion beste negoziatio- eta akordio-etapa bati eman behar zaio bidea.
- Irakasleek eta hezkuntzako gainerako profesionalek funtzio publikoan sartzeko bete beharreko baldintzen arloan sindikatuarekin adostutako araudia beteko dugu, eta beti hartuko dira kontuan sarbide-probak, esperientzia eta merezimendu profesionalak eta akademikoak.
- Ikastetxeetako plantillei egonkortasuna emango diegu eta, lan-politsetan, bitarteko langileek duten esperientzia hartuko dugu aintzat. Irakasleen lan-baldintzak hobetuko ditugu, eta bitarteko plantillaren % 8raino murriztuko dugu behin-behinekotasuna.
- Irakasleen Estatutuaren hobekuntza autonomikoa bilatuko dugu, eragile sindikalekin adostuta.
- Bajak eta baimenak ordezkapenekin beteko ditugu lehenengo egunetik bertatik, eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakasleen txandaketa saihesteko eta murrizteko mekanismoak ezarriko ditugu, hain adin goiztiarreko haurrei eskolan eta ikasgelan euskarri segurua eta erreferentzia afektibo egonkorra eskaintze aldera.
- Inplikaturik dauden hezkuntza-sektore guztietarako (irakasleak, hezkuntza-laguntza, sukaldaritza eta garbiketari) lan-baldintzak arautzeko beste hitzarmen bat sustatuko dugu.

- Hasierako eta etengabeko prestakuntza emango diegu maila guztietako irakasleei. Prestakuntza horretan teoria eta praktika uztartuko dira, irakasleek irakaskuntza- eta diziplina-gaitasun ezin hobeia izan dezaten dagokien etapan eta espezialitatean.
- Ikastetxeen eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazio-protokoloak hobetuko ditugu, ikasleen jarraipen egokia egin dadin, haien eskubideak babestu daitezen eta babesik gabeko kasuetan azkarrago eta efizienteago jardun dadin.
- Berritzeguneetako baliabideak hobetuko ditugu eta langile kopurua handitu, ikastetxeen beharrei hobeto erantzun dakien eta haien nahiz hezkuntza-premiak dituzten ikasleen jarraipen hobeia egin dadin.
- Hezkuntza-etapa osoan, eskolako aniztasunari erantzuteko baliabide gehiago jarriko ditugu jatorriko ikasleentzat zein hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat.
- Irakasleen prestakuntza egokia bermatuko dugu honako arlo hauetan: aniztasuna, irisgarritasuna, bazterketa, askotariko arrazoen ondoriozko diskriminazioa, kontsumo arduratsua, ekintzailetza sozial eta solidarioa, finantza etikoak, bidezko merkataritza eta abar.
- 2012az geroztik unibertsitatez kanpoko irakasleen borondatezko erretiroei aplikatu zaizkien murrizketak itzultzeko mekanismoa onartuko dugu.
- 13/2010 Errege Lege Dekretuaren 20. artikulua indarrean sartu baino lehen, Gizarte Segurantzaren erregimenean bildu ziren edo Klase Pasiboen erregimenaz bestelako aurreikuspen-erregimenean bildu ziren Euskadiko irakasle-kidegoetako funtzionarioek, borondatezko erretiroa eskatzean, Klase Pasiboen erregimenean sartu ahal izateko beharrezkoa den mekanismoa onartuko dugu —erregimen horretan bildu diren irakasle-kidegoetako karrerako funtzionarioen baldintza beretan sartuko lirateke, baldin eta horientzat indarrean dauden betekizunak betetzen badituzte—.
- Bizitza osoan zeharreko hezkuntzaren garrantzia nabarmenduko dugu. Helduen Hezkuntzako ikastetxeak indartuko ditugu, eta ikastetxe horien helburuak, funtzioak, hartzaileak eta baliabideak bilduko dituen plan integrala modu parte-hartzailean diseina dadin babestuko dugu.

- Hezkuntza Eraldatzeko Plana garatuko dugu, irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze zabalarekin. Plan horri esker, irakasleen artean dagoen talentua identifikatu eta sustatu ahal izango da, irakasleen kidego osorako trakzio-eragina izan dezan. Testuinguru berri horretan, hausnarketarako eta lankidetzarako kultura profesionala bultzatuko duten zenbait neurri hartu beharko dira, eta beste parametro batzuk diseinatu irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzarako.
- Klaustroan eta hezkuntza-komunitatean sartuko ditugu jantokiko arduradunak eta laguntzaileak, baita ikastetxean bertan aritzen diren sukaldariak ere.

AUTONOMIA ETA PARTE-HARTZEA

- Ikastetxeen eta eskola-barrutien antolaketan eta kudeaketan, hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartze demokratikoa sustatuko dugu. Klaustroek eta eskola kontseiluek, ikastetxeen gobernu-organo diren heinean, erabateko erabakitze-ahalmena izango dute beren eskumeneko gaitetan.
- Eskola Irekien eredua defendatuko dugu hiri, herri, auzo eta ingurune hezitzaileen esparruan. Ikasleek ikastetxearen hezkuntza-dinamikan eta haien hiriaren, herriaren edo auzoaren konfigurazioan parte har dezaten bultzatuko dugu, baita herritarren inplikazioa hezkuntza publikoaren funtzionamenduan eta hobekuntzan. Hiria eta haren ingurunea benetako hezkuntza-baliabide bihurtuko ditugu.
- Hezkuntza Sailak Euskadiko ikastetxeetako ordutegiak arrazionalizatzeko hausnartze- eta gaitze-prozesua irekitzea bultzatuko dugu, eta beti bermatuko dugu ikastetxe bakoitzeko irakasleen eta gurasoen gehiengo kualifikatuaren arteko akordioa, erreferendum lotesle baten bidez. Eredua hori abian jartzeak ez die kalterik egingo ikastetxeek eta Guraso Elkarteek eskaintzen dituzten jantokiko edo eskolaz kanpoko zerbitzuei.
- Ikasleek mugikorrek eta gailu elektronikoak erabiltzeari buruzko gogoeta egingo dugu hezkuntza-komunitate osoko ikastetxeetan.

- Hezkuntza Azpiegituren Planean eskola publikoko jolastokien eraldaketa barne hartuko dugu, honako irizpide hauen arabera: diseinu integratzailea, ez-sexista, ingurune naturalarekin kontaktuan dagoena, ludikoa eta pedagogikoa eta ingurune segurutzat kalifika daitekeena.
- Tokiko ikastetxe publikoetako ikasleen eta herri bakoitzeko udalen arteko Haurren Kontseiluak sustatuko ditugu. Hezitzaile adituen dinamizazioarekin gauzatuko dira adingabeek udal-gobernuari zuzenean proposamenak trukatu, entzun eta aurkezteko espazioak, haurtzaroko politikak diseinatu eta gauzatzera begira.

UNIBERTSITATEA ETA IKERKUNTZA

ELKARREKIN PODEMOSen ikasleak, irakasle eta ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak jarri nahi ditugu unibertsitate- eta zientzia-politiken erdigunean. Horretarako, gure iritziz, unibertsitate- eta ikerkuntza-politika osoa Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publiko bakarraren inguruan egin behar da, UPV/EHUren inguruan. Ez dago maila berean dauden hiru unibertsitateko Euskal Unibertsitate Sistemarik. Euskal herritarren zerbitzura dagoen unibertsitate publiko bat dago, eta interes ekonomiko desberdinak eta pribatiboak dituzten beste bi unibertsitate pribatu eta legítimo.

UPV/EHU eta unibertsitate-politika

- Unibertsitateko ikasketak euskal administrazio publikoari eska dakioken funtsezko eskubidetzat hartuko dira.
- Unibertsitate Sistemari buruzko Lege Organikoak 2030erako finkatzen du aurrekontuaren %1 unibertsitate-hezkuntzarako jartzeko betebeharra. Horren aurrean, 2028an %1era iristeko konpromisoa hartzen dugu, 2032an %2ra iristeko helburuarekin. Aurrekontu hori UPV/EHUri zuzenduko zaio, eta orientazio hauek izango ditu.
 - UPV/EHUren aurrekontua blindatzea gastu arruntetan, inbertsioetan, eta Medikuntza Fakultate berrian.
 - Ardatz juridiko ekonomikoa Bilbon bultzatu, finantzatu eta amaituko den bermatzea, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultate berriaren eraikuntzarekin.

- 2025etik aurrera 1.500.000 €-ko urteko partida finkatzea, azpiegiturak mantentzeko inbertsioetarako. UPV/EHUren azpiegiturak hobetzearen alde egingo dugu, irisgarritasunari, jasangarritasunari, baliabide teknikoei eta baliabide akademikoei dagokienez.
- Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak Euskadin dituen zentro elkartuekin abian den lankidetzaren estutuko dugu, eta unibertsitate publikoan ikasten duten ikasleei kalitatezko irakaskuntza bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta aurrekontua jarriko ditugu. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalarentzat jartzen diren partidak blindatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Garapen jasangarria sustatzen duten ikerketa-eredu alternatiboak sustatu eta finantziatuko ditugu. Funtz publikoekin finantzatutako ikerketa guztien emaitzen izaera publikoa bermatuko dugu.
- Ikerketa-taldeak indartuko ditugu ikerketaren epistemologia feministaren inguruan, ikerketa-talde guztietan zeharka aintzat har dadin.
- Ikerkuntzan eta unibertsitateetarako transferentzian Barne Produktu Gordinaren % 0,49 gaindituko dugu, Europar Batasunak gomendatzen duen % 3ra bidean.
- Euskadin kalitateko ikerketa, garapen eta berrikuntzako proiektuak (I+G+B) bultzatuko ditugu. Horregatik, euskal unibertsitate publikoko irakasleak, ikertzaileak, teknikariak, kudeaketako langileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak behar bezala artatuko dituen guztiontzako unibertsitatearen alde egingo dugu. Ezagutzaren sorkuntza eta transmisioa funtsezko gaia da gizartearen hazkunde ekonomikorako eta garapen politiko eta sozialerako.
- Ikastetxe pribatuek unibertsitate-ikasketak emateko jasotako baimenak berrikusiko ditugu. Legealdi honetan, Eusko Jaurlaritzak onartu dituen zenbait proiektu ez dira lege ezarritako gutxiengoetara iristen, ezta gizartearen onarpenera ere. Akademia pribatu elitista bat EZ da unibertsitate bat.
- Gizartearen zerbitzura, eta ez merkatuaren interesen zerbitzura, dagoen unibertsitate publikoko alternatiba partekatua adosteko eztabaidari ekingo diogu unibertsitate-komunitate osoan, “Bolonia Plana” onartu zenetik ezarri den bezalaxe.

- UPV/EHU euskal unibertsitatearen erreferente gisa sustatuko dugu, eta bere prestakuntza- eta ikerkuntza-potentziala garatzeko eta nazioarteko sailkapenean bikaintasun-maila hobetzeko behar besteko baliabideak eta bitartekoak izango dituela bermatuko dugu. Legebiltzarrean defendatuko dugu UPV/EHUren potentziala gara dadin, egungo atzerriko unibertsitate pribatuen erakarpen-ereduaren aurrean.
- Euskal unibertsitateetako ikertzaileak buru dituzten ikerketa-proiektuen finantzaketa bultzatuko dugu, eta arreta berezia jarriko diogu taldeen nazioartekotzeari, unibertsitatearen eta enpresaren arteko elkarlanari eta kalitateko ikerketa osatzeko beharrezkoak diren giza baliabideen eta baliabide materialen jasagarritasunari. Ikerkuntza-proiektu horiek zuzenduko zaizkie, bikaintasun-taldeei ez ezik, ikerketa estrategikoko ildo berriak zabal ditzaketen ikertzaile gazteei ere.
- Ikerkuntzaren Hastapenerako Euskal Programa diseinatu eta abian jarriko dugu. Programa horrek bokazio zientifikoa piztuko du eta ikasle gazteak karrera zientifikoa has daitezen sustatuko du; hartara, karrerako azken urteetan nabarmendu diren graduiko ikasleei zuzenduko zaie, ikerkuntza-lana ezagutzen eta egiten has daitezen.
- Lankidetzeta-hitzarmenak egingo ditugu bikaintasuneko ikerkuntza-zentroekin. Zentro bakoitzean dauden lan-kontratupeko langileak izango ditugu kontuan, eta parekidetasunari eta genero-berdintasunari buruzko irizpide espezifikoak hartuko ditugu aintzat, ikerkuntza-karreran emakumeen integrazioa areago dadin sustatze aldera. Halaber, programa hori lehendik dauden edo irakaskuntzetan helburu berarekin proposatuko ditugun programekin koordinatuko da.
- Merezimenduan oinarritutako den eta epe luzera lan-munduan aurrera egitea eskaini ahal izango duen ikerkuntza-karrera birdefinitzearen alde lan egingo dugu. Behar-beharrezkotzat jotzen dugu unibertsitaterako eta Ikerkuntzako Erakunde Publikoetarako karrera akademiko bakarra sortzea, kontratazio, ebaluazio eta merezimendu akademikoko prozedurak bateratzearen bidez. Halaber, laborategiko lana eta I+G+Baren kudeaketa barne hartuko dituen karrera profesionala sortuko dugu.
- Behatoki bat sortuko dugu ikerkuntza- eta unibertsitate-erakundearen sarbidean eta kudeaketan gardentasuna bermatu dadin. Horrela, gardentasun gabeziarekin amaituko dugu, batik bat ikerkuntza- edo unibertsitate-erakundeetako hautespen- eta sarbide-prozesuetan. Behatokiak, halaber, erakunde horien informazio estatistikoa eta ekonomikoa eskainiko die herritarrei, eta horien funtzionamenduaren kalitatea ebaluatzeko adierazle sorta ezarriko du.

- Kultura zientifikorako sarbidea bermatuko dugu, egoera pertsonala, ekonomikoa edo autonomia funtzionala edozein izanik ere. Ziurtatuko dugu ikerkuntza-zentroek, museoek, azokek eta bestelako ekitaldi zientifiko guztiek dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako sarbide-planak izango dituztela, eta ikerkuntza-zentro eta unibertsitate guztietan ateak zabaltzeko egunak sustatuko ditugu edozein adinetako biztanleentzat. Gainera ziurtatuko dugu, hedabide publikoek eduki zehatzak eta egokiak eskaintzen dituztela, horrela gizartearen eta komunitate zientifikoaren arteko lotura sendoa sortuko baita. Gainera, ikusleen adin-taldeentzat egokiak diren dibulgazio- eta eztabaida-gune zientifikoak sortuko ditugu.
- Lehentasunezkoztat joko dugu zientzia- eta berrikuntza-politika, eta, horrenbestez, Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna bultzatuko dugu, agente eta gizarte-eragile guztien arteko akordio handia bilatuz, betiere erantzukizunak bere gain har daitezen eta etorkizunean hobekuntzak modu koordinatuan eta adostuan proposa daitezen, aldaketa politikoez aparte. Itun hori inplementatzeak berarekin ekarriko du Zientziaren eta Berrikuntzaren Mahaia sortzea. Epe laburreko onurak lortu ordez langileak kontratatzeko konpromisoa lortu nahi da enpresekin; jarduera zientifikoak garatzeko behar den kreditua errazteko konpromisoa lortu nahi da finantza-agenteekin; eta ezagutzaren transferentzia errazteko konpromisoa lortu nahi da teknologiaren eta ikerkuntzaren arloko eragileekin. Itun horren aginduz, finantzaketa publikoko proiektuek ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen jasagarritasunari buruzko azterketa barne hartu beharko dute, betiere Global Reporting Initiative ekimenaren irizpideen eta erantzukizun sozial korporatiboaren klausulen arabera.
- Online irakaskuntza sustatzea ere ardatz estrategikoa izango da. Unibertsitate publikoak zeregin aktiboa bete beharko du irakasleen online prestakuntzan eta kalitateko edukien sorreran. Horrez gain, online ikaskuntzak alde on garrantzitsuak ditu goi-mailako ikasketak euskaraz ikas daitezen, soluzioak ematen baititu hizkuntza minorizatuaren edo sakabanatze geografikoaren arazoei aurre egiteko, Universitat Oberta de Catalunya unibertsitatearen esperientziak erakutsi duenez. Eredu hori ustiatzen duen unibertsitate publiko baten bideragarritasuna aztertuko dugu, edo UPV/EHUren barruan eredu propio bat sortzearen bideragarritasuna (irudi berrien sorrera minimizatuz).
- Kanpora joan den talentu zientifikoa itzul dadin bultzatuko dugu. Horretarako, behar-beharrezkotzat jotzen dugu: balio erantsi handiko sektoreetan enplegua sortzeko politikak abian jartzea; kanpora joandako zientzialariei eta atzerriko ikertzaileei ikerkuntza-proiektuetan lan-eskaintzak egitea; mugikortasuna eta nazioartekotzea sustatzea; transferentzia

teknologikoan eta gizarte-berrikuntzan oinarritutako enpresei dirulaguntzak ematea; eta kanpora joandako ikertzaileei lan-eskaintzak egingo dizkieten enpresak, proiektu zientifiko eta teknologikoak eta teknologia-transferentziako proiektuak sortzeko laguntzak deitzea.

IKASLEEN ESKUBIDEAK

- Lau urteko epean euskal unibertsitate publikoa doakoa izatea aldarrikatzen dugu (Europar Batasuneko beste estatu batzuetan ohikoa denez). Horrela, unibertsitate-ikasketak egiteko oztopo ekonomikoak eta gizarte-klaseko oztopoak desagerraraz daitezten lortu nahi dugu. Ildo horretatik, unibertsitate-tasak guztiek ordaintzeko modukoak izan beharko dute, eta horiek arian-arian murriztuko dira, erabat desagertu arte. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren bekak (garraioa, etxebizitza, eta abar) zabaldu beharko dira, inor ez dadin arrazoi sozioekonomikoen ondorioz kanpoan geratu.
- UPV/EHUko ikasle guztientzako doako garraio publikorako planak, maiztasun handiagoa eskainiko dutenak, diseinatuko ditugu lurralde bakoitzean.
- Errektoretza-taldeekin elkarlanean, UPV/EHUko Estatutuen Erreforma bultzatuko dugu, ikasleek eta horien ordezkariak kudeaketa akademikoan pisu handiagoa izan dezaten.
- Polizia-indarrak unibertsitateko egoitzetara sartzea debekatuko dugu, ezinbesteko arrazoiengatik ez bada. Unibertsitate publikoa pentsamendu kritikoaren, mobilizazioen eta protesten ernamuina eta egoitza izan da, eta aurrerantzean ere hala izan behar du. Ikasleen edozein protestaren edo mobilizazioaren errepresio bortitza zuzenbide-estatuaren eta printzipio demokratikoen aurkakoa da.
- Baliabide ekonomiko gehiago jarriko ditugu ikasketetarako, eta, hartara, Eusko Jaurlaritzak gradu, master eta doktoregoko ikasleei ematen dizkien bekak doituko ditugu. Era berean, irakasle eta ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak gaur egungo parametroei begira prestatzeko baliabideak jarriko ditugu. Bestalde, master-ikastaroetako matrikularen prezioa murrizteko eta graduako ikasketekin parekatzeko plana ezarriko dugu.
- 4 urteko epean, UPV/EHUKO lankidetzarekin, ikasgai bakoitzaren eskuliburu bat argitaratu dugu, gutxienez, unibertsitateak ematen duen diziplina bakoitzean.

UPV/EHUKO LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA BALDINTZAK

- Doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko ikertzaileen eta irakasle eta ikertzaileen soldata-igoera bermatuko dugu. Ildo horretan, ikertzaile eta irakasleen soldatak eta teknikarien, kudeaketako-langileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen soldatak parekatuko dira, betiere mailaz mailako soldatekin. A29, A28 eta A27 irakasleen kategoria desberdinetarako.
- UPV/EHUri egiten zaion ohiko ekarpena handituko dugu, eta unibertsitateak bermatu beharko du:
 - UPV/EHUn zabor-kontratuak legez debekatzea. Irakasle-kontratuek ezin izango dituzte ikerketako, klaseen prestaketako eta kudeaketako funtzioak deskontatu. Ez dago lan horiek egitea eskatzen ez duen lanposturik, ezta ordezkapenetan ere.
 - Nahi gabeko partzialtasunari amaiera ematea.
 - irakasleen karreran prekarietateari amaiera ematea.
 - irakasle eta ikertzaileen lan-baldintzak betetzea.
 - Langile teknikoak, kudeaketakoak eta administrazio eta zerbitzuetakoak gehitzea, ratio onargarrietara hurbildu daitezen. Langile horiek gehiegizko karga dute, eta behar-beharrezkoa da lanpostu horien zerrenda handitzea, egungo langileak eta irakasle eta ikertzaileak administrazio- eta kudeaketa-lanez libera daitezen, dagozkien funtzio espezifikoak betetzea galarazten baitiete.
 - Online prestakuntza gehitzea UPV/EHUtik bertatik.
- Eusko Jaurlaritzatik eskatuko diogu UPV/EHUri zenbait epai judizial bete daitezen eta irakasle guztientzako osagarrien, seiurtekoen eta bosturtekoen deialdiak berehala abian jar daitezen, bai bitarteko langileentzat, bai lan-kontratuko langileentzat, bai lanaldi partzialekoentzat.
- UPV/EHUKo langileen euskalduntzea sustatuko dugu, eta euskaldun ez diren irakasleak eta ikertzaileak liberatuko ditugu euskara doan ikas dezaten, ezagutzan eta erabileran sakontzeko (etengabeko prestakuntza), beste hezkuntza-maila batzuetako gainerako irakasleekin gertatzen den bezala.

- Gure hizkuntza minorizatua doan ikasteko laguntzak areagotzeari esker, teknikariek, kudeaketako-langileek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek arian-arian euskara-maila handiagoa izango dute. Lanpostuen hizkuntza-eskakizuna modu indibidualean aztertuko da, eta hizkuntza-eskubideak, kontratatutako langileen lan-egonkortasuna, lanpostu bakoitzean bete beharreko funtzioak eta enplegu publikora baldintza berdinetan sartzea bermatuko dira.
- Hirueletasunerantz aurrera egingo dugu, eta unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen euskalduntzea bultzatuko dugu. Horrela, gradu gehiago eskaini ahal izango dira euskaraz eta gaztelaniaz eta, halaber, ingelesezko eta frantsesezko eskaintza handituko da, nazioarteko truke-programetako ikasleak erakartze aldera.
- Genero-desberdintasuna zuzentzeko neurriak planteatuko ditugu. Graduen aukeraketari zein ikerketari erreparatuta, emakumeak gutxiengoa dira arlo teknologikoetan, osasun-eta zainketa-arloaren alde egiten baitute. Hori dela eta, berdintasuna bultzatuko dugu diskriminazio positiboko neurrien bidez, batez ere langileen % 50 gutxienez emakumeak ez diren sailetan.
- Ikertzaile seniorren alde egingo dugu, eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko doktoratu ondoko deialdi guztiak handituko ditugu. Bestalde, ikertzaileen kontratazio mugagabea eta ebaluagarria sustatuko dugu, eta Ikerketa Erakunde Publikoetatik haratago zabalduko dugu zentro hartzaileen zerrenda, unibertsitateak eta bikaintasuneko beste erakunde publiko batzuk sartuz. Inkorporazio horien ebaluazio-eredua definitu eta ezarriko dugu, eta haien ikerketen hedapena eta inpaktua hobetuko ditugu. Azkenik, ikerketa-taldeak nazioartekotzea sustatuko dugu.
- UPV/EHUko funtsezko zerbitzuen, hala nola garbiketaren, pribatizazioa lehengoratu dugu. Garbiketa-funtzio hori betetzen duten emakumeen lana funtsezkoa da unibertsitateko bizitza gara dadin. Zerbitzua publikatzeko prozesua egin, eta langileen subrogazioa bermatuko da, betiere ordezkartza sindikalarekin egingo den elkarrizketa-prozesu baten bidez eta egungo lan-baldintza prekarioak hobetu eta egonkortzearen bidez.
- Ikerketa-karreraren diseinuarekin lotzen den soldata-eskala berrikusiko dugu, etapa bakoitzeko arduretara eta Europako batezbestekora egoki dadin, eta egungo genero-desberdintasuna arintzeko neurriak hartuko ditugu, arian-arian handiagoa baita ikerketa-karreraren etapa guztietan, besteak beste.

LANBIDE HEZIKETA ETA BIZITZA OSOAN ZEHARREKO IRAKASKUNTZA

- Lanbide Heziketaren legea aldatuko dugu, eta, aldaketa horren bidez, Lanbide Heziketa publikoa hezkuntza-sistemaren ardatza dela bermatuko dugu eta itunpeko sare pribatuaren hedapena geldiarazi.
- Lanbide Heziketako ikastetxe integratu guztietan hezkuntza-orientazioko profila duen pertsona bat egongo da, lanbide-informazio eta -orientazioko zerbitzurako. Ikastetxeak txikiak direnean, zenbait ikastetxeren artean partekatu ahal izango dute pertsona hori, eta, ikastetxeak 500 ikasle edo gehiago dituenean, pertsona bat baino gehiago egongo da.
- Behar duten ikasle guztiei hezkuntza-laguntzako espezialista eskainiko diegu, haien adina edozein izanik ere.
- Garraiorako laguntzak diseinatuko ditugu, adin mugarik gabe, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat.
- Arreta berezia eskainiko diegu osasun mentaleko arazoak dituzten ikasleei.
- Aniztasunari arreta emateko plana diseinatuko dugu.
- Ikasleen eskubideak babestuko ditugu Lanbide Heziketa Dualaren garapenean, eta haien lan-baldintzak kontrolatuko ditugu. Aldi berean, ikasleen ondorengo lan-jarraitutasuna sustatuko dugu.
- Arau-esparru koherente baten bidez bermatuko dugu Lanbide Heziketa Duala ez dadila bihurtu eskulan merkeko makina. Egungo desarautzea lehengoratuko dugu, eta Lanbide Heziketa Dualean gazteak esplota ditzaten saihestuko dugu, benetako prestakuntzan eta lan-munduratzeari zinez laguntzen duela ziurtatze aldera.
- Lanbide Heziketaren kudeaketa demokratikoa bermatuko dugu, gizarte-eragileen parte-hartze loteslearen bidez.
- Lanbide Heziketaren finantzaketa handituko dugu. Administrazioen eta beharrezko baliabideen arteko koordinazio handiagoaren alde egingo dugu, gaur egungo inbertsioa ez baita behar bestekoa.

- Lanbide Heziketaren eta gizarte-sektoreen arteko elkarlana areagotuko dugu, eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan sortzen den berrikuntza gizarte-xedeetarako eta ekonomia-garapenerako aplikatzen dela bermatuko dugu.
- Helduen Hezkuntzako (HHE) eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakaskuntza indartuko dugu.
- Lehen sektorearekin eta agroekologiarekin lotzen diren Lanbide Heziketako graduak sustatuko ditugu enplegu-nitxo bat dagoen eta belaunaldi-erreleboa behar den eremuetan.
- Zainketa-sektorearekin lotzen diren lanbide-kategoria berriak sustatuko ditugu Lanbide Heziketan, eremu geografiko guztietan ikasketa horiek egiteko aukera egon dadin.
- Lantegi-eskolak eta ikas-ekinezko prestakuntzako ikastegiak sustatuko ditugu, gainerako ereduen osagarri.
- Jarduera fisikoa eta kirola Oinarrizko Lanbide Heziketan barne hartuko ditugu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bidez jarraitzen duten nerabeen ikaskuntza berak eskuratzeko eskubide gisa.

2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

Gure iritziz, osasuna politika publiko guztien (enplegua, etxebizitza, elikadura, azpiegiturak, hezkuntza, justizia, haurtzaroa, eta abar) zeharkako eskubidea eta gaia da. Osasuna eskubidetzat hartzen duen eta osasungintza osasunean laguntzen duen faktoretzat jotzen duen ikuspegiak lotura estua du lortu nahi dugun finantzaketa-ereduarekin: finantzaketa publikoa, zerga progresiboetatik datozen ordainketa publikoak lehenetsiko dituen eta zerbitzu horiek baliatzen dituzten pertsonen poltsikotik datozen ordainketa pribatuak minimizatzen dituen —ordainketa bikoitzarekin zergapetzen ditu—.

ELKARREKIN PODEMOSen iritziz, “osasuna babesteko eskubidearen” ideiatik “osasunerako eskubidearen” ideiara pasa behar dugu, eta, horrela, azken helburua biztanleen osasuna areagotzea izango duen osasun-sistema publikoa eraikitzeko bidean aurrera egin behar dugu, eta ez soilik gaixotasunari aurre egiteko arretan. Osasunaren privatizazioaren aurka gaude, eta kalitateko osasun-sistema publiko, zeharkako, integral eta solidarioa defendatzen dugu. Osasuna eskubide bat da eta ez salgai bat.

OSAKIDETZA

- Aurrekontuetan osasun publikoa blindatuko dugu eta osasunaren arloko inbertsioa handitu, barne-produktu gordinaren % 7ra iritsi arte, Europar Batasuneko herrialderik aurreratuenen ildotik. Osasunaren arloko inbertsio-maila handituko dugu, eta, hurrengo legealdian zehar, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren finantzaketa gutxienez Euskadiko barne-produktu gordinaren % 7raino handituko dugu, eta barne-produktu gordinaren % 1 Lehen Mailako Arretarako jarriko dugu.
- Azken urteotan privatizatutako osasun-zerbitzuak desprivatizatzea sustatuko dugu.
- Zerbitzu publikoaren kalitatearekin eta irisgarritasunarekin dugun konpromisoa berrituko dugu, eta Euskadin bizi diren pertsona guztiak eta atzerrira irten direnak barne hartuko dituen osasun-estaldura unibertsala defendatuko dugu.
- Euskadin bizi den herritar orori osasun-txartel indibiduala ematea proposatzen dugu.
- Farmaziako produktuetan gure subiranotasuna ziurtatzeko Farmazeutika Publikoa bultzatuko dugu.

- Material medikoen produkzioan jarduten duten enpresetan parte hartzeko produkzio medikoko funtsa sortuko dugu. Horrela, beharrezkoak diren materialak Euskadin bertan produzitzen direla eta alor publikoak zuzkituko dituela ziurtatuko dugu.
- Immigratzaileak baldintza berdinetan artatuko ditugu, eta osasun-zerbitzuetako profesionalei prestakuntza egokia eskainiko diegu kulturarteko gaitasunetan treba daitezen, baita osasunaren arloko ikuskera ideologikoetan eta beste kultura batzuetako osasunaren, zainketen, gorputz-tratamenduaren eta intimitatearen arloko ikuskera ideologikoetan treba daitezen ere, ikuspegi sozioantropologikotik.
- Estaldura sanitario unibertsaletik osasunaren arloko estaldura unibertsalerako bidea egin nahi dugu, barnean direla ez-ordaintzeen ondoriozko energia-hornikuntzarik ezaren aurkako klausulak, etxebizitzarako eskubidearen garapena, eta abar, alderdi horiek ere eragin handia baitute herritarren osasunaren gainean.
- Osasunaren arloko langileen lan-baldintzak hobetuko ditugu. Plantillak sendotu eta bitartekotasuna murriztuko dugu.
- Egoitzak euskal sistema soziosanitario publikoan barne hartzearen alde egingo dugu. Egoitzetako osasun-arretaren ardura etengabe bere gain hartu behar duen lehen mailako arretari lehentasuna eman behar zaio, langile eta baliabide gehiagorekin.
- Gure espetxeetako osasun-sistema ere hobetuko dugu, presoei berdintasunean emango diegu asistentzia, gainerako biztanleek dituzten asistentzia-programa guztiekin.
- Bazterketa, mendekotasun, desgaitasun eta deserrotze sozialeko egoeretarako bereziki zaurgarriak diren kolektiboek zuzendutako zerbitzuak eta programak/ekintzak diseinatzea eta inplementatzea sustatuko dugu.
- Osakidetzaren zerbitzugintzen artean sartuko dugu aho-hortzetako osasunaren, oftalmologiaren eta entzumen-osasunaren doako estaldura. Lehen mailako arretako zentroetan podologia-zerbitzua gehituko dugu.
- 1.000 biztanleko egongo den errehabilitatzaileen eta fisioterapeuten plantilla handituko dugu, Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen duen bezala, eta arian-arian murriztuko

ditugu errehabilitazio-terapiari hasiera emateko itxaron-egunak. Arnas-fisioterapiako langileak gehituko ditugu espezialitate handiko zerbitzuetan, hala nola zainketa intentsiboko unitateetan, erredura handien unitateetan, bizkortze-unitateetan, eta abar.

- Onkologo, erizain, psikologo eta osasun-arloko gizarte-langileen diziiplina anitzeko taldeak osatuko ditugu Osakidetzan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko unitate onkologiko pediatriko guztiek European eta estatuan definitutako haur eta nerabeetako minbiziaren laguntza-unitateen estandarrak eta gomendioak betetzen dituztela bermatuko dugu. Horretarako, ekintza-plan bat garatu behar da, zuzkidura ekonomikoa eta epeak jasoko dituen, ospitalizazio-eremuetan, eguneko ospitalean eta osasun-taldearentzako espazioetan zerbitzuak eta azpiegiturak hobetzeko beharrezkoak diren lanak egiteko.
- Finantzaketa-politika publiko egonkorrak garatuko ditugu, haurren eta nerabeen minbiziari buruzko ikerketaren epe luzeko jarraitutasuna eta iraunkortasuna bermatzeko.
- Zerbitzuaren kalitateari eustera eta osasun-sistema publikoa indartzera bideratutako aldaketa sustatuko dugu osasun-politikan. Baliabide publikoen kudeaketa efizientea egingo dugu, eta, hartara, zerbitzuak kanpora ateratzean eta pribatizazioan oinarritutako beste eredu batzuei aurre egingo diegu.
 - Zerbitzu pribatizatuak osasun-sistema publikora itzultzeko plana jarriko dugu martxan, eta emakidadunen kontratuen betetze-mailaren, zehapenen eta onuren kontrol zehatza egingo dugu:
 - Gaur egungo itunen auditoria egingo dugu, kostu/eraginkortasun terminoetan eragiten duten gastu erreala gardentasunez argitara eman dadin. Sektore pribatuarekiko itun-politikak berrikusiko dira, eta egungo itunen kalitatea baloratu eta ebaluatuko da. Bereziki aztertuko dira Tolosaldeko Asuncion Klinikarekin egindako itunaren egoera eta Donostiako Ospitale Onkologikoaren egoera. Era berean, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarearen ospitale-esparruko itunaren egoera aztertuko dugu.
- Ospitaleko eta ospitalez kanpoko zerbitzuen kanpora ateratze guztiak berrikusiko ditugu, horien kostua/eraginkortasuna aztertuz eta neurri bakoitzaren egokitasuna aztertuz.

- Sektore pribatuarekin egindako itunak agortuko ditugu eta jarduera horren kudeaketa publikoa berreskuratuko dugu. Erakunde publikoan txertatuko ditugu Osakidetzaz kanpo ateratako zerbitzu estrukturalak, eta langileak lan-kontratu finkoko langile gisa subrogatuko ditugu. Ez dugu osasun-zerbitzu bakar bat ere pribatizatuko.
- Arian-arian sartuko ditugu osasun-zerbitzu publikoetan MUFACE, MUGEJU, ISFAS, Gizarte Segurantzaren enpresa laguntzaileak eta beste sistema zatikatu batzuk.
- Osasun Sistema Nazionala kudeatzeko modu berriak gaitzeari buruzko 15/1997 Errege Dekretua indargabetzea sustatuko dugu. Errege Dekretu horretan, ospitaleetako unitate eta zerbitzu klinikoak modu autonomoan pribatizatzeke, banatzeko, ituntzeko eta abarrerako aukera zehazten da. Osasun publikoak zuzenean kudeaketa publikoa izan dezan nahi dugu.
- Aurrera egingo dugu osasun publikoaren demokratizaziorantz eta osasun-arretarantz, eta osasun-zerbitzuen erdigunean herritarrak jarriko ditugu, haien ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala hobetu dadin eta zainketaren protagonista izan daitezen. Harremanetarako, kontsultarako eta parte hartzeko teknologia berriak garatuko ditugu.
- Herritarrek osasun-zentroetan zuzenean parte har dezaten sustatuko dugu, betiere herritarrek osasun-zentroetan parte hartzeko lege berri baten bidez, eta profesionalak osasun-sistemako erakunde guztietan parte hartzearen bidez. Herritarrek, gizarte-eragileak eta profesionalak Erakunde Sanitario Integratuetan (ESI) parte hartzea bultzatuko dugu.
- Gardentasun Legea bete dadin eskatuko dugu. Osasunaren arloko gardentasuna aplikatu beharko da, bai azpiegiturei, prozesu-adierazleei eta osasun-eremuei dagokienez, bai erabakiak hartzeko politiken eta prozeduren argitalpenari dagokienez. Osakidetzari zerbitzuak egiten dizkieten enpresen kontratu-harreman guztiak publiko egingo ditugu, eta zuzendaritza-karguen soldatak eta kontraprestazioak argitara emango ditugu. Itunen erregistro publikoa ere egingo dugu.
- Osakidetzaren zentro guztietan “gobernantza onerako” prozesuak ezarriko ditugu. Prozesu guztietan (kontsultak, IQ eta prozedura diagnostikoak) itxaron-zerrenden kudeaketa aztertuko dugu, eta gardentasun-irizpideak ezarriko ditugu itxaron-zerrenda horiek kudeatzeko prozesuetan.

- Osakidetzako enplegu publikorako eskaintzen eredua alda dadin sustatuko dugu, enplegu publikorako eskaintzen prozesuetan gardentasuna eta demokrazia ziurta dadin eta plazak azkarrago adjudika daitezzen. Plantillaren osotasunaren prekarizazioarekin amaituko dugu.
- Sistema publikoa blindatuko dugu, eta sektore pribatuarekin bateraezintasunak ezarriko ditugu, gutxienez, kontratu berri guztietan eta osasun-zentro publiko guztietako erantzukizun-karguetan.
- Ordezkapenen eta erreformazuen kudeaketan adostasuna sustatuko dugu gizarte-eragileekin eta profesionalekin, betiere ezagutzen diren beharren arabera.
- Funtzionamendurako Kode Etikoa eta Demokratikoa garatuko dugu Osasun Sailaren eta haren mendeko zentro publiko guztien jardunetan. Kode hori nahitaez bete eta aplikatu beharko dute gobernu-erakunde eta -organo guztiek, bertako profesionalek eta kontratatzen diren enpresa eta profesionalek.
- Osasun publikoan “ate birakariak” desagerraraziko ditugu eta tinko borrokatuko dugu korrupzioaren aurka.
- Pazienteen autonomia sustatzen duten antolaketa-egiturak indartuko ditugu: debekatuko dugu farmazia-laborategietako eta teknologia medikoko multinazionalen ordezkariek lanorduetan sartzea eta marketen-ekintzak egitea osasun-zentroetan, anbulatorioetan eta ospitaleetan; industriak babestutako saioak, hitzaldiak edo lantegiak ezabatuko ditugu; eta interes-gatazkaren nahitaezko aitorpena ezarriko dugu osasun-zentroetan prestakuntza egiten duten profesionalen artean edo osasun-sare publikoan erabiltzen diren materialen edo sendagaien aukeraketa haien esku duten profesionalen artean.
- “Lehen aukerako” gida farmakologikoa egingo dugu, eta haren erabilera sustatuko dugu preskribatzen duten profesionalen artean; horrela, tratamendu farmakologikoak homogeneizatuko ditugu, ebidentzia klinikoan eta botiken zentzuzko erabileran oinarrituta.
- Zahartze aktiboko politikak eta programak ezarriko ditugu.
- Kronikotasunera bideratutako egungo osasun-eredua aldatzea sustatuko dugu, egungo akutuentzako arreta-ereduak ez baitu kronikotasunaren fenomenoaren ondoriozko erronkak bere gain hartzeko aukera ematen. Hori dela eta, proposatzen dugu:

- Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteak identifikatzea eta estratifikatzea, protokolo espezifikoek definituta.
 - Kasuen kudeatzailearen irudia indartzea, erizaintzako zeregina nabarmen bultzatzearekin.
 - Urrutiko jarraipen- eta monitorizazio-sistemak garatzea.
 - Gaixotasunaren tratamenduan eta jarraipenean pazientearen autonomia eta inplikazio handiagoa sustatzea.
 - Osasun-sistemeekin komunikatzeko bideak ugaritzea, eta herritarren eta pazienteen eskura zenbait komunikazio-bide jartzea, osasun-zerbitzuen irisgarritasuna eta unibertsaltasuna hobetuz.
 - Ospitale-asistentzia eta egonaldi ertain eta luzeko asistentzia berrantolatzea. Horrek berarekin dakar zentro mota bakoitzari pazienteak behar bezala esleitu beharra, haien premien arabera.
 - Asistentzia-babesa etxean ematea arazo kronikoak dituzten pertsonei, zainketa-premia handiak dituztenei eta kasu espezifikoek. Kasu horietan ezinbestekoa da erakunde publikoek zainketa mota hori babestea.
 - Eskura dauden oheen kopurua handitzea, batez ere publikoa, zainketa-zerbitzu ertainetan edo azpiakutuetan edo egonaldi ertainekoetan, eta osasun-eskualdeetan ospitale monografikoak eta/edo mistoak proposatzea, akutuen oheekin batera.
-
- Hiru lurraldeetarako Zainketa Aringarriko Plana garatuko dugu.
 - Heriotza Duinaren Behatoki bat ezarriko dugu erkidego mailan. Behatoki horri esker, bizitzaren amaierarekin lotutako eskubideen errespetua eta betetze-maila ebaluatu eta monitorizatu ahal izango da euskal eremu osoan.

- BIOEFF Osakidetzaren osasun-berrikuntzako eta -ikerketako unitateko plaza guztiak egonkortuko ditugu.
- Premia handiena duten eskualdeetan osasuna sendotzen duten ospitaleen irekiera ebaluatu eta bultzatuko dugu. Euskadiko eskualde guztiek izan behar dute ospitale publikoa.

LEHEN MAILAKO ARRETA, OSASUN-SISTEMAREN ARDATZ GISA

- Lehen Mailako Arreta lehengoratu behar dugu. Horretarako, Lehen Mailako Arreta (familia-medikuak eta pediatriak) indartuko dugu, lanpostu gehiago sortzearen eta egungo arreta-ratioak murriztearen bidetik, baita gaixotasunen ondoriozko bajetan edo oporretan ordezkapenak bermatzearen bidetik ere.
- Lehen Mailako Arreta sustatuko dugu osasun-sistemaren ardatz gisa, eta ekipo eta langile horiei kudeaketa-autonomia handiagoa eta erabaki-gaitasun handiagoa emango diegu, herritarren osasun-arazoen % 80 ebatz baitezakete.
- Behar beste finantzatuko dugu Lehen Mailako Arreta —langile eta baliabideekin—, eta herritarren premiei aurre egingo dieten diziplina anitzeko taldeak ahalbidetuko ditugu.
- Nabarmen handituko dugu Lehen Mailako Arretako aurrekontua, osasun-aurrekontuaren % 25 inguru izan beharko luke eta.
- Lehen Mailako Arretako giza baliabideak handituko ditugu, eta murrizketen aurreko plantillak berreskuratu. Profesional bakoitzeko biztanle-ratioetan gehieneko mugak ezarriko ditugu, jakina biztanleen profila kontuan hartuta (adina, osasuna eta profil sozioekonomikoa).
- Profilak eta funtzioak berriro definituko ditugu, eta osasun-langileak zeregin administratiboetatik liberatuko ditugu eta pazienteak artatzeko behar den denbora bermatu.
- Lehen Mailako Arreta, berez, baliabide diagnostikoetan sar dadin erraztuko dugu, arreta espezializatuarekin protokoloak eta koordinazioa parteka ditzan.

- Gehienez ere 48 orduko itxaronaldia ezarriko dugu, eta itxaron ezin duten osasun-arazoak dituztenak egunean bertan artatzea ziurtatuko dugu. Ordutegia goizera eta arratsaldera luzatu ahal izango da, hala ezarrita ez dagoen tokietan.
- Osasun-arazoei batera helduko diegu Lehen Mailako Arretaren, arreta espezializatuaren eta arreta soziosanitarioaren artean:
 - Koordinazio- eta komunikazio-bide arinak ezarriko ditugu.
 - Baterako protokoloak ezarriko ditugu ohikoenak diren osasun-arazoetarako, baita espezialisten arteko komunikazioa errazteko protokoloak ere.
 - Osasun-zentroen eta ospitaleen arteko jardueren eta lan-prozesuen koordinazioa hobetuko dugu, eta horretarako, bikoiztasunak saihestuko ditugu, sistemaren efizientzia hobetuko dugu eta zenbait zentrotako profesionalen elkarren arteko ezagutzako eta konfiantzako harremanak handituko ditugu.
 - Itxaronaldi egokiak ezarriko ditugu. Osasun-arretan gehieneko atzeratze-mugak jartzea proposatzen dugu: 48 ordu lehen mailako arretan, 15 egun espezialistako kontsultetan eta itxaron-zerrenda kirurgikoan, betiere patologien larritasunaren arabera. Horretarako, beharrezkoak diren baliabide publikoak bideratu beharko dira. Ahal den heinean saihestuko da diru publikoa medikuntza pribatura ateratzea, osasun-sistema publiko efizienteagoan inberti dadin.
- Lehen Mailako Arretako giza baliabideen premien azterketa egingo dugu, eta legealdiaren erdialdean enplegu publikorako eskaintza espezifikoak egingo dugu, zerbitzuaren plaza estrukturalen % 80 gutxienez estatutupeko langileekin bete daitezela.

SEXU- ETA UGALKETA-OSASUNA

- Ikuspegi feminista duen osasun-sistemaren alde egingo dugu, eta sexu- eta ugalketa-eskubideak osasun-sisteman sartuko ditugu.
- Indarkeria matxista atzemateko unitate espezifikoak sortuko ditugu. Osasun-sistemaren berezko indarkeria instituzionalari aurre egingo diote, hala nola indarkeria obstetrikoki eta beste batzuei.

- Programei (baheketak, aldizkako berrikuspenak, eta abar) eta haien ebidentzia zientifikoei buruzko informazio-eskaintza hobetuko dugu. Hartzaileen berri eta horiek eskuratzeko moduaren berri emango dugu, baita antisorgailuen eskuragarritasun efektiboaren berri ere.
- Arreta handiagoa jarriko diegu hezkuntzari eta prebentzioari, ikuspegi fisiko, psikologiko eta sozialarekin. Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko kontsultetan arreta handiagoz tratatu beharko da genero-indarkeriaren prebentzioa, kontsulta horiek konfiantzako eta segurtasuneko espazio pribilegiatua izan beharko dute eta.
- Emakume nerabe eta gazteentzako programa bereziak abian jartzea sustatuko dugu, emakume horiek, batik bat, pairatzen baitituzte sexu-harremanen ondoriozko desberdintasunak: preserbatiboa erabil dadin negoziatzeko ezintasuna, xantaiak, mendekotasuna edo zalantza adostasuna.
- Abortatzeko eskubidea arautzen duten legeak osasun-sistema nazionalan betetzen direla bermatuko dugu. Halaber, sexu- eta ugalketa-eskubideekin lotzen diren unitateak eta zerbitzuak sustatuko ditugu.
- Genitalen mutilazioaren eta genero-indarkeriaren protokoloak betetzen direla bermatuko dugu, baita behar bezala funtzionatzen dutela ere, indarkeria-egoerak atzeman daitezen eta biktimak babes daitezen.
- Sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketari buruzko protokoloa sortuko dugu.
- Arreta berezia jarriko diogu osasun-langileen prestakuntzari, gai izan daitezen protokolo horien berri emateko eta horiek abian jartzeko, betiere programa horietan arreta jasotzen duten pertsonak (bereziki emakume immigratzaileak eta genero-indarkeriaren biktimak) gizarte-aurreiritzi handien mende ere dauden heinean.

OSASUN MENTALA

- Osasun Mentaleko arretaren zeregina sendotuko dugu, Osasun Mentalari buruzko lege espezifiko baten bidez. Osasun Mentaleko Sareak eskaintzen duen asistentzia-maila optimizatuko dugu, eta sarearen baliabideak lehen mailako arretako baliabideekin

koordinatuko ditugu, batik bat nahasmendu mental arrunten edo ez hain larrien jarraipenean. Nahasmendu mental larriko kasuetarako maila guztietako asistentzia-jarraitutasuna lortzearen alde egingo dugu. Horretarako:

- 100.000 biztanleko gutxienez 18 psikiatra, 20 psikologo kliniko eta osasun mentalean espezializatutako 23 erizain izatea proposatzen dugu.
 - Arreta onaren bidez pazienteen autonomia bultzatuko duen Osasun Publikoko eredu batean integratutako Osasun Mentalaren alde lan egingo dugu. Ideologizatu gabeko irizpide teknikoetan oinarritutako zerbitzuak izango ditu, eta asistentziaren jarraitasuna bermatuko du, eguneroko bizitzatik hurbil dauden tratamenduekin. Hartara, ospitalizazioa gutxituko da.
 - Arretarako bitartekoak eredu komunitarioan berrorientatuko ditugu, eta, horretarako, eremu soziosanitarioa garatuko dugu eta erakundeak, profesionalak eta herritarrak gaixotasunaren eta gaixoen aurrean inplikatu ditugu.
- Osasun mentaleko arazoak diagnostikatu zaizkien pertsonen giza eskubideen garapen efektiboa defendatuko dugu. Pazienteentzako eta haien senideentzako estigmaren aurkako politika guztiak garatuko ditugu. Haien askatasuna, hizkuntza, kultura, etnia, autonomia eta identitatea errespetatuko ditugu ospitaleratze, tratamendu eta errehabilitazio psikosozialeko prozesuetan.
- Osasun mentaleko politika integratuak garatuko ditugu, herritarren benetako premiei erantzungo dietenak honako hauen bidez:
 - Lurralde bakoitzaren gizarte-premien arabera lehentasunak kontuan hartuko dituzten Osasun Mentaleko politiken bidez, behar adinako finantzaketarekin eta beste arlo batzuekin koordinaturik —batik bat gizarte-zerbitzuekin, hezkuntzarekin, enpleguarekin eta etxebizitzarekin—.
 - Osasun mentalaren sustapena, gaixotasun mentalen prebentzioa, paziente eta desgaitu psikikoen gizarteratzea eta osasun mentalaren adierazleak hobetuko dituzten informazio, ikerketa eta ebaluazioko sistemen garapena modu estrategikoan kontuan hartuko dituzten politiken bidez.

- Gaixotasun mental larria duten haur eta nerabeentzako zerbitzuen/programen/ekintzen diseinua eta inplementazioa sustatzearen bidez. Helburua da errehabilitazio programak eskaintzea (psikosoziala, eskola integrazioa, eta abar) haien heltze-prozesua eta gizarteratzea eta eskolaratzea hobetzen laguntze aldera.
- Finantzaketa espezifiko izango duen Osasun Mentaleko Planaren alde borrokatuko dugu. Osasun Mentalari esleitzen zaizkion aurrekontuak urriak dira, agenda politikoan ez baitu lehentasunik. Hori dela eta, proposatzen dugu:
 - Zaurgarriak izan arren, behar beste arreta jasotzen ez duten arloak eta taldeak gehitzea: haurrak, nerabeak, adinekoak, adimen-atzeratasun eta nahasmendu mental larria duten pertsonak, presoak eta baztertutako beste sektore batzuk. Osasun mentalaren gaineko ahanztura kronikoa saihestu nahi da.
 - Jaurlaritzak inbertsio handiagoaren alde egitea, eskari berrien aurrean zerbitzuak behar bezala eta modu egokian gara daitezen, batez ere errehabilitazioan, ikerketa independentean, kalitateko prestakuntzan eta asistentzia-programen ebaluazioan.
 - Gizarte-premietarako egokiak diren osasun mentaleko profesionalak kontratatzea. Osasun mentaleko profesionalik eza eztabaidagai izan da azken urteetan. Profesionalen kopurua herritarren osasun-premien arabera izango da, baita lortu nahi dugun eta lor dezakegun jardunbide profesionalaren arabera ere. Osasun Mentaleko Zerbitzu baten aktibo nagusia dira, garrantzitsua da horien kopurua, motibazioa, prestakuntza eta gaitasuna.
- Administrazio publikoaz independentea den batzorde iraunkorra sortuko dugu, egungo egoera baloratuko duena, etorkizuneko garapenari buruzko aholkuak emango dituen eta erreforma psikiatrikoaren aldaketak ebaluatuko dituen.
- Zerbitzu soziosanitarioen mapa autonomikoa sortuko dugu, gizarteratzeko plan espezifiko izango duena eta Lehen Mailako Arretako eta etxeko ospitalizazioko zerbitzuen bidez bideratutako etxez etxeko laguntza aintzat hartuko duena.
- Osasun mentala koordinatu eta sustatzeko agentzia bat sortuko dugu lurralde historiko bakoitzean edo, gutxienez, Euskadi osoan. Laguntza psikosozialeko sareak indartuko ditugu, eta baliabide gehiago emango dizkiegu familien eta gaixoen elkarteei, betiere estigma desagerrarazteko helburuarekin.

- Erakunde-zainketako eredu integralen barruan jarduteko neurriak garatuko ditugu, osasunaren arloko profesionalen osasun fisikoaren eta mentalaren narriadurak garaiz identifikatzeko (burn-out sindromea) eta hobekuntza-estrategiak abian jartzeko.

DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA GAINERAKO ADIKZIOEI ARRETA EMATEA

Adikzioen eta droga-mendekotasunen arloko politikek giza eskubideen errespetuan oinarritu behar dute eta Zuzenbideko Estatu Sozial eta Demokratikoaren eskubide eta askatasunetan sakondu behar dute. Kontsumoarekin lotzen diren arriskuak eta kalteak murriztea helburu duen drogei eta adikzioei buruzko politika egin behar dugu Euskadin. Gainera, azken urteotan, beste fenomeno batzuk gertatzen ari dira, horiek ere gizarte-bizikidetzan hegemoniko bihurtu diren balio kontsumistek zehaztutakoak. Fenomeno horien ondorioz, adikzioak sortzeko arrisku eta erronka berriak planteatzen ari dira eta gizarte-arazo bihurtzen hasi dira, adikzio horien kontsumoari erreparatuta eta helburu diren herritarren profilari eta kopuruari erreparatuta. Apustu-etxeen ugaritzeak eta sare sozialen bidez oso irigarri izateak aurre egin beharreko beste erronka bat planteatzen digu, eta irtenbide bat eman behar diogu giza eskubideen ikuspegitik eta inplikaturako biztanleria-sektoreen parte-hartzearen ikuspegitik.

- Lurralde bakoitzak mendekotasun-nahasmenduak, substantzia-kontsumo handiegien ondoriozko arazoak eta/edo jokoarekiko adikzioak dituzten biztanleen premiei aurre egiteko behar besteko errehabilitazio-egitura eta -programa terapeutikoak dituen ebaluatuko dugu.
- Toxikomaniak dituzten pertsonak birgaitu eta gizarteratzeko zerbitzuak/programak/ekintzak diseinatzea eta inplementatzea sustatuko dugu, eta jarduteko zenbait aukera eskainiko ditugu, bai bizitegi-erregimenetan, bai komunitate-erregimenetan edo eguneko zentroetan.
- Tratamendu prebentiboak zein tratamendu psikoterapeutikoak, farmakologikoak eta integralak jarriko ditugu abian, barnean direla kaltea murriztera bideratzen direnak eta egungo eskariaren neurrira egokitzen direnak. Adikzioen arloan, ohikoa da kontsumo-patroiak zein substantziak aldatzea; hori dela eta, osasunaren arloko profesionalek etengabeko prestakuntza behar dute, eskaerari baldintzarik onenetan erantzun ahal izateko.
- Droga-mendekotasunen ebidentzian eta diagnostiko dualean oinarritutako programak garatuko ditugu lurralde bakoitzeko Lehen Mailako Arretan eta ESletako Arreta Espezializatuan.

- Lehentasunezko programa eta ekintza espezifikoak jarriko ditugu abian kolektiboentzat eta zenbait substantzia, programa eta ekintzetarako, betiere ebidentzia enpirikoan oinarrituta eta ebaluazioaren mende, programa eta ekintza horien eraginkortasuna eta efizientzia ezagutze aldera.
- Osasuna eta prebentzioa sustatzearen aldeko apustu garbia egingo dugu, sektorearteko zenbait neurri abian jartzearen bidetik. Neurri horiek hezkuntza, haurtzaro, aisialdi, gazteria, familia, eta beste sektore batzuetakoak izango dira eta osasunean eragina duten politika publiko guztiak bateratzea eskatzen dute. Osasuna sustatzeak eta adikzioen prebentzioak zenbait arlotako neurriak hartzea eskatzen du (familia, komunitatea, hezkuntza, lana, justizia, espetxea, hedabideak, arrisku-egoeran dauden adingabeak eta gazteak, kirola eta aisialdia).
- Osasun Mentalaren eta Adikzioen Euskadiko Aholku Batzordea eta haren lan-batzordeak berreskuratuko ditugu, arlo profesionaleko eta sozialeko pertsonek babestu ditzaten Jaurlaritzak arlo horretan egiten dituen proposamen, neurri eta jarduerak.
- Parte hartzeko bide errealak eta eraginkorrak garatuko ditugu, eta, bide horietan, berdintasun- eta errespetu-baldintzetan parte hartu ahal izango dute gizarte zibileko erakundeek eta, batez ere, arlo horretako politiken eraginpean dauden pertsonek. Beren esperientzia eta egoeraren gaineko ezagutza jarriko dute tokian-tokian. Horretarako, Lurralde Historiko guztietan gauzatzen ari diren programak eta ekintzak ebaluatuko ditugu.
- Adikzioen arloko esku-hartzeen alderdi etikoei eta legalei buruzko jardunbide egokien gidak egingo ditugu; bereziki, pazientearen borondatearen aurkakoak badira eta askatasuna murrizten duen edozein neurriren aurrean (nahi gabeko tratamendua eta ospitaleratzea, baimenak, datu klinikoaren konfidentzialtasuna, lekualdaketak, eta abar). Kasu horietan, Bioetika Batzordearen edo sektore anitzeko lantalde espezifikoaren gomendioak hartuko dira aintzat.
- Eraikin publikoetan azukre eta koipe kantitate handia duten produktuak saltzeko debekua bultzatuko dugu.
- Euskadiko Jokoaren Lege berria jarriko dugu abian.
- Jokoaren Lege berriaren funtsezko ardatza izango da ludopatiaren aurkako borroka, bereziki gazteen artean.

- Euskadiko joko-establezimenduak eta apustu-etxeak % 50ean murriztuko ditugu.
- Jokoaren publizitatea mugatuko dugu, aurretik alkoholarekin eta tabakoarekin egin izan den bezalaxe, eta honako publizitate-bide hauek barne hartuko dira: jokoaren kanpo-publizitatea, baldin eta ikastetxeetako, unibertsitateetako eta jokalaria tratatu eta birgaitzeko zentroetako sarbideetatik 500 metroko erradioaren barruan kokatutako euskarrietan; 18 urtetik beherako pertsonen, batik bat, zuzentzen zaizkionak; osasun-zentroetan, gizarte-zentroetan, soziosanitarioetan eta irakaskuntzakoetan; zinemetan eta ikuskizunak egiten diren lokaletan; garraio publikoen barruan, geltokietan eta jendearentzako portu eta aireportuetako lokalen barruan; eta administrazio publikoen egoitzetan.
- Enpresa horiek babesten dituzten ekitaldiei dirulaguntza publikoak ematea debekatuko dugu.
- Ordu-tegi-esparru mugatuagoa ezarriko dugu, jolas- eta apustu-establezimenduak goizeko lehen orduetan eta gaueko azken orduetan itxita egon daitezen; gainera, joko-establezimendu guztietarako eta ostalaritza-establezimenduetan dauden joko-makinietarako irisgarritasunaren gaineko kontrola handituko dugu.
- Joko-establezimenduen arteko gutxieneko distantziak berriro kalkulatuko ditugu, eta 500 metroko muga ezarriko dugu ikastetxeetako, unibertsitateetako eta jokalaria tratatu eta birgaitzeko zentroetako sarbideetik.
- % 10eko erretegia ezarriko dugu Jokoaren gaineko Zergan, eta zenbateko hori jarriko da zorizko jokoarekiko adikzioa prebenitu eta tratatzeko funtsa sor dadin. Funts horren baliabideak jarriko dira joko patologikoaren eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuen prebentzio- eta tratamendu-proiektuetan administrazio publikoek eta elkarte edo erakundeek egiten dituzten gastuak, osorik edo zati batean, finantzatzeko.
- Jokoaren ondorio patologikoez ohartarazteko betebeharrak inplementatuko dugu.
- Makina txanponjaleen ikusgaitasuna murriztu eta galaraziko dugu, ostalaritzako sektorearekin ados jarrita, betiere haiei kalterik ez eragiteko moduan.

3. ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA

Etxebizitzaren arazoa da Euskadin dugun arazo nagusietako bat, eta etxebizitzarako eskubidea bermatuko bada, neurri irmo eta ausartak hartu beharko dira lehenbailehen. Izan ere, eskubide hori merkatu-ondasun gisa kudeatzen ari da, eta pribilegiatu gutxi batzuek ateratzen dute onura, gehiengoaren kontura, bereziki gazteen kontura. Hala, etxebizitza babestuen parkearen eskasia da herrialde gisa aurre egin beharreko erronka handienetako bat; izatez, Euskadi Europako muturrean dago horrelako etxebizitzaren sustapenean. Horrek zuzenean du eragina merkatu libreko alokairuen prezioaren igoeran, merkatuan ez baitu lehiakiderik.

ELKARREKIN PODEMOSen sinetsita gaude Eusko Jaurlaritza izan daitekeela, eta izan behar duela, etxebizitzaren arloko neurri eraginkorrak ezartzeko trazio-administrazioa, bere esku baititu hori gauzatzeko tresnarik egokienak. Gaur egun, azkenik, Estatu osorako Etxebizitza Lege bat dugu. Zaila suertatu da lege hori aurrera ateratzea, eta Kongresuan UNIDAS PODEMOSen ekintzari esker lortu da. Eusko Jaurlaritzak berehala aplikatu beharko du lege hori.

Balio handiko oinarri hori ardatz hartuta, ELKARREKIN PODEMOSek honako neurri hauek aplikatuko ditu hurrengo legealdian, gaia ezin baita gehiago atzeratu:

- Estatuko Etxebizitza Legea aplikatuko dugu Euskadin, beharrezkoak diren termino guztietan.
- Arrazoizko alokairuko etxebizitza publikoen parkea % 25 handituko dugu, eta, horretarako, kalifikazio iraunkorreko etxebizitza berriak sustatuko ditugu, etxebizitza hutsak mobilizatuko ditugu, finantza-erakundeei eta edukitzaile handiei etxebizitzak kostu-prezioan erosiko dizkiegu, eta abar. Horrela, alokairuko etxebizitza babestuen parkea handitzea lortuko dugu eta, gutxienez, herrialdeko etxebizitza guztien % 4 izango da.
- Alokairuari laguntzeko neurriak luzatuko ditugu koronabirusak eragindako kolektibo zaurgarrientzako etxebizitza babestuen parkean, eta merkatu pribatuko alokairurako laguntzak handitu eta zabalduko ditugu.
- Alokairuko erregimeneko higiezin merkatuari buruzko informazioa eta gardentasuna hobetzen lagunduko dugu, prezio eskuragarriagoak hitzartu daitezen Alokairuko Prezioen Erreferentzia Indize baten bidez. Administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek edo Udalek) bere gain har ditzaten sustatuko dugu, etxebizitza eskuragarriak lortzeko haien programetan alokairuak ezartzeko abiapuntu gisa. Zehaztu beharko da zer errentamendu-

kontratu izan daitezkeen kenkari fiskalen edo laguntzen mende. Bestalde, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei espekulaziorik gabeko alokairuak hitzartzeko jardunbide egokien berri eman beharko zaie, eta arlo horretan prestatu beharko dira. Helburua da merkatu pribatuan alokatzeko prezio eskuragarrien eta ez-espekulatiboen inguruan kontzientziaztea eta gehiegizko alokairuen gainean zerga-bideak edo bestelako bideak erabiltzea.

- “Etxegabetze isilen” fenomeno osoa erregistratzeko legea egingo dugu, hau da, kontratua luzatzeko ezarritako datetako bat aprobetxatuz gehiegizko alokairu-igoerak egitea eta jatorrizko alokairua bikoiztu edo hirukoiztea, familia maizterrek ordaintzeko aukerarik izan ez dezaten eta etxebizitza horretatik joan daitezen.
- Estatuko Gobernuarekin batera lan egingo dugu, ebalua dadin ea erabiltzen ez diren edo laster erabiliko ez diren gobernu-eraikinak edo polizia-bizitokiak baliagarriak diren etxebizitza-parke publikoa handitzeko.
- Ahalegin handiagoa egingo dugu Euskadin dauden etxebizitza hutsen parkea Bizigune programaren bidez mobiliza daitezen. Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza hutsen parkea mobilizatuko dugu, eta, horretarako, udalek, beren eskumenen barruan, zuzenean betearaz ditzaketen ekintzak edo gaiak erraztuko ditugu, baita esparru autonomikoan garatzeko alde aurreko arau-xedapena behar duten eta udalen etorkizuneko jarduerak gaitzeko ezinbestekoak diren beste batzuk ere.
- Legealdiko lehen urtean, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren etxebizitza hutsei buruzko alderdiak garatuko ditugu, baita esparru autonomikoan garatzeko alde aurreko arau-xedapena behar duten eta udalen etorkizuneko jarduerak gaitzeko ezinbestekoak diren beste batzuk ere.
- Hutsik dauden etxebizitzaren erregistroa jarriko dugu martxan, alokairu babestuen merkatura eskura ditugun tresna juridiko guztiekin ateratzeko, barnean dela edukitzaile handien nahitaezko desjabetzea.
- Estatuko Etxebizitza Legea aplikatuko dugu Euskadiko eremu tentsionatuetan alokairuen prezioa mugatu dadin.
- Legealdiko lehen urtean, premiaz garatuko dugu etxebizitzarako eskubide subjektiboari buruzko dekretua, eta aurrekontu bidez bermatuko dugu eskubidea aitortu zaien pertsona

guztiei aplikatzen zaiela. Horretarako, etxebizitza-parkea handituko da —eskubidea aitortu zaien pertsona guztiei etxebizitza edo zuzkidura-bizitokia bermatzeko— eta/edo, modu subsidiarioan, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa emango da.

- Titulartasun publikoko alokairu babestuko etxebizitzak eraikitzeke enpresa mistoen sorrera eragingo duten politikak ezarriko ditugu. Horretarako, Bartzelonako eredua inportatuko dugu: udalek lurzorua 75 urtez lagako dute alokairuko etxebizitzaren sustapen pribatuetarako, lehen aipatutako baldintzetan (alokairuko errentaren % 30 baino gutxiago) eta 75 urterako banku-kredituekin eta aldeko fiskalitatearekin.
- Bizitoki-larrialdiaren inguruko orientazio eta arreta integraleko zerbitzu bateratua (Bitartekaritza Bulegoa) sortuko dugu. Zerbitzu horrek informazio prebentiboa eta aholkularitza eskainiko ditu gehiegizko hipoteka-zorpetzeen kasuetan, etxebizitzaren merkatuko abusuen prebentzioan eta ohiko etxebizitza galtzen duten pertsonen laguntzeko kasuetan.
- Banku eta aurrezki-kutxei hipotekak ez ordaintzearen ondorioz egiten diren lehen etxebizitzako etxegabetze guztiak geldiarazteko eskura dauden bitarteko guztiak jarriko ditugu abian, herritar guztien etxebizitzarako eskubidea bermatu bitartean. Etxebizitza aldi baterako desjabetzea aurreikusten dugu, inor ez dadin geratu minutu bakar bat ere lo egiteko sabairik gabe.
- Inbertsio-funtsek aldi baterako kalifikazioko eta sustapen pribatuko etxebizitzak modu masiboan erosi ahal izatea mugatuko dugu, eta etxebizitza horiek ondare kolektibora itzultzea sustatuko dugu, haien funtzio soziala bermatuz.
- Espekulazio-funtsek etxebizitzak erostea debekatuko dugu, eta azken urteetan funts horiek erosi dituzten etxebizitzak parke publikora itzul daitezen eskatuko dugu.
- Eredu tentsionatuetan Turismo Alokairuko Etxebizitzaren figura debekatuko dugu, eta eremu horietan atzeritarrei bigarren etxebizitza erosteko aukera baino ez zaie emango.
- Auzo eta eraikinen birgaitze integralerako eta kolektiborako politikak sustatuko ditugu, irisgarritasun-irizpideekin, energia-efizientziako irizpideekin (kontsumoa eta berotasuna), eta irizpide sozial (errentan oinarritua) eta komunitarioekin (pertsonei bizi-kalitatea hobetzen lagun dezaketen elementu komunak sustatuz).

- Legez debekatuko dugu sustapen publikoko parkeari dagozkion aktiboak saltzea —babes publikoko sustapen pribatuak barne—, eta, hala, irabazi asmoa duten eragile pribatuei sal dakien saihestuko dugu.
- Etxebizitza kolaboratiboen proiektu kolektiboak bultzatuko ditugu, betiere belaunaldien arteko elkartasuna ahalbidetuko duten formulen aldeko eta alokairuaren aldeko apustua eginez eta alokairu publikoko politiketarako jarritako aurrekontu orokorretik kendu gabe. Horrelako proiektuak arautzeko araudi autonomikoa onartu beharko da.
- Administrazio publikoek etxebizitza-erakin osoak saltzeko eragiketetan lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea erabil dezaketela bermatzeko lege-arloan egin beharreko aldaketak sustatuko ditugu, betiere higiezin- eta/edo finantza-espekulazioko funtsek etxebizitza-bloke osoak hartzen ez dituztela bermatzeko Estatuan aplikatzen diren antzeko legeei jarraikiz.

4. KULTURARAKO ESKUBIDEA

Kulturak garrantzi politiko handia du, komunitatea eraikitzeke eta bizikidetzarako, eta hori kontuan hartu behar da Euskadiren eraldaketa soziala bultzatu nahi badugu. Horregatik, ELKARREKIN PODEMOSetik, Euskadirentzako ez hain merkantilizatua eta feministagoa eta hiritarragoa izango den kultura-eredu berri bat proposatzen dugu, kultura bizitzaren erdigunean jarriko duena.

Esparru guztietan praktika kulturalak sustatuko ditugu, alor profesionaletik edo amateurretik, sormena eta esperimentazioa sustatzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko.

- Kultura-arloko profesionalak eskatzen duten bezala, sektoreko mahai bat eskatuko dugu, kultura-eragileekin, kultura-elkarteeekin, bitartekariekin, erakundeekin eta enpresekin, sektorearen beharrei aurre egiteko.
- Euskal herritar guztiek kulturara sarbide unibertsala izango dutela bermatuko dugu, dela publiko gisa, dela kultura-sortzaile gisa. Sarbide hori prestakuntza, sorkuntza, erabilera eta gozamen kulturalerako aukera gisa ulertu behar da, oztopo erreal zein sinboliko guztiak gaindituz eta lurralde osoan banatuta.
- Kultura-eragileen ekosistema zaintzea funtsezko printzipiotzat duen kultura-eredu berri baterantz egingo dugu aurrera, haren sormen-ehunaren aniztasuna, oreka eta jasangarritasuna ziurtatuz, lankidetzara publiko/pribatuko esparru batean, eta Berrikuntzarako eta arte sorkuntzako eredua aldatzeko Euskal Planaren barruan berriro definitu beharreko esparru batean, non Kultura eta Sormen Industriak (KSI) deitutakoak “aukera-lurralde” gisa ulertuko diren.
- Kulturari eta haren eragileei zilegitasun eta errekonozimendu sozial handiagoa emango diegu, komunikabide publikoetatik ikusgaitasun handiagoa eta pedagogia hobea emanez.
- Arte- eta kultura-diziplinak ikastetxeen curriculum-ildoetan sartuko ditugu, artean eta kulturaren hezteko, eta beste diziplina batzuen garrantzi akademiko bera emango diegu.
- Legealdiaren amaierarako egungo kultura-aurrekontua % 10 handitzeko helbururantz aurrera egiteko konpromisoa hartzen dugu. Eta aurrekontuak birbanatzea, kultura-eragile guztietara iritsi ahal izateko.

- Kultura-eskaintza dibertsifikatuko dugu, kultur etxeen sarearen bidez. Herritarren kultur etxeen sare bat bultzatuko dugu, Euskadiko gainerako Administrazio publikoekin lankidetzan, egungo liburutegi-saretik, kultur etxeetatik, gizarte-etxeetatik, gaztelekuetatik eta herritarrentzako berrikuntzarako zentroen gure proposamenetik abiatuta.
- Gazteek kalitatezko aisialdirako eta autokudeaketarako duten eskubidea bultzatuko dugu. Hezkuntza-sistemeekin koordinatuta, plan bat eta zuzkidura espezifiko bat barne hartuko dira, eta komunitate-kultura eta herritarren kogestioa sustatuko dira.
- Kultura deskarbonizatzeko eta kultura-kudeaketa jasangarria garatzeko neurriak sustatuko ditugu. Ildo horretan, jardunbide egoki jasangarrien gidak planteatuko ditugu, baita sektoreko profesionalentzat haiek trukatzeko eta ikasteko espazioak sortzea ere. Horren bidez, pizgarri fiskalak, zigiluak eta ziurtagiriak sustatuko ditugu, edo praktika kultural on horiek sarituko dituen beste edozein neurri.
- Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea profesionalizatuko dugu. Horretarako, liburutegietako teknikarien baldintza profesionalak arautuko dituen Erregelamendua egingo dugu, Eusko Jaurlaritzak berak “Euskadiko Liburutegi Publikoetarako Estandarrak” dokumentuan argitaratutako datuetatik abiatuta. ALDEEren parte-hartzearekin egingo dugu eta Liburutegien Mapan sartuko dugu, aplikatzeko.
- Dokumentu-kudeaketa integralari eta dokumentu-ondareari buruzko 5/2022 Legea garatuko dugu, eta lehentasuna emango diogu Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Kontseilua aktibatzeari, administrazio publikoen eraldaketa digitalaren erronkari aurre egin behar dioten sistemako erakunde guztiei (udalak, unibertsitatea, legebiltzarra eta abar) lagunduko dien erakunde gisa.
- Lanbide-profilen erreferentziazko katalogo bat egingo dugu, sektoreko profesionalei eskatzen zaizkien titulazio eta gaitasunekin. Horrek eskainitako lanpostu bakoitzerako baldintza egokiak ezartzen lagunduko die 5/2022 Legeak eragiten dien administrazio publikoetako oposizioen deitzaileei.
- Liburutegien Euskal Legearen araudia eta Euskadiko Irakurketa Sare Publikoaren Irakurketa Mapa garatuko ditugu, liburutegien gizarte-berrikuntzarako tresna eraldatzaile gisa, eskaintzen dituzten zerbitzuak bermatu eta hobetzeko. Horretarako, Liburutegien Aholku Batzordea, elkarte profesionalak, sindikatuak eta inplikaturako beste eragile batzuk kontuan hartuko dira.

- Kultura alorrean arreta berreskuratuko duen Kultura Sail bat proposatzen dugu, gaur egun bigarren mailako zeregin batera baztertuta baitago. Kultura esparruko berezitasunetara egokitutako organigrama duen saila, eta gainerako sailekin koordinatuta lan egingo duena, bereziki Hezkuntzakoarekin eta Ekonomia Sustapenekoarekin.
- Kulturaren Euskal Kontseilua gizarte zibilarekin, sektoreko ordezkariekin eta beste kultura-eragile batzuekin aktiboki parte hartzeko tresna operatibo bihurtuko dugu. Horien bidez, kultura-politikak diseinatuko dira, eta herritarrek erakundearen kontrola berreskuratuko dute.
- Kulturaren arloko politika publikoetan parte hartuko duen garapen-tresna bat sortuko dugu, lanerako organo, funtzio eta protokolo argi eta jarraituekin.
- Etxepare Euskal Institutuaren funtzionamendua eta bilakaera aztertuko eta ebaluatuko ditugu sortu zenetik, haren eginkizuna betetzen ari den zaintzeko, tresna arin eta eraginkorra baita euskal hizkuntza eta kultura mundu osoan zabaltzeko.
- Berdintasun eta Kultura Sailen arteko koordinazio-unitate bat sortuko dugu, kultura-politiketan genero-ikuspegia bermatzeko.
- Kultura finantzatzeko plan bat jarriko dugu abian, kultura zerbitzu publikotzat har dadin eta hura alor publikoa pribatizatzeko eta zerbitzuak eta esperientziak merkantilizatzeko eremu berritatzat har ez dadin.
- Epe luzean oinarritutako sorkuntza artistikoko politika berri bat garatuko dugu, langileei eta ekipo artistikoei konfiantza emateko; horrek eskala handiko plan bat ekarriko du artisten ezarpenerako eta ibiltaritzarako.
- Arte eta Kulturen Funtsa sortuko dugu, leihatila bakar baten bidez baliabideak eta bitartekoak administratu eta birbanatzeko, kultura-ehuna finantzatu, sustatu, babestu eta garatzeko, eta herritar guztiek kultura-jarduerak garatzeko. Funtse horrek zeregin hauek izango ditu:
 - Gaur egun Sailaren dirulaguntzetara eta kultura-programetara bideratzen diren aurrekontuak taldekatzea.
 - Baliabideak aktiboki bilatzeko moduak planteatzea; besteak beste, % 1,5 kulturala aplikatzea, Mezenasgoaren Legea garatzea eta aplikatzea, eta zerga-pizgarrien plan espezifiko bat egitea aldundiekin koordinatuta.

- Administrazioaren eta gizarte zibilaren arteko mikrofinantzaketarako eta Europako programen bidezko finantzaketarako formula mistoak inplementatzea.
 - Bitartekotza publiko/pribatuko eginkizunak betetzea, eragileei aholkularitza ematea eta proiektu onuradunen jarraipena egitea, eta horiek justifikatzea.
 - Sistema garden eta adostuarekin funtzionatzea kultura-ekosistemako eragileekin; eta hasiera batean Eusko Jaurlaritzaren eskumen-esparrura mugatuta egongo bada ere, lehen unetik lan egingo da epe labur edo ertainean foru-aldundiekin eta udalekin administrazioen arteko izaera hartu ahal izateko.
-
- Kulturaren gaineko BEZa jaistea defendatuko dugu, merkatuaren dinamizazio handiagoa sustatzeko eta kultura-eskaintza merkatzeko, eta modu erreal eta arduratsuan aplikatzeko kultura-ondare materiala eta ez-materiala kontserbatzeko eta aberasteko lanetarako, baita arte-sorkuntza eta kultura-ekintza sustatzeko ere, ingurune hurbilean zuzeneko eragina duten ekimenak lehenetsiz. Araudi hori betetzen dela zainduko dugu, baita Arteen eta Kulturen Funtsetik gastu hori gauzatzeko kultura-irizpidea eta geografia-orekako irizpidea ezartzea ere.
 - Dirulaguntzak, hitzarmenak eta lizitazioak arautzeko sistema birdefinituko dugu, baita Eusko Jaurlaritzaren berezko programen garapena ere, kasu guztietan arau-esparruak eta administrazio-prozedurak gaur egungo ekosistema kulturalaren beharretara eta egungo praktika kulturalen errealitatera egokitzeak. Horietan, elkartasuna eta aniztasuna lehenetsiko ditugu dauden laguntza publikoko sistemetan.
 - Garrantzi berezia duten Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza ildoak eta programak indartuko ditugu (formatuari eta jardunbide egokiei dagokienez beste kultur esparru batzuetara transferitzeko aukerari erreparatuta).
 - Neurri sorta bat jarriko dugu abian kultura-sektoreko baldintza profesionalak arautzeko eta hobetzeko, prekarietatearekin amaitzeko asmoz, eta aitortuko dugu kultura garapen ekonomikoaren sektore eragilea ere badela.
 - Kulturaren Estatutu Profesionala bultzatuko dugu, Eusko Jaurlaritzaren eskumenen mugetatik, kulturaren produkzio-esparruarekin lotutako langileen prekarietateari amaiera emateko. Estatutu horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Aldizkako lanekin, kanpokotasunekin, azpikontratazioekin eta errekonozimendu profesionalik ezarekin lotutako egoerak arautzea.
- Kulturaren eta bertako sektoreen berezitasunetara egokitzea, ordainsariei eta zerbitzu-sariei, salmentari eta erreprodukzioari buruzko ehunekoei eta erretiroaren eta jarduera sortzailearen arteko legezko bateragarritasunari erreparatuta.
- Egungo errealitatearekin bat datozen jarduera ekonomikoko epigrafe berrien sorrera sustatzea.
- Lan-eskubideei dagokienez, kulturako langileen ordezkari-tza kolektibo artikulatua ziurtatuko duten figura sindikalak sustatzea.
- Kontratu publikoen eta estatutuetan presentzia publikoa duten entitateen balorazio-irizpideen artean, baita dirulaguntzen deialdietan ere, kulturaren gizarte-ekonomia sustatzen duten klausula sozialak sartuko ditugu, baita jardunbide egokien kodeak betetzen direla bermatzen dutenak ere, eta tokiko programazioaren kuotak eta/edo gastuaren lurralderatzea bermatuko dituzten neurriak ezartzea aztertuko dugu, zuzenean euskal kulturaren produkzio-ehunean eragina izan dezaten.
- Hitzarmen bat sinatuko dugu Lanbiderekin, kultura-esparrua berariaz aintzat hartzeko enpleguaren, enplegurako prestakuntzaren eta laneratzearen arloan dituen eskumenen barruan, baita enplegu-planetan ere; horretarako, gaitasun profesionalak hobetzeko eta espezializatzeko planak nahiz kultura-erakundeen kudeaketa indartzeko kontratazio-planak hartuko dira kontuan.
- Erakundeek eta sektoreko eragileek elkarrekin landutako Jardunbide Egokien Kode bat presatuko dugu, kultura-jardueraren sektore-esparru bakoitzaren berezitasunak islatzeko. Sailaren mendeko erakundeek edo Eusko Jaurlaritzaren partaidetza nagusia den kasuetan nahitaez bete beharko dute kode hori.
- Prestakuntza-, aholkularitza- eta bitartekaritza-lanak egingo dituen sorkuntza babesteko bulego bat abian jartzea aztertuko dugu.
- Emakumeen presentzia bultzatuko dugu, bai kudeaketa kulturalen eta praktika kulturalen ageriko zein ezkutuko alderdietan. Komunikabide publikoetan gizonen eta emakumeen ordezkari-tza berdintasunezkoa eta ez-sexista izatea eskatuko dugu, baita emakumeen

presentzia handiagoa eta askotarikoagoa izatea ere, estereotipo mediatiko femeninoez haratago.

- Emakume migratzaileen, ijitoen eta dibertsitate funtzionala dutenen parte-hartzea eta ekimena ardatz duten kultura-jarduerak bultzatuko ditugu, bizitza publikoan parte hartzeko aukera izan dezaten.
- Kulturak hezkuntzan duen pisua berreskuratuko dugu, hezkuntzatik kulturara, arteetara eta humanitateetara sarbidea ziurtatuz, hezkuntza-curriculumaren funtsezko parte gisa.
- Eskolaren eta lurralde osoan izaera formala eta informala duten arte-prestakuntzako beste gune batzuen (kontserbatorioak, musika-eskolak, antzerki-eskolak, dantza-eskolak, idazketa-eskolak, arte-eskolak, pedagogia-arloetako jarduerak eta kultur etxeen, museoen eta kultura-erakundeen bitartekotza-jarduerak, etab.) arteko lotura formalak sustatuko ditugu, haurtzarotik adierazpen artistikoa eta kultura bizitzaren funtsezko parte gisa ikasten eta gozatzen jarraitzeko eta sakontzeko.
- Irakasletza eta Pedagogiako goi-mailako ikasketen curriculumetan kulturarekin eta sorkuntzarekin eta Artearen Historiarekin zerikusia duten ikasgaiak —praktikoak eta teorikoak— sartuko ditugu.
- Hezkuntza-sistema publikotik, bai Lanbide Heziketatik, bai unibertsitateko goi-mailako hezkuntzatik, kulturaren esparruko profesionalen prestakuntzari erantzungo diogu, arreta berezia eskainiz, bai normalean behar bezala kontuan hartzen ez diren diziplinei, bai sortzen ari diren eta aukera-esparru berritzat hartzen diren diziplinei.
- Foru aldundiekin, udalekin eta kultura-eragileekin batera, deszentralizazio kulturalerako eta erkidegoko kultura bizirako plan bat egingo dugu, ekintza kulturala lurralde osoan herritarren eskura dagoela ziurtatuz.
- Euskadiko komunikabideetan arteak eta kultura zabaltzeko plan bat egingo dugu, aniztasun-irizpideak kontuan hartuz; EITBn haien presentzia indartuko da, albistegietan kuotak ezartzeaz gain, kultura-programazioko atal bat irekiz ikus-entzule gehien dituzten ordutegietan.
- Software librearen ezarpena bultzatuko dugu eta wifi publikoko guneak prestatuko ditugu Eusko Jaurlaritzaren mendeko edo hark parte hartzen duen kultura-erakundeetan.

- Kultura digitala eta maker filosofia sustatzeko espazioei eta programei laguntzeko programak bultzatuko ditugu.
- Artxibo, liburutegi eta mediateketako edukiak digitalizatzeko jarduketak indartuko ditugu, nazioartean kultura-erakundeek erabiltzen dituzten ezagutza irekiko estandarrei jarraituz.
- Zinematografiaren arloko transferentzia eskatuko dugu, euskal zinemaren garapena eta jasangarritasuna ahalbidetzeko.
- Ikus-entzunezko eta trans-mediako proiektuetan inbertitzeko funts bat sortuko dugu, euskarazko produkzioan arreta berezia jarritz, eta euskal enpresa independenteen ekoizpenari laguntza emanez.
- Finantzaketa-neurri espezifikoak ezarriko ditugu honako aukera hauekin lotuta: sarreraren, ikus-entzunezko produktu bikoiztuen edo banaketako kopia-kopuruaren gaineko ehuneko bat edo tasak ezartzea; edo atzerriko produkzioen “service” produkzio-jardueretarako pizgarri fiskal bat ezartzea, filmazioak Euskadira erakartzeko.
- Arte eszenikoen plan integral bat garatuko dugu, eragileen arteko lankidetzatik balio-kate osoaren premien eta interesen aniztasuna kontuan hartuta.
- Egoitzako espazioen, konpainien eta sortzaileen programa abian jartzea bultzatuko dugu.
- Euskadiko Artxibo Sistema Nazionala (EANS) bilduko duen Liburu, Artxibo eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusia sortuko dugu, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiekin, hiru herrialdeetako ikastetxeetako liburutegiekin eta Euskadi osoko liburutegi eta artxibo pribatuekin, herritar guztiek kultura eskuragarri izan dezaten.
- Liburutegien Sarea modernizatzeko eta dinamizatzeko plan bat aktibatuko dugu, hurbiltasuneko ehun sozialarekin koordinatuta, honako hauek barne: funtsen eguneratzea eta eduki digitalak zabaltzea, berrikuntza teknologikoa, liburutegietako langileen prestakuntza eta haiei balioa ematea edo kultura- eta bitartekaritza-jardueren programak dibertsifikatzea.
- Liburutegien Euskal Legearen araudia eta Euskadiko Irakurketa Sare Publikoaren Irakurketa Mapa garatuko ditugu, liburutegien gizarte-berrikuntzarako tresna eraldatzaile gisa, eskaintzen dituzten zerbitzuak bermatu eta hobetzeko, arreta ematen duten langileen prestakuntza

eta lan-baldintzak hobetzen saiatuz. Horretarako, Liburutegien Aholku Batzordea, elkarte profesionalak, sindikatuak eta inplikaturako beste eragile batzuk kontuan hartuko dira.

- Doako sarrera museo publiko guztietara zabalduko dugu.
- Argitaletxe instituzionalak arrazionalizatu eta doituko ditugu, aurrekontu-kontrolerako mekanismoak, tituluen egokitasuna, tiradaren egokitasuna eta banaketa egokia sortuz. Argitaletxe instituzional baten zeregina merkatuak estaltzen ez dituen beharrei erantzutea eta egile berrien argitalpena bultzatzea izan beharko litzateke.
- Hainbat hizkuntzatar itzulpenak, euskal idazleen obrak (euskaraz zein gaztelaniaz) eta lanak beste hizkuntza batzuetatik euskarara itzultzeko laguntza-neurriak handituko ditugu.
- Irakurketa Errazeko guneak jarriko ditugu liburutegi publiko guztietan, mundu guztiak irakurtzeko aukera izan dezan.
- Museoen esparruko adituekin batera, arte garaikideko obra publikoa erosteko, zabaltzeko eta barneratzeko politika bat sortuko dugu. Behar adina baliabide jarriko dira, eta arte-ondare horren zabalkundea bermatuko da.
- Musika hezkuntza-curriculum autonomikoaren hezkuntza-etapa guztietan sartuko dugu —arreta berezia jarriko dugu Lehen Hezkuntzan—, funtsezko prestakuntza-tresna gisa, ikasle guztiei adierazpenerako eta komunikaziorako tresna bat emateko gai dena, gaitasun kognitiboak eta afektiboak garatu ahal izateko, modu sortzaile eta orekatuan.
- Eskola musikaren esperientzia bizira zabalduko dugu, eskola komunaren eta musika eskola eta kontserbatorioen artean loturak sortuz eta indartuz. Hori bi norabidetan landuko dugu, talentua ikasgeletatik kalera ateraz, eta ikasleak entsegu-lokaletara, kultur etxeetako zirkuituetara, herriko jaietara hurbilduz.
- Musika akademikoaren prestakuntzaren eta haren hedapenaren garapena landu eta ebaluatuko duen erakunde espezifikoa bat sortuko dugu. Erakunde horrek Musikeneren garapena bultzatuko du; lehenik eta behin, hezkuntza-komunitatearekin eta sektorearekin adostuko du haren kokapena, eta musikologia-gradu bat sortzea aztertuko du.
- Euskal Fonoteka Nazionala sortuko dugu, euskal musika ikertzeko eta zabaltzeko zentro gisa, orain dauden tokiko ekimenak bateratuz, eta funtsen digitalizazioa eta hedapena sustatuz.

- Bandetan, abesbatzetan eta beste musika-erakunde batzuetan praktika artistikoa bultzatzeko behar beste baliabide bermatuko ditugu Eusko Jaurlaritzatik.
- Zuzeneko musika babestu eta sustatu beharreko kultur ondare bizia dela errekonozituko dugu, beren jarduera jarraituagatik arreta berezia merezi duten aretoen katalogo bat sortuz; areto txiki eta ertainen zirkuitua biziberrituz.
- Ikuskizunen Legea berrikusiko dugu, 16 urtetik gorakoen sarbideari buruzko edozein anbiguotasunekin amaituz. Eta horrekin batera, gazteen artean zuzeneko musika sustatzeko neurriak garatuko ditugu, aisiarako modu alternatibo gisa (publiko gisa eta musikari gisa).
- Tokiko musika babesteko, sustatzeko eta hedatzeko kuotak ezarriko ditugu, estilo-aniztasunean, eta tokiko eszenaren dinamismoa erakusten duten musika-kanalak eta -programak indartuko ditugu, formatu erakargarrian eta ikus-entzule gehieneko ordutegian.
- Zigilu bat (labela) sortuko dugu, euskal musika ekoizpena identifikatu eta sustatzeko.
- Sormen Lantegiak programa indartuko dugu, kulturaren berrikuntza elkarrizketaren eta diziplinen nahasketaren bidez sustatzeko, eta kulturaren eta gizarteko beste esparru batzuen arteko bitartekaritza eta lankidetzak bultzatzeko.
- Mapaketa bat egingo dugu sektore hauetan kulturalki aktiboak diren eragileak identifikatzeko: hirigintza eta arkitektura, diseinua, gastronomia, kultura-bitartekotza, pedagogia kritikoak, herritarren parte-hartzea, zientzia eta teknologia...
- Eragile horiek elkartzeko eta errekonozitzeko guneak sortuko ditugu, eta lankidetzak-proiektu zehatzak abian jartzeko pizgarriak ere sortuko ditugu, eta, ahal den neurrian, mugaz gaindiko dimentsioa landuko dugu.

Ondarea

Euskal ondarea kontserbatzeak betebeharra eta eskubidea izan behar du. Ondare-politikak behar bezala kudeatzeak eta gauzatzeak gizarte-garapenaren eragile gisa balio behar du, baita turismo arduratsua eta jasangarria sustatzeko, hiri- eta landa-inguruneak birgaitzea ahalbidetzeko eta berez nortasun-balio indartsua sortzeko ere. Gainera, ondarearen kudeaketak ahalmen handia du enplegua sortzeko eta lurraldeen bizigarritasuna sendotzen laguntzen du, beren identitatearen parte diren elementuei balioa emanez.

- Ondarearen Legea betetzen dela zainduko dugu, batez ere industria-ondarea, ondare feminista eta immateriala balioesten dituzten alderdietan, baita irisgarritasun unibertsala eta gardentasuna ere.
- Eusko Jaurlaritzatik ekintza-plan bat koordinatuko dugu foru-aldundiekin, ondare historiko eta kulturalaren kontserbazioa bermatzeko, ondare hori aberastea sustatzeko eta herritar guztiek eskuragarri izatea bultzatzeko.
- Landa-ondarea interes orokorreko gai gisa babestuko dugu, bere benetakotasunagatik, bere hauskortasunagatik eta mendeetan zehar gizakiak lurraldean izan duen elkarreraginaren erakusle argiena izateagatik.
- Eraikuntza-lanetan eta Kultura Ondarearen Legean jasotako kasuetan aldez aurretik nahitaez egin behar diren arkeologia-jarduerak finantzatzeko neurriak garatuko ditugu, higiezinaren sustatzaileek jarduera horiek errazago egin ditzaten.
- Desagertzeko arriskuan dauden Euskal Ondarearen alderdien kontserbazioa sustatuko dugu. Euskal Industria Ondareak eta XX. mendeko ondareak merezi duten errekonozimendua eta babesa zainduko ditugu, beste ondare sentikor batzuk alde batera utzi gabe.
- Ondarearen ezagutza sustatuko dugu hezkuntza-maila guztietan, eta, bereziki, ondarearen kontserbazioan zuzenean esku hartzen duten profesionalen prestakuntza bultzatuko dugu.
- Ondarea kontserbatu eta zaharberritzeko profesionalen lan-eskubideen defentsan lan egingo dugu.
- Bertako kultura-ondare guztia kultura-turismoaren eragile eta bertako oroimen historiko kolektiboaren erreferente gisa estimatzeari eta duen balioari buruz herritarrek sentsibilizatzeko neurriak jarriko ditugu abian.

5. KIROLA EGITEKO ETA AISIAKO ESKUBIDEA

ELKARREKIN PODEMOSek bermatuko du euskal herritar guztiek aukera berdinak izango dituztela kirola egiteko eta aisiarako.

Kirola egiteko eskubidea

Kirola jarduera ludikoa izateaz gain, UNESCOren Gorputz Hezkuntzaren eta Kirolaren Nazioarteko Kartan berariaz aitortutako giza eskubidea ere bada, eta lotura estuak ditu beste eskubide batzuekin, hala nola bizitzarekin, osasunarekin, osotasun pertsonalarekin, hezkuntzarekin, bizi-minimoarekin eta, azken batean, pertsonen duintasunarekin. Norbanakoaren dimentsioan ez ezik, kolektiboan ere eragiten duen eskubidea da, kultura osasuntsua, balioak, harmonia, autoestimua eta besteekiko harreman harmonikoa sustatzeko izan dezakeen paperagatik. Horregatik, kirola egiteko eskubideak errespetu- eta sustapen-betebeharrak dakarzkie gobernu-maila guztiei: federazioa, federazio-erakundeak, udalerriak, Kirolaren Lege Orokorren bidez koordinatuak. Horiek kirol-jarduera errespetatu ez ezik, sustatu eta bultzatu ere egin behar dute.

- Gure ustez, kirola egiteko eskubidea ez da goi-mailako errendimenduko kirolaren dimentsiotik bakarrik begiratu behar; horrez gain, kirol-jarduera guztiak sustatu behar dira, maila guztietan, kirolarekin eskolan harremana duten haurretatik hasita, eta hezkuntza-maila guztietatik igarota. Era berean, emakumeak eta gizonak, adinekoak eta egoera desparekatuan dauden hainbat pertsona hartu behar dira kontuan, eta horiei jarduera fisikoan parte hartzeko aukera inklusiboak, egokituak eta seguruak eskaini behar zaizkie.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko egungo “Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza” Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera eramango dugu. Aldaketa horri esker, hobeto beteko dira Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren 2/2023 Legeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko 8/2022 Legeak jasotzen dituzten helburuak.
- Ikastetxeetan jarduera fisikoa sustatuko dugu:
- Ikastetxera joateko eta bertatik itzultzeko motorrik gabeko joan-etorriak sustatuz, toki-erakundeekin lankidetzan.
- Eskolaz kanpoko ordutegian jarduera fisikoa egiteko aukera gehiago emanez.

Jolasgaraiak eta atsedenaldi aktiboak dinamizatuz.

Curriculum-jarduera arruntetan gorputz-mugimendua barne hartuz: irteera gehiago kanpo-es-paziora, zirkulazio askearen bidez lan egitea, proiektuka lan egitea...

Dibertsitate funtzionala duten ikasleentzako estrategia espezifikoak ezarriz, bai jarduera fisiko arruntean sartzeko, bai jarduera fisiko diferentzialerako.

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko teknikarien arloko prestakuntza-baliabideen kudeaketa zentralizatu eta efiziente bakarra proposatzen dugu, sektoreko profesionalak aspalditik eskatzen ari diren bezala.
- Kirolaren sektore guztietan berdintasun erreala eta eraginkorra bultzatuko dugu, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legea betetzen dela zainduz eta aplikatuz, eta eman daitezkeen desparekotasunak zuzenduko ditugu genero-inpaktuari buruzko neurriak hartuz.
- Biztanleria osoaren artean jarduera fisikoa eta kirola egitea sustatuko dugu, baldintza berdinetan, genero, adin, jatorri edo egoera ekonomikoan desparekotasunik egon ez dadin.
- Herritarrei beharrezko baliabideak bermatuko dizkiegu edozein jarduera fisiko eta kirol modu arduratsu eta egokian erabaki eta egin ahal izan dezaten, praktika horietan ohitura autonomo, iraunkor eta osasungarriak sortzeko helburuarekin.
- Jarduera fisikoa, kirola eta biztanleriaren bizi-kalitatea sustatzeko programa berriak sortuko ditugu herritarrentzat, eta orain dauden programak berrikusiko ditugu, nazioarteko erakundeek adin-talde eta biztanleria-tipologia bakoitzerako emandako gomendioetara egokitu daitezen, arreta berezia jarritz adin goiztiarretan eta zahartze aktiboan.
- Lan egingo dugu kirolariek, beren ordezkarien, sindikatuen edo elkarten bitartez, hitza eta botoa izan dezaten aplikazio-esparru guztietan.
- Jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa helburu dituen estrategia espezifiko bat bultzatuko dugu, arreta berezia jarritz haurtzaroan eta gaztaroan, baita kolektibo kalteberetan ere.
- Osasun-sektorearen eta kirol-sektorearen arteko lankidetzak bultzatuko dugu, ariketa prebentzio-tresna gisa eta osasun-arazoak tratatzeko tresna gisa erabili ahal izateko.

- Emakumeak kirol-arlora iristea eta bertan parte hartzea bultzatu eta sustatuko dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria sinbolikorik gabeko kirol-ekitaldiei buruzko neurriak proposatuko ditugu.
- Entrenatzaileen papera gidari gisa sustatuko dugu, eta kirol-jarduera anitza eta ariketaz gozatzeko modukoa 14 urte bete arte, non jolasa eta motibazioa lehiakortasunaren gainetik egongo diren.
- Beren ahalmenengatik goi-mailako kirolariak izan daitezkeen gazteei jarraipena egiteko programa bat ezarriko dugu, haur gisa aurrera egiten dutela kontrolatzeko eta aholkuak emateko, haien baldintzak indartzeko eta kirol profesionalera duten bidea errazteko.
- Kontrolak ezarriko ditugu, kirolarekin lotutako fundazioei zuzendutako diru publikoa bertan sartutako kirolen praktika sustatzeko baino ez dela izango ziurtatzeko, eta ez talde profesionalak “prezio baxuan” babesteko, hauen Fundazioen zerga-abantailak direla eta.
- Emakume kirolari profesionalak lehiaketara itzultzea errazteko programa pertsonalizatua ezarriko dugu, amatasunaren ondoren beren jarduerara berme osoz itzul daitezen.

Aisiarako eskubidea

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak jasotzen duen bezala, pertsona orok du atsedenerako, aisialdiaz gozatzeko edo aisiako eskubidea, eta, beraz, erakundeetatik oinarritzko eskubide hori baliatzen saiatu behar dugu, eta euskal herritarren bizi-kalitatea eta ongizate kolektiboa hobetzeko tresna izan dadin ahalbidetu behar dugu. ELKARREKIN PODEMOSetik herritar guztiek aisiarako aukera berdinak izatea bermatuko duten neurriak proposatzen ditugu.

- Aisialdiko hezkuntzako planak, proiektuak eta ekimenak indartzeko eta zabaltzeko lan egingo dugu, gizartea eraldatzeko ikuspegiarekin, Aisia eta aisialdiko hezkuntza sustatzeko elkarteak eta kolektiboen eskutik.
- Hezkuntza- eta kultura-aisia sustatuko ditugu, eskaintzari, ordutegien malgutasunari eta garraio publikoa izateari dagokienez aukera zabala eskainiz.
- Aisialdiko hezkuntzarako euskal estrategia bat egituratzearen egokitasuna ebaluatuko dugu, gizarte-politiken esparruan eta Eusko Jaurlaritzako Sailarekin.

- Aisialdiko hezkuntzaren ekarpen, aukera eta eragile gehiago jarriko ditugu Eusko Jaurlaritzaren plan eta estrategietan.
- Aisialdiko hezkuntzarako udal-estrategia, -programa eta -proiektuen ezarpena sustatuko dugu.
- Herriar guztiek aisiarako eta atsedenerako aukera izango dutela bermatuko dugu, lana eta gizarte bateragarri egiteko eta justizia sozialeko politiken bidez.
- Kirol-, kultura-, aisia- eta aisialdi-jarduera guztiak pertsona guztientzat iragarriak diren guneetan egingo direla bermatuko dugu, batez ere mugikortasun urria eta/edo dibertsitate funtzionala dutenentzat.
- Gazteek kultura eskura izatea bermatuko dugu. Autokudeatutako gune kultural eta politiko alternatiboen (Gaztetxeak, Okupak, Okupatutako Gizarte Zentroak...) kriminalizazioaren aurka borrokatuko dugu.
- Hezkuntza Ez Formala errekonozitzeko eta baliozkotzeko sistema bat garatuko dugu. Sistema horretan, pertsonak kualifikazio osoa edo partziala lortu ahal izango dute, baliozkotutako ikaskuntza formaleko eta informaleko gaitasunetan oinarrituta. Aisialdiko hezkuntza-proiektuek hezkuntza-ekintzak, -prozesuak eta -jarduerak izan behar dute, garapen jasangarriari, parte-hartze aktiboari, euskarari eta euskal kulturari, ohitura osasungarriei, kirol-jardunari, adikzioen prebentzioari eta berdintasunaren balio komunitarioei heltzeko.
- Finantzaketa bultzatuko dugu, haur-eskolek eta ikastetxeek aisiarako hainbat jarduera eskaini ahal izan ditzaten, baliabide ekonomiko gutxi dituelako haur bat bera ere jolaserako eskubiderik gabe geratu ez dadin.
- Hainbat hezkuntza-eragile (formalak eta ez-formalak) biltzen dituzten proiektu komunitarioak antolatuko ditugu Euskadin.
- Erakundeek gazteentzako guneak lagatzea sustatuko dugu, gazteen adierazpen artistikoak, kulturalak eta kirol-adierazpenak sustatuz.
- Jolastoki irekiak proiektuaren sorrera bultzatuko dugu.

6. JUSTIZIARAKO ESKUBIDEA

ELKARREKIN PODEMOSen Justizia ulertzeko modua berreskuratu nahi dugu, ez bakarrik desberdintasunen aurkako borrokarako oinarritzko eskubidetzat, baita pertsona guztiek horretarako aukera izango dutela bermatzeko behar den zerbitzu publikotzat ere. Horregatik, Justiziaren esparruan, eskubide eta zerbitzu publiko gisa, ELKARREKIN PODEMOSen asmoen adierazpen bat egiten dugu hurrengo legealdiari begira:

- Hurbileko Justizia bat sendotzearen aldeko apustua egiten dugu, funtsean biktimagileen erreparazioan eta gizarteratzean inbertituko duena, gizarte-bizikidetzarako berme gisa.
- Botere-gehiegikerien aurrean babes gisa funtzionatuko duen Justizia batean sinesten dugu, eta, batez ere, herritarrei zerbitzua emango diena eskumen hertsatzaileak edo boterea erabiltzeko baimena eman zaienen aurrean.
- Justizia feminista nahi dugu, interseksionala, egiturazkoak diren arazoek edo analisi konplexuak behar dituztenek esku-hartze eta konponbide konplexuak ere behar dituztela ulertzen duena, eta ez hainbeste telebistako titularrak emandako epaiak administratzeaz edo emateaz arduratzen dena.
- Sistema judizial bat sendotu nahi dugu, prozesu justuak bermatzearen ikuspegitik; prozesu horiek ziurtatu behar dute eraso edo indarkeria jakin bat jasan duten pertsonak, jasandako erasoaren gertakariak (egia/errekonozimendua) errekonozituta ikusten dituztela, gizarteak lagunduta sentitzen direla bortxatu dituzten jokabideak zehatzean (justizia), eta egoera horrek eragin dien kaltearen ordaina lortzen dutela (erreparazioa/sendatzea).
- Justizia hezitzaile bat nahi dugu, delituen prebentzioan duen oinarritzko funtzioari erreparatuko diona, eta bitartekaritzaren eta justizia errestitutiboaren alde egingo duena, aukera baliogarri gisa. Bidezko legeak egon daitezela, bidezko arreata egon dadila, justizia bat egon dadila ordena penaletik haratago nahi dugu.

Justizia errestitutiborako eskubidea eta Zuzenbideko estatu demokratikoa

Justiziaren arloko politika aurreratuenek, oro har, auzilarien arteko borondatezko bitartekaritza-ereduak jasotzen dituzte gatazkak konpontzeko alternatiba gisa, eta, zigor-esparruaren kasuan, “justizia errestitutiboaren” esperientziak, “ordainsari-justiziaren” ohiko ereduen osagarriak edo ordezkioak. Ordainsaria da delitugileari zigor bidez egindako delituaren zehapena, gizarteak trukean ezer lortu gabe eta kasu gehienetan biktimak benetako erreparaziorik jaso gabe. Ohiko

eredua espetxe-zigorra da. Aitzitik, justizia errestituatiboa eragindako kaltea berrezartzen saiatzen dena da, arau-hausleari zehapena ezarri. Zehapen horrek eragin zuzena eta positiboa du biktimarengan edo gizarte osoan, biktimen kolektiboen bitartez. Zigor horiek espetxealdia edo isun ekonomikoa —gehienetan, zigortuaren kaudimengabezia dela eta, ezin da kobratu— ordeztu dute, gizarte-izaerako lan komunitarioak egiteko betebeharragatik edo antzeko delituen biktimak artatzeko betebeharragatik, baldin eta delitu horien ondorioz kalte handiak jasan badituzte.

- Eusko Jaurlaritzak funtsezko zeregina izan behar du aldean arteko bitartekaritza-mekanismoak, elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez, eta erreparazioaren zerbitzura justizia errestituatiboa bultzatzeko.

Espetxeratuentzako giza eskubideen defentsa- eta babes-bermeak

- Gure ustez, ikuspegi humanitariotik, erakunde publikoek eta gure Gobernuak erantzukizun handia dugu espetxeratuen zaintzan, hori demokrazia sozialaren kalitatearen adierazle ona baita. Konpetentziaren transferentzia, arlo humanitarioan, aukera ona da pertsona horien bizi-baldintza hobetzeko, oso eskasak, kasu batzuetan. Beraz, izaera politikoko transferentzia baino gehiago, eduki sozial handiko transferentzia da Elkarrekin Podemosentzat.
- Gure ustez, politika kriminal koherente batek kriminalitatea handitu gabe espetxeratutako pertsonen kopurua murrizteko helburura bideratu beharko lituzke bere ahaleginak, hau da, espetxearen ordezkoko beste mekanismo batzuen aldeko apustua eginez, hala nola bitartekaritza, tratamendu terapeutikoa, Komunitatearen aldeko lanak, erregimen irekia edo baldintzapeko askatasuna. Neurri horiei esker, berrerortzea murriztuko litzateke, eta biktimak eta gizarte osoa baliatuko lirateke onura horretaz.

Protesta eta/edo mobilizazio soziala ez kriminalizatzeko konpromisoa

- Gure ustez, giza eskubideen errekonozimenduan aurrera egiteko, beharrezkoa da protestarako eta gizarte-mobilizaziorako eskubidea bermatzea. Gaur egun finkatuta dagoen eskubide oro, une jakin batean, une hartan gizarteak ulertu ez arren, zuzentzat jo zutena antolatu, elkartu eta erreklamatu zuten kolektiboen eta pertsona-talde bidezko aldarrikapenetatik sortu zen.

Herritarren elkarriketa

Justizia sozialak gure hiri eta auzoetan bizi diren pertsonekin, eta periferian dauden eta diseinatzen ditugun politiketatik kanpo geratzen diren pertsonekin sortutako elkarriketa sozialarekin batera joan behar duela defendatzen dugu. Izan ere, haiekin izandako elkarriketatik egingo dugu aurrera Justizian, eta, beraz, gure konpromisoa protestari eta mobilizazio sozialari lotutako eskubideak babestearekin ere izango da. Horregatik guztiagatik, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Doako Justizia edukitzeko eskubide unibertsalean sinesten dugu, hori defendatu behar dugun oinarritzko eskubide gisa ulertuta; beraz, herritarrentzako doako prestazioaren atalasea handituko dugu, eta Ofiziozko Txanda Administrazio Publikoak emandako zerbitzu publiko gisa bermatuko dugu, zerbitzu horretarako ordainsari duina bermatzeko erreformak bultzatuz (ordainsariak eguneratuta).
- Justiziako funtzionarioen baldintzak hobetuko ditugu, ezinbesteko baldintza baita justizia herritarren eskubide gisa eraginkorra izango dela bermatzeko.
- Ustelkeriaren eta Kriminalitate Antolatuaren aurkako Fiskaltzaren eta Drogen aurkako Fiskaltzaren ordezkariak Euskadiko lurralde historikoetako fiskaltza guztietan egotea eskatuko dugu.
- Genero-ikuspegiari eta sexu-aniztasunari buruzko nahitaezko prestakuntza-plan bat inplementatuko dugu Justiziako langile guztientzat (Horizonte Morearen atalean deskribatu genuen bezala), baita Biktimei Laguntzeko Epaitegi eta Zerbitzuen egituren ebaluazioa ere, haien funtzioak eta ematen duten zerbitzu publikoa hobetzen aurrera egiteko.
- Herritarrek ondo ezagutzen duten zerbitzu bat inplementatzeko estrategia bat garatuko dugu, Euskadin “Gatazkak Konpontzeko” jarduketa-esparrua eta baliabideak (pertsonalak eta materialak) zabaltzen jarraitzeko. Zehazki, Bitartekaritza Eraginkorrerako 2022-2025 Justizia Errestauratiboaren Euskal Estrategia behar bezala eta modu hedagarrian inplementatzearen alde egiten dugu, baita Justizia Errestauratiboko sistema bat garatzearen alde ere, egungo JES osatu eta haren lan-esparruak zabalduko dituen, Adingabeen Justizia penalera, trafikodelituen arau-hausteetara, eta zerbitzu hori EBko Biktimei eta Justizia Errestauratiboari buruzko 2012/29 Zuzentarauko erabateko estandarretara egokitzeko.

- Genero-ikuspegiaren eta ikuspegi intersektionalaren zeharkakotasuna inplementatuko dugu JES zerbitzuko ekipoetan genero-adituak eta politika intersektzionaleko adituak sartzeko.
- Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutuko langileen lan-baldintzak hobetzen lagunduko dugu, soldatak parekatzeko; haien premiekin eta haien lanaren garapenean genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala txertatzeko aurreikuspenarekin bat datorren prestakuntza-plan bat inplementatzeko; eta Europako estandarrak lortzeko, lan-eskubideei dagokienez, hala nola guardiak egin osteko atseden hartzeko bermea.
- Euskal espetxeak kudeatzeko eredu propio bat finkatuko dugu, ardatz hauetan oinarrituta:
 - Askatasuna gabetzeko prozesu guztiak Giza Eskubideen betebeharrak eta estandarrak betez kudeatzen direla eta gure espetxe-eredu osoaren ardatz nagusia presoak gizarteratzea dela bermatzea.
 - Askatasuna gabetzea zigorrak betetzeko erregimen itxian uztea, azken errekurso gisa.
 - Espetxean dauden pertsonen gizarteratze-programa hobeetan edo baliabide hobeekin parte har dezaten erraztea.
 - Gizarteratze- eta laneratze-programak eta espetxe-osasuneko programak kudeatzeko diziplina anitzeko taldeak osatzea.
 - Zigorrak Kudeatzeko Euskal Zerbitzuak gaur egun dituen baliabideak hobetzea, urtero aurreikusitako kasuen gehikuntzari erantzun ahal izateko.
- Koordinazio-mekanismo egonkorak ezarriko ditugu sektore honetan lan egiten duten gizarte-erakundeekin, eta horiek aurreikusitako gizarteratze-programak diseinatzeko, gauzatzen eta ebaluatzen parte hartuko dugu.
- Osakidetzako presoak artatzen dituen Osasun Mentaleko Unitatearen baliabideak eta bitartekoak indartuko ditugu, mendekotasun eta/edo droga-mendetasuneko egoeran dauden presoek kasuan sustatzen diren prozesu terapeutikoak alternatiba terapeutikoen, tratamendu komunitarioen eta espetxeratutako pertsonaren gizarteratze- eta laneratze-bidean laguntzen duten profesionalen arteko koordinazioaren alde bideratzen direla bermatzeko.

- Emakume presoentzako berriazko estrategia bat garatuko dugu, genero-ikuspegia izango duena eta Amentzako Unitateak sortzen lagunduko duena.
- Estrategia espezifikoak garatuko ditugu presoen artean kalteberenak diren kolektiboentzat (adinekoak, gazteak, migratzaileak...), kanpo-harrerako programak bultzatzeko eta gizarteratzeko eta laneratzeko programetan begirada intersektzionala kontuan hartzen dela ziurtatzeko.
- Gazteen hezkuntza-, kultura-, osasun- edo familia-arloko gabeziak gainditzeko neurriak areagotuko ditugu.
- Gaur egungo espetxe-politikaren eredua aldatzea bultzatuko dugu, presoen egoerari giza eskubideen ikuspegi integral batetik hel dakion. Besteak beste, honako alderdi hauek planteatzen dira bertan: presoen jatorrizko lekura edo senideen bizilekura hurbiltzeko printzipioa, tratu humanitarioa ziurtatzea, eta justizia leheneratzaileko politiketan aurrera egitea, hau da, eragindako kaltea haiek gizarteratzeko oinarri etiko gisa onar dezaten.
- Askatasunaz gabetutako pertsonen senideei laguntza emango diegu, haien jatorrizko tokitik urruntzearen sufrimendua minimizatzeko, espetxe-politika aldatzen ez den bitartean. Beti printzipio humanitario batetik, eta askatasunaz gabetutako pertsonaren edozein motako goraipamenekin bateraezina den giza eskubideen ikuspegi batekin.
- Eusko Legebiltzarreko Bake eta Bizikidetzaren Lantaldean alderdi politikoen artean adostutako ekimen bat bultzatuko dugu, eta gobernu zentralari eskatuko diogu nazioarteko estandarrik zorrotzenak eta bermatzaileenak urratzen dituen salbuespenezko legeria oro aldatzeko, hala nola herritarren askatasuna eta segurtasunaren arloan, eskubide zibil eta politikoen arloan edo justizia emateko garaian gardentasunaren eta independentziaren arloan.
- ETaren, GALen, BVEren eta beste batzuen ebatzi gabeko atentatu guztien egiletza eta inguruabarrak argitzeko aukera emango duten mekanismoak sustatuko ditugu, betiere biktimen borondatea eta duintasuna kontuan hartuta, dagokien justiziarako eskubidea edozein izanda, eta preskripzioaren aplikazioa dela-eta hori gauzatu ezin bada ere.

- Erakunde autonomo eta independente bat sortuko dugu, Istanbulgo Protokoloak tortura prebenitzeko ezartzen dituen mekanismoak eredutzat hartuta, pertsona helduak eta adingabeak atxilotzeko edo askatasunaz gabetzeko zentroetan tortura edo bestelako tratatu edo zigor krudel, anker edo umiliagarriak prebenitzen laguntzeko.
- Herritar guztien adierazpen- eta iritzi-askatasuna defendatuko dugu, eta, beraz, oinarrizko eskubide horren aplikazioa eta gozamena bermatzeko beharrezkoak diren arau-aldaketak bultzatuko ditugu, pertsona guztiek modu askean adierazi, azaldu eta zabaldu ahal izan dezaten pentsatzen dutena, eta horiek jazarriak eta zigortuak ez izateko.

7. INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA

EITB ez da behar bezala betetzen ari zerbitzu publiko gisa duen eginkizuna. Horregatik, legealdi honetan behingoz ekin behar diogu EITBren eredua eraldatzeari, bai Europako estandarrekin homologatzeko modukoa izateko, bai herritarrek behar duten zerbitzu publikoa izateko —independentea, plurala eta kalitate, berrikuntza eta onura publikoko irizpideen arabera produkzio propioko edukiak dituen—, eta ez gobernuaren eta entretenimenduaren tresna huts hori, gaur egun den bezala. Erakunde publikoaz haratago, gizarte-komunikazioarekin eta komunikabide independenteekin lotutako beste aukera batzuk ere aintzat hartu behar dituen espazio mediatikoa. Komunikabide publikoek kultura zabaltzeko tresnak izan behar dute.

ELKARREKIN PODEMOSetik EITBren gobernantza-sistema berri bat proposatzen dugu, ezarritako helburu horiekin bat datorrena eta bere aktiborik handiena egunez egun erakunde publikoa komunikazioaren erreferente izan dadin bertan lan egiten duten pertsonak direla onartuko duena. Hona hemen EITBren eredu berri baterako gure proposamenak:

- Irrati-telebista publiko independente eta garden baten alde lan egingo dugu.
- EITBren eredua eraldatu beharra aztertuko dugu, bai Europako estandarrekin homologatu ahal izateko, bai herritarrek behar duten zerbitzu publikoa izateko: independentea, plurala eta kalitate, berrikuntza eta onura publikoko irizpideen arabera produkzio propioko edukiak dituen.
- Euskadik irradi-telebista publiko inklusiboa izatea bultzatuko dugu, gizonezkoen gehiegizko ordezkartza bere espazio guztietan desagerrarazteko lan egingo duena, eta irradi eta telebista publiko parte-hartzailearen, paritarioaren eta berdintasunezkoaren adibide izango dena.
- EITBko zuzendaritza-organoen kontrol parlamentarioko neurri eta mekanismo eraginkorrak bultzatuko ditugu.
- Komunikaziorako Euskal Kontseiluaren sorrera sustatuko dugu. Erakunde hori arduratuko da, besteak beste, komunikabide publikoen independentzia zaintzeaz, autoritatearekin eta zehatzeko gaitasunarekin. Horrez gain, hedabideei ematen zaizkien laguntza publikoak eta publizitate instituzionalaren (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) banaketa ikuskatuko ditu, aniztasuna eta banaketa-ekitatea bermatzeko modu gisa. Halaber, EITB nork zuzenduko duen eta Administrazio Kontseilua nork osatuko duen aukeratuko du. Komunikaziorako Euskal Kontseiluko kideak ekonomikoki ordainduta

egongo dira dedikazio osoa eta eskusiboa bermatzeko, baita haien neutraltasuna ere; eta autonomia-erkidegoko administrazioa goi-kargudunen bateraezintasun-araubidearen mende egongo dira.

- Proposatzen dugu EITBko Albistegien Kontseilua kazetariak, kamerek eta informazioa prestatzen ere parte hartzen duten beste kategoria profesional batzuetako kideak osatzea.
- Gizarte-kolektiboak aukera emango diegu irrati-telebista publikoaren bidez audientzia esanguratsuetara iristeko. Horretarako, ordutegietan espazioak gordeko dira, ikus-entzuleekin kontaktua bermatzeko, eta erakunde publikoaren giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarriko dira interesdunen eskura, Euskal Telebistako kanalek beren espazioa izango duten edukien produkzioan parte hartu ahal izan dezaten.
- Euskarazko programen eta fikzioaren produkzio propioa bultzatuko dugu. Beharrezkoa da serieen produkzioa bultzatzea gure ikus-entzunezko industria-ehuna garatzeko, eta haren ahalmen guztiak aztertzea, koprodukzioa eta nazioartekotzea irmoki babestuz.
- EITBko zuzendarien eta bitarteko kargudunen (kudeatzaileak deitutakoen) balizko murrizketa aztertuko dugu, batez ere Radio Euskadin eta Euskadi Irratian, eta erredakzioa plantillen indartzea, kalitate eta profesionaltasun irizpideetan oinarritutako zerbitzu publikoa eskaintzea ahalbidetzeko.
- Gardentasun-irizpide argiak ezarriko ditugu erakundeko langileen kontratazio-, lan- eta sustapen-irizpideetan, baita eskatutako euskara-mailan ere, eta hori Komunikaziorako Euskal Kontseiluak bermatuko du.
- Proposatzen dugu lankidetzaren esparru bat ezartzea Nafarroako Foru Komunitatearekin eta Ipar Euskal Herriarekin (Iparralde) EITBren kudeaketan, garapenean eta finantzaketan, Euskal Herriko irrati-telebista gisa, eta Europar Batasunaren barruan nazioz gaindikoa lankidetzarako ahalmenak baliatzea.
- Fake News Lege bat sortuko dugu gaur egun ematen den desinformazioaren aurka borrokatzeko. Desinformazio horrek sortutako "irabaziaren" nozioan zentratuko da, demokraziarentzat arriskutsua delako ezaguna baita. Ezin dugu onartu gertaera kaltegarri horretan oinarritutako industria bat egotea. Horregatik, erantzukizun instituzionala egongo da, eta hura kontrolatzeko eginkizunen utzikeria neurgarria eta zehagarria izango da.

- Follow-the-money ikuspegia aplikatuko da (negozioari edo funtzio instituzionalen utzikeriari erreparatu), eta ez edukiei buruzko iritzia emateko ikuspegia (iritzi-askatasuna ez oztopatzea).
- Kazetaritzaren sektorea egiaztatzeko betebeharrak nahitaez aplikatuko zaizkie informazioaren zirkulazioak irabazi edo onura instituzionalak dakartzaten beste sektore batzuei, alderdi politikoak, agintariak, gobernuak, korporazioak eta beste informatzaile eraginkor batzuk barne.
- Derrigorrezko aplikazio hori ikusgai egongo da etiketatze moduan; horrela, edozein pertsonak izango du informazioa egiaztatzeko aukera.

8. SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA

Euskadin, segurtasun-politika publikoak egiteko gaitasun politikoa dugu, autonomia-tarte zabalarekin. Ez bakarrik poliziaren arloan, Ertzaintzaren jardunean, baita erakunde arteko estrategien diseinuan eta gure errealitatera egokitutako sail anitzeko ekintzen jardunean ere. Baina segurtasuna poliziari baino erakunde gehiagori dagokie, eguneroko bizitzan delinkuentziazatik haratago eragiten duelako (larrialdiak, trafikoa, jokoa, ikuskizunak, bizikidetza, etab.), eta erakundeen jardueraren eta esku-hartze sozialaren ikuspegi irekia eta erantzunkidea dakarrelako.

- Horregatik, ELKARREKIN PODEMOSen ustez, segurtasuna askatasunekin zuzenean lotuta dago eta eskubide publiko gisa ulertzen dugu. Segurtasun-estatuaren defentsan sakontzen duten joera kontserbadoreen aurrean, askatasunen erabilera sustatuko duen segurtasun zibikorako alternatiba onargarria sustatzearen alde gaude. Alternatiba hori Giza Segurtasuna da, eta horrek “egiturazko indarkeria, herritarren segurtasuna, globalizazio segurua eta gizarte-bidegabekeriak politika publiko integratuen bidez artatzen ditu”.
- Giza segurtasunaren paradigmaren esparruan, polizia-erakundearen eredu bat proposatzen dugu, segurtasun-politika integratuen osagarri. Eredu horrek legezkotasunaren eta giza eskubideen barruan jardungo du beti, eta lehentasuna emango dio askatasunen, justizia sozialaren, berdintasunaren eta jasangarritasunaren aurkako delituak prebenitzeko eta jazartzeko estrategia gehiago eta hobeak garatzeari.
- Ondasun komunen —hala nola baliabide publikoak, iruzur fiskala, ingurumena eta lan-eskubideak— aurkako delituak kontuan hartuko dituen segurtasun-eredu bat sustatuko dugu. Haurren, nerabeen eta emakumeen osotasun fisiko, psikologiko, emozional eta sexualerako arrisku-egoerak artatuko dituen eredua. Egoera horiek, halaber, lehenengoak baino ikusezinagoak dira; izan ere, eremu pribatuan egiten dira, konfiantzazko inguruneke pertsonak egiten dituzte kasu gehienetan, eta mendeetan zehar normalizatuta egon dira.
- Lau ardatz estrategikotan —partaidetzapekoa, integratua, eraldatzailea eta efizientea— oinarrituko den segurtasun-politiken ikuskera baten alde egingo dugu.
 - Partaidetzapekoa: Batez ere, esku hartzen dugun gizartearekin lankidetzan aritzea. Horretarako, ahalegin instituzional handiagoa egin behar da, gizartearen gainerako aldeei begira, baita inplikaturako erakundeen barrualdeari begira ere.

- Integratua: segurtasunak, bere esanahi osoan, egiturazko gizarte-baldintzei eragiten dielako, hala nola jaiotza-tasari, hezkuntzari, osasunari, gizarte-zerbitzuei edo garapen teknologikoari, beste arlo batzuen artean. Gainera, politika publikoak gainditzen ditu eta pribatutasunari, gure bizitzeko moduei eragiten die. Horrek eskatzen du politika instituzionalak bateratzea eta “integral” kontzeptua gainditzea, bere baitan itxita dagoen dinamika gisa, erakundeen eta herritarren arteko ahaleginak bateratzeko.
 - Eraldatzailea: Gure helburua euskal komunitatearen bizi-baldintzak hobetzea da. Ez da soilik eskumen politikoak kudeatzea egungo status quo-a mantentzeko, edo, agian, erreformatzea, beren bidegabekeriek sortzen dituzten tentsioei aurre egin diezaien. Kontua da erabat aldatzea, modu demokratikoan, gaur egun dauden segurtasunik ezaren harremanak, kriminalitatearen aurrean (mota guztietakoak) norbanakoak duen babesetik muturreko fenomeno klimatologikoen aurrean hautemandako gizarte-kalteberatasunera (klima-aldaketa).
 - Efizientea: Optimizazio sozial handienarekin —ez ekonomizista hutsarekin— administratu behar diren baliabide publiko mugatuekin. Badira lehentasun handiagoa behar duten premia larriko kasuak, hala nola indarkeria matxistaren aurrean esku hartzea. Beste gai batzuetan funtsezko gabeziak konpontzea lortu nahi da, hala nola gatazka-egoeren analisia eta erakunde independenteek haiek ebaluatzea, bizitzako errealitateen aurrean itsu edo alboratuta ez egoteko. “Dauden polizia-zerbitzuak egokitzeke” daude oraindik Euskadin, Europako biztanle bakoitzeko polizia-ratio handienarekin, gizarte-garapenerako egokiagoak diren beste agentzia batzuei baliabideak emateko, segurtasun publikoari kalterik egin gabe.
- Segurtasunaren ikuspegi jasangarria sustatuko dugu, prebentzioaren, zehapenaren eta gizarte-kohesioaren arteko oreka bilatuz; prebentzioa gehiago sustatuko duten ekintzak landuz, hurbiltasun proaktiboko segurtasunaren kontzeptupean.
 - Arazoak konpontzeari prebentziotik eta diziplina anitzeko ikuspegi batetik egingo diogu aurre. Horretarako, herritarren deien arrazoiak aztertu behar dira, eta, horrela, aldeztu aurretik planifikatutako prebentzio-lanak eraiki.
 - Baliabide nahikoak eta arau-euskarri egokiak jarriko ditugu segurtasun-politiketan parte-hartze publikoa areagotzeko, fase guztietan (plangintza, erabakia eta ebaluazioa); halaber, emaitzak jendaurrean jarriko ditugu.

- Genero-ikuspegia txertatuko duen Euskadiko segurtasunari buruzko partaidetzapeko diagnostikoa egingo dugu.
- Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseilua bultzatuko dugu, segurtasunaren esparruan antolatutako gizarte zibilari zabalduz. Era berean, Herriarren Segurtasunean Parte Hartzeko Tokiko Kontseiluak ezartzen lagunduko dugu; horiek ere komunitatera irekiago egongo dira.
- Erakunde arteko harremanen foroak bultzatuko ditugu, segurtasun-baldintzetan eragiten duten politika publikoak bateratzeko; bereziki, indarkeria matxistari, gizarteratzeari, ingurumenari eta iruzur fiskalari buruzkoak.
- Elkarriketa soziala sustatuko dugu segurtasun-politikei lotutako kolektiboaren ordezkaritza sindikalariekin, baita polizia-sindikatuekin ere, kontziliaziorako lan-giroa lortzeko, egun ematen diren sumindura eta desadostasunak saihestuz.
- Segurtasun-politiken efizientzia kontrastatuko dugu, esparru guztietan, egiaztatutako auditorien eta azterketen bidez, agentzia independenteen inplikazioarekin, bereziki “Giza Eskubideetan oinarritutako ikuspegi” finkatuari erreparatuz.
- Ahal bezain laster, memoriak eta segurtasun-politiken emaitzak jendaurrean azalduko ditugu, dokumentu luze eta irekietan, euskarri eskuragarrietan eta guztiok jasotzeko moduan.
- Segurtasun Sailaren egitura egokituko dugu, bertan dauden hainbat zuzendaritza murriztuz.
- Segurtasun Saileko Koordinazio Zuzendaritzaren lana areagotuko dugu, Udalen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Lankidetzarako Esparru Hitzarmenen aplikazio zabalagoa susta dezan, egungo polizia-jarduna beste gizarte-agentzia eta erakunde publiko batzuetara zabalduz, Segurtasuneko Tokiko Kontseiluekin batera.
- Erakundeek —batez ere polizienak— datu pribatuak erabiltzeari buruzko kontrolak indartuko ditugu, segurtasunaren arrazoizko erabilera babesteko, askatasunei kalterik egin gabe.
- Kode Deontologikoen garapenean sakonduko dugu segurtasun-agentzien lanean, batez ere poliziaren esparruan. Armarik gabeko polizia-lanerako ekintzak edo polizia-langileentzako grebarako eskubidea aplikatzeko aukera lehenetsiko dugu, dagozkion lege-aldaketak eginez.

- Dagokion arau-aldaketa sustatuko dugu, euskal polizien lana kontrolatzeko agentzia instituzional bat sortzeko. Agentzia horren egoitza Arartekoan egongo da.
- Euskalduntzea sustatuko dugu euskal polizien artean.
- Segurtasun-agentzien plantillak Euskadiko gizarte-baldintzetara egokitzearen arloan sakonduko dugu, emakume gehiagorekin eta Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen aniztasuna behar bezala ordezkatuta.
- Ertzaintzaren segurtasun-zerbitzu publikoa hobetzeko ekintzak egingo ditugu, barne-giro instituzional ona lortzetik hasi eta polizia-lan eraginkorragoa garatzera arte.
- Poliziaren esku-hartzean espezializazioak sustatuko ditugu, unitate espezifiko bidez. Unitate horiek langile eta baliabide hobeak izango dituzte, gutxienez honako esparru hauetarako: indarkeria matxista, delitu informatikoak, ingurumena, laneko segurtasuna, iruzur fiskala, ustelkeria politikoa, eta pertsona kalteberei (adingabeak, desgaitasuna dutenak, etab.) arretea ematea. Halaber, Miñoien, Foru Polizien eta Mikeleteen Unitateek langile eta baliabide egokiak izango dituzte, foru-aldundiekin adostuta, haien eskumenekin bat datozen eginkizunak betetzeko (ingurumena, adingabeak, ondare historiko eta kulturala, iruzur fiskala, etab.).
- Polizia Judizialeko Unitateak sortuko ditugu, benetako ikerketa-lana egiteko, Fiskaltzaren, Epaileen eta Auzitegien mende, behar adina agente atxikita eta baliabide egokiekin.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia indartuko dugu, bere eskumenen bilakaeraren araberrako aurreikuspenekin, barnetegian prestakuntza erraztuz. Bere prestakuntzan euskalduntzearen sustapena kontuan hartuko du, eta beste erakunde eta organismo batzuekin prestakuntza-jarduerak egitea sustatuko du, bereziki euskal unibertsitateekin. Haren beste helburuetako batzuk dira prestakuntza-materialak egitea, Dokumentazio Digitalaren Zentroa sortzea eta Euskal Poliziaren Museoa sustatzea, historia eta memoriaren zentro gisa.

- Segurtasunaren arloko plan sektorialen egokitzapena eta garapena sustatuko dugu, hala nola bide-trafikoari, joko eta ikuskizunei, larrialdiei aurre egiteari, kiroleko indarkeriari, droga-mendetasunei, migrazioei, gizakien salerosketari eta haiei dagozkien beste batzuei dagozkienak, bai horiek gidatuz —nagusiki eskumena izanez gero— edo kasu guztietan lagunduz.
- Segurtasun pribatuaren baldintzak errealitate sozialera egokituko ditugu, segurtasun-zerbitzuaren prestazio publikoari lehentasuna emanaz eta arlo horretan enpresa-jarduera behar bezala gauzatzen dela kontrolatuz.

9. JUSTIZIA FISKALAREN BERMEAK

Pandemiak, Ukrainako gerrak eta nazioarteko merkatuaren ezegonkortasunak eragindako krisiak agerian utzi du zerga-sistema neoliberalak gure gizartean eragin duen muturreko hauskortasuna. Eredu horrek ezaugarri hauek ditu: tributazio desberdina, errenta altuenei eta ondare handiei mesede egiten diena, alor pribatuari alor publikoari baino lehentasun handiagoa ematen dio eta aberastasunaren kontzentrazio muturrekoa errazten du. Horren guztiaren emaitza gizarte hauskor eta kaltebera bat izan da larrialdi edo hondamendi egoeren aurrean.

Egia esan, 2007ko krisiaz geroztik, zorpetzea izan da ongizate-estatuari eusteko oinarria. Kapitalaren errentagarritasun finantzarioak etengabeko hazkundera izan du azken 15 urteetan, eta, hala ere, euskal ogasunek kapitala defendatu duen politika fiskalari eutsi diote, ustez kapital handia babesten badugu, ekonomiaren osasun finantzarioa, kalitatezko enpleguaren sorrera, ekonomiaren hazkunde jasangarria eta egungo erronkei eta krisi edo dezelerazio garai berrietan etor daitezkeenei aurre egiteko nahikotasun ekonomikoa bermatzen ditugulako. Hala ere, zerga-politika horri esker, gaur egun, Euskadiko zerga-presioa Europako batez bestekoaren azpitik dago, baita Espainiako batez bestekoaren azpitik ere, autonomia-erkidegoen eta lurralde historikoen arteko lehia ez-eraginkorrera iritsiz. Gaur egun, laneko errentek eta zeharkako zergek diru-kutxa publikoen diru-sarreraren % 80 inguru hartzen dute, eta kapitalaren etekinek % 15 eskasa ekartzen dute kasurik onenean: gizarte-desberdintasunetarako eta aberastasuna esku gutxitan metatzeko haztegi bat.

ELKARREKIN PODEMOSen uste dugu fiskalitatea beharrezko tresna dela gizarte solidarioagoa, ez hain desparekatua eta justuagoa lortzeko. Fiskalitatea funtsezko elementuetako bat da gizarte-kohesiorako eta, oro har, inor atzean uzten ez duen herri batek aurrera egiteko. Justizia sozialaren babespean bakarrik izango gara gai gure herrian benetako aukera-berdintasuna bermatuko duten kalitatezko zerbitzu publiko nahikoak bermatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da zerga-sistema bat izatea, nahikotasun ekonomikoaren, ekitatearen, efizientziaren eta aberastasuna birbanatzearen helburuak lortzeko, jarduera ekonomikoa eta kalitatezko enplegua sustatzeko, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko. Azken batean, politika fiskal aurrerakoia.

Euskadik lehenbailehen behar du erreforma fiskala ekitatetik abiatuta, hau da, ekarpen progresiboa aberastasunaren arabera egiteko. Eta arrazoi handiagoz Euskadin, gure zerga-autonomiak aukera ematen baitigu hori gauzatzeko, Estatuko gainerako erkidegoetatik aparte. Eusko Legebiltzarrak badu dagoeneko, erakunde-arkitektura (Lurralde Historikoen Legea) aldatu gabe, zerga-araudia harmonizatzen eta errekarpen bidez baliabide propioak lortzeko gaitasuna.

Bidezko fiskalitate bat behar da, benetan, gehien duenak gehiago ordain dezan lortzeko, eta iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurka borrokatzeko. Bizitzeko ezinbestekoak diren zerbitzu publikoen (etxebizitza, osasuna, hezkuntza, pentsioak, gizarte-zerbitzuak, besteak beste) aberastasuna eta beharrezko finantzaketa zuzen banatuko dela bermatzen duen fiskalitatea. Espiritu horren pean, zerga-arloko proposamen hauek eskaintzen ditugu:

Fiskalitatea eta ekonomia bermatzea, ikuspegi FEMINISTatik.

- Gaur egungo zerga-politiken auditoria egingo dugu, politika horietan jasotako genero-rol tradizionalak ezabatzeko.
- Euskadin aplikatzen diren zerga-politikei buruzko genero-ikuspegia duen diagnostiko bat egingo dugu —Foru Ogasunekin koordinatuta eta gizarte-erakundeekin, mugimendu feministarekin, genero-ikuspegidun fiskalitatean adituak diren pertsonekin eta profesionalekin lankidetzan—, zerga-kargek eta -onurek generoaren arabera dituzten inpaktu desberdinak aztertuta, horri buruz hautematen diren desberdintasunak eta desparekotasunak ezabatuko dituen zerga-erreforma bat inplementatzeko 2025ean.
- Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala gainditzen lagunduko duten neurri espezifikoak txertatuko ditugu, euskal enpresaren esparruan egungo soldata-arrakala murrizten nabarmen lagunduko duten estrategiak eta jardunbide egokiak aztertzeko eta identifikatzeko ekintza bat barne hartuz.
- Kontratazio arduratsu baten esparruan, Eusko Jaurlaritzak eta bere mendeko erakundeek egindako kontratu, hitzarmen eta dirulaguntza guztietan klausula espezifikoak berariaz sartzea ezarriko dugu, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murrizteko.

BIZITZA DUINA bermatzeko diru-sarrera publikoak

- Zerga-sistemaren progresibotasuna areagotuko dugu, aberastasunaren birbanaketa eta aukera-berdintasuna bultzatuz eta dinamismo ekonomikoa ziurtatuz.
- Zerga-sistemaren egungo atzerakortasuna joera progresibo batera itzuliko dugu, kapital-errentei presio fiskal orokorra gehituz eta aurreikusitako gastu fiskalak murriztuz, zerga-tasa errealak tasa nominaletara hurbilduz.

- Finantzaketa-oinarri egonkor bat definituko dugu, herritarrentzat ezinbestekoak diren zerbitzu publikoak emango direla bermatzen duten udalerrientzat; izan ere, horiek diru-bilketaren aurreikuspenen mende daude, eta herritarrentzako lehen sarbidea dira.
- Gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunaren ikuspegia bultzatuko dugu, eredu sozial eta ekonomikoa modernizatzeko ardatz eta palanka gisa, euskal zerga-sistemaren barruan zerga-figura berdeak ezarriz.
- Euskal lurraldeen arteko harmonizazio fiskala sustatuko dugu, Zerga Koordinaziorako Organoaren bidez, deslokalizazio fiskalak saihesteko.
- Europako ingurunearekin bat egitea bilatuko dugu, bai presio fiskalari dagokionez, bai gastu publikoa handitzeari dagokionez, sortutako aberastasunarekin erlazionatuta. Horrek esan nahi du Euskadi urrun dagoen EB-28ko batez bestekora hurbiltzeko, eta, horrela, hurrengo fasean herrialde aurreratuenekin bat egiteko.
- Edozein erlijio-aitortzatarako, Eliza Katolikoa barne, zerga-onurak kentzea bultzatuko dugu.
- Arau-aldaketak sustatuko ditugu fiskalitate justua bultzatzeko. Zerga-sistemak bermatu behar du baliabideak sortuko direla gizarte-politiken estaldura eta inpaktua handitzeko, ekonomiaren trantsizio ekologikoaren prozesua laguntzeko eta desparekotasunak murriztean arreta jartzeko. Era berean, modu eraginkorrean borrokatu behar du iruzurraren, zerga-ihesaren eta -saihestearen aurka, Euskadin eta Euskaditik kanpo.

Zerga bereziak

- Zerga berezi bat aplikatuko diegu robotikaren eta IAren eskutik digitalizazio- eta mekanizazio-maila handia jasan duten eta, horren ondorioz, plantilla murriztu duten enpresei. Hori “makinentzako” zerga berri bat izango litzateke, batez ere sektore publikoaren nahikotasun ekonomikoari eta ongizate-estatuari eusteko, gero eta zaharragoa den gizarte honetan.
- Natura-ondarearen monetarizazioa aplikatuko dugu hiri-inguruneetan eta hiri-periferiakoetan, batetik, eta landa-inguruneetan, bestetik, hainbat zerga-figuraren bidez, arriskuan jartzen edo suntsitzen duten giza jarduera guztiek horren truke kanon bat ordain dezaten, eta modu profesionalean edo erdi-profesionalean zaintzen dutenek (lehen sektoreko langileek) beren lana ordainduta ikus dezaten.

Sozietateen gaineko zerga

- Sozietateen gaineko zergaren atzerakortasuna eragiten duten kenkari fiskalak murriztuko ditugu.
- Enpresentzako pizgarriak kudeatzeko mekanismo eraginkorrak ezarriko ditugu, irizpide objektiboetan oinarrituta, eta, beraz, kuantifikagarriak, eta, horrela, segurtasun juridikoa sartuko dugu zergan.
- Zergaren ekitatea areagotuko dugu, galerak dituzten enpresei proposatzen ditugun pizgarriak baliatzeko aukera emanez, gaur egun ez bezala.
- Gure enpresa-ehunaren lehiakortasuna hobetzea sustatuko dugu, batez ere, ekipo-ondasunak eta I+G+B jarduerak handitzeko eta berritzeko ekoizpen-berrinbertsiora bideratutakoak.
- Pizgarriak emango ditugu gizarte-esparruan, kalitatezko enplegu duina sustatzeari, soldata-arrakala murrizteari edo emakumeen enplegagarritasunari lotuta.
- Pizgarriak emango ditugu klima-aldaketaren aurka borrokatzeko hartutako betebeharrak lortzen laguntzeko, baita ingurumen-jasangarritasunaren esparruan ere, hala nola energia-efizientzia, edo ingurumena kontserbatzeko eta leheneratzeko erantzukizun-irizpideak hartzeko garaian.
- Tasa nominalak 2018ko erreforma fiskalaren aurreko egoerara itzuliko ditugu. Horrez gain, zerga-tasa orokorra pixkanaka % 30eraino igotzeko helburua onartuko dugu, presio fiskalean Europar Batasuneko batez bestekoarekin bat egiteko.
- Tasa murriztua mantenduko dugu ETEentzat, kooperatiba txiki eta ertainentzat eta ekonomia sozial eta solidarioko erakundeentzat. Neurri horren helburua ekonomiaren dinamismoa, enpleguaren hobekuntza eta enpresa-ehunaren lurraldera errotzea sustatzea da.
- Enpresa-jarduerarik gabeko enpresetan (fikziozko sozietateak, bitarteko sozietateak edo produkzio-helbururik gabeko tresnak) PFEZerako aurreikusitako tasarik altuena aplikatuko dugu.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

- Aurrezkiaren zerga-oinarriak berrikusiko ditugu, aurrezkiaren errentek lan-errenten tasa bera ordaindu dezaten, gaur egun dagoen desorekaren ondorioz.
- PFEZeko zerga-oinarriari aplikatu beharreko tarteen eta tasen kopurua handituko dugu, zerga horren progresibotasuna hobetzeko eta errenta handienen tarteari aldatzeko, eta horrela haien ekarpena handitzeko. Ekitate handiagoz bildu behar da, errenta altuenek portzentaje handiagoa izan dezaten.
- Enpresen eta norbanakoen kontribuzioengatikoen kenkariak pentsio-plan pribatuetara eta BGAEetara mugatuko ditugu.
- Zerga-pizgarriak emango dizkiegu beren etxebizitzetan ingurumen-jasangarritasunarekin lotutako neurriak hartzen dituzten pertsona fisikoei, hala nola energia-efizientzia, energia berriztagarrien instalazioak jartzea edo energia-komunitateak sustatzea, betiere errentaren araberrako neurriaren progresibotasuna bermatuz.
- Etxebizitza erosteari buruzko kenkariak ezabatuko ditugu, kontratu berrietarako, Europako zuzentarauei jarraituz. Gaur egun, kenkari horri eusten dion autonomia-erkidego bakarra gara, eta frogatuta dago higiezinaren merkatuko prezioetan eragin inflazionista dutela.
- Adingabeak edo menpeko pertsonak ardurapean dituzten familia guztiei kenkari fiskal itzulgarri unibertsala ezarriko diegu, zainketa-sistema publiko batekiko konpromiso gisa.

Ondarearen gaineko zerga

- Ezabatu egingo dugu ezkonte fiskala deitu izan dena; horrek muga bat ezartzen dio PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren baterako ondorioei, eta, horrela, zuzendu egingo dugu aberastasun handietarako saiheste-eremuak egotea ahalbidetzen duten zerga horien akatsetako bat.
- Oinarri likidagarria kargatzen duten tarteen lurzorua murriztuko dugu.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

- Hiru lurralde historikoetan hutsik dauden etxebizitzaren OHZren errenergia harmonizatzea bultzatuko dugu, dagozkion foru-arauak erreformatuz, ezarri nahi duten udalerri guztiei bidea irekitzeko.

Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga

- Ohiko etxebizitzarako ez diren higiezinaren salerosketari bi puntu gehiagoko errenergia ezarriko diogu.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga

- Egungo tasa % 7,5era arte igoko dugu, Europarekin bat egiteko.
- Ahaidetasun-talde bakoitzerako eskala guztiak berrikusi eta eguneratuko ditugu, hiru Lurralde Historikoekin koordinatuta, zerga-sistemari koherentzia emateko, gehien duenak eta oinordetzan jasotzen duenak ere gehiago ordain dezan bermatzeko, eta kontuan hartuta, gaur egun ezarrita dagoen salbuetsitako gutxienekoarekin, ondare handi samarrei bakarrik eragingo liekeela, herritar gehienak zerga-igoera horretatik babestuz.

Jokoaren gaineko zergak

- Jokoari pizgarriak kenduko dizkiogu hainbat neurri abian jarritz, jarduera ez-produktiboa delako eta gizartean eragin negatiboa duelako.
- Zerga-tasa orokorra igoko dugu, baita kasinoko jokoei, apustuei, txartelei edo bingoari aplikatzen zaiena ere. Halaber, makinak ustiatuz jokoetarako ezarritako kuota finkoa handituko dugu.
- Jokoaren inguruko jardueren gaineko zergaren karga-tasa igoko dugu.

Iruzur fiskalaren aurkako borroka

Gure ustez, iruzur fiskalaren aurkako borroka funtsezko elementua da bidezkoa den edozein zerga-sisteman. Horregatik, Aldundiaren ikuskapen-lanari eta, oro har, iruzur fiskalaren aurkako borrokari dagokionez, honako hau planteatzen dugu:

- Iruzur Fiskalaren aurkako Behatoki bat sortuko dugu, eta ikuskapenaren orientazioa, batez ere, estatistikoki iruzur gehien egin dezaketen subjektu pasiboen ikerketara bideratuko dugu —enpresa handiak eta ondare handiak, izen-mailegatzailleak (pertsone bakarreko sozietateak) edo paradisu fiskalak erabiltzen dituztenak, enpresa-taldeak, enpresa ertainak eta/edo multinazionalak—, haien produkzioaren, prezioen eta finantza-operatibaren sozietate arteko operatibaren zuzentasuna ikusteko. Izan ere, alderdi horiek zuzenean eragina dute Balio Erantsiaren eta Sozietateen gaineko Zergetan.
- Iruzur fiskalaren aurkako borrokaren emaitzak hobetzera bideratutako neurriak areagotuko ditugu:
 - Iruzurratiko zehapenak handituko ditugu.
 - Aldian-aldian eraginkortasun-azterketak egingo ditugu, politika publikoak ebaluatzeko aukera emango duten adierazle eta tresna kuantitatiboekin, eta, aldi berean, Gipuzkoako iruzurraren zenbatespena neurtuko dugu.
 - Baliabideen eta tresnen hornidura hobetuko dugu, iruzur fiskalaren aurka modu efizienteagoan borrokatzeko.
 - Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Batzordean parte-hartzea zabalduko dugu, eragile politiko, sindikal eta sozialak inplikatur.

II. EKONOMIA SOZIALA ETA BERDEA

Herrialde-eredua aldatzeak eredu ekonomikoa aldatzea exijitzen du. Egungo eredu zaharkitua eta bidegabea da, eta Euskadin azken 40 urteetan izan ditugun gobernu kontserbadoreekin beso-zabalik hartu da; ez dago gizakiaren edo planetaren beharren zerbitzura egina, korporazio handien interesen neurrira diseinatuta baizik, haiek erabakitzen baitituzte ekonomiaren arauak eta, are, politikarenak ere. Eredu horrek desberdintasuna eta harrapakaritza sortzen ditu, eta bateraezina da guztion onaren ideiarekin.

Horregatik, ELKARREKIN PODEMOSen programan herri-eredu berri bat eraikitzeko lehentasuntzat hartzen dugun eraldaketa-ardatzetako bat da Euskadin politika ekonomikoa egiteko beste modu bat eskaintzea, ekonomia sozial, solidario eta berdean oinarrituta.

Ekonomia sozial eta solidarioak oinarri hartzen ditu indibidualismo posesiboaren inspirazio-iturri direnen oso bestelako balioak. Izan ere, aberastasuna komunitatetik abiatuta sortzen du eta guztion onaren ekonomia bat lortzea du helburu. Ekonomia horretan, botere publikoek interes orokorrek eta bertan lan egiten duten pertsonen interesarekin bateragarriagoak diren enpresa-eredu eta -jardunbideak sustatzen dituzte. Gai horri demokrazia ekonomikoaren ideiatik heltzen diogu, eta asistentzia- eta birbanaketa-politikeetatik haratago joan nahi dugu. Asmoa ez da aberastasunaren banaketan soilik eragitea, baita aberastasunaren sorreran ere, ekimen ekonomikoa interes orokorrerantz bideratuko duten mekanismoen bidez, enpresa partaidetuak bultzatuta eta, gainerakoetan, enpresa handietako kontseiluetan langileen ordezkariak legearen parte har dezaten sustatuta.

Gizarte-ekonomiaren filosofia horrek zerikusi handia du beharrezkoak ditugun jasangarritasunarekin eta trantsizio ekologikoarekin. Bi dimentsio horiek estuki lotuta daude, gaur egun hegemonikoa den ereduko oso bestelako adierazleekin ekonomia kontuan hartzearen aldeko apustua baita. Kontua da BPGd-az edo mozkin monetarioaz haraindiko indizeak kontuan hartzea, eta giza garapenean eta garapen ekonomikoan oinarritzen diren beste indize batzuk hartzea, modu justuan, berdintasunezkoan, banatzailean eta birsortzailean oinarritzen direnak, hain zuzen; bai bizitza duina bermatzen duten gutxieneko sozioekonomikoak eta bai gure ekosistemaren bizi-raupena bermatzen duten muga ekologikoak errespetatzeko adierazleak.

Ezin dugu onartu klima-aldaketa beste batzuen arazoa balitz bezala jokatzeko. Soluzioa hemen hasten da, etxean, Euskadin: tradizio berritzaileko herrialde bat, datorren ekonomia berdearen gidarietako bat izan beharko lukeena.

Horretarako, ezinbestekoa da gure produkzio- eta kontsumo-sistemaren paradigma aldatzea eta energia demokratizatzeko bide-orri bat egitea, sarbide unibertsalerako oinarritzko eskubidea izan behar duen bide-orria. Hori, eta ez besterik, izan daiteke hainbeste aipatzen den trantsizio energetiko edo ekologikoaren oinarria, eta horrela bakarrik egin daiteke trantsizio hori, ingurumen- eta biodibertsitate-krisia okerragotu gabe.

Gure proposamena integrala da, eta Euskadiko industria-tradizio luzea onartzen du, eta tradizio horri berriro heltzen dio, bere industria eraldatzen duen herrialdearen eredu bihurtzeko, jasangarritasunaren sektore puntakoenak gidatzeko, mugikortasunetik hasi eta materialetaraino. Horrek askotariko arloetan izan behar du eragina, hala nola: energiaren gobernantzarako eta energia-subiranotasunerako eredu berri bat sortzea (energiaren euskal enpresa publiko bat sortuta), eta energia garbien aldeko apustu irmoa egitea, erregai fosilak ezabatzea, CO₂-a xurgatzeko estrategiak aplikatzea, inpaktu txikiko eraikuntzaren alde egitea, eraikinak birgaitzea, nekazaritza eta akuikultura birsortzaileak bultzatzea, eta habitat naturalak eta hiriko berdegune basatiak hedatzea. Gainera, besteak beste, arlo hauetara hedatzen da: hezkuntza, turismoa, ingeniaritza, finantzak eta, jakina, Ikerketa eta Garapena.

Horren guztiaren gainean proposamenak eskaintzen ditugu jarraian, jakin badakigu-eta honako ekintza hauek apustu saihetsezinak direla Euskadi hobea eraikitzeko: Ekonomia Soziala eta Solidarioa garatzearen alde estrategikoki apustu egitea eta, bereziki, guztion onaren mende dagoen gizarte-ekimenaren bidez bultzatutako jarduera ekonomikoak gara daitezen bultzatzea —hala nola banka etikoa; energia berriztagarriak sortzeko, merkaturatzeko eta kontsumitzeko kooperatibak; agroekologia eta elikagai-subiranotasuna sustatzeko elkarte-ekimenak; bidezko merkataritza; hondakinen kudeaketa jasangarria; teknologia irekiak; etab.—. Horrela, Horizonte Gorria eta Horizonte Berdea —betiere ELKARREKIN PODEMOSen politikak egituratzen dituzten bi ardatzak— programa honetan hiru eduki-arlo hauen inguruan artikulatzen dira nahitaez: “Lan Justizia eta Enplegu Duina”, “Eraldaketa Ekologikoa eta Industria Eredu Berria”, eta “Horizonte Digitala”.

10. LAN JUSTIZIAREN ETA ENPLEGU DUINAREN BERMEAK

Lan-prekarietatea eta gizarte-gatazkak gure lan-merkatuaren ezaugarri bihurtu dira. ELKARREKIN PODEMOSen, lan-baldintza duinak defendatzearen alde eta bizitza bere jarduera osoaren erdigunean jarriko duen produkzio-sistemaren aldaketa sustatzearen alde gaude: herri-onurako eta guztion onaren zerbitzurako ondasun eta zerbitzuen produkzioa; ekonomia zuzen eta zirkularraren sustapena; erantzunkidetasuna produkzio- eta ugalketa-zereginetan; tokiko kate ekonomiko jasangarriak —tokiko produkzioaren babesa, finantzaketa etiko eta arduratsua, merkaturatze-zirkuitu laburrak eta tokiko merkataritza, kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzailea—.Esparru horretan, honako proposamen hauek egiten ditugu:

Enplegu duina eta eskubideduna

Alor publikoa eta horrek ekonomian duen eginkizuna defendatu eta bultzatuko dugu, fiskalitatearen, inbertsioaren eta enplegu publikoa sortzearen bidez. Zerbitzu publikoak pribatizatzea eta kanpora ateratzea irauliko duten politikak garatzea, eta Administrazioetik eskaintzea orain arte merkatuaren esparru hertsian zeuden zerbitzu berriak.

- Enpresa-kultura eta -jardunbidea aldatzea bultzatuko dugu, gizartean zainketak ekitatean oinarrituta berrantolatzen laguntzeko.
- Enpleguan aniztasuna sustatuko dugu, besteak beste adina, askotariko gaitasunak, talentua erakartzea eta desberdintasunak murriztea jorratuko dituzten planak garatuz enpresetan.
- Enplegu publikoaren plan sendo bat jarriko dugu abian, ongizate-estatuaren bosgarren zutabe gisa bermatua, eta inbertsioa handituko dugu lan-baldintza duinak eta lan-eskubideekiko errespetua bermatzeko politiketan. Plana 2024an hasi eta 2025ean bete-betean ezarrita egongo da. Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek, gizarte-eragileek eta gizarte zibilak koordinatuta diseinatuko da, eta, besteak beste, elementu hauek lehenetsiko ditu: zerbitzu publikoak indartzea; zainketa-sistema publikoa; enplegu berdea; auzo eta herrien hiri-, gizarte- eta ingurumen-birgaitzea; trantsizio ekologikoko eta biodibertsitatea sustatzeko proiektuak; azpiegitura komunitarioa birgaitzea; eta kultura-jarduerak.
- Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legea garatuko dugu, pertsona guztiek enplegu duina, inklusiboa eta kalitatezkoa izateko duten eskubidea susta dezan, lan-merkatuan sartzea zailago duten pertsonengan arreta berezia jarrita.

- Enplegu inklusiboa sustatuko dugu, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden edo edozein motatako gizarte- eta/edo lan-diskriminazioa jasaten duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programak bultzatuta, bereziki Ekonomia Sozial eta Solidarioko ekimenen bidez.
- Enpresetan eta sektore publikoan kontziliazioa eta erantzunkidetasuna ezartzera behartuko duten neurriak artikulatuko ditugu.
- Plan Estrategiko bat egingo dugu enplegu berdea etorkizuneko apustu gisa sustatzeko. Horretarako, prestakuntzarako eta enplegua sortzeko programak jarriko ditugu abian. Horiek partaidetza komunitarioa izango dute. Elkarrekin Podemosen enplegu berdetzat ulertzen dugu baldintzetan eta soldatan enplegu duina den hura, eta gure gizartearen eta ingurumenaren jasangarritasuna sustatzen duena.
- Era berean, zainketen sektorean enplegu duina sustatzeko plan estrategiko bat prestatuko dugu, Silver Economy-ren printzipioetatik eta zainketen merkantilizaziotik aldenduta, aparteko lan- eta soldata-baldintzez arduratuta eta zainketei balioa emanda.
- Kalitatezko gazte-enplegua sustatzeko talka-plan bat jarriko dugu abian, hezkuntza-curriculumetik kanpo ordaindu gabeko praktikak desagerraraziko ditugu eta enplegua bekarizatzearen aurkako neurriak planteatuko ditugu, besteak beste.
- Euskal herritarrei hazkuntzan eta zaintzan berdintasunez parte hartzeko aukera emango dieten lanaldi arrazionalak sustatuko ditugu, zaintza profesionaletan aritzen direnentzako lan-baldintza duinak ziurtatuz, bereziki emakume migratzaileengan arreta jarritz.
- Gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna sustatuko dugu; izan ere, zaintzagatiko lanaldi-murrizketetan gehiengo handia emakumeek hartzen dituzte, eta, ondorioz, etorkizuneko kotizazioak eta pentsioak murriztu egiten zaizkie eta pobretu egiten dira.
- Lan-prekarietatearen aurkako Talka Plan bat jarriko dugu abian zainketa feminizatuen sektoreetan, hala nola egoitzetan edo etxez etxeko laguntza-zerbitzuetan, ordezkarietza duten sindikatuekin elkarriketan. Horretarako, paradigma hau planteatzen dugu:

- Irabazi-asmorik gabeko erakunde eta enpresek erantzukizun publikoko zerbitzuak eman ditzaten bultzatzea, gizarte-itun bat erregulatuta eta berrikuntza publiko-soziala bultzatuta.
- Zainketa-zerbitzuen kudeaketa kooperatibo-komunitarioa sustatzea.
- Zainketaren sektorean lan-baldintzen duintasuna sustatzea.
- Etxeko lanetan eta zainketetan dauden diskriminazioei azkena emateko lan egingo dugu, etxeko langileen aldarrikapenak jasota eta lan haiek Gizarte Segurantzaren erabat integratzeko Gobernu zentrolean eraginda, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmenean jasotako berme guztiekin. Administrazio-egoera irregularrean dauden kasuan, langile horien ezohiko erregularizazioa sustatuko dugu, eta migrazioaren arloan transferitutako eskumenarekin artikulatuko dugu horien bizileku-baimena eta legezko kontratazioa, sektoreko negoziazio kolektiboa bultzatuta, langile horien lan-baldintzak artikulatu eta hobetzeko.
- Neskame-lana desagerrarazteko lan egingo dugu, mendekotasunaren arloko zainketa-behar horiek zainketa-sistema publiko batekin ordezkaturik, legezko lanaldiekin eta ondo ordaindutako soldatekin.
- Euskal errealtatera egokituko dugu koalizio-gobernuan dugun parte-hartzeak markatu duen gutxieneko soldata igotzeko politika, Euskadiko batez besteko soldataren % 60ra iritsi arte gutxienez (1.400 euro hilean), gehienez ere 4 urteko epean.
- Era berean, gazteen batez besteko soldata 1.400 eurora iristea lortzeko lan egingo dugu, gazteen elkarteek eskatzen duten bezala, etapa horretatik hasten den soldata-arrakalari aurre egiteko.
- Negoziazio kolektiboan eta elkarrizketa sozialean oinarritutako akordioak sustatuko ditugu, Euskadiko batez besteko soldataren % 60ko gutxieneko soldatak bermatzeko.
- Gehienez 34 orduko lanaldia ezartzea bultzatuko dugu, soldata-murrizketarik gabe, lanaldia murrizteko planteamenduekin eta goranzko aldaketarik gabe. Lanaldi hori sektore publikoan (enpresa publikoak barne) eraginkortasunez aplikatu dadin eta sektore pribatura eraman dadin zainduko dugu, kontratu publikoetako klausula sozialen bidez eta negoziazio kolektiboa babestuta.

- Lanaldi-murrizketa bultzatuko duten politika publikoak garatuko ditugu, kontratu berriak sortzearekin lotuta (txanda-kontratuak, etab.).
- Lan-ikuskaritzaren bidez, aitortu gabeko aparteko orduak eta borondatezkoak ez direnak ezabatuko direla bermatuko dugu. Gainera, enpresek kontratazio berriekin bete beharrekoak diren egiturazko orduak aparteko orduarekin betetzeko erabiltzeari pizgarria kenduko dioten politikak aplikatuko ditugu.
- Enpresa guztiek berdintasunaren arloan dituzten betebeharrak betetzen dituztela zainduko dugu, bereziki 50 langiletik gorako enpresek berdintasun-planak eginda eta erregistratuta izateko duten betebeharra. 50 langile baino gutxiagoko enpresek berdintasun-planak ere egin ditzaten neurriak sustatuko ditugu.
- Soldata-arrakala ezabatzeko estrategia berri bat garatuko dugu —gaur egun 7.500 eurotik gorakoa da soldata-arrakala—, legegintzaldi batean desagerrarazteko helburuarekin, kontratazioa sustatzera eta emakumeen enpleguaren prekarietateari aurre egitera bideratutako neurriekin, zerga-kenkari konpentsatzaileekin, berdintasun-protokoloak betetzen ez dituzten enpresentzako zehapenekin, eta zainketak modu ekitatiboan banatzeko programa honetan planteatzen ditugun politikekin bat etorritik.
- Jarduera espezifikoak planteatuko ditugu ekonomia kolaboratiboa edo “uberizatua” deitutakoaren barruko enpresak ikuskatu eta kontrolatzeko, horrelako enpresetan dagoen iruzurrari amaiera emateko, autonomo faltsuaren figura inposatzen baitie langileei.
- Langile publikoen plantillak sendotuko ditugu, eta bitartekotasuna % 8ra murriztuko dugu.
- Hala eskatzen duten zerbitzu publikoetako plantillak indartuko ditugu, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko. Arreta berezia jarriko diegu zerbitzu publikoei, hala nola osasungintzari (Osakidetza) edo hezkuntzari, egungo plantillak handituz. Horrela, arreta pertsonalizatuagoko zerbitzua eta funtzionarioentzako lan-baldintza hobeak bermatuko ditugu.
- Eusko Jaurlaritzaren mendeko plantillen lan-baldintzei buruzko diagnostikoa egingo dugu, guztien lan-eskubideak betetzen eta errespetatzen direla bermatzeko, sindikatuarekin etengabe komunikatuta.

- Ahalik eta gehien murriztuko dugu zerbitzuak kanpora ateratzea, eta, ahal denean, zuzeneko kudeaketa publikoa berreskuratuko dugu, kasuz kasu horren bideragarritasuna aztertuta, eta hala egingo dugu, betiere, horrek berekin dakarrenean zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta enplegua mantentzea, baita zerbitzu publikoak babestea ere —Osakidetzaren edo egoitza-zentroen kasuan bezala—.
- Kontratazio publikoan gizarte- eta ingurumen-klausulak txerta daitezen bultzatzea, eta berariazko neurriak sustatzea administrazio publikoen ondasunak eta/edo zerbitzuak kontratatzeke baldintza-agirietan bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen eta desgaitasunen bat duten pertsonen enpleguari laguntzeko.
- Eusko Jurlaritzak ematen ez dituen zerbitzu publikoetan, klausula sozialak, ingurumenekoak, berdintasunekoak eta produkzioa birkokatzekoak sartuko ditugu, eta guztion onaren eta interes orokorraren printzipioarekin bat etorriko diren lizitazio-irizpideak ezarriko ditugu.
- Kontratazio-lehiaketa publikoetan klausulak sartuko ditugu langileak kontratatzeke jardunbide egokiak bultzatzeko (parekotasuna, prebentzioa eta lan-segurtasuna, kolektibo kalteberak gizarteratzea eta laneratzea...), ingurumen-inpaktu negatiboak murrizteko (ingurumen-ziurtapenak, produktu ekologikoak eta bidezko merkataritza, energia-efizientzia... erabiltzea), lurraldean errotuta dauden hirugarren sektorea deritzonako erakundeei laguntzeko (irabazi-asmorik gabeko erakundeak, kooperatibak...).
- Produkzio-sistema industrialak eraldatzea sustatuko dugu, hura pertsonentzako eta ingurumenerako funtsezkoak eta onuragarriak izango diren sektore ekonomikoetara birbideratuta.
- Ekonomia Soziala eta Solidarioa sustatuko dugu ekonomia ulertzeko beste modu bat bezala, garapen ekonomiko eta sozial eraldatzailea lehenetsita, tokiko garapenean oinarrituta eta enplegu solidarioa, inklusiboa eta kalitatezkoa bultzatuta.
- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan erreformak proposatuko ditugu, zerbitzua pribatizatzeke eta kanpora ateratzeko edozein prozesu ezabatzea helburu hartuta. Horretarako:
 - Giza baliabideetara eta baliabide teknologikoetara bideratutako inbertsioa handituko dugu. Horren helburua da Lanbideri beharrezko mekanismoak eta ahalmenak ematea langabezia dauden pertsonen, modu indibidualizatuan, lana bilatzeko orientazioa eta laguntza emateko.

- Ibilbide integral eta espezializatuak bermatuko ditugu. Horiek barne hartuko dituzte bitartekaritza, bilaketa, aholkularitza eta hori lortzeko ahalmenez hornitzeko beharrezko prestakuntza.
- Enplegu-zerbitzu publikoaren bidezko kontratazioa sustatuko dugu, aldi baterako laneko enpresak erabili beharrean, eta enplegu-zerbitzu publikoaren lehentasuna eta eraginkortasuna bermatuko duten neurriak bultzatuko ditugu kontratazio-eragile pribatuen aurrean.
- Lanbideko langileen prestakuntza eta trebakuntza sustatuko dugu, aniztasuna kudeatzeko eta laguntza pertsonalizatua emateko.
- Azterlan zehatz bat prestatzea bultzatuko dugu, erakundeek gidatuta eta inplikaturako gizarte-eragile guztien parte-hartzearekin, enpleguaren ikuspegiari eta bilakaerari buruz, gizartearen bizi-beharrak asetzeko zenbat enplegu behar diren zehaztea ahalbidetzeko, baita enplegu berdearen eta zainketa-enpleguaren arloetan sor daitezkeen estimazio zehatzak, horiek lortzeko prestakuntza-ibilbideak eta sektoreka ezarri beharreko lan-baldintza duinak ere.
- Lurralde bakoitzaren beharretara egokitutako enplegu-planak prestatzea bultzatuko dugu, egoera ahulenean dauden udalerri eta eskualdeak nabarmenduta.
- Euskadirentzat “estrategikotzat” jotzen diren eta ixteko arriskuan dauden enpresa bideragarrietan egindako inbertsioa ebaluatuko dugu. Estrategikoak, bai eskualdeko ekonomian edo enpleguan duten garrantziagatik, bai dagokien sektorearen garrantziagatik, dela oinarritzko hornidurak (ura, garraioa, energia...), dela lurraldearen subiranotasunaren bermea (elikagaiak, energia elektrikoa...).
- Elkarren bermerako erakundeek ematen dituzten abal eta bermeen programak hobetuko ditugu, Eusko Jaurlaritzak kudeatutako funts espezifiko baten bidez, Europako Inbertsio Bankuaren kofinantzetarekin, enpresa berritzaileen proiektuak eta emakumeek gidatutako proiektuak finantzatzeko.
- Mendetasunari arreta emateko sistema eraldatzea eta hobetzea bultzatuko dugu, eta arreta berezia jarriko dugu zainketen ekonomian, enplegu-hobi desiragarri eta jasagarri gisa, mendekotasuna duten pertsonen bizitza hurbileko ingurunean garatzea ahalbidetuko duen

enplegu-hobi gisa, tokiko enplegua sortzea sustatuta eta zainketa-lanei ospea emanda, bizitza mantentzeko behar den lan bihurtuta, legeak euskal herritarrei aitortzen dien zainketa-eskubidea bermatzeko.

- Lan-ohitura osasungarrien programa integral bat sortuko dugu. Programa horrek barne hartuko du lan-ordutegien arrazionalizazioan, laneko segurtasunean eta emakume eta gizonen arteko erantzunkidetasunean aurrera egitea, telelanerantz aurrera eginda eta presentzialtasuna pixkanaka murriztuta.
- Luzaroko langabeziaren aurkako neurriak garatu eta ezarriko ditugu, hala nola 40 urtetik gorako langabeei edo bazterketa-arriskuan daudenei kontratu mugagabeak eta hilean 1.400 €-tik gorakoak eskaintzen dizkieten ETE-entzako laguntzak.
- Lan Ikuskaritzaren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak areagotuko ditugu, Euskadiko lanaldietan iruzurraren eta abusuen kontrola hobetzeko.
- Gazteak laneratzeko plan bat garatu eta ezarriko dugu, gazteen langabezia-tasa eta haien enpleguaren prekarietatea pixkanaka arintzeko.
- Gazteei lehentasunezko aholkularitza eta arreta ematea erraztu eta hobetuko dugu, kooperatibak eta autoenplegurako ekimenak gara ditzaten.
- Funts publiko bat sortuko dugu, kreditu bigunak bermatzeko eta emateko behar besteko aurrekontu-zuzkidurarekin, eta aholkularitza emango diegu autoenplegatu nahi duten edo kooperatibak prestatu nahi dituzten gazteei.
- Gazte guztiek lurralde mugakideetan ikasteko aukera izango dutela ziurtatuko dugu, garraiorako laguntzak bermatuta eta erabilera baldintzak hobetuta.
- Landa-enpleguaren tokiko eta eskualdeko garapeneko plan bereziak ezarriko ditugu, landaguneetan bertan produkzio-sarea areagotzeko, batez ere indize sozioekonomiko larriak, langabezia-tasa handia edota enpresa-ixteak edo puntako enpresen deslokalizazioak eragindako langabezia duten eremuetan.

LAN-OSASUNA

- Laneko Ikuskaritzako eta Osalaneko inbertsioa handituko dugu, giza baliabideetara eta baliabide teknologikoetara bideratua, laneko segurtasuna eta osasuna bermatzeko, lan-eskubideak zorrotz betetzeko eta lan-istripuetan zero heriotza lortzeko helburua ziurtatzeko. Arreta espezifiko jarriko dugu landaguneetako lan-ikuskaritzan eta kualifikazio txikiko enpleguetan; izan ere, horietan izaten baitira abusu gehienak.
- Laneko ezbeharrak desagerrarazteko plan espezifiko bat jarriko dugu abian, eta laneko arriskuen prebentzioko lurralde-ordezkararen eta ordezkarik sektorialaren figura ezartzea bultzatuko dugu, 6 langile baino gutxiagoko enpresetan langileen prebentzioa eta babesa bermatzeko (enpresa horietan ez dute langileen ordezkaririk izateko eskubiderik, eta ez dute prebentzio-ordezkaririk).
- Osalanek laneko arriskuen prebentzioari buruzko alderdi guztiak koordinatu, gainbegiratu eta kontrolatzea sustatuko dugu.
- Gaixotasun profesionalen erregistroa hobetuko dugu: erregistratu ez dena, existitzen ez dena eta prebenitzen ez dena. Horretarako, gaixotasun profesionalak jakinarazi eta erregistratzeko sistema bereiziko dugu kaltea konpontzera behartuta dauden erakundeetatik.
- Beharrezko lege-aldaketak bultzatuko ditugu, enpresek eragin ditzaketen arrisku guztiak ebaluatu eta prebeni ditzaten lantokietan.
- Enpresekiko lankidetzak sustatuko dugu, patologia jakin batzuekin bateragarriak diren lanpostuen katalogo bat gara dezaten, arrisku jakin batzuen aurrean sentsibiltate bereziko egoerak bizitzen dituzten langileak birkokatu ahal izateko.
- Bultzatuko dugu ikuspegi asistentzialetik azterketa praktikoa egitea eta Sentsibilizazio Zentraleko Sindromearen (SZS) barruan dauden gaixotasun guztien (sentsibiltate kimiko anizkoitzak, entzefalomielite mialgikoa, neke kronikoaren sindromea, fibromialgia, hipersentsibiltate elektromagnetikoa) asistentzia eta tratamendu mediko egokia eskuratzea, SZSko gaixoei immunologian adituak, ingurumen-medikuntzako espezialistak eta pediatrik izango dituzten unitate espezializatueterako sarbidea erraztuta.

Tokiko eta hurbileko merkataritza

- Tokiko merkataritza babesteko eta bultzatzeko plan bat prestatuko dugu, interesa duten eragile guztien parte-hartzearekin, nahitaez tokiko merkatariekin egindako diagnostiko partekatu batetik abiatuta.
- Erakundeen arteko koordinazio-estrategia bat garatuko dugu, hurbileko merkataritza eta kalitatezko enplegua sustatu eta indartuko dituen, lan-baldintza duinekin, sektoreko gizarte-eragileekin lankidetzan.
- Legea betetzen dela zainduko dugu, merkataritza-gune berrien ezarpena mugatzeko, eta megaproiektu komertzial periferikoak behin betiko geldiarazteko lan egingo dugu.
- Hurbileko merkataritza-jarduera guztiak bultzatuko ditugu, eta, bereziki, guztion onerako direnak, eta legeak ematen duen diskrezionalitate-tartea erabiliko dugu saltoki handiak eta instalazio berriak handitzeko behar diren baimenak ahalik eta gehien mugatzearren.
- Tokiko merkataritza fidelizatzeko estrategiak lantzea bultzatuko dugu, bezeroekin lotura bat eraikitze, produktu edo zerbitzuak erosteko erreferente izan daitezen.
- Sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpainak jarriko ditugu abian, merkataritza txikiaren abantaila balioa emateko. Horren helburua da merkataritza txikiari balioa ematea, enplegua sortzeko eta tokiko bizitza dinamizatzeko jarduera gisa, bizilagunak hurbileko merkataritzarekin konektatzen baitu horrek. Horren barruan dago, orobat, gogoeta egitea ea tokiko merkataritzan kontsumitzeko prest gauden, saltoki handietan edo Internet bidez kontsumitu beharrean, bertan kontsumitzeko borondate partekatu batek bakarrik bermatzen baitu haren biziraupena.
- Komunitateari eta herritarren parte-hartzeari lotutako ekonomia-modu berriak sustatuko ditugu: irabazi-asmorik gabeko ekimen sozialaren sustapena, denboraren bankuak, trukea, tokiko txanponak, elkarlaneko praktikak, crowfounding soziala, etab.
- Saltoki tradizional eta enblematikoak babestuko ditugu, aniztasuna, hurbiltasuna eta kalitate estetikoa bultzatuko dituzten laguntza eta plan berezien bidez, enpresa txikiaren Europako Gutunean edo “Small Business Act” izenekoan ezarritakoaren ildotik.

- Adineko pertsonekin atseginak izango diren saltokien sarea sustatuko dugu, tokiko merkataritza herritar guztientzako irisgarritasuna sustatuta, batez ere bestelako gaitasunak dituzten pertsonentzat.
- Negozio-planak eta beste tresna batzuk gara daitezen sustatu eta bultzatuko dugu, desaktibazio ekonomikoko tasarik handienak dituzten eskualdeetan merkataritza txikia eta enpresa txikiak irekitzeko eta mantentzeko lagungarri izan daitezen.
- Aholkularitza- eta orientazio-guneak ezarriko ditugu jarduera ekonomiko jasangarriak garatzeko, landa-ingurunean garatzen direnetan arreta berezia jarrita, hala nola: autonomoi eta enpresa txikiei laguntzea plan estrategikoen, erraztasun administratiboen, tramiteak sinplifikatzearen, ikastaroen eta abarren bidez.
- Kontsumo arduratsuari, ekologikoari, hurbilekoari eta zero kilometrokoari lotutako merkataritza txikiaren esparruko ekimenak sustatu eta babestuko ditugu.

Ekintzailatza, kooperatibismoa eta autonomoak babestea

- Elkarrekin- eta enpresa-eredua erakunde bizigarrietarantz igarotzea bultzatuko dugu. Erakunde horiek patriarkalak ez diren ikuspegietatik eraikitzen dira, eta pertsonak, haien ongizatea eta bizitzaren zaintza erdigunean jartzen dituzte.
- Ekonomia sozial eta solidarioaren esparruan ekintzailatza sustatzea, ibilbide, programa eta tresna bereziak sortuta eta publiko espezifikoak aintzat hartuta (emakumeak, etorkinak, gazteak, etab.).
- Gobernantza-eredu berri bat bultzatuko dugu, enpresa kooperatiboen eta horiek ordezkatzen dituzten erakundeen, hala nola KONFECOOPen, zeharkako parte-hartzearen bitartez elkarriketa instituzional eta sozialean, Euskadiren garapenerako eragile erabakigarriak diren aldetik. Ildo horretan, KONFECOOPek Lanbideren Administrazio Kontseiluan eskubide osoko kide gisa parte hartuko duela bermatuko dugu (Enpleguari buruzko Legearen arabera), eta gainerako elkarriketa zibil eta sozialeko guneetan ordezkaritza orekatuko dugu, ordezkatutako gainerako patronalekin batera.
- Enpresa kooperatiboen garrantzi instituzionala areagotuko dugu Eusko Jaurlaritzaren egitura berriaren barruan. Zentzu horretan, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sailburuordetza sortuko dugu.

- Gizarte-ekimeneko eta onura publikoko kooperatibentzako sustapen-neurri espezifikoak garatzea, beren ezaugarriengatik eta orientazioagatik guztion onerako diren heinean.
- Kooperatiba mistoak identifikatzea eta haien garapena bultzatzea, erakunde publikoen, ekonomia sozial eta solidarioko enpresen eta herritarren parte-hartzearekin, sektore estrategikoetan (energia, mugikortasuna, elikagai tokikoak eta ekologikoak...).
- Finantzaketa alternatiboko eta gizarte-ekimeneko tresnak garatzen laguntzea: banka etikoa, hurbileko jarduera parabankarioak, etab.
- Ekonomia sozialeko laguntzen eta dirulaguntzen aurrekontu-zuzkidura handituko dugu, ekintzailatza kooperatiboaren sustapenean arreta jarritz eta baldintza arautzaileak sinplifikatuz, enpresa kooperatibo guztientzat eskuragarriagoak izan daitezen.
- Eusko Jaurilaritzatik, eta Zerga Koordinaziorako Organoaren bitartez, eredu sozioenpresarial kooperatibista bultzatuko duen eta lehiakortasuna bermatuko duen zerga-politika sustatuko dugu, horretarako beharrezkoak diren zerga-tresnak ezarriz.
- Ekonomia sozialerako merkatu-erreserbaren legezko betebeharra betetzen dela monitorizatuko dugu. Izan ere, Euskadiko gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuen kontratu publikoak lan elkartuko kooperatibei, lan-sozietateei eta elkarteei erreserbatzea ez da betetzen, eta erregularizatu egin behar da.
- Langile autonomoentzako eta ETE-entzako laguntzak eta kreditu-erraztasunak zabalduko ditugu. Kolektibo horrentzako laguntzak nabarmen hobetzea proposatzen dugu. Laguntza horiek Estatukoekin bateragarriak izan behar dute eta horiek hobetu behar dituzte, urteroko dekretuaren bidea ezabatuta eta esleitutako aurrekontu baten bidez kolektibo horiei laguntzeko plan estrategiko bat diseinatuta.
- Autonomoen kasuan, laguntzaren zenbatekoa egungo 3.500 eurotik 10.000ra zabalduko dugu, eta % 25 handituko dugu 18 urtetik gorako eta 30 urtetik beherakoentzako, eskabidea aurkezteko unean, eta beste % 25 gehiago emakumea izanez gero.
- ETE-en kasuan, egungo 560 milioietatik 1.000 milioira igoko dugu aurrekontua, eta orain arte arretarik jaso ez duten sektoreetara zabalduko dugu hura.

- Funts bat sortuko dugu ETEak sektore estrategikoetan birkapitalizatzeko. Orobat, alokairuen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan luzamenduak sartu behar dira.
- Proposatzen dugu autonomoentzako, ETE-entzako eta produktore txikien partzuergoentzako kontratazio- eta erosketa-prozesu irigarriak lizitatzea, baldin eta adjudikazio-irizpide hauek betetzen badituzte: hurbiltasuna, ingurumena, bidezko merkataritza, gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen enplegua eta genero-berdintasunaren irizpideak.
- ETE-ei, autonomoei eta ekintzaileei laguntzeko euskal bulego bakarra sortuko dugu, enpresa txikiei ematen zaien laguntza hobetzeko, eta tramite burokratikoaren finantzaketan, aholkularitzan eta arintzean zerbitzuak emateko.
- Europako funtsak ekonomia alternatibo eta solidaria bideratuko ditugu, eta prestakuntza-programen eta beste zerbitzu batzuen bidez, funts horiek eskuratzeko aukera ahalbidetuko duten proposamen berritzaileak egiteko sektorearen gaitasunak areagotuta.
- Ekintzaileei bete-betean lagunduko diegu negozioa edo enpresa ezarri eta garatzen den lehen hiru/bost urteetan, lagun egitea eta aholkularitza barne dela.
- Sektore jasangarrienak lehenetsiko dituen plan estrategiko bat egingo dugu, ETE-en, ikerketa-zentroen, teknologia-parkeen eta unibertsitatearen arteko sinergiak bultzatuta.
- Zuzeneko kanal bat jarriko dugu abian Enplegu Sailaren kontrataziorako laguntzen eta ekintzaileen langile kualifikatuen beharrezanaren artean.
- Laguntza-lerro bat ezarriko dugu pabiloiak eta merkataritza-lokalak alokatzeko, negozioak abian jar daitezen, landa-ingurunean garatzen diren ekimenei lehentasuna emanda.
- Enpresei laguntzeko sareak sortzea bultzatuko dugu, enpresa txikiei zerbitzu espezializatueterako sarbidea errazteko, kostuak murrizteko eta lehiakortasuna hobetzeko baliabide gisa.
- Denbora ekonomikoaren banku bat (edo antzeko foro bat) sortuko dugu, non esperientzia duten eragile ekonomikoek hainbat diziplinatan (finantzak, marketina, erakusleho-apainketa, erosketak, salmentak, telefono bidezko arreta, mostradoreko arreta...) ekintzaile berriei ezagutza eman ahal izango dieten.

- Erakundeen arteko lankidetza bultzatuko dugu tokiko eta atzerriko inbertsioak gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideekin erakartzeko neurriak ezartzeko.
- Euskadiko kooperatibismoarentzat eta gizarte-ekonomiarentzat abangoardiako eta berrikuntzako HUB bat eratuko dugu.
- Industria-subiranotasun estrategikoa lehentasunezko ildo izango da Eusko Jaurlaritza berriaren ekintzarako, Euskadiko industria-sektoreko enpresa kooperatiben lehiakortasuna indartzeko.
- Langileak kaleratzeko edo itxeko arriskuan dauden enpresa txiki eta ertainen bideragarritasuna defendatu eta akordio soziala bultzatuko dugu.
- Ekonomia kolaboratibo eta jasangarriko proiektuetarako programa espezifikoak garatzea bultzatuko dugu. Programa horiek prestakuntza, aholkularitza eta laguntza espezializatua barne hartzen dituen ibilbidea eskainiko dute, baita parte hartzeko eta lankidetzarako espazioak ere.
- 45 urtetik gorakoentzako ekintzailtza-programa berezi bat garatuko dugu, alderdi sozioekonomikoak, belaunaldi-aldaketak eta ekiteko prest dauden pertsonen prestakuntza eta esperientziak kontuan hartuta.
- Lehenengo urteetan, gazteen ekintzailtza-ekimenak bultzatu eta babestuko ditugu, batez ere gizartean eragin positiboa duten proiektuak, gizarte- edo ingurumen-arazo bat ebaztea helburu izango dutenak.
- Ekintzailtza zientifikoa sustatuko dugu, eta oinarri zientifikoko enpresa bat sortu nahi dutenei lagunduko diegu.
- Lantegi-etxearen eta merkataritza-etxearen figura bultzatuko dugu, eta aukera emango dugu orain hutsik edo itxita dauden lokal jakin batzuk, aldi berean, enpresa-proiektu berri bati ekiten dioten pertsonen ohiko etxebizitza eta merkataritza-lokala izan dadin.
- Lankidetzako etxebizitzaren eta energia-komunitateen esperientziak indartuko ditugu, sustapen-neurri espezifiko bidez, ekonomia alternatibo eta solidarioaren esperientzia arrakastatsu gisa.

11. ERALDAKETA EKOLOGIKOA ETA INDUSTRIA-EREDU BERRIA

Klima-aldaketa da gure gizarteak aurre egin behar dion erronka handietako bat. Berotze globalak muturreko klima-aldaketa ekarri du berekin. Horren ondorioz, klima-fenomeno bortitz gehiago izango dira (ekaitzak, lehortek, uholdeak), itsas maila handituko da, biodibertsitatea galduko da, krisi humanitario eta ekonomikoak izango dira eta errefuxiatu klimatikoak ugarituko dira, elikagaien eta uraren gabeziagatik. Komunitate zientifikoak etengabe gogorarazten digu: edo CO₂-aren eta berotegi-efektuko beste gas batzuen emisioak izugarri murrizten ditugu (eta hori laster egiten dugu), edo itzulerarik gabeko ibilbide batean sartuko gara, eta klima-aldaketaren ondorioak larriak eta atzeraezinak izango dira.

ELKARREKIN PODEMOSen argi daukagu: hurrengo legegintzaldi honetan euskal ekonomiaren eta industriaren eraldaketa berde baterantz jotzeko premiazko lana dugu, jasangarria eta datozen belaunaldiekiko arduratsua izango den eraldaketarantz. Horrek esan nahi du hainbat arlotako erronkei aurre egitea: klima-aldaketa geldiarazteko helburuak beteko dituen benetako trantsizio ekologikoa gauzatzea Euskadin; pobrezia energetikoari amaiera ematea eta mendekotasun energetikoa murriztea; trantsizio agroekologikoari ekitea; Euskadiko ingurumena babesteko eta kontserbatzeko neurri irmoak aplikatzea; lehen sektorea babesteko politika berriak; uraren, zarraren, airearen eta hondakinen inguruko neurriak; jakina, eredu industrial berri bat; lurralde-antolamendurako, garraiorako eta mugikortasunerako proposamen berriak; eta, halaber, animaliak babesteko politikak.

11.1. Trantsizio energetikoa

- Sistema ekonomikoaren trantsiziorako konpromiso globala hartzen dugu. Beharrezkoa da etengabeko hazkundean oinarrituko ez den eta baliabide mugatuak dituen planeta baten errealitatea kudeatzeko gai izango den ekonomiarako trantsizioa hastea. Trantsizio ekonomiko horrek trantsizio energetikoarekin batera egin behar du aurrera, larrialdi klimatikoari aurre egiteko eta hori planetaren mugekin bateragarri egiteko garaian arrakasta izan nahi badugu.
- Energia sarbide unibertsaleko ondasuntzat hartzen dugu. Energia funtsezko ondasuna da, eta energiarako sarbide unibertsala bermatu behar da, energia-pobreziarekin amaitzeko, desberdintasuna ahalik eta gehien murrizteko eta pertsonak bizitza duina izatea ahalbidetzeko. Eta, ondasun urria denez, funtsezkoa da ingurumen- eta gizarte-erabilera desiragarriak lehenestea, oinarritzko premiak asetzen direla bermatzeko.
- Trantsizio energetikoak bidezkoa izan behar duela jotzen dugu. Trantsizio energetiko bidezkoak oinarritzko zutabe batzuetan oinarritu behar du, hala nola herri-subiranotasunean, ekitatean,

autonomian, errespetuan eta justizia sozialean; hori guztia parte-hartze sozialaren eskutik, zutabe horiek gabe ezin baita bidezko trantsizio energetikorik egin. Eredu justu baten alde egiteak esan nahi du, halaber, beste herrialde batzuekin bidezkoak izatea, batez ere Hego Globalekoekin, eta horrek berekin dakar lurraldearen muga ekologikoak errespetatzea, herrialde horien baliabideak ez xahutzea edo haien hustubideak ez erabiltzea. Horretarako, funtsezkoa da Euskadiren zor ekologikoa minimizatzea.

- Sistema energetikoaren kontrol publiko eta sozialaren alde egiten dugu: Oinarrizko ondasunak (energia kasu) modu garden eta demokratikoan kudeatu behar dira. Herritarrak erabat informatuta baldin badaude, produkzio-, banaketa- eta kontsumo-sisteman parte hartuko dute, eta autokontsumorako, deszentralizaziorako eta autosufizientziarako bidean aurrera egingo dute. Horretarako, funtsezkoa da energia-enpresa publiko bat sortzea, energia-subiranotasunean eta krisi ekologikoaren aurkako borrokan aurrera egiteko beharrezko tresna gisa, helburu hartuta merkatu elektrikoan lehia sortzea, 2045erako 9.000 MW energia produzitzeko eta elektrizitate berriztagarria prezio lehiakorretan merkaturatzeko.
- Konpromisoa hartzen dugu Euskadik erregai fosilekiko duen mendekotasunari premiaz amaiera emateko, 2045erako energia berriztagarrietan % 100ean oinarritutako energia-sistema baterantz igarotzeko helburu argia ezarrita eta industriarentzat zein herritarrentzat prezio eskuragarriak ziurtatuta.
- Komunitate energetikoak eta eredu deszentralizatua bultzatuko ditugu. Trantsizio energetikoak aurrezpenean, efizientzia energetikoan eta autokontsumoan oinarritutako eredu banatu baterako trantsizioa izan behar du. Ildo horretatik, komunitate energetikoek oinarrizko tresna gisa eta eraldaketarako eta trantsizio ekologiko bidezkorantz aldatzeko tresna boteretsu gisa duten potentzial osoa garatu behar da. Banatutako energiaren eta komunitate energetikoak eratzearen aldeko apustua eginez, energia-subiranotasuna lortzea ahalbidetuko dute, produkzioa lurraldera hurbiltzen dutelako eta, batez ere, ahalbidetu luketelako kontsumitzaileen jabetza eta zuzeneko kontrola, oligopolioarekiko mendekotasuna hein handi batean ezabatuta.
- Energia Zentral Handien erregulazio berria onartuko dugu. Zentral energetiko handien instalazioa erregulatuko dugu, eta haiek bizkortuko ditugu lehentasunezko zonetan, hala nola hiri eta eremu degradatuetan, eta debekatu egingo ditugu zehaztutako bazterketa-zonetan.

- Gobernantza energetikoaren eredu berri bat ezarriko dugu, herritarren parte-hartzean, zientzian eta alor publikoan oinarritua, politika energetiko eta klimatikoaren formulazioan erabakiak modu gardena eta demokratikoan hartuko direla bermatuta, informazio garrantzitsua zabaldua eta proiektu energetikoei buruzko kontsulta publikoak eginda.
- Komunitate zientifikoaren parte-hartzea indartuko dugu trantsizio energetikoarekin lotutako erabakiak hartzean, eta Batzorde Zientifiko bat sortzea sustatuko dugu. Batzorde horrek zientzian eta datu zientifikoetan oinarritutako trantsizio energetikorako bide-orriaren diseinuan parte hartuko du.
- Klima Aldaketaren aldeko Herritarren Batzar bat ezarriko dugu. Batzar horrek Eusko Jaurlaritzarentzat lotesleak izango diren erabakiak hartuko ditu bere proposamenak Batzarraren % 90ek baino gehiagok baliozkotzen dituenean.
- Energia-efizientzia eta kontsumoaren murrizketa lehenetsiko ditugu trantsizio energetikoaren funtsezko zutabe gisa, lurraldea okupatzen duten edo ingurumen- eta gizarte-inpaktuak sortzen dituzten energia-instalazio handien beharra minimizatzeko neurri zehatzak ezarrita.
- Elektrifikazioa sustatuko dugu funtsezko sektoreetan, hala nola garraioan, industrian eta etxebizitzan.
- Garraio-politika berriak ezarriko ditugu. Elektrifikazioaren aldeko apustua ez da nahikoa mugikortasun-ereduak errotik aldatzen ez badira. Horregatik, funtsezkoa da ibilgailuen garraioa, itsasokoa eta airekoa nabarmen murriztea, batez ere salgaien garraioan, eta garraio hori gutxiago kutsatzen duten inguruneetara bideratzea, hala nola trenbide tradizionalera. Garraio-eredua guztiz bestelako eredu batean eraldatu behar da. Eredu horren arabera, joan-etorrien beharrak murriztu behar dira eta garraio kolektibo (autobusak eta ohiko trenak) elektrifikatua erabiltzean oinarritu behar da. Hiriko joan-etorrien kasuan, oinez eta bizikletaz ibiltzea lehenetsi behar da. Bizikleta eta oinezkoen garraiobide aktiboen erabilera sustatuko dugu, azpiegitura seguruak sortuta eta hiri-mugikortasun jasangarriko politikak ezarrita.
- Hirigintza-politika berriak aplikatzeko beharrari erantzungo diogu. Hiri askotan ekintza-planak gauzatzen ari dira klimaren alde, batez ere eraikinen birgaitzean oinarritutako energia-efizientziara bideratuta. Birgaitze horiek batez ere energia-pobreziako egoeran dauden etxeetara bideratuta egon behar dute. Horri dagokionez, kontuan izan behar da Euskadiko

etxebizitza-parkearen batez besteko antzinatasuna 40 urte ingurukoa dela; hortaz, aurrezte-eta efizientzia-parametro eskasekin egindako eraikin gehienek aurrean gaudela. Baina aurrezpen eta energia-efizientzia lortzeko etxebizitzak birgaitzeaz gain, lurzoruen erabilera planifikatzeko estrategia anbiziotsuak (birnaturalizazioa) eta sakabanatzea murrizteko eta bizitegi- eta enplegu-dentsitate handiko hirigintza-garapen trinkoak sustatzeko sektorearteko neurriak sartzea planteatzen dugu, helburu hartuta mugikortasunaren, dibertsitate handiaren eta lurzoruen erabileren integrazio-beharrak murriztea, irisgarritasuna handitzea eta garraio publiko kolektiboan edo motorrik gabeko beste modu batzuetan (bizikleta edo pasealekua) inbertitzea. Egoteko eta bizitzeko, eta ez mugitzeko bakarrik, hiriak eta herriak planteatzen ditugu.

- Industria-sektorea deskarbonizatzeko neurri zehatzak ezarriko ditugu —prozesuen elektrifikazioa, ekonomia zirkularraren sustapena, eraginkortasun energetikoa eta industria berde bateranzko eraldaketa barne—, 2045erako berotegi-efektuko gasen emisioak % 75 murrizteko helburuarekin.
- Hiperkontsumoa, zaharkitze programatua eta elikagaien xahutzea murriztuko dituzten politikak sustatuko ditugu, baita produkzio- eta kontsumo-eredua aldatzeko ingurumenaren arloko hezkuntza eta sentsibilizazioa sustatu ere.
- Trantsizio energetikoak trantsizio agroekologikoarekin duen lotura geure egiten dugu. Trantsizio energetikoak Euskadiko nekazaritzako elikagaien sistemaren trantsizio agroekologikoarekin batera joan behar du. Trantsizio agroekologiko horrek oinarri hartuko ditu: tokiko baliabideetan oinarritutako nekazaritza ekologikoaren erabilera orokortzea; energia berriztagarrien erabilera; abeltzaintza estentsiboan jardutea; elikagaien hornidura-katean hondakinak murriztea; giza dieta aldatzea eredu osasungarriagoak lortze aldera; eta nekazaritza eta abeltzaintza birsortzailean eta agroekologian oinarritutako elikadura-eredua. Horrez gain, arriskuan dauden nekazaritza-ekosistemak kontserbatzeko politikak sustatuko ditugu, eta nekazaritza-eta abeltzaintza-biodibertsitatea berrezarriko ditugu, nekazaritza- eta abeltzaintza-lurak zainduta, elikadura-subiranotasuna ziurtatzeko.
- Konpromisoa hartzen dugu teknologia garbiak eta berriztagarriak ikertzeko eta garatzeko inbertsioa handitzeko, baita energia-efizientziarako eta energia biltegitratzeko soluzio berritzaileetarako ere.

- Ekonomia zirkularra sektore guztietan sustatuko duten politikak sustatuko ditugu, hondakinen berrerabiltzea, birziklatzea eta murriztea sustatuta. Era berean, arlo horretan enplegu berdea sortzen lagunduko dugu.
- Ingurumen-hezkuntzari eta trantsizio energetikoari buruzko kontzientziazioa hezkuntza-sisteman txertatuko ditugu adin txikietatik, jasangarritasunarekin konprometituta dauden herritarrek prestatzeko.
- Tokiko merkataritzako eta merkataritza jasangarriko ekimenak babestuko ditugu, ingurumenean inpaktu txikia duten produktu eta zerbitzuen produkzioa eta kontsumoa sustatuta eta elkarlaneko ekonomiako sareak sortzen lagunduta.
- Beste eskualde eta herrialde batzuekin lankidetzan lan egingo dugu, klima-aldaketa-aren eta energia-trantsizioaren aurkako borrokan anbizio handiko nazioarteko politikak eta akordioak bultzatzeko.
- Trantsizio energetiko ekofeministaren alde egingo dugu. Proposatzen diguten energia-eredua eta trantsizioa oligopolikoa da (zentralizatua eta enpresa gutxi batzuen esku), ekozida (ez ditu kontuan hartzen planetaren mugak) eta bidegabea (bereziki Hego Globalerako), baina, gainera, matxista da. Genero-desberdintasuna pobrezia energetikoa pairatzeko arrisku-faktore bat da, edo energia-gaietan erabateko parte-hartzea eta erabakitze ahalmena eskatzeko oztopo bat. Faktore horri beste batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola adina, dibertsitate funtzionala, etxebizitza mota, bizi den udalerrria, herrialdea edo kontinentea, etab. Gure trantsizio energetikoari dagokionez, emakumeen zeregina funtsezkoa da. Horiek dira, kalteberatasuna duten beste kolektibo batzuekin batera, energia-politika neoliberalen inpaktuak gehien pairatzen dituztenak. Horregatik, funtsezko zeregina izan behar dute trantsizio energetikoan.

11.2. Trantsizio agroekologikoa Euskadin

Programa honek proposamen integral eta eraldatzailea azaltzen du, agroekologian eta lankidetzan oinarritutako nekazaritzako elikagaien tokiko sistemak sustatzeko, helburu hartuta tokiko nekazaritza-komunitateetan elikadura-autonomia, gizarte-ekitatea eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzea. Gure herritarren segurtasuna eta osasuna bermatzea ez ezik, ekitatea eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzea ere bilatzen dugu. Uste sendoa dugu Euskadiko trantsizio agroekologikoaren bideragarritasunean. Trantsizio hori posible izateaz gain, beharrezkoa ere bada.

Eskaria mobilizatzea

- Elikadura osasungarria sustatuko dugu elikadura-kate osoan jardunbide jasangarrien ardatz gisa, eredu dietetiko horretan oinarritutako elikadura-gidak prestatuta, tokiko produktuak eta produktu tradizionalak sustatuz eta nutrizio-hezkuntza osasun publikoko programetan sartuz.
- Kontsumitzaileek nekazaritzako jardunbide ekologikoak babesten dituzten elikagaien hautaketan aktiboki parte har dezaten sustatuko dugu.
- Elikadura-ohiturek gizartean, ekonomian eta ingurumenean dituzten eraginen gainean heziko dugu, erosketa arduratsua sustatuta.
- Politika orokor gisa, animalia-proteinaren kontsumoa murriztea planteatuko dugu. Hala, hurrengo 4 urteetan animalia-proteinaren kontsumoa % 30 murrizteko helburua ezarriko dugu, landare-elikagaietan oinarritutako dieta baten onurei buruzko kontzientziazio-kanpainak sustatuta eta osasungarriak ez diren haragi-produktuen publizitatea mugatuta.
- Politika orokor gisa, barazkien eta lekaleen kontsumoa areagotzea planteatuko dugu, eta helburu gisa ezarriko dugu barazki eta lekaleen kontsumoa % 50 handitzea datozen 4 urteetan. Horretarako, eskoletan elikadura-hezkuntzako programak sustatuko ditugu, jatetxeetako menuetan aukera begetariano gehiago gehituko ditugu eta elikagai horiek produzitzeko eta saltzeko pizgarriak ezarriko ditugu.
- Hurrengo 4 urteetan azukrearen kontsumoa % 25 murriztea izango da helburua, elikagai prozesatuetan eta edari azukredunetan azukrearen edukia mugatzeko politikak ezarrita, eta azukrearen gehiegizko kontsumoak osasunerako dituen arriskuei buruzko sentsibilizazio-kanpainak bultzatuta.
- Abeltzaintza estentsiborako eta kalitatezko haragia produzitzeko laguntza ekonomikoko neurriak ezarriko ditugu, modu jasangarrian produzitutako haragiaren proportzioa handitzeko eta abeltzaintza intentsiboarekiko mendekotasuna murrizteko. Horren barruan sar litezke abeltzaintzako praktika estentsiboak hartzen dituzten pertsona eta ustategientzako dirulaguntzak eta modu jasangarrian produzitutako animalia-jatorriko produktuak ziurtatzen dituzten kalitate-zigiluen sustapena.

Elikagaiak alferrik galtzea

- Elikagaien galera eta alferrik galtzea murrizteko helburu argi eta neurgarriak ezarriko dituzten legeak eta araudiak inplementatuko ditugu, eta datozen 4 urteetan elikagaien galera eta alferrik galtzea % 50 murrizteko konpromisoa hartuko dugu.
- Etxeetan, saltokietan eta jatetxeetan elikagaien aprobetxamendu osoa sustatuko duten praktikak ezartzea bultzatuko dugu.
- Elikadura-kate osoan praktika iraunkorrak ezartzea sustatuko dugu, produktotik hasi eta kontsumoraino, pizgarri ekonomikoen, aholkularitza teknikoaren eta trebakuntzaren bidez.
- Kontzientziazio publikoko kanpainak garatuko ditugu, herritarrei elikagaiak xahutzeak ingurumenean, ekonomian eta gizartean duen eraginaren berri emateko, eta kontsumo-ohitura arduratsuak sustatzeko.
- Saldu ez diren baina oraindik kontsumorako egokiak diren elikagaiak emango dizkiegu ongintzako erakundeei eta elikagai-bankuei, enpresentzako pizgarri fiskal eta logistikoen bidez.
- Hondakin organikoen kudeaketa egokia sustatuko dugu komunitateko konpostaje-sistemak ezarrita, baita gaikako bilketarako programen bidez eta ekonomia zirkularreko ekimenei laguntza emanda.
- Elikagaiak biltegiratzeko, kontserbatzeko eta garraiatzeko teknologia berritzaileak ikertzen eta garatzen inbertituko dugu, elikatze-kate osoan zehar galera eta hondamena murrizteko.
- Beste herrialde eta nazioarteko erakunde batzuekin lankidetzan arituko gara, jardunbide egokiak, datuak eta baliabideak partekatzeko, eta, oro har, elikagaien hondakinen arazoari elkarrekin heltzeko.

Nekazaritza Jasangarria

- Nekazaritza Ekologikoan oinarritutako Tokiko Nekazaritzako Elikagaien Sistemak sustatuko ditugu. Sistema horien bidez, elikagai-araubide berri bat sortu nahi da nagusi denaren orde, tokiko produkzioan oinarritua, jasangarria eta irisgarria, produktoreentzako bidezko ordainketak eta kontsumitzaileentzako prezio eskuragarriak ziurtatuta. Asmoa da elikadura-autonomia eta balio erantsiaren atxikipena bultzatzea tokiko komunitateetan. Sistema horiek

oinarritzen dira ibaian behera lankidetzan (downstream), banaketa-kanal laburragoak eta jasangarriagoak sortuta, baita ibaian gora ere (upstream), produkzioen integrazioa eta energia-kontsumoaren murrizketa sustatuta, nutrienteen zikloak eta tokiko sargaien produkzioa lotuz.

- Osasunaren, hezkuntzaren, ingurumenaren eta lurralde-plangintzaren arloetako alderdiak jorratuko dituzten elikagai-politiketan herri-administrazioek —batez ere toki-administrazioek— aktiboki parte har dezaten sustatuko dugu. Horrela, eragile garrantzitsu guztiak inplikatuak dituen eta elikadura-sistema jasangarriago eta bidezkoagoetarako trantsizioa sustatuko duen elikadura-gobernantza baten beharra planteatzen da.
- Nekazaritza-produkzioan jardunbide agroekologikoetara igarotzea bultzatuko dugu.
- Laboreen dibertsifikazioa eta errotazioa sustatuko dugu, lurzoruen osasuna hobetzeko eta agrokimikoekiko mendekotasuna murrizteko.
- Biodibertsitatea eta erresilientzia ekologikoa sustatuko duten produkzio organikoko eta nekazaritza eta basogintzako metodoak sustatuko ditugu.
- Agroekologiaren jardunbide eta printzipioen eskala maila zabalagoetara edo eremu geografiko gehiagotara hedatuko dugu. Horrek berekin dakar ikuspegi agroekologikoak esperientzia indibidualetatik edo tokikoetatik haratago eraman beharra, gutxienez autonomia-erkidegoan zabalagoak izango diren nekazaritzako elikagaien sistemetan aplikatzeko. Esperientzia agroekologikoen eskala handitzeko erronkak berekin dakar oztopo instituzionalak gainditzea eta agroekologiaren aldeko antolaketako modu berriak sortzea. Horrek esan nahi du, eraldatu behar direla, produktu organikoen eta tokiko produktuen kontsumoa handitzeaz gain, egungo elikadura-sistema nagusiaren oinarri diren egitura instituzional eta ekonomikoak.

Bidezko eta Tokiko Merkataritza

- Lehentasuna emango diogu produktore eta kontsumitzaileen arteko zuzeneko salmentari, tokiko merkatuen eta kooperatiben bidez.
- Tokiko eta sasoiko produktuak merkaturatzeko laguntza ekonomiko eta logistikoko politikak ezarriko ditugu.
- Tokiko produktu agroekologikoak ziurtatzea eta etiketatzea sustatuko dugu, gardentasuna eta kontsumitzailearekiko konfiantza bermatzeko.

- Lehentasuna emango diogu elikatze-kateko kate-mailen arteko lankidetzari, lehiakideen gainetik. Horrek esan nahi du esperientziak isolatzeko eta zatikatzeko logika alde batera utzi behar dela, eta sinergiak sustatu behar direla elikagaien produkzioa, banaketa eta kontsumoa modu jasangarriago eta bidezkoagoan sustatzeko.
- Merkatu globalekiko konektibitatea eta autonomia maximizatzea bilatuko dugu, tokiko produkzioa eta kontsumoa sustatuta eta kultura-identitatea sortuta. Horrek berekin dakar lurraldean berrikuntza sozial, ekonomiko eta ekologikoak artikulatuko dituen tokiko garapen autozentratuko estrategia bat ezartzea.

Elikadura-subiranotasuna

- Tokiko produkzioa eta elikagaien aniztasuna kanpoko merkataritza-interesen aurrean babestuko dituzten nekazaritza-politikak defendatuko ditugu.
- Tokiko beharretara egokitutako nekazaritza-teknologia jasangarrien ikerketa eta garapena bultzatuko dugu.
- Pertsona guztientzat osasungarriak eta kulturalki egokiak izango diren elikagaiak ekitatez eskuratzea bermatuko dugu, haien egoera ekonomikoa edo geografikoa edozein dela ere.

Elikatze Katearen Legea aldatzeko proposamena

- Elikatze-katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abenduaren 14ko 16/2021 Legea Euskadin benetan betetzen dela bermatzeko konpromisoa hartzen dugu. Lege hori funtsezkoa da nekazariak eta produktoreak bideragarritasun ekonomikoa ahultzen duten jardunbide bidegabeetatik babesteko (hala nola galeretarako salmentetatik). Legeria horren aplikazio zorrotza sustatuko dugu, elikatze-kate osoan bidezko prezioak eta ekitatiboak errespetatzen direla ziurtatzeko. Eta lege horrek funtzionatzen ez duela zehazten bada, alda dadin aldarrikatuko dugu.
- Elikatze Katearen Legea aldatzea proposatzen dugu, kate osoko elikagaien produkzio-kostuei eta enpresa banatzaileen mozkin-marjinei buruzko aldizkako txostenak argitaratzeko betebeharra sartzeko. Horrek ahalbidetu egingo du gardentasun eta agerikotasun handiagoa lortzea elikatze-katearen etapa bakoitzeko prezioen eta mozkin-marjinen gainean, inplikaturako eragile guztien artean etekinen banaketa bidezkoagoa eta ekitatiboagoa ziurtatuta.

- Elikatze Katearen Legearen zehapen-araubidea aldatzearen alde gaude, xedapenak betetzen ez dituztenen aurkako neurriak gogortzeko. Gehiegizko jardunbideengatik eta legea urratzeagatik isunak hirukoiztea proposatzen dugu. Haien artean daude, besteak beste, galeren ondoriozko salmentak egitea edo adostutako prezioak ez betetzea, disuasio-neurri gisa eta araudia benetan betetzen dela bermatzeko.
- Euskadiko elikatze-katearen behatoki bat sortzea proposatzen dugu, elikatze-katearen funtzionamendua monitorizatu eta aztertzeko. Behatoki horrek datu garrantzitsuak bilduko ditu prezioei, irabazi-marjinei, merkataritza-jardunbideei eta elikatze-katearekin lotutako beste edozein alderdiri buruz, eta funtsezko informazioa emango du erabaki politikoak hartzeko eta elikagaien sektorean ekitatea eta gardentasuna sustatzeko neurri eraginkorrak ezartzeko.

Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) hobetzeko proposamenak

- Gobernantza hobetuko dugu herritarrekin NPB bat eraikitzeko, gobernantza-espazioak irekita gizarte zibilari eta ingurumenean eta osasunean eskumena duten agintariei. NPBa diseinatu eta aplikatuko dugu produktoreen, ingurumen-arloko GKE-en, landa-garapeneko elkarteetan eta abarren parte-hartzearekin. Gainera, jarraipen- eta ebaluazio-sistemak ezarriko ditugu, helburuak baloratzeko eta, beharrezkoa bada, politika berriz diseinatzeko.
- NPBa elikatze-sistema jasangarrietarako beste politika batzuekin koherentzian aplikatuko dugu, gizartearen, ingurumenaren, ekonomiaren eta osasun publikoaren arloko helburuak ekitatiboki lortzen laguntzeko: NPBa elikagai ekologikoen aldeko ingurumen-fiskalitatearekin osatuta; landaguneetako ondasun publikoei eta multifuntzionaltasunari balioa emanda; basogintzak, abeltzaintzak eta nekazaritza ekologikoak lurraldearen kontserbazioan duten eginkizuna aintzatetsita; eta jarduera horiek natura eta beste ondasun publiko batzuk kontserbatzeko egiten duten ekarpena baloratuta.
- Produktore jasangarrientzako errenta eta baldintza soziorabazko bidezkoak bermatuko ditugu, balio sozioingurumenekoa duten finken bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko laguntzak berridiseinatuta eta produktore ekologikoei (babestutako eremuetan) edo biodibertsitatea mantentzen dutenei lagunduta.
- Nekazaritzako enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sustatuko dugu, balio sozioingurumenekoa duten finketan enplegu aktiboa mantentzeko laguntzen gehieneko mugak ezarrita eta nekazaritzako elikagaien sektorean laneko arriskuak prebenitzeko ezagutza eta tresnak eskainita.

- Belaunaldien arteko txanda eta landa-eremuko despulazioaren aurka borrokatzeko proiektu berritzaileak babestuko ditugu, gazteak eta emakumeak nekazaritza-jardueran sar daitezen lagunduta eta lurraldea kudeatzeko jarduera eta figura berritzaileen dibertsifikazioa sustatuta.
- Nekazaritzako ustiategi txiki eta ertainetarako berariaz diseinatutako administrazio-prozedura sinplifikatuak ezarriko ditugu. Horrek barne hartuko du eskatutako dokumentu kopurua murriztea, formularioak sinplifikatzea eta prozesuak digitalizatzea, erraztu egin dadin eskabideak aurkeztea eta funtsak kudeatzea.
- Nekazariei NPBaren administrazio-baldintzak ulertzen eta horiek betetzen laguntzeko asistentzia teknikoa eta trebakuntza espezializatua emango diegu.
- Agintari eskudunen artean harremanetarako guneak ezarriko ditugu, ustiategi txiki eta ertainei laguntza pertsonalizatua emateko eskaera- eta jarraipen-prozesu osoan. Harremanetarako gune horiek zuzeneko esteka gisa erabiliko dira zalantzak argitzeko, orientazioa emateko eta administrazio-tramiteak arintzeko.
- Ziurtatu egingo dugu lurrerako sarbidea, jasangarritasunaren paradigmapean produzitzeko, zuzeneko ordainketen eredua birdiseinatuta, lurrerako sarbidea errazteko. Gainera, irizpide agroekologikoen arabera kudeatutako lur-bankuak sustatuko ditugu.
- Prestakuntza-, erakustaldi- eta laguntza-sistema integratu bat ezarriko dugu. Horretarako, ezagutza transferitzeko sistemak ezarriko ditugu, sistema jasangarrietarako trantsizioa bultzatzeko, eta finken Estatuko sare bat sortuko dugu, elikagaien arloko jasangarritasunari buruzko esperientziak partekatzeko.
- Emakumeek nekazaritzako elikagaien sektorean duten zeregina indartuko dugu, eta landa-ingurunean dituzten beharrei erantzungo diegu, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta ekitatea bermatuta nekazaritza-ustiategiaren titulartasunean, eta familiak landa-inguruneetan egotea bermatzeko laguntza-neurriak erraztuta.
- Elikagai ekologiko eta jasangarriak herritar guztientzat eskuragarri egingo ditugu. Horretarako, produkzio agroekologikoa eta balio natural handiko sistemak babestuko ditugu, eta elikatze-katean zehar kontsumitzaileentzako bidezko prezioak bermatuko ditugu.

- Dieta jasangarria bultzatuko dugu, fruten eta barazki eta zereal integralen kontsumoa sustatuta (bereziki ekoizpen ekologikokoak), eta gizartean dieta jasangarriaren printzipioak bultzatuta.
- Kalitatezko elikagaien tokiko hornidura bultzatuko dugu, artisau-produkzioa eta -eraldaketa, zuzeneko salmenta eta merkaturatze-zirkuitu laburrak bultzatzen dituzten elikagai-proiektuak babestuta eta gizarte-ekonomian eta balio-kate partekatuetan oinarritutako negozio-ereduak sustatuta.
- Elikagaiak alferrik galtzea murriztuko dugu, elikagaiak merkatutik kentzeko finantzaketa mugatuta, uztak aldeztu aurretik planifikatuta eta elikagaiak xahutzearen aurka borrokatzeko esku-hartzeak ezarrita.
- Elikagai-politika komun baterantz egingo dugu aurrera, kontratazio publiko arduratsuko jardunbideak babesten dituzten proiektuetarako laguntzak lehenetsita eta leheneratze kolektiboko azpiegiturak gaitu eta hornitzeko trantsizio-funtsez hornituta.
- Ingurumen-helburuak NPBaren plangintzan txertatuko ditugu, eta balioetsiko ditugu haien ekarpena Natura 2000 sarearen kudeaketan, lurralde-konektibitatean eta helburu klimatikoetan nekazaritzak egiten duen ekarpena, betiere ekosistemen osasuna zainduz elikagaien produkzioa bermatzeko.
- Elikadura-sistemaren trantsizio agroekologikoa finantzatuko dugu, NPBaren arkitektura berderako diseinu eta finantzaketa egokiak adostuta eta nekazaritzako elikagaien sistemak ondasun publikoak hornitzea bermatuta.
- Pertsonentzako, klimarentzako eta naturarentzako sorospen kaltegarriak kenduko ditugu, osasunean eta ingurumenean ondorio kaltegarriak dituzten jardueri laguntzea saihestuta eta eskubide historikoetan oinarritutako zuzeneko ordainketak eta ingurumen-inpaktu negatiboa duten produkzioetan egindako inbertsioak baztertuta.
- Laguntzen eta horiek emateko baldintzen baldintzazkotasuna hobetuko dugu, ingurumenaren eta animalien ongizatearen arloko baldintzazkotasuna indartuta eta kontrol eta zigorraren sistema hobetuta, helburuen lorpena finantza-esleipenekin lotzeko.
- Osasun- eta klima-arriskuak hasierako etapetatik kudeatuko ditugu, kudeaketa agroekologikoan

oinarritutako finen erresilientzia hobetzeko mekanismoak barne, eta ekonomia zirkularra eta nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzio zikloen itxiera bultzatuta.

- Merkataritza desitxuratzen duten NPBaren arloko pizgarriak ezabatuko ditugu. Horretarako, NPBa birdiseinatuko dugu merkataritza jasangarriko akordioetan laguntzeko eta merkataritza desitxuratzen duten eta osasuna eta ingurumena bultzatuko dituzten neurriak saihestuen laguntzeko.

11.3. Natura kontserbatzea

Biodibertsitatea kontserbatzeko ekintzak

- Biodibertsitatearen Galeraren aurkako Ekintza Plan bat egingo dugu, biodibertsitatearen galeraren arrazoen diagnostiko sakon batetik abiatuta, eta neurri zehatzak ezarriko ditugu horiei modu eraginkorrean ekiteko.
- Euskadin Natura Leheneratzeko Lege bat egingo dugu, EBn onartzen den kontuan hartu gabe. Arau horrek helburu izango du egoera txarrean dauden EAEko habitaten % 80 leheneratzea eta naturara itzularaztea ekosistema guztiak, basoetatik eta nekazaritza-lurretatik hasi eta itsasoko, ur gezako eta hiriko ekosistemetaraino iritsi arte.
- Arabako Lurralde Historikoa UNESCOren Biosferaren Erreserba izendatzeko tramitazioari ekingo diogu.
- Guggenheim-Urdaibai proiektua kenduko dugu. Megaproiektu horrek ez dio behar kultural edo kolektibo bati erantzuten. Gainera, museo horrek ez ditu betetzen Urdaibaiko Biosfera Erreserba babesten duten lege ugariak, eta ingurumenaren aurkako atentatua da. Ingurunea birnaturalizatzeko plan bat idatziko dugu, Muruetan itsasadarraren fluxu naturala leheneratzea barne, Estatuak transferitutako baliabideak erabilia.
- Arabako Natura Zientzien Museo berri bat bultzatuko dugu.
- Legealdiaren amaieran, % 50eko murrizketa lortuko dugu Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartutako espezieen kopuruan.
- Gasteizko Mendien Kontserbazio Bereziko Eremua 9.082,9 hektareara zabalduko dugu, eta Gasteizko Mendien Baliabide Naturalak Antolatze Planari ekingo diogu berriro, kontzejuekin,

administrazio-batzarrekin eta udalekin negoziatuta, Gasteizko Mendien Parke Naturala izendatzeko.

- Euskadiko intsektu polinizatzaileen Kudeaketa Integraleko Plan bat ezarriko dugu.
- Biodibertsitatean eragin negatiboa duten dirulaguntza publikoak kenduko ditugu, eta naturagune babestuetan eraginik ez dutela egiaztatuko duen ziurtagiria eskatuko dugu baliabide publikoekin finantzatutako proiektu guztietarako.
- Natura 2000 Sareko guneen babesa indartuko dugu, horiek kontserbatzeko eta ebaluatzeko aurrekontu- eta erregulazio-baliabide gehiago esleituta.
- Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan dauden espezie guztiak kudeatzeko eta leheneratzeko planak ezarriko ditugu, haien berreskurapena bermatzeko jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoekin.
- Espezie inbaditzaileen sarrera eta hedapena kontrolatzeko eta prebenitzeko estrategia bat garatuko dugu, Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa sortzea barne.
- Habitat degradatuak leheneratzeko programak ezarriko ditugu, Batasunaren intereseko habitaten kontserbazio-egoera hobetzeko eta arriskuan dauden espezieak berreskuratzeko baldintza aproposak ezartzeko.
- Ikerketa zientifikoan eta biodibertsitatearen monitorizazioan egindako inbertsioa areagotuko dugu, espezieen populazioak narriatzearen arrazoiak hobeto ulertzeko eta kontserbazio-estrategia eraginkorragoak diseinatzeko.

Lurreko eta aireko korridore ekologikoak babestea

- Lurreko eta aireko korridore ekologikoen babesa eta zaintza bermatuko dugu, ekosistemen konektibitatean berebiziko garrantzia baitute. Izan ere, espezieen fluxua errazten dute eta biodibertsitateak klima-aldaketaren ondorioen aurrean duen erresilientzian laguntzen dute, honako tresna hauen bidez:
- Legeria espezifikoak: Euskadiko lurreko eta aireko korridore ekologikoak aitortu eta babestuko

dituen legeria espezifikoa sortzea bultzatuko dugu. Legeria horrek irizpide argiak ezarriko ditu korridore horiek identifikatu, izendatu eta kudeatzeko, eta horien osotasuna eta epe luzerako funtzionaltasuna bermatuko ditu.

- Inbentarioa eta mapaketa: Gure lurraldean dauden korridore ekologikoen inbentario zehatza egingo dugu, baita horien banaketaren eta konektibitatearen mapaketa zehatza ere. Inbentario hori oinarria izango da korridore horien plangintza eta kudeaketa eraginkorra gauzatzeko.
- Leheneratzea eta hobetzea: Degradatutako edo zatikatutako korridore ekologikoak leheneratzeko eta hobetzeko programak ezarriko ditugu, basoberritzeko, habitatak leheneratzeko eta oztopo fisikoak kentzeko teknikak erabilita, haien funtzionaltasuna eta konektibitatea hobetzeko. Alde horretatik, gutxienez korridore funtzional bat sortuko dugu bisoi europarrarentzat, Errekabarri errekan, Gasteizko mendietarantz.
- Sektore arteko koordinazioa: Lurraldearen kudeaketan parte hartzen duten gobernu-arloen eta erakundeen sektore arteko koordinazioa sustatuko dugu, korridore ekologikoen babesa lurzoruen erabilerarekin eta lurralde-plangintzarekin lotutako politika eta erabaki guztietan integratzeko.
- Herritarren parte-hartzea: Herritarren parte-hartzea sustatuko dugu korridore ekologikoak identifikatu, izendatu eta kudeatzean, tokiko komunitateak, ingurumen-erakundeak eta adituak horien kontserbazioarekin lotutako erabakiak hartzen inplikaturik.
- Hezkuntza eta Sentsibilizazioa: Ingurumen- eta sentsibilizazio-programak garatuko ditugu herritarrentzat, batez ere korridore ekologikoetatik gertu bizi diren pertsonentzat, horien garrantziari buruzko kontzientzia areagotzeko eta haien babes aktiboa sustatzeko.
- Monitorizazioa eta Ebaluazioa: Monitorizazio- eta ebaluazio-sistema jarraitua ezarriko dugu korridore ekologikoen egoera gertutik jarraitzeko eta ezarritako babes- eta leheneratze-neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko.
- Nazioarteko lankidetzak: Korridore ekologikoak babesteko nazioarteko lankidetzak sustatuko dugu, nazioarteko sare eta akordioetan parte hartuta, arlo horretako esperientziak, jardunbide egokiak eta baliabideak trukatzeko.

- Espazio natural zatituen babesa: Zatitutako espazio naturalak babesteko eta eraginkortasunez kudeatzeko neurri espezifikoak ezarriko ditugu, haien osotasun ekologikoa bermatuta eta haien arteko konektibitatea sustatuta.

Paisaiaren Babesa eta Kudeaketa

- Euskal Herriko paisaia enblematiko eta adierazgarrien inbentarioa egingo dugu, haien kultura-, historia- eta ingurumen-balioa aintzatetsita eta babes- eta kudeaketa-neurri bereziak ezarrita.
- Paisaia natural babestuen sare bat sortuko dugu, urtean gutxienez bi paisaia natural babesturekin. Lehenengo urtean, Gorobel mendilerroko eta Arabako Errioxako paisaia babestua deklaratu dugu.
- Eskualdeko eta udal-mailako paisaia-estrategiak landuko ditugu, kontserbazio-irizpideak, lurralde-antolamendua eta garapen jasangarria integratuta, paisaien babesa eta balorizazioa bermatzeko.
- Paisaia degradatuak leheneratzeko programak ezarriko ditugu, industria-jarduerak, meatzaritzak, kontrolik gabeko urbanizazioak edo basosoiltzeak eragindako eremuak leheneratzea barne, landareberritzearen, habitat naturalak berreskuratzearen eta ingurumen-kalitatea hobetzearen bidez.
- Nekazaritza-paisaia tradizionala kontserbatzen eta sustatzen lagunduko dugu, nekazaritza-jarduera jasangarriak sustatuta, laboreak dibertsifikatuta, nekazaritzako eta basogintzako sistemak mantenduta eta elementu bereizgarriak zainduta (hala nola terrazak, harri lehorreko hormak edo landare-gortinak).
- Lurralde- eta hirigintza-plangintzan paisaia-irizpideak txertatuko ditugu, paisaia naturalak eta kulturalak errespetatu eta balioetsiko dituen hiri-garapen jasangarria sustatuta, eta lurraldearen zatiketa eta degradazioa saihestuta.
- Ingurumen-hezkuntzako eta herritarren sentsibilizazioko programak bultzatuko ditugu paisaiak ondare komun gisa duen garrantziaren inguruan, eta herritarrak inplikatu ditzuten tokiko paisaiak identifikatu, baloratu eta kontserbatzean.

- Paisaiaren kudeaketan eta kontserbazioan herritarren parte-hartze aktiboa sustatuko dugu, paisaiari buruzko udal-kontseiluak sortzea eta paisaiari eragiten dioten proiektuei buruzko erabakiak hartzerakoan kontsulta publikoak egitea sustatuta.
- Koordinazio- eta lankidetzak-mekanismoak ezarriko ditugu gobernu-arlo guztien, erakunde publiko eta pribatuen, ingurumen-erakundeen eta tokiko komunitateen artean. Helburua da paisaiaren babesa integratzea lurralde-garapenarekin eta ingurumen-kudeaketarekin lotutako politika eta ekintza guztietan.
- Paisaiei lotutako ondare arkitektonikoa, historikoa eta kulturala babestea eta kontserbatzea bermatuko dugu, eraikin historikoak, hiri-multzoak eta elementu etnografikoak birgaitzea eta balioestea sustatuta.
- Kultura- eta paisaia-turismoa sustatzea: Kultura- eta paisaia-turismoa bultzatuko dugu, landa-eremuen eta hiri-inguruko eremuen dinamizazio ekonomikorako aukera gisa, tokiko paisaia eta identitatea errespetatuko dituzten turismo-jardueren garapena sustatuta.

Itsas Ingurunea Babestea

- Miarritze-Donostia itsas korridore babestua sor dadin babestuko dugu, itsas biodibertsitatea zaintzeko, aditu eta erakunde egokiekin lankidetzan.
- Itsasertzean itsasoko eta lurreko eremu babestuak ezartzea proposatuko dugu, itsasoko eta lehorreko biodibertsitatea zaintzeko, arrantza-baliabideen jasangarritasuna bermatzeko eta ingurumena errespetatuko duen kostaldeko turismo arduratsua sustatzeko.

Ibaiak eta Hezeguneak Kontserbatzea

- Ibai-ekosistemak leheneratzeko programak ezarriko ditugu, gure ibaien funtzionaltasun ekologikoa berreskuratzeko, hesi artifizialak kentzea, ibaiertzak landareberritzea eta ubide naturalak leheneratzea barne, uraren kalitatea hobetzeko eta horri lotutako biodibertsitatea berreskuratzeko.
- Ingurumen-emarien araubide bat ezarriko dugu, ur-masen egoera ekologiko ona benetan bermatuko duena. Helburu horrek lehentasuna izango du, eta emari horiek aurreikusitako erabileren aurretik finkatuko dira.

- Ibaien, ibaiertzen, urmaelen, hezeguneen, iturburuen eta horiei lotutako uretako eta lurreko beste ekosistema batzuen narriadura-prebentzioa, kontserbazio eta egoera egokia berreskuratzearen alde egingo dugu, baita lurralde-identitateko paisaien eta gozamen sozialaren alde ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hezeguneak babestea eta kontserbatzea bermatuko dugu, hala nola hezeguneak, padurak eta aintzirak, eremu babestuak izendatuta, haiek Natura 2000 Sarean sartzea sustatuta eta kudeaketa jasangarriko neurriak ezarrita.
- Hezegune narriatuak berreskuratzeko programak garatuko ditugu, uretako eta lurreko habitatak leheneratuta, uraren kalitatea hobetuta eta ekosistema horien mende dauden espezie enblematiko eta mehatxatuen kontserbazioa sustatuta.
- Ibaien eta hezeguneen kutsadura prebenitzeko neurriak hartuko ditugu, industria- eta hiri-isurketak arautzea, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardunbide egokiak sustatzea eta herritarrek ur-baliabideen erabilera arduratsuari buruz sentsibilizatzea barne.
- Uraren kudeaketa integratua sustatuko dugu, giza beharren eta ekosistema urtarren eskaeren arteko oreka bermatzeko, emari ekologikoen kontserbazioa eta biodibertsitatearen babesa lehenetsita.
- Ibaien eta hezeguneen inguruko turismo jasangarria bultzatuko dugu, hegaztiak behatzeko jarduerak, mendi-ibiliak eta turismo ornitologikoa sustatuta, ekosistema horiek baloratzen eta kontserbatzen laguntzeko.
- Uraren Esparru Zuzentaraua betetzen dela zainduko dugu. Horretarako, konpromisoa hartzen dugu 2027rako Euskal Autonomia Erkidegoko ur-masa eta hezegune guztiek egoera ekologiko ona edo oso ona izango dutela.

Nekazaritzako Ekosistemak Kontserbatzea

- Lurzoruaren kontserbazioa, biodibertsitatea eta baliabide hidrikoak sustatuko dituzten nekazaritza-jarduera iraunkorrak sustatuko ditugu, nekazaritza ekologikoa, laboreen txandaketa, uraren erabilera eraginkorra eta pestiziden eta ongarrrien erabilera murriztea barne.

- Nekazaritzako paisaia tradizionalak mantentzen eta berreskuratzen lagunduko dugu, hala nola terrazak, bankalak, heskaiak, mugak eta erriberako basoak, funtsezkoak baitira biodibertsitatea, ur-erregulazioa eta kultura-paisaia kontserbatzeko.
- Familiako eta tokiko nekazaritza sustatuko dugu, nekazaritza-produkzio jasangarriago eta erresilienteago gisa, tokiko barietateak kontserbatzen, laboreak dibertsifikatzen eta ezagutza tradizionalak zaintzen laguntzen baitu.
- Agroekologia eta agrobioaniztasunaren kontserbazioa bultzatuko ditugu, laborantza-sistema dibertsifikatuak babestuta, tokiko haziak kontserbatuta eta bertako baldintza klimatikoetara eta edafologikoetara egokitutako barietate autoktonoak sustatuta.
- Balio ekologiko handiko nekazaritza-habitata babestea bermatuko dugu, hala nola belardiak, larreak, bazkalekuak, estepak eta labore tradizionalak, eremu horiek babestutako guneen sareetan txertatuta eta kudeaketa-neurri egokiak ezarrita.
- Nekazaritzako ekosistemek biodibertsitatea kontserbatzeko eta funtsezko ekosistema-zerbitzuak mantentzeko duten garrantziari buruzko hezkuntza eta sentsibilizazioa sustatuko ditugu, nekazariak, kontsumitzaileak, hezitzaileak eta arduradun politikoak inplikaturik.

Lurraldearen Zatiketa Minimizatzea eta Faunarentzako Puntu Beltzak Murriztea:

- Azpiegitura berdeen plan integral bat garatuko dugu. Horrek barne hartuko du ekozubiak, lurpeko pasabideak eta igarobideak puntu estrategikoetan eraikitzea, lurraldearen iragazkortasuna bermatzeko eta faunak bide-azpiegiturekin talka egiteko arriskua murrizteko.
- Azterketa sakona egingo dugu lurraldea zatikatzen duten eta faunarentzat arriskutsuak diren puntu beltzak identifikatzeko eta katalogatzeko, hala nola errepideak, trenbideak, ubideak eta beste oztopo lineal batzuk, horiek zuzentzea eta arintzea lehenetsita. Neurri zuzentzaileak hartuko ditugu ureztatze-putzuetan eta kanaletan, basa-fauna ito ez dadin.
- Lehentasuna emango diogu biodibertsitatea kontserbatzeko kritikotzat jotzen diren puntuetan arintze-neurriak ezartzei. Horretarako, azpiegiturako eta lurralde-garapeneko proiektuen esparruan gauzatzeko behar beste giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomiko bideratuko ditugu.

- Lurralde- eta hirigintza-plangintzan konektagarritasun ekologikoa eta puntu beltzen murrizketa integratuko ditugu, lurraldearen iragazkortasun-irizpideak lurralde-antolamenduko planetan txertatuta eta garapen-proiektuen ingurumen-ebaluazio estrategikoa eginda.
- Erakundeen artean koordinatzea eta herritarrek konektagarritasun ekologikoko neurriak identifikatu, diseinatu eta betearaztean parte hartzea sustatuko dugu, alderdi interesdun guztien inplikazioa eta erabakiak hartzeko garaian gardentasuna ziurtatuta.

Arriskuan dauden Espezieak Berreskuratzeko eta Kudeatzeko Planak Lotzea eta Betetzea

- Berariazko lege-esparru bat ezarriko dugu, mehatxatutako espezieak kudeatzeko planei izaera loteslea emango diena, eta betebeharrak argiak ezarriko zaizkie plan horiek betetzen parte hartzen duten alderdi guztiei.
- Kudeaketa-planetan, espezie edo habitat horientzat kaltegarriak izan daitezkeen jardueren buruzko debeku eta murrizketa argi eta zehatzak sartuko ditugu, hala nola: ehiza, harrapaketa, habitatak suntsitzea eta haien biziraupena arriskuan jar dezaketen beste ekintza batzuk.
- Kontrol- eta fiskalizazio-mekanismo eraginkorrak ezarriko ditugu kudeaketa-planetan ezarritako neurriak betetzen direla bermatzeko, aldizkako ikuskapenak, ez-betetzearen ondoriozko zehapenak eta populazio- eta habitat-adierazleen jarraipena barne.
- Tokiko komunitateak aktiboki inplikatu ditugu kudeaketa-planak inplementatzean, arriskuan dauden espezieak eta haien habitatak kontserbatzearen garrantziari buruzko sentsibilizazioa eta ingurumen-hezkuntza sustatuta.
- Kudeaketa-planak aplikatzeaz eta haien jarraipenaz arduratzen diren erakunde eta organismoen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatuko dugu, arriskuan dauden espezieak babesteko ekintza bateratua eta koherentea ziurtatuta.
- Kudeaketa-planetan sartutako espezieen eta habitaten kontserbazio-egoeraren aldizkako ebaluazioak egingo ditugu, eta lortutako emaitzen eta identifikatutako mehatxu berrien arabera doituko ditugu neurriak eta ekintzak.

Araudia eta Zehapena indartzea

- Foru-aldundiekin koordinatuta, naturagune babestu guztiek erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak onartuta eta indarrean izatea exijituko dugu.
- Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 26.2 artikulua aldatuko dugu, Natura Baliabideen Antolamendurako Plana egiteko prozedura bost urtera iraungitzea saihesteko.
- Arau-aldaketak bultzatuko ditugu, ingurumenaren aurkako erasoen aurkako zigorrak gogortzeko, batez ere eremu babestuetan, haien eraginkortasuna eta disuasioa hobetzeko amoz.
- Jabari Publiko Hidraulikoaren babes eraginkorra bermatuko dugu, eta Uraren Euskal Agentziari hura berreskuratze eta kontserbatzeko baliabide egokiak emango dizkiogu.
- Ehizari buruzko Legea aldatuko dugu, ehizak gizarteari eta ingurumenari kalterik eragingo ez diola bermatzeko, zigor larriagoak sustatuta eta salbuespen kopurua mugatuta.
- Beha diren arau-aldaketak bultzatuko ditugu, administrazio eskudunek neurri irmoak har ditzaten ingurumenaren aurkako erasoen aurka, baita zehapenak gogortzeko ere, haien eraginkortasuna eta disuasio-izaera hobetzeko, Natura 2000 Sareko guneetan gertatzen direnetan —Hezeguneen, Parke Naturalen eta Biotopo Babestuen Plan Sektorialean sartuta daudenetan—.
- Ingurumena eta fauna babesteko eskumenak Ertzaintzari transferitzea sustatuko dugu, eta eginkizun horiek eraginkortasunez betetzeko behar diren giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak emango dizkiogu. Ertzaintzaren agenteentzako ingurumen-arloko prestakuntza espezializatua bermatuko dugu, baita naturaren kontserbazioan diharduten entitate eta erakundeekiko lankidetzara ere. Neurri horrek ahalbidetu egingo du Euskadiko natura-baliabideen kudeaketa hurbilagoa eta eraginkorragoa egitea.

Partaidetza eta Finantzaketa sustatzea

- Neurri egokiak hartuko ditugu Ingurumeneko Aholku Batzordea gune dinamiko eta parte-hartzaile bihurtzeko, ideien trukea, proposamen berritzaileak sortzea eta natura-ondarea babesteko eta kontserbatzeko erabaki informatuak hartzea sustatzeko.

- Naturagune babestuetako inbertsio publikoa eta pribatua sustatuko dugu, garapen sozioekonomikoa sustatzeko eta biodibertsitatearen ondoriozko onuretan tokiko komunitateen parte-hartze bidezkoa bermatzeko.
- Biodibertsitatea kontserbatzera eta ingurumena babestera bideratutako GKE-entzako finantzaketa-lerro espezifikoak ezarriko ditugu, baita lurraldea zaintzeko ekimenetarako ere.
- Parte hartze ekitatiboa sustatuko dugu, bai biodibertsitatearen kontserbazioak eragindako kostuetan, bai etekinetan, Naturagune Babestuetarako inbertsio publikoa eta pribatua sustatuta, garapen sozioekonomikoa sustatzeko eta biodibertsitateak eragindako onuretan tokiko komunitateen parte-hartze bidezkoa ziurtatzeko.
- Herritarren, ingurumen-erakundeen eta tokiko komunitateen parte-hartze aktiboa sustatuko dugu natura-ondarearen kudeaketan eta kontserbazioan, boluntariotzako eta lurraldea zaintzeko ekimenak sustatuta.
- Ingurumen-hezkuntza indartuko dugu hezkuntza-maila guztietan, herritarrak biodibertsitatearen garrantziaz sentsibilizatuta eta ingurumenarekiko jokabide arduratsuak har daitezen sustatuta.
- Biodibertsitatearen kontserbazioari buruzko dibulgazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egingo ditugu, arriskuan dauden espezieak eta haien habitatak babestearen garrantzia azpimarratuta.

Kontserbazioa Politika Sektorialetan integratzea

- Nekazaritza-praktika jasangarriak eta lurraldearen kudeaketa integratua sustatuko ditugu, nekazaritza-biodibertsitatea kontserbatzeko eta habitat naturalen gaineko inpaktu negatiboak minimizatzeko.
- Biodibertsitatea kontserbatzeko irizpideak integratuko ditugu hiri- eta lurralde-plangintzan, hiri-inguruneetako eta hiri inguruko berdeguneak eta habitat naturalak babestuta eta leheneratuta.
- Turismo jasangarria eta natura baliabide ekonomiko gisa balioestea sustatuko dugu, onura ekonomikoak sortzen dituzten jarduerak sustatuta, ekosistemen kontserbazioa arriskuan jarri gabe.

Herritarren Parte-hartzea indartzea Espazio Babestuen kudeaketan

- Natura 2000 Sareko guneetan partaidetzazko kudeaketarako organoak sortzea proposatuko dugu, hala nola Kontserbazio Bereziko Eremuetan (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko Eremuetan (HBBE), parke naturaletako patronatuen antzekoak. Organo horiek udaletako, administrazio-batzarretako, talde ekologistetakako, nekazaritzako sindikatuetakoko eta beste interes-talde garrantzitsu batzuetako ordezkariak osatuko dituzte, eta interes guztien ordezkaritza ekitatiboa bermatuko dute. Partaidetzazko kudeaketako organo horien helburu nagusia izango da babestutako guneen kudeaketa gainbegiratzea, urteko memoria eta aurrekontuak onartzea, eta natura-baliabideen kontserbazioarekin eta erabilera jasangarriarekin lotutako erabakiak hartzen parte hartzea. Haien eginkizunak eta eskumenak argi eta garbi zehaztuko dira dagokion legerian, eta haien autonomia eta jarduteko ahalmena bermatuko dira.
- Gune babestuen kudeaketan gardentasuna eta kontu-ematea sustatuko dugu, egindako jardueri, abian diren proiektuei eta lortutako emaitzei buruzko informazioa eskuratzea erraztuta. Partaidetzazko kudeaketako organoak arduratuko dira aldizka herritarrei eta erakundeei beren jardueren eta erabakien berri emateaz.
- Elkarrizketa eta adostasuna sustatuko ditugu gune babestuen kudeaketan parte hartzen duten eragileen artean, eta irtenbide hitzartuak bilatuko ditugu, ingurumenaren kontserbazioaren, garapen sozioekonomikoaren eta lurraldearen erabilera tradizionalaren interesak bateratzeko. Bitartekotza-mekanismoak eta gatazkak konpontzeko mekanismoak sustatuko ditugu, bat ez-etortzei eta iritzi-desadostasunei modu eraikitzailean heltzeko.
- Partaidetzazko kudeaketako organoek eraginkortasunez funtziona dezaten behar den laguntza instituzionala eta finantzarioa bermatuko dugu, eta giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomiko egokiak emango ditugu beren jarduerak gauzatzeko eta dagozkien erantzukizunak betetzeko.

11.4. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Basogintza Politika

Nekazaritza-sektorea eta elikadura-subiranotasuna

ELKARREKIN PODEMOSek nekazaritza-politikaren norabidea aldatuko du osasungarria izango den sistema baterantz, pertsona guztien ongizaterako elikadura osasungarria eta jasangarria lortzea helburu hartuta. Ildo horretatik, funtsezkoa da balio agrologiko handiko lurzorua babestea, elikagaien segurtasuna eta epe luzerako jasangarritasuna bermatzeko. Horrek berekin dakar lurzoru horiek babesteko eta kudeatzeko politikak eta ekintzak, espekulazio-arrazoiengatik narriatu

edo gal ez daitezen; nekazaritza, energia, landa- eta gastronomia-turismo jasangarriak; hondakinen kudeaketa; kontsumo arduratsua; tokiko merkatuak eta kooperatibak sustatzea; tokiko produkzioa ziurtatzea; prestakuntza eta kontzientziazioa; edo I+G+b. Hori guztia proposamen-multzon honetan laburbiltzen dugu:

- Nekazaritza eta Basogintzaren LAPak proposatutako balio estrategiko handiko lurzoruak legez blindatzea proposatzen dugu, haien kalitatea edo nekazaritza-erabilera arriskuan jarriko duten jarduera mota batzuk mugatu edo debekatuko dituzten erregulazioak ezarrita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Balio Handiko Lurzoruak eta Nekazaritza Intereseko Lurzoruak Babesteko Legea aurrera aterata.
- Herritarren partaidetza izango duten lur-bankuak sortzea sustatuko dugu, elikagaiak produzitzeko lurrerako sarbidea ziurtatzeko eta hura logika espekulatiboetatik bereizteko.
- Erosketa kolektiboko eta agroekologiako proiektuak babestuko ditugu, elikagaien produkzioa modu jasangarrian bermatzeko.
- Gazteak elikagaien produkzioan sar daitezen sustatuko duten ekimenak babestuko ditugu, bereziki praktika agroekologikoak ardatz dituztenak.
- Energia-iturri alternatiboak bultzatuko ditugu, hala nola biomasa, eta energia sortzeko eta merkaturatzeko kooperatiben sorrera sustatuko dugu.
- Udalerriekin eta Administrazio Batzarrekin elkarlanean arituko gara energia berriztagarrien proiektuak garatzeko, eta tokiko energia-subiranotasun deszentralizatua indartuko dugu.
- Tokiko merkatuak eta kontsumo-taldeak dinamizatuko ditugu, produktoreak eta kontsumitzaileak zuzenean konektatzeko, merkataritza-praktika bidezkoagoak eta jasangarriagoak sustatuta eta tokiko, ekologiako eta sasoiko produktuak erosita.
- Hurbileko merkataritza eta merkataritza ekologikoa bultzatuko dugu, Produkzio Ekologikoaren Euskal Kontseilua (ENEEK) indartuta eta kontsumitzaile eta produktoreen artean zuzeneko loturak sortuta, udal- edo eskualde-merkatu egonkorren bidez, tokiko produktoreek zuzeneko salmenta edo hornikuntza egin ahal izateko edo haien inguruan antolatutako kontsumo-taldeak hornitzeko.

- Beharrezko neurriak hartuko ditugu lehen sektorea babesteko nazioarteko itun kaltegarrietatik, baldin eta ETE-en eta autonomoen bideragarritasuna arriskuan jartzen badute eta elikagaien segurtasuna arriskuan jartzen badute.
- Hazi tradizionalak berreskuratzearen eta barietate autoktonoak dituzten mintegiak sortzearen alde egingo dugu, dibertsitate biologikoa babesteko.
- Emakume nekazarien eta hirikoen arteko lankidetzak sustatuko dugu, sareak indartzeko eta elikagaien produkzioan parte-hartze aktiboa izateko.
- Prestakuntza-prozesuak bultzatuko ditugu sindikatuetatik, erakunde akademikoetatik eta beste erakunde batzuetatik, jardunbide jasangarriari eta kontsumo-alternatibei buruzko kontzientzia areagotzeko.
- Merkatu sozialak sortzea sustatuko dugu, kontsumo-proposamen alternatiboak ezagutzeko eta horiei buruz gogoeta egiteko.
- Aliantzak egingo ditugu gizarte-mugimenduen, botere publikoen, GKE-en, unibertsitateen eta abarren artean, ingurumen- eta gizarte-erronkei batera heltzeko.
- Erantzukizun politiko partekatu bat zehaztuko dugu, helburu komunekin eta zeregin espezifikoekin, gizarte jasangarriago eta berdinzaleago baterantz aurrera egiteko.
- Elikagai osasuntsu, sasoiako, hurbileko eta jasangarrian oinarritutako elikadura-kultura berria bultzatuko dugu.
- Elikatzeko Eskubidearen aldeko Euskal Ituna garatuko dugu. Horrek jaso egingo ditu Nekazari Eskubideen Nazioarteko Tratatuan jasotako printzipioak, eta EAEn bizi diren pertsona guztien elikadura egokia eta kalitatezkoa izateko eskubidea bermatuko du. Gainera, elikadura sendotuko du gure herrien garapenerako motor gisa.
- Merkaturatzeko eta/edo eraldatzeko kooperatibak sortzea eta denboran irautea sustatuko dugu. Horiek euskal nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioari balio erantsia eman behar diote eta prezioak banaketa-sektorearekin negoziatzea erraztu behar dute.
- NPBaren planteamenduak gainditzeko saiaturako gara, asmo handiko planekin, nekazaritzako

elikagaien sistema eta nekazaritzako errentak, elikadurak, osasunak, landa-eremuen dinamizazioak, biodibertsitatearen babesak, animalien ongizateak eta elkartasunaren, ekitatearen eta demokraziaren printzipioek aurre egin beharreko erronkak birbideratu ahal izateko.

- Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) bidezkoagoa eta ingurumen aldetik jasangarriagoa izatea bultzatuko dugu, trantsizio ekologikorako eta landa-ingurunearen etorkizunerako estrategiaren parte gisa, benetan jardueran dihardutenei lagunduta (ekoizleei, hain zuzen), eta beren behar ekonomikoekiko proportzioan, konplexutasun burokratiko txikiagoarekin eta funtsak kudeatzeko eta aplikatzeko mekanismoetan gardentasun handiagoarekin.
- Politika publikoak elikagai-kate handien botere korporatiboaren aurkako tresna eraginkorrak izango direla bermatuko dugu, eta ez dutela utziko haiek haz daitezen produktoreen lanaren kontu. Gainera, ez dugu utziko haien zigorgabetasunari eusten.
- Elikagaien Erosketa Publikorako Plan bat egingo dugu, produktu freskoen soberakinak eskuratzeko eta haiek familia kalteberenei bideratzeko. Elikagaien Banku Publikoa sortzea, produkzio agroekologikoko sail, instituzio, erakunde eta kooperatibekin, Hirugarren Sektoreko erakundeekin eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sarearekin koordinatuta.
- Deszentralizazioa eta herritarren parte-hartzea bultzatuko ditugu erabakiak hartzeko garaian, benetako demokrazia-eredu baten alde eginez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko testuingurura egokitutako eta lurzoruaren kontserbazioa, biodibertsitatea eta animalien ongizatea sustatuko dituzten nekazaritza- eta abeltzaintza-praktika jasangarriak bultzatuko dituzten ikerketa- eta garapen-programetara bideratuko ditugu baliabideak.
- Euskadiko aberastasun kulturala, gastronomikoa eta naturala nabarmenduko dituzten ekimenak babestuko ditugu, tokiko produkzio jasangarria balioetsi eta babestuko duen turismo arduratsua sustatuta.
- EuskoLabel zigilua lortzeagatik beren animaliak Euskadiko hiltegiren batera 50 km-tik gora eraman behar dituzten abeltzaintzat, lehen sektoreko tokiko produktoreekin aliantza estrategikoak egiteko aukera ezarriko dugu, euskal nekazari, abeltzain eta arrantzaleek zuzenean kalitatezko elikagai freskoak eskuratzeko sustatuta.

- Sasoiko produktuak eskola-menuetan sartzea sustatuko dugu, tokiko produkzioari laguntzeko eta ingurumen-aztarna murrizteko.
- Lehentasuna emango diogu eskoletako menuetan elikagai freskoak, elikagarriak eta kalitate handikoak sartzeari.
- Eskoletan elikadura osasungarri eta jasangarriari buruzko hezkuntza-programak ezarriko ditugu, ikasleak, gurasoak eta hezitzaileak inplikaturik. Dieta orekatuaren garrantziaz, tokiko produktuen balioaz eta elikaduraren eta ingurumenaren arteko loturaz sentsibilizatzea bilatuko dugu.
- Prestakuntza espezializatua eskainiko diegu eskola-jantokietako arduradunei, sukaldariei eta sukaldeko langileei, tokiko osagaiekin plater osasungarriak presta ditzaten helburu hartuta. Euskal Herriko aberastasun gastronomikoa nabarmenduko duen sukaldaritzaren arloko berrikuntza sustatuko dugu.
- Hondakinen kudeaketan jardunbide jasangarriak bultzatuko ditugu, ontzi berrerabilgarrien eta biodegradagarrien erabilera sustatuta. Elikagaiak gutxiago alferrik galtzea eta eskoletan birziklatzeko eta konpostatzeko programekin sinergian lan egitea bilatuko dugu.
- Aldian behin ebaluazioak egingo ditugu neurri horien eragina eta eraginkortasuna neurtzeko, eta programak beharren arabera egokituko ditugu. Eskola-komunitatearen eta familien parte-hartze aktiboa sustatuko dugu, eskola-jantoki osasungarriago eta tokikoagorako trantsizio arrakastatsua ziurtatzeko.
- Ziurtapen-programak bultzatuko ditugu, eskoletako jantokietan erabiltzen diren elikagaiak bertakoak eta jasangarriak direla bermatzeko. Horrek barne har lezake euskal produktuak eta horien kalitatea identifikatzeko etiketak sustatzea.
- Ikasleek menuak aukeratzen eta elikadura osasungarri eta jasangarriarekin lotutako jarduerak planifikatzen aktiboki parte hartzea sustatuko dugu. Beren lehentasunak adierazteko eta eskola-jantokiak hobetzen laguntzeko espazioak sortuko ditugu.
- Nekazaritza ekologikotik datozen produktuak eskola-menuetan sartzea sustatuko dugu, ingurumena eta osasuna errespetatuko dituzten jardunbideak aukeratzen dituzten nekazariak babestuta.

- Kontsumitzaileen eta familien elkarteekin loturak ezarriko ditugu, eskola-jantokietan zerbitzatutako elikagaien kalitateari, barietateari eta onarpenari buruzko atzeraelikadura etengabea jasotzeko.
- Eskola-baratzeak sortzea sustatuko dugu, ikasleek elikagaiak landu ditzaten, elikagaien produkzioari buruz modu jasangarrian ikas dezaten eta produktuak eskolako menuetan erabil ditzaten. Horrela, elikadurarekiko eta lurrarekiko haien lotura indartuko da.
- Euskal Herriko sukaldaritzaren eta kulturaren aberastasuna balioetsi eta sustatuko dugu, euskal plater tradizionalak menuetan txertatuta, ikasleen esperientzia gastronomikoa aberasteko.
- Hezkuntza-planetan elikadura osasungarri eta jasangarri baten garrantziari buruzko programak sartuko ditugu, baita ingurumena zaintzeari buruzkoak ere. Horretarako, ikasleak inplikatuko ditugu balio horiek txiki-txikitatik indartuko dituzten proiektu praktikoetan.
- Gardentasuna bermatuko dugu hornitzaileen hautaketan, eskuratzeko-prozesuetan eta eskola-menuetan. Modu argi eta eskuragarrian jakinaraziko ditugu ezarritako ekintzak, baita elikaduran ikuspegi osasungarri eta tokikoaren onurak ere.
- Euskal Herrian, EBren “Baserritik mahaira” programa ezarriko dugu. Programa horren bidez, ingurumena errespetatzen duten, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten dituzten eta klima-aldaketa egokitzea sustatzen duten nekazaritza-jardunbideekin konpromisoa hartzen da, baita dieta orekatua eta osasungarria sustatzea ere, elikagai nutritiboak eta kalitatezkoak produzitzea eta dibertsitate biologikoa babestea lehenetsita, bertako espezieen kontserbazioa babestuta eta tokiko ekosistemak errespetatuko dituzten nekazaritza-jardunbideak sustatuta, arreta berezia jarritz nekazaritza-habitatetako hegaztiei eta intsektu polinizatzaileei.
- Plan bat egingo dugu 2030. urtean nekazaritza-azaleraren gutxienez % 20 dibertsitate handiko paisaiaren ezaugarrien pean egotea lortzeko.
- Animalien ongizatea bermatuko duten eta haien osotasuna errespetatuko duten nekazaritza-sistemak sustatuko ditugu.
- Pestizidekiko eta ongari kimikoekiko mendekotasuna minimizatuko duten hazkuntza-metodoak bultzatuko ditugu, jardunbide agroekologikoak eta baliabideen erabilera arduratsua sustatuta.

- Tokiko nekazariei lagunduko diegu produkzio-metodo jasangarriak ezartzen, familia-nekazaritza eta tokiko merkatuak sustatuta.
- Nekazaritzako ikerketa eta berrikuntza teknologikoa bultzatuko ditugu, Euskal Herriko ezaugarri espezifikoetara egokituta, landa-garapen orekatua eta jasangarria sustatuta.
- Euskal Herriko biztanle guztiek elikagai osasungarriak eta kalitatezkoak eskuratzeko aukera ekitatiboa bermatuko duten politikak defendatuko ditugu.
- Gizarte zibilaren parte-hartzea sustatuko dugu nekazaritzarekin eta elikadurarekin lotutako erabakiak hartzeko garaian, gardentasuna eta kontuak ematea ziurtatuta.
- Euskal Herrian nekazaritza ekologikorako erabiltzen diren nekazaritza-lurren % 15era iristea ezarriko dugu helburu gisa 2030. urterako, eta nekazaritza eta abeltzaintza birsortzailearen hazkunde esanguratsua bultzatuko dugu.
- Nekazaritza Ekologikoaren Plan Integral bat garatuko dugu, Euskal Herrian nekazaritza ekologikoa sustatzeko. Horretarako, praktika agroekologikoetarantz bilakatzea eta hedatzea sustatuko duten estrategiak integratuko ditugu, baita nekazarietzako babesa ere trantsizio horretan.
- Metodo ekologiko eta agroekologikotara bihurtzea aukeratzen duten nekazari eta abeltzainei zuzeneko laguntza ekonomikoa emateko programak ezarriko ditugu, baita aldaketa hori errazteko eta babesteko prestakuntza eta aholkularitza teknikoko programak ere.
- Produktu ekologikoak merkaturatzea erraztuko duten tokiko merkatuak eta banaketa-kanalak sortzea sustatuko dugu, kontsumo arduratsua eta tokiko produktuen eta produktu jasangarrien balorazioa sustatuta.
- Ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak babestuko ditugu, Euskal Herriko testuinguru berezira egokitutako nekazaritza-praktika jasangarriak eta ekologikoak bultzatuko dituztenak, tokiko soluzioak eta ezagutza espezializatua sortzea sustatuta.

Abeltzaintza eta Biodibertsitatea

Abeltzaintzak berebiziko garrantzia du Euskal Herriko ekonomian eta identitate kulturean. Hala ere, haren garapenak bateragarria izan behar du gure biodibertsitate aberatsa babestearekin,

espezie enblematikoen kontserbazioa barne (hala nola otsoa, gure ekosistemen zati integrala den heinean).

- Artzaintza jasangarriko jardunbideak sustatuko ditugu, larreen birsorkuntza errespetatuko dutenak, gehiegizko ustiapena saihestuta eta bertako landaredia berreskuratzea ahalbidetuta.
- Teknologia ez-inbaditzaileak ezartzen lagunduko dugu, hala nola hesi elektrikoak eta txakur zaindariak, ganadua babesteko harraparien erasoetatik (hala nola otsoaren erasoetatik), fauna basatiaren kontserbazioaren eta abeltzaintzaren arteko gatazka minimizatuta.
- Orograma espezifiko bat sortuko dugu, eremu gatazkatsuenetan guardiako artzainak ezartzeko behar besteko finantzaketarekin, otsoak ardi-azienda harrapatzeko arriskuak minimizatzeke.
- Abeltzaintzako hezkuntza- eta aholkularitza-programak bultzatuko ditugu, kontserbazio-arloko adituekin lankidetzan, otsoa bezalako haragijale handiekin batera modu baketsuan bizitzeko teknikak sustatzeko, gatazken prebentziorako eta kalteen ondoriozko konpentsaziorako estrategiak nabarmenduta.
- Ikerketa zientifikoa eta haragijale handien populazioaren etengabeko monitorizazioa sustatuko ditugu (hala nola otsoarena), haien portaera-ereduak ulertzeko eta abeltzaintzan eragin negatiboak minimizatzeke, gure ekosistemetan duten funtzio ekologikoa errespetatuta, aldi berean.

Emakumeen Ahalduntzea Landa Ingurunean eta Lehen Sektorean

Emakumeek funtsezko zeregina dute landa-ingurunearen garapenean eta lehen sektorearen bizitasunean. Hasien ekarpena historikoki gutxietsi egin da eta haien lana ikusezin bihurtu da. Funtsezkoa da gure komunitateetan ekitatea eta jasangarritasuna bermatzeko duten rola aintzatestea. Horregatik, neurri zehatzak proposatzen ditugu emakumeen esparru horietan duten parte-hartzea eta aintzatespena indartzeko.

- Aukera-berdintasuna bermatuko dugu baliabideak eskuratzean, prestakuntzan eta lehen sektoreko parte hartzean, emakumeek nekazaritza eta abeltzaintza jasangarrian duten zeregina aintzatetsita eta ikusarazita.
- Aitortzen dugu emakumeek garrantzi historikoa eta egungoa dutela elikaduran, hazkuntzan, lurraldea zaintzean, nekazaritzan, arrantzan eta lehen sektoreari lotutako beste jarduera batzuetan. Haien zeregina funtsezkoa da gure komunitateen erresilientziarako eta ongizaterako.

- Emakumeen agerikotasuna eta balorazioa bultzatuko dugu produkzio-guneetan, hala nola familia-baratzeetan, nekazaritza-kooperatiba ekologikoetan, animalien zaintzan eta beste landa-jarduera eta nekazaritza-jarduera batzuetan, aurrez ezarritako genero-rolek ezarritako oztopoak eraitsita.
- Lehen sektorean parte hartzen duten emakumeentzako finantzaketa, prestakuntza eta aholkularitza teknikorako zuzeneko sarbidea erraztuko dugu. Horrek barne hartuko ditu landa-eremuetan gaikuntza eta ahalduntzea sustatzeko programa espezifikoak.
- Tinko borrokatuko dugu emakume langileek nekazaritzan aurre egin beharreko lan-prekarietatearen eta abusuen aurrean (bereziki sasoikako emakume migratzaileei dagokienez). Haien segurtasuna, eskubideak eta bidezko lan-baldintzak bermatzeko neurriak inplementatuko ditugu.
- Landa-ingurunean emakumeak buru dituzten kooperatibak, laguntza-sareak eta elkarteak sortzen eta indartzen lagunduko dugu. Instantzia horiek funtsezkoak dira beren lana duintzeko eta praktika jasangarriagoak sustatzeko.
- Landa-garapenarekin eta nekazaritza-sektorearekin lotutako erabakiak hartzeko guneetan emakumeen parte-hartze aktiboa sustatuko dugu, garapen-politika eta -programetan emakumeen ordezkartza eta ekarpena ziurtatuta.

Belaunaldien arteko erreleboa lehen sektorean

- Landaguneetan despopulaziorako joera murrizteko lan egingo dugu, eta ahaleginak areagotuko ditugu nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan belaunaldi-aldaketaren erronka gainditzeko. Horretarako, sektorean sartzeko oztopoak murriztuko ditugu, batez ere lurrak eskuratzeari eta finantzaketari dagokienez, eta neurri zehatzak hartuko ditugu landaguneetan gizonen eta emakumeen enplegu-desberdintasunak murrizteko.
- Ahaleginak areagotuko ditugu landaguneetan enplegu eta jarduera ekonomikorako aukerak sortzeko, baita gizarteratzea sustatzeko ere, arreta berezia jarrita talde kalteberei, hala nola sasoikako langileei eta EBko eta hirugarren herrialdeetako migratzaileei.

- Laguntza-programa espezifikoak ezarriko ditugu, gazteek nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan parte har dezaten sustatzeko. Horrek barne hartuko ditu aholkularitza, pizgarri ekonomikoak eta baliabideak eskuratzea ustiategiak hasi edo oinordetzan hartu nahi dituztenentzat.
- Programa espezifiko bat diseinatu eta abian jarriko dugu lehen sektoreari lotutako familia-inguruneetatik ez datozen gazteentzat.
- Nekazaritza-sektorean sartu nahi duten gazteentzako prestakuntza- eta trebakuntza-planak inplementatuko ditugu. Programa horiek alderdi teknikoei eta ustiategiaren kudeaketa jasangarriari helduko diete, baita ingurumena errespetatuko duten nekazaritza-jardunbide modernoak aplikatzeko ere.
- Lehen mailako produktoreen integrazio handiagoa sustatuko dugu, produktore-erakundearen (PE-en) eskala ekonomikoa, kontzentrazioa eta zerbitzu-gama zabalduta, batez ere txikiak kasuan, eta PE-en aintzatespena sustatuko dugu oraindik aitortuta ez dauden sektoreetan edo horien sartze txikia dagoen sektoreetan.
- Nekazari eta abeltzain gazteei lurra eskuratzen lagunduko diegu, errentamendu-programa eskuragarri bidez, baldintza egokiak beteko dituzten erosketa-aukeren bidez edo landa-ekintzaile berriei zuzendutako lur-bankuen bidez.
- Foru-aldundiekin, udalekin eta toki-erakundeekin lankidetzan, Nekazaritza Lurren Funtsekin bat sortuko dugu.
- Nekazaritzako Test Guneak sustatu eta babestuko ditugu, non lehen sektorean jarduerak bat hasi nahi duten pertsonak beren proiektuaren bideragarritasuna proba dezaketen, horrek dakartzan arrisku ekonomikoak beren gain hartu gabe.
- Nekazaritzan eta abeltzaintzan teknologia berritzaileak ezartzea sustatuko dugu, gazteei beren eragiketen eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko tresna modernoak eskainita, eta belaunaldien arteko lotura sustatuta ezagutzak trukatzeko.
- Nekazaritza-komunitateari dagokionez, ezagutza eta berrikuntza eskuratzeko aukera hobetuko dugu, aholkularien integrazioa eta antolaketa sustatuta nekazaritzako ezagutza- eta berrikuntza-sistemaren barruan (AKIS). Horrela, nekazariak ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetan dituzten beharrak hobeto integratzeko lirateke.

- Nekazari eta abeltzain gazteak konektatuko dituzten sareak eta komunitateak ezarriko ditugu, esperientziak, ideiak eta lankidetzak trukatzeko gune bat eskainita. Horrek elkartasuna eta elkarrekiko laguntza indartuko ditu belaunaldi-erleeboko prozesuan.
- Gazteek nekazaritzan eta abeltzaintzan duten zeregina aintzatetsi eta balioetsiko dugu, elikagaien segurtasunari eta jasangarritasunari egindako ekarpenak nabarmenduta. Horrek barne hartuko ditu kontzientziazio-kanpainak, belaunaldi berriak sektorearen jarraipenean duen garrantzia nabarmentzeko.

Baso kudeaketa jasangarria

Baso-kudeaketa funtsezkoa da gure natura-baliabideak babesteko eta sistema jasangarriak sustatzeko. Basoen kontserbazioan, biodibertsitatean eta baliabide balioezin horren erabilera arduratsuaren sustapenean oinarrituko dugu gure baso-politika.

- Biodibertsitate autoktonoa babestu eta leheneratuko duten baso-kudeaketako estrategiak lehenetsiko ditugu. Eremu babestuak eta korridore ekologikoak sortzea sustatuko dugu, gure basoen osasuna eta dibertsitatea bermatzeko.
- Basoen birsorkuntza ziurtatuko duten baso-jardunbide jasangarriak sustatuko ditugu, gehiegizko ustiapena saihestuta eta mozketak selektiboko eta birsorkuntza naturaleko teknikak sustatuta.
- Mendien jabeekin eta inplikaturako gainerako erakundeekin batera lan egingo dugu baso-eredu jasangarri eta ordenatu baten alde, irizpide tekniko eta zientifikoak kontuan hartuta, espezie autoktonoen eta hostozabalen landaketak sustatuta, horrela ingurumen-biodibertsitate handiagoko prozesu ekologikoak sortzeko.
- Kontrol- eta jarraipen-sistema bat ezarriko dugu, baso-kudeatzaileekiko independentea izango den ingurumen-organo batetik, baso-teknikek biodibertsitatearen gainean dituzten ondorioak ebaluatzeko eta baimendutako baso-proiektuak eta -jarduerak tokian bertan egikaritzeko.
- Luzamendu mugagabea ezarriko diogu Euskadin Eucalyptus generoko espezieak landatzeari, eta luzamenduan sartuko ditugu tramitatzen ari diren genero horretako landaketa-espeditenteak. Gainera, irizpide zientifikoetan oinarritutako muga zehatzak ezarriko ditugu eukalipto-landaketak Euskadin ez hedatzeko.

- Naturagune Babestuen Sarean baso-landaketa berriak egitea eragotziko dugu, eukaliptoak eta pinudiak moztu ondoren bertako espezieak leheneratzea aukeratuta. Era berean, baso mistoak sustatuko ditugu, eukaliptoaren, pinuaren eta beste espezie batzuen monolaborantzak baso mistoetan eraldatzeko baso-politikekin, eremu babestuetatik kanpo dauden onura publikoko mendietan biodibertsitatea eta erresilientzia ekologikoa hobetzeko.
- Foru-aldundiekin lankidetzan arituko gara basozaintzako neurri fiskalak ezartzeko, baso-landaketen kudeaketa hobetzeko tresna posible gisa baso-ziurtapena erabiltzeko, eta, horrela, gazteak Euskadin basogintzan sar daitezen sustatzeko.
- Pizgarri positiboak ezarriko ditugu basoak kudeatzeko eredu berriak gara daitezen. Eredu horiek lehentasuna emango diote ingurumen-ondasunak eta -zerbitzuak sortzeari, ondasun eta zerbitzu ekonomikoekin batera, eta bateragarriak izango dira gure natura-ondarea kontserbatzearekin eta hobetzearekin.
- Baso-kudeaketa hobetzeko teknologia berritzaileak ikertzen eta ezartzen lagunduko dugu, urrutiko monitorizazio-sistemak, eredu prediktiboak eta moldatzeko maneiu-teknikak barne direla.
- Tokiko komunitateen parte-hartze aktiboa sustatuko dugu basoen kudeaketan eta kontserbazioan, haien ezagutza tradizionala aintzatetsita eta haien inguruneei eragiten dieten erabakietan lankidetzan sustatuta.
- Baso-kudeaketa jasangarriaren garrantziaz jabetzeko hezkuntza-programak ezarriko ditugu, gizartearen gure baso-baliabideen kontserbazioan eta erabilera arduratsuan inplikaturik.
- Baso-suteak prebenitzeko programa integralak ezarriko ditugu, honako hauek barnean hartuta: suebakiak mantentzea, eremu kritikoak garbitzea eta komunitatea sentsibilizatzea baso-eremuetako jardunbide seguruei buruz. Droneak, detekzio goiztiarreko kamerak eta sateliteen irudiak bezalako teknologiak erabiliko dituzten zaintza-sistema aurreratuak ezarriko ditugu suteak izateko joera duten eremuak monitorizatzeko.
- Prestakuntza- eta trebakuntza-programak eskainiko dizkiegu baso-brigadei, suhiltzaileei eta tokiko boluntarioei, suteen aurreko prestakuntza eta berehalako erantzuna hobetzeko. Horrek barne hartuko ditu suteak itzaltzeko taktikak, larrialdiak kudeatzeko teknikak eta hainbat agentzia eta segurtasun-kidegoren arteko koordinazio eraginkorra.

- Baso-maneiurako jardunbideak ezarriko ditugu, hala nola suebaki naturalak sortzea, prebentziozko basogintzako teknikak erabiltzea eta suarekiko erresilienteak izango diren paisaiak diseinatzea. Basoen egitura- eta espezie-dibertsitatea sustatuko dugu, suteekiko haien erresistentzia areagotzeko.
- Baso-suteei erantzuteko ekintza-plan argiak eta efizienteak ezarriko ditugu. Horren barruan sartuko dira baliabideak azkar mobilizatzea, tokiko, eskualdeko eta nazioko agentzien arteko koordinazioa, eta baso-suteei modu eraginkor eta estrategikoan aurre egiteko ekipo espezializatuetarako sarbidea.
- Etengabeko hezkuntza-kanpainak egingo ditugu komunitateari zuzenduta, baso-eremuetan praktika arduratsuak sustatzeko, prebentzioaren, garai lehorretako zuhurtziaren eta sute-fokuen berri azkar ematearen garrantzia azpimarratuta.
- Suteen ondoren basoak leheneratzeko planak ezarriko ditugu, kaltetutako eremuak birgaitzeko, birsorkuntza naturala sustatuta eta, behar izanez gero, basoberritze estrategikoa sustatuta, biodibertsitatea berrezartzeko eta kaltetutako ekosistemen funtzionaltasun ekologikoa berreskuratzeke.

11.5. Ura, zarata, airea, hondakinak

Uraren kudeaketa publikoa

- Uraren Esparru Zuzentarauaren (UEZ) ingurumen-helburuekin bat etorriko den ur-politika ezartzeko konpromisoa hartzen dugu, baita klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko konpromisoa ere. Gainera, Gizakiaren Ur Eskubidea bermatuko dugu, eta giza premiak betetzen direla eta herritarrek uraz gozatzen dutela ziurtatuko da. Efizientzia sozialaren eta ekonomikoaren eta lurralde-efizientziaren printzipioen arabera egingo da eta behar duten kolektiboekin elkartasunez jardungo da.
- Uraren hiri-zikloaren kudeaketa publiko eta parte-hartzailea sustatuko dugu, eta, horretarako, zerbitzuen pribatizazioa lehengoratu dugu eta erabilera gardena bermatuko dugu, kontrol parte-hartzailearen bidez. Horniduraren, saneamenduaren, arazketaren, hiri-drainatzearen eta ekosistemen babesaren kudeaketa integratua egingo da. Era berean, uraren kudeaketa integralerako erakunde publiko autonomo bat ezarriko dugu, gizarte zibilaren ordezkariekin eta arlo hidrikoko adituekin.

- Gardentasun-neurriak inplementatuko ditugu, eta horien artean egongo da aldian behin argitaratzea uraren kalitateari, kutsadura-mailei eta kudeaketarekin lotzen diren gastuei buruzko txostenak.
- Emakida-erregimena aplikatuko dugu, eta uraren emakida-eskubideen gero eta merkantilizazio handiagoa lehengoratu dugu.
- Eskaria kudeatzeko neurriak inplementatuko ditugu, eta, hartara, politika sektorialak barnean hartu eta neurrien kostu/efizientzia aztertuko dugu. Kutsatzen duenak ordain dezala dioen printzipioaren arabera berreskuratuko dira kostuak.
- Baliabide ez-konbentzionalak aintzat hartuko ditugu —hala nola araztutako hondakin-urak eta itsasoko ura gatzgabetzearen ondoriozko urak—, eskaria kudeatzeko neurri nagusiak osatze aldera. Horrek ekosistema hidrikoen gaineko presioa arinduko du eta ur-erabilera jasangarriagoetarako trantsizioa erraztuko du. Ildo horretan, Lemoizko Zentral Nuklearraren lursailetan itsasoko ura gatzgabetzeko planta bat eraikitzea planteatuko dugu.
- Ur-harguneen eta Jabari Publiko Hidraulikoko jardueren kontrol zorrotza egingo dugu, eta, horretarako, horien legezkotasuna bermatuko dugu, ur bolumenak kontrolatuko ditugu, eta isurketak, okupazioak, dragatzeak, agregakinen erauzketak eta ur-ingurumenen eragina izan dezaketen bestelako ekintzak behar bezala ikuskatu eta zainduko ditugu.
- Herritarrei, oro har, eta belaunaldirik gazteenei, bereziki, zuzenduko zaizkien uraren erabilera arduratsuen garrantziari buruzko eta baliabide hidrikoak kontserbatu beharri buruzko ingurumen-hezkuntzako eta -kontzientziazioko programak inplementatuko ditugu.

Akuiferoen kontrol zorrotza, akuiferoak agortu eta kutsa daitezen saihestearren

- Akuiferoak etengabe monitorizatzeko sarea sortuko dugu, eta ur-mailaren aldaketak eta uraren kalitatea detektatzeko teknologia aurreratua erabiliko dugu.
- Akuiferoen kudeaketa jasangarrirako planak garatuko ditugu, datu hidrogeologiko eguneratuetan eta epe luzeko klima-aurreikuspeneko ereduetan oinarrituta.

- Behin betiko debekatuko dugu lurpeko uraren kalitatea arriskuan jar dezakeen edozein jarduera, baita zorupeko gas-baliabideen miaketa eta ustiapena ere.
- Gehiegizko ustiapenaren, kutsaduraren edo klima-aldaketaren eraginpean izan diren akuiferoak leheneratzeko eta birgaitzeko programak inplementatuko ditugu. Programa horiek askotariko neurriak barne har ditzakete, hala nola akuiferoak modu artifizialean kargatzea, hezeguneen leheneratzea eta lurpeko urak kargatzeko eremuak basoberritzea.
- Lurpeko ur kutsatuak leheneratzeko teknologia berritzaileen ikerketan eta garapenean inbertituko dugu.
- Ur-iturri alternatiboen erabilera sustatuko dugu, esaterako lur gaineko urak eta bildutako eta araztutako euri-urak, lurpeko uren gehiegizko erabileraren alternatiba gisa.
- Akuiferoen karga naturala sustatzeko neurriak inplementatuko ditugu, hala nola, lurpeko urak kargatzeko eremuak babestu eta leheneratzea, ur-biltegi natural gisa jokatzaren duten ur-ekosistemen kontserbazioa eta lurzorua erabileraren kudeaketa egokia. Hartara, euri-ura zorupera iragaztea eragozten duten trinkotzeak eta iragazgaizteak saihestuko ditugu.
- Larrialdi- eta kontingentzia-planak garatuko ditugu, lurpeko ur-eskasiako egoerei, ustekabeko kutsadura-egoerei edo akuiferoetan ondorio negatiboak izan ditzaketen bestelako gertaerei aurre egiteko.

Uraren erabilera efizientea sustatzea etxe, hiri eta enpresako esparruetan

- Herritarrak ur-kontsumoa murriztearen garrantziaz kontzientziazteko programak inplementatuko ditugu, eta pizgarriak eskainiko ditugu etxean eta enpresan aurrezteko gailuak instala daitezzen.
- Ur grisaren berrerabilera sustatuko dugu, bai eraikin publiko eta pribatuetan ur grisak bildu eta tratatzeko sistemak sustatzearen bidez, bai edateko erabileraz bestelako jardueretan (lorategiak ureztatzea, kaleak garbitzea...) ur grisak erabiltzea erraztuko duten arauen bidez.
- Ur-tarifa progresiboen sistema inplementatuko dugu, non kontsumoa handitu ahala tarifa handiagoak aplikatuko diren.

- Tarifa sozial bereziak eta laguntza-programak ezarriko ditugu familia ugariarentzat eta diru-sarrera urriak dituzten pertsonentzat. Tarifa murriztu horiei edo laguntza horiei esker, pertsona guztiek oinarrizko ur kopurua prezio egokian eskuratu ahal izango dute, baita familiaren tamaina dela-eta kontsumo kategoria handiagoan sartzen badira ere.
- Xerolorezaintzako lanak sustatuko ditugu hiri-eremuetan eta hiri-inguruko eremuetan, batik bat ur gutxi dagoen lekuetan edo ura lortzea zaila den lekuetan. Xerolorezaintza sustatuko dugu sentsibilizazio-kanpainen bidez, paisaia jasangarriak diseinatzeari buruzko ikastaro eta tailerren bidez eta udalekin, mintegiekin eta paisajistekin elkarlanean aritzearen bidez. Xerolorezaintzarako egokiak diren landareak eta materialak eskaintzea izango da helburua.
- Etxeei eta enpresei zuzendutako auditoria eta aholkularitza hidrikoko programak inplementatuko ditugu. Programa horiek ur-kontsumoa ebaluatzeko zerbitzuak eskainiko dituzte, baita hobekuntza-arloak identifikatzeko zerbitzuak eta kontsumoa murrizteko eta efizientzia hidrikoa hobetzeko gomendio pertsonalizatuak ere.

Nekazaritza jasangarria eta nekazaritza-sektorean uraren kudeaketa efizientea babestea

- Ingurumena errespetatzen duten labore-jardunbideak —hala nola nekazaritza ekologikoa, ureztatze-teknika efizienteak eta laboreen dibertsifikazioa— inplementatzen dituzten nekazarietzako laguntzak eta dirulaguntzak ezarriko ditugu.
- Uraren erabileran efizientzia maximizatzen bideratutako nekazaritza-teknologia berritzaileen ikerketa eta garapena sustatuko dugu. Teknologia berritzaile horien artean daude, besteak beste, tantakako ureztatze-sistemak, lurzoruen hezetasun-sentsoreak eta kontserbazio-nekazaritzako metodoak.
- Kreditu bigunak eskuratu ahal izatea erraztuko dugu, baita nekazaritza-ustategietan kudeaketa hidriko jasangarrirako neurriak inplementatzeko aholkularitza teknikoak ere, baliabide hidrikoen mendeotasuna murriztu dadin eta lehorteei eta muturreko beste klima-gertaera batzuei aurre egiteko erresilientzia hobetu dadin.
- Akuiferoetatik ur gehiegi hartzea saihesten duten eta ongari eta pestiziden kutsadura minimizatzen duten nekazaritza-jardunbide jasangarriak sustatuko ditugu.

- Nekazaritza-jardunbide jasangarriei eta uraren kudeaketa efizienteari buruzko trebakuntza-eta prestakuntza-programak inplementatuko ditugu nekazariantzat.
- Pizgarri ekonomikoak eta fiskalak ezarriko ditugu nekazaritza-ustategietan lurzoruak eta urak kontserbatzeko jardunbideei jarrai dakien. Pizgarri horien artean, lurzoruak kontserbatzeko jardunbideak inplementatzeko dirulaguntzak egon daitezke. Jardunbide horietan sartzen dira, adibidez, zuzeneko ereintza, estaldura-laborantza edota lurzoruaren higadura eta ur-isurketa kontrolatzeko terrazen eta landare-hesien eraikuntza. Gainera, kenkari fiskalak edo zerga-kredituak eskain dakizkieke beren finketan ibaiertzak eta ur-habitatak babesteko eta leheneratzeko neurriak ezartzen dituzten nekazariei.
- Partzela berean zuhaitzak eta nekazaritza-laboreak integratuko dituzten nekazaritza eta basozaintzako sistemak ezar daitezten sustatuko dugu. Sistema horiek uraren erabileraren efizientzia hobetzen lagun dezakete, lurzoruaren lurruntzea murrizten baita, uraren infiltrazioa handitzen baita eta lurzoruak hezetasuna hobeto atxikitzen baitu. Horrez gain, nekazaritza eta basozaintzako sistemek beste onura batzuk ere ekar ditzakete, hala nola nekazaritza-produktuak dibertsifikatzea, biodibertsitatea hobetzea eta klima-aldaketa arintzea, karbonoa landare-biomasan eta lurzoruan atzitzearen bidez.
- Lehorte-garaian nekazaritza-ureztapenerako berariaz erabiliko diren erreserba hidrikoak sortuko ditugu. Erreserba horiek izan daitezke putzu txikiak, euri-ura biltegitratzeko urmaelak edo akuiferoak modu artifizialean kargatzeko sistemak. Erreserba horiek baliatu ahal izango dituzte soilik ura modu jasangarrian kudeatzeko jardunbideak erabiltzen dituzten eta, ur-ekasia dagoenean, laboreak mantentzeko ur gehiago behar dutela frogatzen duten nekazariei. Neurri horrek lagunduko luke nekazaritzaren segurtasun hidrikoa bermatzen eta lehortek nekazaritza-produkzioan dituen eragin negatiboak arintzen.

Kutsadura

- Foru-aldundiekin eta toki-erakundeekin koordinatuta, Euskadiko komunikazio-bide nagusien inguruko zuhaitzien azalera handitzeko estrategia publikoa gara dadin sustatuko dugu, gaur egun komunikazio-bideek sortzen baitute soinu-kutsadurarik handiena.
- Udalek jarduera gogaikarriak minimizatzeko, soinu-inpaktua murrizteko eta egungo araudia errespetatzeko babes-programak ezarriko ditugu.

- Foru-aldundiekin elkarlanean arituko gara Euskadiko larrialdi-planak eta -protokoloak egokitze aldera. Horretarako, plan eta protokolo horiek egunera daitezen bultzatuko dugu, eraginkortasunez, efizientziaz eta segurtasunez jardun ahal izan dadin larrialdi-egoera klimatikoan sortutako erronka eta arrisku berrien ondoriozko egungo eta etorkizuneko arriskuen aurrean. Horrez gain, beharrezkoak diren baliabideak (giza baliabideak eta baliabide materialak) erabiliko ditugu, datozen urteetan aurre egin beharko diegun larrialdi eta erronka guztiei berme osoz aurre egin diezaiegun.
- Babes eta Bitartekaritza Plan Bereziak ezarriko ditugu, industria-jardueren eta landaguneen baterako existentzian inplikaturik dauden eragile guztien arteko elkarrikeria eta lankidetzak sustatu dadin eta konponbide adostuak bila daitezen.
- Azterketa zehatzak egingo ditugu industria-jardueren landaguneetan dituzten inpaktuak identifikatu daitezen eta eraginpean dauden biztanleen premiak eta kezak ebalua daitezen.
- Inpaktu negatiboak arintzeko ekintza zehatzak inplementatuko ditugu, hala nola hesi akustikoak jartzea, emisio kutsatzaileak murriztea eta eremu degradatuak leheneratzea.
- Industrialde batetik 3 kilometrora baino gutxiagora dauden landagune guztietan zaratak eta airearen kutsadura neurtzeko estazio finkoak instalatzeko konpromisoa hartzen dugu. Era berean, neurri zuzentzaileak inplementatzeko eta eraginpean dauden komunitateetan tokiko garapen jasangarriko proiektuak sustatzeko aholkularitza teknikoa eta finantzaketa eskainiko ditugu.
- Enpresen, tokiko agintarien eta egoiliarren arteko bitartekaritza- eta negoziazio-prozesuak erraztuko ditugu, ingurumen- eta komunitate-gatazketan espezializatutako bitartekarien parte-hartze aktiboarekin.
- Neurri zuzentzaileen inplementazioaren etengabeko jarraipena egingo dugu, eta neurri horiek eraginpean dauden komunitateen bizi-kalitatearen hobekuntzan duten eraginkortasuna ebaluatuko dugu, betiere egoiliarren eta tokiko agintarien parte-hartze aktiboarekin.
- Osasunaren eta Ingurumenaren Euskal Plana
- Ingurumen-kutsadurarekin lotzen diren osasunerako arriskuak ebaluatu eta monitorizatuko ditugu.

- Ingurumen-kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko estrategiak garatuko ditugu, adituekin eta tokiko komunitateekin elkarlanean.
- Giza osasunaren eta ingurumenaren arteko loturei buruzko ikerkuntza zientifikoa sustatuko dugu.
- Herritarren parte-hartzea sustatuko dugu ingurumena babestearekin eta osasuna sustatzearekin lotutako erabakiak hartzeko garaian.
- Pertsona guztiek kalitateko osasun-zerbitzuak eta ingurune osasungarriak ekitatez eskura izatea bermatuko dugu.
- Argi-kutsaduraren aurkako araudi espezifikoak prestatu eta onartu dadin bultzatuko dugu eta, hartara, zero garbiaz eta izarrez gozatzeko eskubidea bermatuko dugu. Neurri horiek udal-ordenantzen bidez bideratuko dira.
- Indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrezkoak diren Airearen Kalitatea Hobetzeko Planak egingo ditugu, ozonoaren arloko lege-helburuak gainditzten diren zonetan ozonoa murriztu dadin. Hain zuzen, ozono bidezko kutsaduraren aurkako plan bat onartuko dugu Kantauriko Haranetan, Arabako hegoaldean.

Zarata

- Gauez eta ordu sentikorretan zarata handia sortzen duten merkataritza, industria eta aisialdiko jarduerak mugatzeari buruzko araudiak ezarriko ditugu, batik bat bizitegi-zonetarako.
- Trafikoa kudeatzeko eta ibilgailuek sortzen duten zarata murrizteko politikak inplementatuko ditugu, hala nola, garraio publikoa sustatzea, Emisio Gutxiko Eremuak sortzea eta biztanle ugari duten hiriguneetan trafikoa arautzea.
- Zarataren hedapena murriztuko duten hiri-diseinuko irizpideak erantsiko ditugu; esaterako, errepideetan hesi akustikoak jartzea, industrialdeak eta merkataritza-guneak kokaleku egokietan finkatzea, eta soinua moteltzen duten berdeguneak eta aisialdi-eremuak planifikatzea.

- Industria, merkataritza eta eraikuntzako jardueretan zarataren sorrera murriztuko duten teknologiak eta ekipiak erabiltzea sustatuko dugu, eta, horretarako, efizientzia akustikoari buruzko araudiak aplikatuko ditugu eta makina eta ekipoen erabileran jardunbide egokiak sustatuko ditugu.
- Zaratak osasunean eta ongizatean dituen eragin kaltegarrien inguruan herritarrak kontzientziatzeko kanpainak egingo ditugu, eta jarrera arduratsuak eta herritarren atsedenerako eta bizi-kalitaterako errespetua sustatuko ditugu.
- Kutsadura akustikoari buruzko arauak betetzen direla kontrolatzeko eta zaintzeko mekanismoak indartuko ditugu, eta, horretarako, baliabideak gehituko ditugu eta tokiko eta eskualdeko agintarien arteko koordinazioa areagotuko dugu.
- Zaratak giza osasunean eta ingurumenean dituen ondorioei buruzko ikerkuntza zientifikoa babestuko dugu, baita kutsadura akustikoa murrizteko eta arintzeko soluzio berritzaileen garapena ere.
- Herritarrek gehiegizko zarata-iturrien identifikazioan eta salaketan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatuko dugu, baita hiri-inguruneak kalitate akustikoa hobetzeko proposamenen eta konponbideen formulazioan ere.
- Lehentasuna emango diogu hirigune degradatuak birgaitzeari eta zarata-maila handiaren eraginpean dauden auzoak biziberritzeari, eta, helburu horrekin, soinu-ingurunearen kalitatea eta etxebizitzaren bizigarritasuna hobetuko duten hiri-diseinuko neurriak aplikatuko ditugu.
- Gobernu-mailen, erakunde publikoen, erakunde zibilen eta sektore pribatuaren arteko elkarlanerako mekanismoak ezarriko ditugu, kutsadura akustikoaren arazoari modu integralean hel dakion eta irtenbide eraginkorrak eta jasangarriak susta daitezkeen.

Airea

- Udalerrri osoan airearen kalitateari, emisioen murrizketari eta garraio-modalitateari buruzko helburuak betetzeko behar besteko azalera duten Emisio Gutxiko Eremuak ezarriko ditugu. Emisio Gutxiko Eremuetako ingurumen-helburuak betetzera begira, denbora-esparru argia eta fidagarria finkatuko dira, eta hiri-eremu mugakidea eta sentikortasun bereziko zonen ebaluazioa barne hartuko dira. Behar bezala arrazoituko dira trafikoa murrizteko neurriak. Horien tramitazioan eta geroako ebaluazioan, informazio guztia eskuratzeko eskubidea

bermatuko da, eta herritarrek parte hartzeko duten eskubidea sustatuko da, gazteak gisako kolektiboak bereziki. Parte hartzeko prozesuan, trafiko-murritzetarako alternatiben inpaktua behar bezala ebaluatzea eta aztertzea gehituko da. Euskadin 50.000 biztanletik beherako udalerrietan Emisio Gutxiko Eremuak ezartzea bultzatuko duen araudia onartuko dugu.

- Udalei lagunduko diegu onartuta dauden Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planak egokitu ditzaten Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko 7/2021 Legearen 14.3 artikuluan jasotako aurreikuspenetara. Halaber, 50.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan, sustatuko dugu Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planetan barne har daitezen airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko 34/2007 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako airearen kalitateari buruzko helburuak betetzen eta hobetzen direla bermatuko duten planak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko udal-administrazioekin elkarlanean jardungo dugu eta lagunduko diegu sentsibiltate bereziko eremuetan —hala nola ikastetxeetan— oinezkoentzako ibilbideak bultzatzen eta, hala, oinez eta bizikletaz egiten diren joan-etorriei lehentasuna eman diezaieten, ibilgailu motordunen gainetik.
- Garraio publikoaren, bizikleten eta ibilgailu elektrikoen erabilera sustatuko dugu, hiriguneetan eta hiri-inguruetan gas kutsatzaileen emisioak murriztu daitezten. Horrek barnean har dezake garraio publikoaren azpiegitura zabaltzea, bidegorri seguruak sortzea eta ibilgailu elektrikoak erosteko pizgarri ekonomikoak inplementatzea.
- Trafiko-pilaketak murrizteko neurriak ezarriko ditugu, hala nola, hiriko bidesariak, Emisio Gutxiko Eremuak, oso kutsagarriak diren ibilgailuen zirkulaziorako murrizketak, eta telelanaren eta ordutegi-malgutasunaren sustapena.
- Ibilgailuetan eta berogailuetan erabiltzen diren erregaien kalitateari buruzko araudi zorrotzagoak ezarriko ditugu, eta erregai garbi eta berriztagarrietarako (adibidez, gas naturala eta bioerregaiak) trantsizioa sustatuko dugu.
- Etxebizitza, industria eta merkataritzako sektoreetan energia-kontsumoa murriztuko duten teknologiak eta jardunbideak ezartzea sustatuko dugu, hala nola berotze, hozte eta argiztatzeko sistemetan efizientzia hobetzea, energia kudeatzeko sistemak ezartzea eta energia berriztagarrietako autokontsumoa sustatzea.

- Industria-emisioen erregulazioa eta kontrola indartuko ditugu, eta horretarako, kutsadura kontrolatzeko teknologiak aplikatuko ditugu eta ekoizpen-prozesu garbiagoak sustatuko ditugu, baita ingurumen-agintarien zaintza aktiboa ere.
- Airearen kalitatea neurtzeko estazioen kopurua eta kokapena berrikusiko dugu, eta, beharrezkoa bada, estazio berriak jartzea sustatuko dugu, herritarrek kalitate oneko airea arnasten dutela ziurtatze aldera.
- Ingurumena gehiago errespetatuko duten nekazaritza-jardunbide jasangarriagoak babestuko ditugu —esaterako, ongari eta pestizida kimikoen erabilera murriztea, nekazaritza-hondakinak behar bezala kudeatzea eta nekazaritza ekologikoa eta birsortzailea sustatzea—.
- Airearen kalitatea zaindu eta monitorizatzeko sistemak hobetuko ditugu; izatez, eremu kritikoetan neurketa-estazioak instalatuko ditugu eta urrutiko monitorizazioko teknologiak inplementatuko ditugu, kutsadura-iturriak identifikatu eta kontrolatze aldera.
- Airearen kutsadurak giza osasunean eta ingurumenean dituen ondorioei buruzko sentsibilizazio-kanpainak egingo ditugu, eta baliabideen erabilera arduratsua sustatuko dugu, baita etxean, industrian eta garraioan jardunbide jasangarriagoak hartzea ere.
- Nazioartean lankidetza eta jardunbide onen trukea sustatuko ditugu, airearen kutsaduraren arloko mugaz gaindiko arazoei aurre egin dakien, hala nola industriaren eta garraioaren ondorioz metropoli-eremuetan eta mugako eskualdeetan dagoen kutsadura atmosferikoari.
- Kutsadura-maila handiko hiri-eremuetan eta eskualdeetan airearen kutsadura murrizteko ekintza-plan espezifikoak egingo ditugu, eta epe luzera eraginkorrak izango direla bermatzeko helburu argiak, neurri zehatzak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ezarriko ditugu.

Hondakinak

- Hondakindegien eta hondakinak biltegitratzeko bestelako instalazioen edo irregularitasun larriak eta/edo jarraituak atzeman diren instalazioen kudeaketa publikoaren alde gaude.
- Hondakinen kudeaketari buruzko erabakietan eta beharrezko jarduera eta instalazioetan gizarteak zuzenean eta modu aktiboan parte har dezan sustatuko dugu, batik bat zuzenean eraginpean dauden komunitateek.

- Eskumen-mailetan eta -esparruetan inplikaturik dauden erakunde guztien koordinazioa sustatuko dugu. Ezinbestekoa da hondakinen, lurzoruen eta uraren kudeaketan inplikaturik dauden administrazio eta agintari guztiek eskura duten informazio guztia partekatzea eta koordinatzea.
- Hondakinak berreskuratze eta berrerabiltzeko azpiegiturretan inbertituko dugu, gaur egun hondakindegietan eta erraustegietan amaitzen duten industria-hondakinen bolumen handia lehengoratzeko. Ildo horretatik, bolumen handiko industria-hondakinak (zepak, erraustsak edo lohiak) kudeatu eta balorizatzeko zentroa sortzea proposatzen dugu, hondakin horiek balio-katean berriro sartu daitezkeen eta ekonomia zirkularra sustatu dadin. Era berean, behar-beharrezkoa da hondakinak kudeatuko dituen eta lehengai baliotsuak (litioa, kobaltoak edo lur arraroak) berreskuratu, berrerabili edo birziklatu dituen azpiegitura edukitzea.
- Euskadin Amiantoaren Ezabatzearen Ekintza Plana egingo dugu: Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren osasuna babesteko konpromisoarekin jarraituko dugu, arnastutako airean dagoen amiantoarekiko esposizio-arriskuari aurre egitearren. Ekintza-plan berriak, amiantoak osasunean dituen ondorioei buruzko informazio eguneratua izateaz gain, gaiaren ikuspegi integralagoa ere izango du, barne hartuko dituen amiantoak Euskadin duen egoeraren azterketa sakona, amiantoaren modu segurua eta progresiboan ezabatzearen aukera berritzaileak, eta eraginpean dauden komunitateek erabakiak hartzearen prozesuan parte-hartze aktiboa izatea. Edonola ere, plan honetan ez da barne hartuko Gardelegi, Bistibieta, Artxanda eta Igorreko hondakindegietan fibrozementua hartzearen gelaxka espezifikorik. Amiantoaren modu seguruan ezabatu nahi den bitartean, Euskadi osorako hondakindegia berezi bat jartzeko aukera aztertuko da, edo, bestela, herrialde bakoitzeko hondakindegia bat, erabilera eskusibekoa. Ez da inola ere inportaziorik onartuko.
- Abandonaturik eta katalogotik kanpo dauden hondakindegia guztiak berehala ixteko prozesuari ekingo diogu, eta zona horien ingurumena lehengoratu eta birstortuko dugu.
- “0 hondakin” helburuarekin dugun konpromisoa berresten dugu, eta hondakinen errausteta baztertzeko konpromisoa hartzen dugu. Hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea erraztuko duten hondakinak biltzeko sistemak sustatuko ditugu, eta, halaber, ekonomia zirkularra sustatuko dugu, eta sortze-berrerabilerako ekimenak eta hondakinak murrizteko ekimenak babestuko ditugu.
- Hiri-hondakinen gaikako bilketaren ehunekoa handituko dugu: legealdiaren amaieran, helburua izango da hiri-hondakinen gaikako bilketan % 80 gutxienez lortzea, 0 hondakineko helburuari begira. Gaikako bilketaren hobekuntzan herritarren parte-hartzea bultzatuko

dugu, eta, horretarako, edukiontzien parkea benetako premietara egokituko dugu eta herritarren artean hondakinen kudeaketari buruzko eztabaida sustatuko dugu.

- Hondakindegietan hondakinak botatzeko eta hondakinak tratatzeko tasak aplikatuko ditugu: arau-aldaketak egingo ditugu hondakinak berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzeko, hondakindegietan hondakinak botatzeko eta hondakinak erraustegietan tratatzeko tasak aplikatzearen bidez.
- Hondakindegietan eta enpresetan ikuskapenak areagotzea sustatuko dugu, baita Eusko Jaurlaritzako ingurumen-kalitatearen arloko ikuskatzaile kopurua handitzea ere, hondakin toxiko eta arriskutsuen kontrol eraginkorragoa bermatze aldera.
- Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru kutsatuak deskontaminatzeko eta lehengoratzeko helburuak lortzera begira lan egingo dugu, eta lurzoru kutsatuak dituzten lursailak nahitaez desjabetzeko aukera emango dugu, baldin eta jabeek ezer egiten ez badute edo kaudimenik ez badute.
- “Kutsatzen duenak ordain dezala” printzipioa aplikatuko dugu: baliabide naturalen erauzle eta kontsumitzaile nagusien artean ingurumen-erantzukizun erreala sustatuko dugu, ingurune naturala konpontzeko finantza-berme baten bidez, “kutsatzen duenak ordain dezala” printzipioaren ildotik.

11.6. Industria-eredua

Industria jasangarriaren aldeko euskal ituna

- Industria jasangarriaren, trantsizio energetikoaren eta ekonomia zirkularraren aldeko euskal ituna bultzatuko dugu.
- Pizgarri fiskalak eta finantzarioak ezarriko ditugu jardunbide jasangarriak hartzen dituzten enpresentzat, hala nola ekonomia zirkularra eta energia berriztagarrien erabilera.
- Ondasun estrategikoen, hala nola sendagaien eta elikagaien, produkzioa beste leku batzuetan kokatzea sustatuko dugu, krisialdietan segurtasuna eta autonomia bermatu dadin.
- Teknologia garbi eta jasangarrien ikerketa eta garapena sustatuko dugu, eta arreta jarriko diogu enplegu berdearen sorrerari eta tokiko komunitateei laguntzeari.

- Inbertsio-funts publiko bat sortuko dugu, ekonomiaren funtsezko sektoreetan trantsizio energetikoko eta jasangarritasuneko proiektuak finantzatzeko.

Higiezin birgaitze integrala

- Etxebizitza birgaitze energetikoaren programa zabalduko dugu, inbertsioa handituko dugu eta jabeen erkidegoei laguntza ekonomiko eta tekniko eskainiko diegu.
- Eraikin publikoak eta etxebizitza sozialak birgaitzea lehenetsiko dugu, bizigarritasun-baldintza duinak bermatu daitezen eta energia-kontsumoa murriztu dadin.
- Etxebizitza eta eraikin publiko berrien eraikuntzan, energia-efizientziako eta irisgarritasuneko estandarrak ezarriko ditugu eta material jasangarriak eta teknologia berritzaileak erabiltzea sustatuko dugu.

Euskadiko energia-enpresa publikoa

- Energia-enpresa publiko baten sorrera sustatuko dugu, energia-eredu jasangarri eta deszentralizatu baterako trantsizioaren buru izan dadin. Horretarako, energia modu ekitatiboan eskuragarri izatea bermatuko dugu eta sorkuntza banatua eta autohornikuntza sustatuko dugu.
- Enpresa publiko horren helburua izango da, halaber, energia berriztagarrien arloko teknologia berritzaileak ikertu eta garatzea eta energia-efizientziako proiektuetan eta emisioak murrizteko proiektuetan inbertitzea.
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturretan inbertituko dugu, eta garraio publikoan eta pribatuan energia berriztagarriak erabiltzea sustatuko dugu.
- Biltegiatze-baterien eta energia garbiko teknologien ikerketa eta garapena sustatuko dugu, erregai fosilekiko mendekotasuna murriztu dadin eta klima-alaketari aurre egin dakion.

I+G+Bn inbertitzea

- Pixkanaka handituko dugu ikerkuntzarako eta berrikuntzarako finantzaketa, I+G+Brako Barne Produktu Gordinaren % 3 jarri arte.

- Ikerketa eta garapenerako inbertsio publikoa handituko dugu, eta baliabideak jarriko ditugu proiektu berritzaile eta jasangarrietarako, betiere unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin elkarlanean.
- Itun publiko-pribatuak ezarriko ditugu teknologiaren eta ezagutzaren transferentzia bultzatzeko, bereziki osasuna, energia eta ingurumena gisako sektore estrategikoetan.
- Kluster teknologikoak eta parke zientifikoak sortzea sustatuko dugu, eta, horrela, enpresen, erakundeen eta ekintzaileen arteko elkarlana sustatuko dugu, irtenbide berritzaileen eta jasangarrien bilaketan.
- Klima-alaketaren aurkako borrokatzeko euskal legea nabarmen aldatzea
- Berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murrizteko helburu are handiagokoak ezarriko ditugu; izatez, 2030erako % 70eko murrizketa ezarriko dugu, klima-alaketari buruzko azken txosten zientifikoen ildotik.
- Klima-alaketarako egokitzapena sustatzeko neurri espezifikoak txertatuko ditugu, eta, helburu horrekin, komunitaterik zaurgarrienak babestuko ditugu eta azpiegiturek eta ekosistemek muturreko klima-inpaktuen aurrean duten erresilientzia indartuko dugu.
- Kontuan hartuko ditugu biodibertsitatea galtzearen krisia eta elikagaien krisia, eta horiei aurre egiteko neurriak ez dira inoiz naturaren kontserbazioaren kalterako izango, ezta nekazaritza-balio handiko lurzorua galtzearen kalterako ere.

Berrindustrializazio berdea

- Lehenetsuna emango diogu energia berriztagarrien, energia-efizientziaren, hondakinen kudeaketaren eta biodibertsitatearen kontserbazioaren sektoreetan enplegua sortzeari, betiere jardunbide jasangarriak egiten dituzten enpresentzako zerga-pizgarrien eta finantzaketa publikoaren bidez.
- Industria tradizionalak produkzio-eredu garbiagoetara eta efizienteagoetara begira birmoldatzea sustatuko dugu, eta langileak lanpostu berdeetarako prestatzea eta birkualifikatzea erraztuko dugu.

- “Zero hondakin” helburuarekiko konpromisoa indartuko dugu, eta, helburu horri jarraikiz, birziklatzen ez diren hondakinak pixkanaka ezabatzeko eta berrerabilera eta birziklatzea sustatzeko xede zehatzak eta epeak ezarriko ditugu.
- Erabilera bakarreko plastikoen debekua zabalduko dugu, eta ontzi eta produktu biodegradagarrietarako trantsizioa sustatuko dugu. Ildo horretan, diseinu eta fabrikazio jasangarriko berrikuntza sustatuko dugu.
- Enpresak egonkortzeko funtsa Euskadiko enpresak egonkortzeko funtsa handituko dugu, eta bereziki klima- eta ekonomia-krisiaren eraginpean dauden sektoreentzako laguntza-neurri espezifikoak barne hartuko ditugu, hala nola trantsizio energetikoa eta klima-aldaketakarako egokitzapena.
- Funts publikoen kudeaketan gardentasuna eta kontu-ematea bermatuko ditugu, eta ziurtatuko dugu inbertsioak garapen jasangarriaren eta justizia sozialaren helburuekin bat datozeela.

Finantzaketa

- Finantzen Euskal Institutuaren finantza-baliabideen zati handi bat inbertsio berde eta jasangarriko proiektuetarako jarriko dugu, eta enpleguaren sorrera eta eskualdeen garapen ekitatiboa lehenetsiko ditugu.
- Bonu berdeak eta sozialak jaulkiko ditugu azpiegitura jasangarriko, garraio publikoko, energia berriztagarriko eta energia-efizientziako proiektuak finantzatzeko, eta herritarrak inplikatu ditugu ekonomia bidezkoago eta jasangarriagorako trantsizioan.
- Euskal enpresa bideragarrietan aldi baterako partaidetzak eskuratzeko behar besteko finantzaketa gordeko dugu.
- Tokiko enpresak babesteko eta haiei laguntzeko neurriak indartuko ditugu, lehia desleialaren eta finantza-jardunbide espekulatiboen aurrean, eta komunitatearen ongizatea eta subiranotasun ekonomikoa bermatuko ditugu.
- Sektore publikoaren, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarlana sustatuko dugu, elkartasunean, ekitatean eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako ekonomia inklusiboa eta jasangarria bultzatze aldera.

- Negoziazio-prozesuak hasiko ditugu finantza-erakundeekin, aurrezki-kutxen jabetza eta kontrol demokratikoa berreskuratze aldera, eta tokiko proiektuetan inbertitzera eta enpresa-ekimen jasangarriak laguntzera bideratuko ditugu.
- Kooperatibek eta erakunde komunitarioek kudeatuko dituzten eta arlo sozialean arduratsuak diren inbertsio-funtsen sorrera sustatuko dugu, aurrezki komunitatearentzat onuragarriak diren jarduera ekonomikoetara bidera dadin.

Ondasun estrategikoen produkzioaren birkokapena

- Autohornikuntzarako plan integrala ezarriko dugu, inportazioen mendekotasuna murriztu eta herrialdearen elikadura- eta osasun-segurtasuna indartzeko, eta tokiko produkzioa eta hornikuntza-katearen dibertsifikazioa sustatuko dugu.
- Nekazaritza ekologikoan, agroekologian eta produkzio jasangarriko teknologietan inbertitzea sustatuko dugu, eta, hartara, ingurumena errespetatzen duten elikagai osasungarrien kalitatea eta eskuragarritasuna bermatuko dugu.

Ekonomia zirkularra

- Ekonomia zirkularreko legea onar dadin bultzatuko dugu.
- Kontsumo kontziente eta arduratsua bultzatuko dugu, eta benetako premian eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako erosketa-ohiturak sustatu.
- Herritarrak sentsibilizatuko ditugu gehiegizko kontsumismoak gizartean eta ingurumenean dituen inpaktuei buruz, eta bizimodu jasangarriagoa eta orekatuagoa izatearen garrantzia nabarmenduko dugu.
- Industrian jasangarritasun eta ekodiseinuko irizpideak barne har daitezen babestuko dugu, eta kontzepziotik bertatik ingurumenean inpaktu txikia duten produktu iraunkor eta birziklagarrien sorrera sustatuko dugu.
- Produktuen bizi-zikloa ebaluatzeko eta aztarna ekologikoa murrizteko tresnak eta baliabideak eskuragarri izatea erraztuko dugu.

- Industria-klusterren eta enpresa-parkeen sorrera sustatuko dugu, baliabideak optimizatzena begira eta enpresen arteko elkarlana sustatzena begira, materialak, energia eta zerbitzuak parteka daitezela.
- Ekonomia- eta ingurumen-erronken aurrean komunitateen erresilientzia indartuko duten tokiko ekonomiako eta ekonomia zirkulazioko ekimenak babestuko ditugu.
- Produktu eta zerbitzuen erabilera partekatuan, harpidetzan eta alokairuan oinarritutako negozio-ereduak sustatuko ditugu, erosketaren eta jabetzaren ordean.
- Berrikuntza babestuko dugu kontsumitzaileen premiak efizientziaz eta modu jasangarrian asetzea helburu duten zerbitzuetan.
- Erabilitako produktuak trukatzeko eta birsaltzeko plataformak eta merkatuak sor daitezela erraztuko dugu, eta, hala, ekonomia kolaboratiboa eta hondakinen murrizketa sustatu.
- Objektuak eta produktuak konpontzeko eta leheneratzeko ekimenak babestuko ditugu, eta komunitatean brikolajerako eta DIYerako (zuk zeuk egin) trebetasunak sustatuko ditugu.
- Produktu elektronikoak eta etxetresna elektrikoak konpontzeko eskubidea eta bermea zabaltzea bultzatuko dugu, eta konponketaren ekonomia eta hondakin elektronikoen murrizketa sustatuko dugu.
- Hondakinen gaikako bilketarako sistemak eta hondakinak birziklatzeko sistemak inplementatzea babestuko dugu, eta hondakinak jatorrian bereiztea eta material birziklagarriak produktu berrien fabrikazioan aprobetxatzea sustatuko dugu.

Industriako energia-aurrezpenerako eta -efizientziarako plan intentsiboa

- Pizgarri fiskalak eta finantzarioak ezarriko ditugu industria-azpiegiturak teknologia efiziente eta garbiekin modernizatzena, eta energia-kontsumoa eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuko ditugu.
- Langileak energia-efizientziako eta kudeaketa jasangarriko tekniketan prestatu eta gaitu daitezela erraztuko dugu, eta enplegu berdearen sorrera eta enpresa-lehiakortasunaren hobekuntza sustatuko ditugu.

- Energia-efizientziako soluzio berritzaileen ikerketa eta garapena sustatuko ditugu, unibertsitateekin eta ikerkuntza-zentroekin elkarlanean, baliabideak aurreztu eta optimizatzeko potentziala maximizatzeko aldera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea

- Jarraipen- eta kontrol-mekanismoak indartuko ditugu, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legearen helburuak eta xedapenak aintzat hartutako sektore eta eremu guztietan betetzen direla ziurta dadin.
- Energia-politiken inplementazioan herritarren parte-hartzea eta gardentasuna sustatuko ditugu, eta gizarte zibila eta tokiko komunitateak inplikatu ditugu erabakiak hartzeko prozesuan eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan.
- Finantzaketarako eta babes teknikorako mekanismoak ezarriko ditugu, enpresa txiki eta ertainak eta etxebizitza partikularrak jasangarritasun energetikoari buruzko legeriaren eskakizunetara egoki daitezen laguntzeko.

Sistema energetikoaren demokratizazioa

- Herritarrei energia berriztagarriaren produkzioan eta kontsumoan sartzen lagunduko diegu, autokontsumoaren, sorkuntza partekatuaren eta energia-kooperatiben bidez, eta trantsizio energetikoan jabetza komunitarioa eta herritarren parte-hartzea sustatuko ditugu.
- Legeria fiskala berrituko dugu, energia berriztagarrietan eta autokudeaketa energetikoko proiektuetan oztopoak kendu daitezen eta inbertsioa susta dadin, betiere zerga-salbuespenak, lehentasunezko tarifak eta finantzaketa publikoa gisako pizgarrien bidez.

Tokiko komunitateen eta eskualdeen artean energia trukatzeko sareak sor daitezen lagunduko dugu, eta tokiko eta lurraldeko elkartasun energetikoa eta autonomia energetikoa sustatu.

Ekonomia berrindartzeko plana

- Euskadiren lehiakortasunerako eta garapen jasangarrirako funtsezkoak diren sektore ekonomikoen azterketa sakona egingo dugu, eta helburu horrekin, aintzat hartuko ditugu barne-produktu gordinari egiten dioten ekarpena, enplegua, berrikuntza eta ekonomiaren eta

klimateen krisiei aurre egiteko erresilientzia. Hazteko eta dibertsifikatzeko ahalmen handiena duten sektoreak lehenetsiko ditugu, hala nola energia berriztagarriak, 4.0 industria, osasuna eta hezkuntza.

- Euskal ekonomiarako kritikotzat jotzen diren sektoreak babesteko eta laguntzeko neurriak inplementatuko ditugu, epe luzera lehiakortasuna eta jasangarritasuna sustatuko dituzten industria- eta merkataritza-politiken bidez. Kontrol- eta erregulazio-mekanismoak ezarriko ditugu, enpresen deslokalizazioa eta sektore estrategikoetan gertatzen den enplegu-galera saihestu daitezen. Bestalde, subiranotasun ekonomikoa eta herritarren ongizatea bermatuko ditugu.
- Sektore publikoko baliabide finantzarioak eta teknikoak jarriko ditugu sektore estrategikoetan inbertsioa bultzatzeko; helburu horrekin sortuko ditugu garapen ekonomikorako funtsak eta berrikuntza eta inbertsio produktiboa sustatzeko programak. Interes estrategikotzat jotzen diren enpresetan erakundearen parte-hartzea erraztuko dugu, haien lehiakortasuna eta eskualde-garapenari egiten dioten ekarpena indartze aldera. Enpresa-kudeaketan lankidetzaren publiko-pribatua sustatuko dugu, eta langileen ordezkartza eta parte-hartze aktiboa ziurtatuko ditugu erabakiak hartzeko prozesuan eta enpresen plangintza estrategikoan.
- Elkarriketa soziala eta negoziazio kolektiboa bultzatuko ditugu, enpresen kudeaketa demokratiko eta parte-hartzaileko funtsezko tresna gisa. Era berean, enpresa-batzordeak eta parte hartzeko kontseiluak sortzea sustatuko dugu, non langileek eta zuzendariak produkzioarekin, inbertsioarekin eta enpleguarekin zerikusia duten funtsezko erabakiak eztabaidatu eta adostu ahal izango dituzten. Lan-eskubideen babesa bermatuko dugu, baita lan-harremanetan ekitatea ere, eta genero-berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa sustatuko ditugu enpresa-arloan.
- Arreta berezia jarriko diogu industria-erakundearen eraginpean dauden zonen berrindustrializazioari.
- Industrialdeak leheneratzeko plana idatziko dugu, eta plan horrek eremu publikoak zein pribatuak bilduko ditu. Plan horren helburua izango da industrialdeak, enpresa-parkeak eta jarduera ekonomikorako eremuak berrurbanizatzeko, berrsortzeko, birgaitzeko eta hobetzeko proiektuak eta jarduerak egin daitezen laguntzea. Plana gauzatzeko behar besteko aurrekontu-zuzkidura izango da.

- Egungo industrialdeak osatu artean, ez da industrialde berriak eraikitze edo zabaltze lurzoru gehiago hartzea onartuko.
- Industria-birmoldaketarako programak sustatuko ditugu Bizkaiko ezker alde gisako eremuetan. Balio erantsi handiko sektoreetan —4.0 industria, energia berriztagarriak eta ekonomia zirkularra— espezializatutako industria-klusterrak sortuko ditugu eremu horietan.
- Abandonatutako industria-azpiegiturak birgaitzeko eta horien balioa nabarmentzeko lankidetzak publikoak eta pribatuak sustatuko dugu —esaterako La Naval berriz irekitzeko—. Azpiegitura horiek berrikuntza- eta ekintzailatza-espazio bihurtuko dira, eta ahalegin berezia egingo da enplegu egonkorra eta kalitatekoa sortu dadin.

Produktzio-eredua eraldatzeko adostutako plana

- Indar politikoen, sindikatuen, enpresaburuen eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa- eta negoziatze-mahaiak ezarriko ditugu, jasagarritasunean, gizarteratzean eta herritarren ongizatean oinarritutako garapen ekonomikorako bide-orria zehazteko.
- Enpresa-ekimen berritzaileei eta arlo sozialean arduratsuei laguntzeko politikak sustatuko ditugu, eta, horretarako, kalitateko enplegua sortuko duten eta tokiko garapenari lagunduko dioten enpresak inkubatzeko eta bizkortzeko programak eta inbertsio-funtsak sortuko ditugu.

Pasaiako badiak biziberritzea

- Badiaren ingurumena babesteko eta leheneratzeko neurriak barne hartuko dituen biziberritze-plan integrala egingo dugu, eta itsas ekosistemen kontserbazioa eta biodibertsitatea sustatuko ditugu.
- Garapen ekonomiko eta turistikoko proiektuak planifikatzean eta gauzatzean, herritarren parte-hartzea eta baterako kudeaketa erraztuko ditugu, eta tokiko komunitateen nortasuna eta interesak errespetatzen direla bermatuko dugu.

Industria-lurzorua lehengoratzeko

- Abandonatutako industria-lurzoruak deskontaminatzeko eta birgaitzeko neurriak inplementatuko ditugu, eta lurzoru horiek berrerabiltzea sustatuko dugu, bertan ingurumena errespetatzen duten enpresa berritzaileak instalatu daitezkeen.

- Laguntza finantzarioko eta teknikoko programak ezarriko ditugu industria-espazio zaharrak teknologia-parke, ikerketa- eta garapen-zentro eta produkzio agroekologikoko eremu bihurtzeko.

Enpresa kutsatzaileen birkokapena

- Ingurumenaren gainean inpaktu negatiboa duten enpresak birlokalizatzeko planak diseinatzeko ditugu, eta produkzio garbirako eta berrikuntza teknologikorako azpiegiturak eta zerbitzuak dituzten industria-eremu espezifikoetara lekualda daitezkeen sustatuko dugu.
- Oinarri teknologikoko enpresa berritzaileen ezarpena sustatuko dugu, pizgarri fiskal eta finantzarioen bidez eta enplegu berdearen sorrera, genero berdintasuna eta ingurunearekiko errespetua lehenetsiko dituzten hautespen-irizpideekin.

Nazioartekotzea

- Nazioartekotze-proiektuetarako laguntza publikoak emateko irizpide zorrotzak ezarriko ditugu, eta euskal ekonomian berrinbertitzeko eta itzultzeko planak aurkez daitezkeen eskatuko dugu, baita helmuga-herrialdeetan ingurumena errespetatzen duten bidezko lan-baldintzak bermatu daitezkeen ere.

Laguntza publikoak

- Komunitatearekin eta ingurumenarekin hartutako konpromisoak betetzen ez dituzten industria-proiektuei emandako laguntza publikoak berreskuratzea ahalbidetuko duen arau-esparrua sortuko dugu, eta, horretarako, kontratu-betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko kontrol-eta zehapen-mekanismoak ezarriko ditugu.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea

- Zientzia eta teknologiako politiken inpaktua eta eraginkortasuna ebaluatuko ditugu, baliabideak eta programak Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialerako lehentasuna duten ikerketa-eremuetara bideratu daitezkeen, hala nola osasunera, ingurumenera eta industria jasangarria.

- Ikerkuntza-zentroen, unibertsitateen, enpresen eta gizarte zibilaren arteko lankidetza indartuko dugu, eta, helburu horrekin, ezagutzaren transferentzia eta berrikuntza-sare ireki eta parte-hartzaileen sorrera sustatuko ditugu.
- Baliabide espezifikoak jarriko ditugu energia biltegitatzeko teknologiak iker eta gara daitezen, baita sare elektrikoaren kudeaketa adimenduna eta iturri berriztagarrien bidez banatutako sorkuntza-sistemak ere. Helburua izango da energiaren autonomia eta sektorearen deskarbonizazioa sustatzea.

Turismo jasangarria

- Turismo-eskaintza dibertsifikatzea, ondare natural eta kulturala babestea eta onura ekonomikoak tokiko eta eskualdeko komunitateen artean ekitatez banatzea sustatuko duen turismo jasangarriko plan integrala egingo dugu.
- Turismoak ingurumenean eta tokiko komunitateetan duen inpaktu negatiboa mugatzeko erregulazio- eta kontrol-neurriak ezarriko ditugu, eta, horretarako, turismo-helmuga bakoitzaren identitatea eta balioak errespetatzen dituzten jardunbide arduratsuak sustatuko ditugu.
- Ingurumena babesten dela, kultura-ondarea kontserbatzen dela eta sektoreko langileen lan-eskubideak betetzen direla bermatuko duten turismoa-kudeaketako araudiak eta protokoloak inplementatuko ditugu.
- Turismoaren arloko profesionalak turismo jasangarriko eta enpresa-erantzukizun sozialeko jardunbideetan prestatu eta gaitu daitezen sustatuko dugu, baita ingurumenaren arloko jardunbide onak jarrai daitezen eta kalitate-ziurtagiriak eskura daitezen ere.

Energia berriztagarrietarako trantsizioa

- Euskadin gas edo beste hidrokarburo batzuen prospekzioak eta horiek miatzeko eta erauzteko proiektuak behin betiko debekatuko dituen legeria prestatu eta onartu dadin bultzatuko dugu, gure baliabide naturalak babeste aldera eta klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntze aldera.

- Erregai fosilen sektoreko inbertsio publikoak debekatuko ditugu, eta desinbertsio progresiboa egiteko politikak sustatuko ditugu energia ez-berriztagarriak erauztearekin eta ustiatzearekin zerikusia duten enpresetan.
- Asmo handiko helburuak ezarriko ditugu erregai fosiletan oinarritutako energia-produkzio primarioa murrizteko, betiere 2030erako energiaren % 50 energia-iturri berriztagarrietatik eta jasangarrietatik sortu dadin eta 2040rako % 100 sortu dadin.
- Pizgarri- eta laguntza-politikak ezarriko ditugu energia garbiak garatzeko eta zabaltzeko, hala nola eguzki-energia, haize-energia, energia hidroelektrikoa, geotermikoa eta marea-energia. Energia horiek eskualdeko energia-matrizean integratzea sustatuko dugu, betiere lurraldean modu arrazionalen ezarrita eta natura- eta nekazaritza-ingurunea errespetatuta.
- Karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizioa bultzatzeko behar besteko finantza-baliabideak izango dituen deskarbonizazio-funtsa sortuko dugu. Energia berriztagarrien, garraio jasangarriaren eta nekazaritza ekologikoaren sektoreetan teknologia berriak ikertzeko eta garatzeko funtsak jarriko dira.
- Funts horrek, halaber, ekonomia sozial eta solidarioa bultzatuko du, baita produkzio eta kontsumo arduratsuak sustatuko dituzten kooperatiben eta enpresa komunitarioen sorrera ere.
- Gas naturalarekiko mendekotasuna pixkanaka murrizteko neurriak ezarriko ditugu, eta, zenbait sektoretan —esaterako bizitegi-tako berokuntzaren sektorean eta energia elektrikoaren produkzioaren sektorean— gas naturala energia-iturri berriztagarri eta garbiekin ordeztzea sustatuko dugu.
- Etxeetan eta eraikin publikoetan eguzki-energia termiko eta fotovoltaiakoko sistemak instalatzea bultzatuko dugu, baita biogasaren eta biomasaren erabilera ere, gas naturalaren alternatiba jasangarri gisa.
- Tokian-tokian, energia berriztagarriaren sorkuntza sustatzeko laguntza-ildoak eta dirulaguntzak ezarriko ditugu, eta toki-erakundeek, kooperatibek eta herritarrek kudeatzen dituzten energia-produkzioko azpiegitura txiki eta ertainen instalazioa bultzatuko dugu.

- Autokontsumo energetikoa sustatuko dugu, baita sorkuntza partekatuko proiektuetan parte hartzea ere, ekimen horien bideragarritasun ekonomikoa eta errentagarritasun soziala bermatuz.
- Parke eoliken instalazioa sustatuko dugu, betiere ingurumen-irizpideak eta biodibertsitatearen kontserbazio-irizpideak kontuan hartuta, eta ikuspegi ekologikotik babestutako eremu sentikorretan kokatzea saihestuko dugu.
- Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala aldatuko da, lurreko zein aireko korridore ekologikoak baztertze-eremuetan barne har daitezen.
- Ingurumen-inpaktuaren azterketen barruan, inpaktu sozialaren gaineko azterketa zehatzak barne hartuko ditugu. Azterketa horietan, zentral eolikoek ingurune sozialean dituzten ondorioak ebaluatuko dira, komunitatearen parte-hartzea bermatuko da eta arintze- eta konpentsazio-neurriak ezarriko dira.
- Energia berriztagarria sortzeko teknologien ikerketa eta garapena indartuko dugu, eta baliabideak jarriko ditugu eguzki-energia, energia eolikoa, geotermikoa eta biomasa gisako arloetako proiektu berritzaileetarako.
- Ikerkuntza-zentroen, unibertsitateen eta enpresen arteko elkarlana sustatuko dugu, ezagutzaren transferentzia eta teknologia garbien merkaturatzea bizkortu dadin.

Energia-efizientzia

- Etxebizitzen birgaitze energetikorako programak handituko ditugu —eremu kaltetuetan eta landa-zonetan dauden etxebizitzak lehenetsiko dira—, energia-eskaria murriztu dadin eta etheen erosotasun termikoa hobetu dadin.
- Bizitegi- eta merkataritza-eraikinetako energia-efizientzia hobetzeko pizgarri fiskalak eta finantzarioak ezarriko ditugu, eta isolamendu- eta aireztapen-neurriak eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko neurriak har daitezen sustatuko dugu.

- Energiaren erabilera arduratsua sustatzea helburu duten ingurumen-arloko sentsibilizazio- eta hezkuntza-programak ezarriko ditugu, etxe, enpresa eta erakunde publikoetan energia aurrezteko jardunbideak aplikatu daitezkeen.
- Energiaren kontsumoa monitorizatu eta murriztea ahalbidetuko duten energia kudeatzeko teknologiak eta tresnak garatuko ditugu, eta 2040. urterako asmo handiko aurrezpen- eta efizientzia-helburuak ezarriko ditugu.
- Energia-auditoria integrala egingo dugu Euskadin, energiaren erabilera eta kudeaketa hobetzeko aukerak identifikatu daitezkeen, bereziki sektore publikoan. Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak eta kostuak murriztea izango da helburua.
- Aldian behin energia-kontsumoen jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak ezarriko ditugu, eta energia-baliabideen kudeaketan gardentasuna eta kontu-ematea sustatuko dugu.

11.7. Lurralde-antolamendua

- Lurraldearen egitura naturala mantentzearekin, biodibertsitatearekin eta ingurumen-ondasunak eta -zerbitzuak zuzkitzeko beharrezkoak diren prozesu ekologikoekin bateragarria den lurralde-antolamendua sustatuko dugu.
- Lurralde-antolamenduko politikak arrazionaltasun- eta jasangarritasun-irizpideen arabera birbideratuko ditugu. Garapen antolatu eta jasangarria lortzeko ezinbestekoak diren azpiegiturak eta hirigintza-hazkundeak soilik hartuko dira aintzat.
- Euskadiko Portuen Legearen aldaketa sustatuko dugu, kirol-portuen gardentasuna eta kontrol publikoa bermatze aldera. Zenbait aldaketa egin beharko dira; esaterako, azpiegitura horien erakunde kudeatzailea publikoa izango da, eta ez-pribatua, ezarrita dagoen bezala. Era berean, lan-arriskuen arloko erantzukizunari buruzko alderdiak sartuko ditugu.
- Hirietako zuhaitzak babesteko eta hirietan zuhaitzak landatzea sustatzeko legea egingo dugu. Lege horrek zuhaitzak mozteko edo inautseko murrizketak jasoko ditu, betiere antzinatasunaren, tamainaren eta espezieen beste ezaugarri berezi batzuen irizpideei jarraikiz; horrela, gure hiri eta herrietako zuhaitzek merezi duten babesa izango dute, bai ingurumenaren, kulturaren eta historiaren arloan duten balioagatik, bai bero-boladak eta klima-aldaketaren ondorio negatiboak murrizteko eta pertsonen osasuna eta ongizatea babesteko duten garrantzi estrategikoagatik.

- Udalekin elkarlanean arituko gara, hirietako zuhaitzen inbentarioak egiten eta hirietan zuhaitzak landa daitezen sustatzen, bereziki ale gutxi edo batere ez duten inguruneetan, hiri-inguruetan eta ibaiertzetan.
- Hirietako zuhaitzen eta berdeguneen balio ekosistemikoa tasatzeko sistema barne hartzea baloratuko dugu, legean eta hirietako zuhaitzietan buruzko plan zuzentzailean aintzat har dadin.
- Agroekologia eta hiri-nekazaritza sustatuko ditugu: hirian eta hiri-inguruan baratzeen sorrera sustatuko dugu, tokiko elikagai jasangarriak produzitzeko espazio gisa. Lagungarriak izango dira elikagaien segurtasunerako, aztarna ekologikoa murrizteko eta hirietan enplegu berdea sortzeko.
- Hirietan korridore berdeak diseinatuko ditugu: natura-eremu babestuak, hiri-parkeak eta berdeguneak lotuko dituzten korridore berdeak sortzeko plan integrala garatuko dugu, biodibertsitatea, airearen kalitatea eta biztanleen ongizate fisiko eta mentala sustatze aldera.
- Eraikin historikoak birgaitzea eta kultura-ondarea babestea sustatuko dugu: eraikin historiko eta arkitektonikoak birgaitzeko eta kontserbatzeko laguntza ekonomiko eta fiskaleko neurriak ezarriko ditugu, kultura-ondarea zaintzeko eta turismo jasangarria sustatzeko helburuarekin.
- Klima-aldaketara egokitzeko estrategiak garatuko ditugu: klima-aldaketara egokitzeko planak egingo ditugu, eta plan horietan aintzat hartuko da muturreko fenomenoak (uholdeak, bero-boladak...) aurkako babes-neurriak ezartzea eta babes-hesi natural gisa jokatzeko duten ekosistema naturalak zaintzea eta leheneratzea.

11.8. Garraioa eta mugikortasuna

Hiri-eredu jasangarriak eta motorrik gabeko ibilgailuen sustapena

- Distantzia luzeko joan-etorriak egiteko beharra murriztuko duten hiri-ereduak sortzearen alde egingo dugu. Hori lortze aldera, behar-beharrezkoa izango da bizilekua, lantokia, kontsumo-lekuak eta aisialdirako lekuak elkarren artean hurbil egotea bultzatuko duen lurralde-plangintza. Etxebizitza, zerbitzuak eta lantokiak batera existitzen diren eremu mistoak inplementatzea lagungarria izango da distantziak laburtzeko eta joan-etorrien beharra murrizteko.

- Mugikortasun jasangarria barne hartuko dugu lurralde-antolamenduan, hiri-plangintzan eta industria-eremu berrietan, hurbiltasuneko hirigintza sustatuz.
- Funtzio anitzeko eremu publikoa indartuko dugu, eta gaur egun espazioaren erabileran ibilgailu pribatu motordunen nagusitasuna murriztuko dugu.
- Saiatuko gara Euskadik kalitateko azpiegitura seguruak izan ditzan, adin eta gaitasun fisiko bateko edo besteko pertsonak erabiltzen dituzten askotariko mugikortasun-moduetako joan-etorrietarako.
- Oinez eta motorrik gabeko garraiobidez egiten diren joan-etorriak lehenetsi eta sustatuko ditugu, bai mugikortasun jasangarriaren arloan, bai hiri-plangintzaren eta zerbitzuen kokapenaren arloan —hurbiltasun-irizpideen arabera—. Azpiegituren eraikuntza ere hartuko da aintzat, ingurumen, ekonomia eta segurtasuneko irizpideetan oinarrituta.
- Lehenetasuna emango diogu hiriek eta herriek herritarrentzako espazio publikoak izateari (oinezkoentzat eta egonaldiarentzako); hartara, garraio pribatu motordunarentzako espazioa minimizatuko dugu eta ibilgailu horien abiadura ahalik eta gehien murriztuko dugu, espazio horien kalitatea eta segurtasuna bermatze aldera.
- Eraikuntza berriak planifikatu aurretik, lehendik dauden azpiegituren erabilera optimizatuko dugu.
- Tokiko kontsumo-zirkuituen sorrera sustatuko dugu, eta, hala, ondasunak eta zerbitzuak komunitatearen barruan produzitu eta eros daitezen erraztuko dugu. Tokiko ekonomia sustatzean, merkantziak distantzia luzez garraiatzeko beharra gutxituko da, eta, hala, joan-etorriekin eta salgaien garraioarekin lotzen den ingurumen-aztarna murriztuko da.
- Gure iritziz, karbonorik gabeko garraio-eredua soilik posible izango da, baldin eta erabateko aldaketa egiten bada eta lehenetasuna ematen bazaie joan-etorriak egiteko modu aktiboari eta energia berriztagarrietan oinarritutako 0 emisioko garraio kolektiboari. Ibilgailu pribatu motordunaren erabilerak minimoa izan beharko du.

- Motorrik gabeko garraioa lehenetsiko dugu; hori dela eta, bizikleten erabilera eta oinezko joan-etorriak sustatuko ditugu. Bidegorriak, oinezkoentzako bideak eta berdeguneak gisako azpiegiturak sortu eta hobetzeak, mugikortasun jasangarria ez ezik, herritarren osasuna eta ongizatea ere sustatuko ditu.
- Egungo legeria aldatuko dugu, zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren eraikinek eta tren- eta autobus-geltokiek bizikletentzako aparkalekuak izan ditzaten helmuga puntutik hurbil, betiere sarbidea oztopatzen duen elementurik gabe eta aurreikusitako eskaera baino % 20 edukiera handiagoarekin.
- Egungo legeria aldatuko dugu, bizitegi-eraikin berriek bizikletak gordetzeko leku seguru eta babestuak izan ditzaten, eraikinaren sarreraren ondoko lekuetan, betiere sarbidea oztopatzen duen elementurik gabe eta etxebizitza bakoitzeko gutxienez 2 bizikletako edukierarekin.
- Udalerrien arteko konexioan, mugikortasun aktiboa indartuko dugu, oinezkoentzako bideekin eta ziklistentzako kalitateko azpiegitura seguruekin. Aisiarako eta turismorako ez ezik, bestelako helburuak dituzten joan- etorrietarako ere erabiliko dira.
- Administrazio eskudunekin elkarlanean, bizikleta-azpiegiturak diseinatuko ditugu hiriguneen eta periferiako langileak erakartzeko poloen (industrialdeak, parke logistikoak eta enpresa-parkeak) arteko joan-etorriak bizikletaz egin daitezen. Horrez gain, aparkaleku seguruak ere diseinatuko ditugu.
- Administrazio eskudunekin elkarlanean, oinezkoentzako eta ziklistentzako sareak garatuko ditugu, ingurune atseginetan motorrik gabeko joan-etorri seguruak bermatze aldera, eta ibilbide jarraituak erraztuko ditugu.
- Legez bermatuko ditugu herritar guztientzako oinezko ingurune irisgarriak, erosoak, seguruak eta atseginak. Udalerriekin elkarlanean arituko gara oinezko joan-etorrietarako azpiegituren hobekuntzan, mantentze egoera onean dauden espaloi eta espazio eroso, zabal eta seguruak eskaintze aldera.
- Adin txikietan informazio- eta kontzientziazio-kanpainak egingo ditugu, haurtzarotik har dadin eguneroko bizitzan joan-etorri osasungarriak egiteko ohitura.

- Tokiko administrazioei bizikleta-azpiegituren diseinuan lagunduko diegu, adibidez bidegorriak diseinatzeko gomendioei eta jardunbide egokiei buruzko eskuliburuetan.
- Zikloturismoa sustatuko dugu Bide Berdeen Programaren bidez. Programa horretan, trenbide-trazadura zaharrak berreskuratuko ditugu, landa-inguruneen arteko lotura jasangarriko ibilbideak sortzeko eta landa-turismoko aukera erakargarri eta jasangarri gisa eskaintzeko.
- Ziklisten segurtasuna hobetuko dugu, bizikleta-erabiltzaileen premia espezifikoiei erantzungo dieten araudien eguneratzeen bidez.
- Administrazio eskudunei lagunduko diegu bizikletek maiz erabiltzen dituzten bide-azpiegiturak kontserbazio-egoera onean mantentzeko, nahiz eta bizikletan soilik erabiltzeko azpiegiturak ez izan.
- Lanbide Heziketako prestakuntza-programak edo beste programa batzuk egokitzea sustatuko dugu, ziklismoaren arloko prestatzaile, mekanikari, dinamizatzaile eta adituen premia berriei erantzun dakien, bai ikastetxeetan bizikletaren hastapenera begira, bai lanerako garraio-programetan, bizikleta sustatzeko udal-kanpainetan, bizikletaren udal-agentzietako kudeatzaileen artean, bizikletaren mekanika eta tailerretan, eta abar.
- Eskola-curriculumak zabaltzea eta bizikleta-gidatzeari eta bide-segurtasunari buruzko prestakuntza-moduluak sartzea planteatuko dugu; hartara, gazte guztiek beharrezko arauak eta trebetasunak ezagutu eta erabiliko dituzte, eta nerabegarotik bizikletan autonomiaz eta modu aktiboan joan-etorriak egiteko behar adinako trebetasuna izango dute.
- Ikastetxe guztietan, haurrak ikastetxera modu autonomoan, aktiboan eta jasangarrian joan daitezkeen ahalbidetuko duten sarbide jasangarriei lehentasuna emango dioten mugikortasun-planak bultzatuko ditugu, haurren segurtasuna bermatuko duten eskola-bideen bitartez.
- Motorrik gabeko joan-etorriak erraztuko dituzten pizgarriak eta neurriak ezarriko ditugu; esaterako, bizikletak alokatzeko programak inplementatzea, oinezkoentzako eremuak sortzea eta mugikortasun aktiboa sustatzea. Ahalegin horiei esker, oinezkoentzako eta ziklistentzako hiri-ingurune atseginak sortuko dira eta mugikortasun jasangarriagoetarako kultura-aldaketa bultzatuko da.

- Ibilgailu pribatuaren erabilera murriztearekin lotzen diren ingurumen- eta osasun-onurei buruzko hezkuntza- eta kontzientziazio-kanpainak egingo ditugu. Komunitatearen parte-hartze aktiboa funtsezkoa izango da mugikortasun-eredu jasangarriagoetarako trantsizio arrakastatsua lortuko bada.

Garraio publikoa eta alternatiba jasangarriak

- Auto pribatuari eta errepidean zeharreko garraioari lehentasuna eman dion egungo mugikortasun-eredua berrikusiko dugu. Erregai fosilen ordezeko teknologiak erabiltzen dituzten garraiobide kolektiboak eta motordunak sustatu nahi ditugu, garraioarekin lotutako ingurumen-aztarna murriztu dadin.
- Zenbait garraiobide integratzen dituzten mugikortasun jasangarriko korridoreak inplementatuko ditugu —oinezkoak, bidegorriak eta garraio publikoa—, automobilarekiko mendekotasuna murriztu, airearen kutsadura arindu eta hiriguneetako airearen kalitatea hobetu dadin.
- 100 langiletik gorako enpresei lagunduko diegu mugikortasun-plan espezifikoak abian jartzen.
- Euskadiko automobilgintza-sektorearen industria-birmoldaketarako beharrezko den lanari ekingo diogu.
- Inbertsio-lerroak eta laguntza publikoak ezarriko ditugu, auto elektrikoa eta bestelako teknologia garbiak ezar daitezen taxietan, garraio publikoko flotetan eta beste lanbide jakin batzuetako flotetan.
- Lehentasuna emango diogu ibilgailuak kargatzeko azpiegituren sare adimendunak sortzeari, eta sare horiek publikoak direla ziurtatuko dugu.
- Sortzen diren aparkaleku berrien % 75ek, gutxienez, kargagailu elektrikoak edukitzeko beharrezkoak diren mekanismoak garatu eta bultzatuko ditugu.
- Gure helburua da legealdiaren amaieran parke mugikorraren % 35 elektrikoa izatea eta, horrela, emisio kutsatzaileak nabarmen murrizten laguntzea.

- Garraio publikoaren elektrifikazioa eta modernizazioa bultzatuko dugu.
- Ibilgailu elektrikoak eta bestelako teknologia garbiak erabiltzea sustatuko duten politikak ezarriko ditugu, eta horien bideragarritasuna eta efizientzia bermatu. Ikuspegi horrek nabarmen lagunduko du garraio publikoarekin lotzen den berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketan.
- Jasangarritasunerako bidean urrats handia egingo dugu, Eusko Jaurlaritzaren ibilgailu-parkea eta Eusko Jaurlaritzak parte hartzen duen enpresa publiko guztien ibilgailu-parkea elektrifikatzearekin. Neurri horrek, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-aztarna murrizteaz gain, eredu izatearen garrantziari buruzko mezu argia helaraziko du.
- Garraio publikoko sistema efiziente eta jasangarrietan inbertitzea sustatuko duen bide-azpiegituren finantzaketari buruzko elkarrizketa-mahaiaren sorrera bultzatuko dugu. Horren barruan sartuko dira garraio publikoko sareak zabaltzea eta zenbait eskualderen irisgarritasuna hobetzea.
- Garraio-sare guztien integrazioa sustatuko dugu, eta tarifa-sistema bakarra ezarriko dugu garraio publiko osorako (busa, metroak eta tranbia) eta Autonomia Erkidego osorako. Tarifa-sistema horrek, halaber, garraiobide-aldaketaren hobariak eta erabileraren araberako deskontuak ahalbidetuko ditu. Horrek, erabiltzaileen esperientzia errazteaz gain, intermodalitatea ere sustatuko du eta auto pribatuarekiko mendekotasuna murriztu.
- Egoera zaurgarrian dauden kolektiboentzat tarifa bereiziak ezarriko ditugu, eta pertsona guztiek, beren egoera ekonomikoa edozein izanik ere, kalitatezko garraio publikoko zerbitzuak baliatu ahal izatea bermatuko dugu.
- 26 urtetik beherakoentzat eta erretiratuentzat doakoa izango den garraio-txartel bakarra sortzea sustatuko dugu. Txartel horrek, garraio zerbitzuetara sartzea errazteaz gain, talde horiek hiriko bizitzan gizarteratzea eta modu aktiboan parte hartzea ere sustatuko du. Gazteen eta adinekoen bizi-kalitatea hobetzen eta haien mugikortasuna modu efiziente eta irisgarrian bermatzen saiatuko gara.
- Zerbitzuen kalitatea eta maiztasuna hobetzeko lan egingo dugu, itxaron-denborak murriztu daitezen eta herritarrentzako sistema efiziente eta erakargarria bermatu dadin. Gainera, erabiltzaileen erosotasuna eta segurtasuna bermatuko duten kalitate-estandarrak ezarriko ditugu.

- Garraio publikoaren zerbitzuaren kalitatea hobetuko dugu eta hobetzen lagunduko dugu. Horretarako, Garraio Sistema Adimendunak eta beste kudeaketa-tresna batzuk (adibidez, garraio publikoaren aldeko semaforo-erregulazioa eta erabilera eskusiboko erreiak) ezar daitezten sustatuko dugu.
- Garraio publikora bizikletekin sartu ahal izatea bermatuko dugu, intermodalitatea erraztearren.
- Garraio publikoko geraleku guztiek —hirikoak nahiz hiriartekoak— nahitaez itxarote-azpiegitura egokiak, seguruak eta erosoak izan ditzaten eta eguraldi txarraren aurrean babesa eman dezaten lan egingo dugu.
- Administrazio eskudunekin elkarlanean, Bilboko Aldirietako C3 linea Miranda de Ebrora (Bilbo eta Urduña arteko zerbitzu erdi-zuzenarekin) ordubeteko maiztasunarekin zabaltzea bultzatuko dugu, Arabako mendebaldeko udalerrri txikiei eta bertako lan-guneei zerbitzu egiteko. Gainera, modu erregularrean zerbitzu erdi-zuzenak izateko aukera emango du, gehi orduan behingo zerbitzu erdi-zuzen erregular hori.
- Renfe-FEVEren C4F linea (Abando - La Calzada) eta R3B linea (Abando - Karrantza) hobetzea bultzatuko dugu, gutxienez 10 minutuko maiztasunak lortzeko Abando - Zorrotza tartean, 30 minutukoak Abando - La Calzada tartean, tren erdi-zuzenetarako 1 ordukoak Abando - La Calzada tartean eta tren erdi-zuzenetarako 2 ordukoak Abando - Karrantza tartean.
- Sodupen trenbidea lurperatzea eta Lorgin geralekua izatea sustatuko dugu.
- Aranguren eta Zallan trenbidea lurperatzea bultzatuko dugu, baita Lanbarri eta Zalla artean bide bikoitzeko beste tarte bat eraikitzea eta Ibarako geralekuan edo beharrezko maiztasunak lortzeko beharrezkoak diren beste geraleku batzuetan bide bikoitza eraikitzea ere.
- Leioako UPV/EHUn eta metroko geltokiaren artean autobus elektrikoen linea martxan jartzea bultzatuko dugu, UPV/EHUn metroaren proiektuak porrot egitearen alternatiba gisa.
- Administrazio eskudunekin elkarlanean, Miranda de Ebro, Gasteiz eta Iruñea artean aldiriko/ eskualdeko linea bat sortzea sustatuko dugu, 30 minutuko maiztasuna izango duena eta geraleku berriak izango dituen Gasteizen eta beste herrigune batzuetan, Arabaren zati handi bati eta bertako lan-guneei zerbitzu egitera begira (Gasteiz, Arabako Lautada eta

Añana). Lehen fase batean Miranda de Ebro - Altsasua tartean soilik eskainiko du zerbitzua (Iruñeraino 2 orduan behin), Altsasua eta Iruñea arteko trazadura osoa edo zati handi bat bikoiztea lortu arte.

- Administrazio eskudunekin elkarlanean, Donostiako Aldirietako C1 linea hobetzea eta Astigarragan, Ezkio-Itxason (euskal Y-aren obrak aprobetxatuz) eta Loiolako Erriberetan geltoki berriak eraikitzea bultzatuko dugu. Geltoki batzuetan aparteko 1 edo 2 erreiki gehiago jarriko ditugu, eta beste tarte luze batzuetan hirugarren erreiki bat ere bai, tren azkarragoek aurrera dezaten eta/edo salgaiak garraiatzen dituzten trenen zirkulaziorako baliabideak daitezten. Era berean, Irun eta Beasain arteko tartean 15 minutuko maiztasunak lortu nahi dira eta Altsasurainoko zerbitzuetan 30 minutuko maiztasunak, baita Altsasura arteko zerbitzu erdi-zuzenak orduan behin eta modu erregularrean ere. Topoari jarraipena emango zaio Altxatik, Irunerako noranzkoan, Pasai Antxoko barrutiaren azpitik lurperatuta.
- Eusko Jaurlaritzari transferitutako linearen zati bat (Basurtoko Ospitalea - Ariz) erabiltzeko aukerak aztertuko ditugu, Abanto eta Irla arteko sarbide berri baten bidez, Abanto eta Bermeo / Durango-Zaldibar artean tren-zerbitzu erdi-zuzen azkarragoak sartze aldera. Zerbitzu horrek 15 minutu bitarteko maiztasun erregularra izan dezake puntako ordutegietan. Horretarako, tarte hori birmoldatu beharko da, baita Basauriko pasabidea behin betiko konpondu ere.
- Euskotrenen Lutzana-Sondika linea San Inazioraino luzatzea sustatuko dugu eta, bigarren fase batean, Parke Teknologikoraino; hala, maiztasunak handituko dira, eta ixteko arriskuan dagoen hondar-linea bihur dadin saihestuko da. Izatez, Eskuinaldea (garraiobide aldaketa Lutxanan) eta Ezkerraldea (garraiobide aldaketa San Inazio) Sondikarekin, Aireportuarekin, Deriorekin eta Parke Teknologikoarekin lotuko dituen kalitateko zerbitzua izango da.
- Administrazio eskudunekin elkarlanean arituko gara herritarrek eskatzen dituzten interes sozialeko linea berriak sortzera begira, hala nola Aiarako eskualdea eta bere erreferentziazko ospitalea (Galdakaoko ospitalea) lotuko lukeena. Horrela, Galdakaoko ospitalearekin zuzenean joan-etorriak egiteko autobus-zerbitzua izango da —maiztasun desberdinak izango ditu—, eta zerbitzu horrek garraio publiko bidezko konexio-baldintza egokiak eta efizienteak eskainiko ditu eskualdearen eta ospitalearen artean.
- Taxia interes orokorreko zerbitzu publikotzat joko dugu, eta Alokairuko Ibilgailu Gidaridunak kontratatzeke 2 orduko aurrekontratazio-baldintza ezarriko dugu, eta, gainera, irizpide espazialak bete beharko dituzte (gutxienezko distantzia bidaiariarekin edo estazionamendua aireportuetan, geltokietan eta baimendutako beste geraleku batzuetan), baita geoposizionamenduko

baldintzak ere (Administrazioari posizioa erakutsi beharko zaio, eta bidaiaririk gabe edo ibilbide-orririk gabe batetik bestera ibili beharko dute). Horrez gain, administrazio-baimenak berreskuratuko dira, 13/2018 Errege Lege Dekretuan ezarritako 1/30 proportzionaltasun-araua betearaz dadin.

- Salgaien garraioa arrazionalizatzeko mekanismoak ezarriko ditugu, eta lehentasuna emango diogu trenbide bidezko garraio motordunari. Intermodalitatea sustatuko dugu estazio guztietan, hori lagungarria izango baita salgaien banaketa efizienterako eta jasangarrirako, eta, hala, errepideen gaineko presioa arinduko da eta karga-garraioarekin lotutako emisioak gutxituko dira.

11.9. Animalien babesa

- Eusko Jaurlaritzaren organigramaren barruan, eta Lehendakaritzaren mende, Animalien Ongizaterako eta Babeserako Zuzendaritza Nagusi bat sortuko dugu, eta horren esku geratuko da animalien ongizatearen eta babesaren arloko politika autonomikoak zuzendu, koordinatu, proposatu eta betearaztea.
- Animaliak Zaindu eta Babesteko Kontseilua sortuko dugu, aholkularitza-organoa iraunkor gisa. Kontseilu hori osatuko dute Euskal Autonomia Erkidegoko animaliak babesteko erakundeek eta animalien ongizatean eta babesean espezializatuta dauden pertsonek.
- Ingurumenaren defentsan espezializatutako Ertzaintzaren unitateari animalien ongizatearen eta babesaren inguruko prestakuntza eta baliabide materialak eta giza baliabideak eskainiko dizkiogu. Era berean, foru-aldundiekin eta udalekin elkarlanean arituko gara basozainak, miñoiak eta udaltzainak prestatzen, animalien ongizateari eta babesari buruzko legeria betearaz dezaten, bakoitzak bere esparruan.
- Udalekin elkarlanean arituko gara udal-ordenantzak honako lege hauetan xedatutakoaren arabera eguneratzen: Euskal Autonomia Erkidegoko Etxeko Animaliak Babesteari buruzko ekainaren 30eko 9/2022 Legea eta Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legea.
- Udalei lagunduko diegu udal, mankomunitate edo eskualdeko kudeaketa publikoko Animaliak Babesteko Zentroak sortzen.

- Animaliak sentitzen duten izakitzat aitortzen dituen eta esparru guztietan babestuko direla bermatzen duen lege-araudia eguneratzea bultzatuko dugu, barnean direla ikerkuntza zientifikoa, hazkuntza komertziala, entretenimendua eta elikagaien industriako erabilera.
- Animaliei alferrikako sufrimendua eragiten dieten jardunbideak debekatuko ditugu, hala nola espermentazio kosmetikoa, zezenketak eta animaliei tratu txarrak ematea dakarten beste entretenimendu mota batzuk.
- Konpainia-animaliak arduraz adoptatzeko kanpainak jarriko ditugu martxan, erosketaren orde, baita esterilizazio masiboko programak ere, abandonatutako animalien populazioa kontrola dadin eta babesleketan eta kaleetan gehiegizko populazioa saihestu dadin.
- Etxeko animalien edukitze arduratsuaren alde egingo dugu, eta animalien ongizate fisiko eta emozionala bermatuko duten jardunbideak sustatu. Horrek barne hartuko du animaliek behar dituzten oinarrizko zainketei buruzko informazioa zabaltzea, esterilizazioa sustatzea —populazioa kontrolatzeko neurri gisa—, eta herritarrak maskotak izatearen erantzukizuna beren gain hartzearen garrantziaz sentsibilizatzeko hezkuntza-kanpainak inplementatzea.
- Baliabide ekonomikoak eta logistikoak jarriko ditugu, animalien babeslekuei laguntzeko eta abandonatutako animaliak edo tratu txarrak jasan dituzten animaliak erreskatatu, zaindu eta adoptatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzeko.
- Foru-aldundiek egoera judizialen ondorioz konfiskatu diren animalien etengabeko zaintza eta ongizatea ziurtatuko duten instalazio espezializatuak sor ditzaten laguntzeko konpromisoa hartzen dugu. Gure helburua da animalia horientzako ingurune seguru eta egokiak bermatzea, behar duten arreta eta zaintza jaso dezaten, beharrezkoa den denbora-tarte osoan.
- Kaleko katuen koloniak maneiatzeko zereginean udalek HEI metodoa (harrapaketa, esterilizazioa eta itzulera) inplementa dezaten laguntzeko dirulaguntza-programa inplementatuko dugu. Programa horrek bermatuko du kolonia horietako katuak identifikatu eta esterilizatzen direla eta albaitaritza-zaintza egokia jasotzen dutela, elikadura eta albaitaritza-tratamendua barne, hori beharrezkoa denean.
- Dirulaguntza-lerro espezifikoak sortuko dugu, kaleko katuen koloniak HEI (harrapaketa, esterilizazioa eta itzulera) metodoaren bidez kudeatzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeei laguntzeko.

- Animaliak garraio publikoan, etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxeetan, adinekoentzako egoitzetan eta genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-etxeetan eta tutoretzapeko etxebizitzetan sartzeara ahalbidetu eta kudeatuko duten araudiak aldarrikatzearen alde egingo dugu. Neurri horrek bermatuko du leku horietan ostatu hartu behar duten pertsonak ez daitezela beren animaliangandik banandu behar izatearen egoera mingarrian egon. Aintzat hartuko dugu pertsonen eta haien konpainia-animalien arteko lotura emozionalaren garrantzia, eta, premia- eta zaurgarritasun-uneetan, pertsonen zein haien maskoten ongizatea sustatuko duten politika inklusiboen alde egingo dugu.
- Konpainia-animaliak ospitaleetara sartzeara ahalbidetuko duen sistema bat ezartzea proposatuko dugu. Hori bereziki garrantzitsua da adinekoentzat. Horrek esanahi du eremu edo areto espezifikoak sortu beharko direla ospitaleratutako pertsonen beren maskoten bisita jaso ahal izan dezaten. Geriatrian, osasun mentalean eta pediatrian egindako azterketa batzuen arabera, ospitaleetan maskotak egotea lagungarria izaten da kirurgiaren ondoren ospitaleratutako pazienteen eta gaixotasun mentalak dituzten pazienteen antsietatea eta oinazea arindu dadin. Era berean, egiaztatu ahal izan da ospitaleratutako pertsonen motibazioa eta ongizate emozionala handitu egiten dela, eta kardiologiako pazienteetan bihotz-taupaden maiztasuna eta arteria-presioa murrizten dela.
- Animaliekiko errespetuaren garrantziaz kontzientziaztea, enpatia sustatzea eta maskoten zaintzan eta bizikidetzan jardunbide arduratsuak sustatzea helburu duten hezkuntza-programak ezarriko ditugu eskoletan eta komunitateetan. Laguntza-lerro espezifikoak sortuko dugu animalien babesaz arduratzen diren irabazi asmorik gabeko erakundeentzat.
- Adinekoen egoitzetan eta antzeko beste zentro batzuetan, zooterapia-programak bultzatuko ditugu, txakurrekin, katuekin edo bestelako etxeko animaliekin elkarrekintzan aritzea erraztu dadin. Ekimen horren helburua da egoiliarren bizi-kalitatea hobetzea, animaliekiko kontaktuarekin eta horiek zaintzarekin ongizate emozionala eta fisikoa sustatzea, eta pertsona bakoitzaren premia indibidualetara egokitutako jarduera terapeutikoak egitea.
- Foru-aldundiekin elkarlanean, maskoten hazkuntza eta salmenta arautzeko araudi zorrotzak ezarriko ditugu, haztegi klandestinoetan esplotazioa eta tratu txarrak saihestu daitezela eta animaliak baldintza duinetan eta osasungarrietan hazten direla berma dadin.
- Larrialdietan edo hondamendi naturaletan etxeko animalien ongizatea bermatzeko babes- eta segurtasun-neurriak implementatuko ditugu. Horrek barne hartuko du aldi baterako

babeslekuetan dauden animalientzako ebakuazio-plan bereziak sortzea, hondamendietan animaliak erreskatatzeko eta animaliei albaitaritza-arreta emateko protokoloak garatzea eta animaliekin zerikusia duten larrialdietan espezializatutako langileak gaitzea. Maskotak eta etxeko animaliak inguruabar guztietan —baita krisialdietan ere— babestuta daudela ziurtatzeko konpromisoa hartzen dugu.

- Landareak oinarri dituen elikadura sustatzeko ekimenak babestuko ditugu, aukera etiko eta jasangarri gisa. Aintzat hartzen dugu elikadura horrek inpaktu positiboa duela animalien sufrimendua gutxitzeko garaian, ingurumenaren babesean eta giza osasunean.
- Herri eta hirietako uso-populazioen kudeaketa etikoa sustatuko dugu foru-aldundiekin eta udalekin elkarlanean. Ildo horretatik, laguntza eta aholkularitza teknikoa eta ekonomikoa eskainiko ditugu animaliak hiltzea ez dakarten populazio-kontrolako metodoak ezar daitezen. Horren ordeztu, gai horri modu etiko eta eraginkorrean heltzeko estrategia humanitarioak eta jasangarriak sustatuko ditugu.
- Basa fauna bere habitat naturalean aztertu eta behatzeko —animalien portaera naturala aldatu gabe— abangoardiako teknologiak erabiltzen dituzten ikerketa-proiektuak sustatuko ditugu.

12. HORIZONTE DIGITALA

Proposatzen ditugun horizonte digital honetako neurriek geure burua antolatzeko eta produzitze-ko aukera berriak ematen dituzte, eta erabakigarriak dira, beste ekonomia batean aurrera egiteko ez ezik, horizonte berde eta morerantz aurrera egiteko eta industria-eredu berria eta zainketen ekonomia feminista eraikitzeko ere bai.

lkerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren aldeko apustu sendoa

- Erregulazio argi eta zorrotzak ezarriko ditugu pertsonen pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko, eta bermatuko dugu enpresek eta erakundeek segurtasun- eta gardentasun-estandarrik altuenak betetzen dituztela informazioaren erabileran.
- Zientzia eta berrikuntza sustatuko ditugu gure ekonomiaren oinarri gisa, eta gure agintaldiaren amaierarako inbertsio publikoa % 10 handituko dugu, zenbait funtsezko sektoretan buru izateko, hala nola ibilgailu elektrikoen produkzioan, material sanitarioan, energia berriztagarrietan, adimen artifizialean, sendagaietan eta bioteknologian. Gainera, inbertsio pribatua bultzatzen duten tresnen bidez, I+G+B publikoan parte hartzea sustatuko dugu, Euskadiko barne-produktu gordinaren % 3ko gastu konbinatua —publikoa eta pribatua— lortzeko helburuarekin.
- Zerbitzu publikoak modernizatuko ditugu gobernu elektronikoko soluzioak inplementatzearen bidetik. Horretarako, administrazio-efizientzia eta herritarren gogobetetasuna hobetzeko online tramiteak eta zerbitzuak erraztuko dira.
- Banda zabaleko sareen eta sare mugikorren azpiegitura hobetzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartzen dugu, lurralde osoan eta bereziki landa-eremuetan eta urrutiko eremuetan konektagarritasun azkarra eta fidagarria bermatze aldera. Euskadiko lurralde osoan estalduraren % 100 lortzeko helburua erdietsi nahi da.
- Interneterako sarbide unibertsala bermatuko dugu, oinarrizko eskubide gisa, eta pertsona guztiek, beren kokalekua edo egoera sozioekonomikoa edozein izanik ere, Interneteko zerbitzu eskuragarriak eta kalitatezkoak baliatu ahal izateko neurriak ziurtatuko ditugu. Familiei Interneteko eta telefoniako tarifa jaisteko lan egingo dugu, eta konexio digitalerako bidean, oinarrizko eskubide gisa eta doako sarbide gisa, urratsak egingo ditugu; izatez, edozein bizigunetan gutxienez 30 Mb/s abiadura izango duen Interneterako sarrera bermatuko dugu, eta faktura Europako batez bestekoaren mailara jaitsiko duen benetako lehia sustatuko dugu telekomunikazioen sektorean.

- Adimen artifiziala arautuko duen lege bat egingo dugu, Euskadin merkaturatzen eta erabiltzen diren adimen artifizialeko sistemetan Europar Batasunaren oinarritzko eskubideekiko eta balioekiko errespetua eta segurtasuna bermatuko duena. Lege horrek berariaz arautuko ditu edonor sar daitekeen espazioetan erabiliko diren denbora errealeko urrutiko identifikazio biometrikorako sistemak, eta adimen artifiziala herritarren puntuaziorako erabiltzea debekatuko du, baita pertsona-talde espezifikoek zaurgarritasunak —adinaren, desgaitasunaren edo egoera sozial edo ekonomikoaren ondoriozkoak— miatuko dituzten beste jardunbide batzuetarako ere.
- Modu aktiboan sustatuko dugu tresna digitalen euskalduntzea, euskarazko teknologiak modu ekitatiboan eskuragarri izan daitezen. Horrek barne hartuko du softwarea lokalizatzeko eta itzultzeko programak garatzea, eta enpresa teknologikoekin lankidetzan aritzea, euskarazko produktu eta zerbitzu digitalen eskuragarritasuna sustatze aldera. Gainera, euskarazko eduki digitala sortzea bultzatuko dugu, eta esparru digitalean euskara erabiltzearen eta zabaltzeren alde lan egiten duten ekimenei lagunduko diegu.
- Ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak integratuko ditugu teknologia digitalen garapenean eta erabileran, eta jardunbide arduratsuak sustatuko ditugu azpiegitura digitala elikatuko duen energia berriztagarriaren eta gailu elektronikoen produkzioan eta kontsumoan.

Belaunaldiarteko alfabetatze digitaleko programa

Belaunaldiarteko alfabetatze digitalerako programa proposatzen dugu; programa hori gizarte integratzaileagoa, konektatuagoa eta ekitatiboagoa eraikitzeko urrats garrantzitsua izango da, belaunaldi guztiek aro digitalean modu aktiboan parte har dezaten.

- Teknologia berrien erabileran atzeratuta geratu diren pertsona helduei, eta batik bat beren prestakuntza-etapan teknologia berriak eskura izan ez zituztenei, alfabetatze digitalerako aukerak emateko konpromisoa hartzen dugu.
- Belaunaldien arteko hurbilketa sustatuko dugu, baterako ikaskuntzaren bitartez. Hezkuntza-jarduera partekatuen ildotik, familia-loturak sendotzearen eta bizikidetzaren aberastearen garrantzian sinesten dugu. Horretarako, hezkuntza digitaleko programa integralak inplementatuko ditugu, adin goiztiarretatik helduarora bitartean, barnean dela trebetasun digitalei buruzko prestakuntza, alfabetatze informatikoa eta online-segurtasunari buruzko kontzientzia.

- Berariazko politikak ezarriko ditugu talde zaurgarriak arlo digitalean munduratzeko, hala nola adinekoak, desgaitasunak dituzten pertsonak, migratzaileak eta komunitate marjinatuak. Hartara, aro digitalean inor atzean geratuko ez dela ziurtatu nahi dugu.

Erosketa publiko berritzailea

Geure gain hartzen dugu berrikuntza sustatzea erosketa publiko berritzailearen bidez; erosketa hori bideratuko da garapen teknologikoa, enpresen lehiakortasuna eta gizarte osoaren ongizatea sustatzera. Horretarako, administrazio publikoen gastuaren % 2 erosketa publiko berritzailearako jarriko dugu, enpresa-sare berritzaileagoa gara dadin.

- Ikerketa eta garapen teknologikoa sustatuko dituzten politikak inplementatuko ditugu, eta enpresak bultzatuko ditugu sektore publikoaren premiak bete ditzaketen soluzio berritzaileen sorkuntzan inbertitzera. Erosketa publiko berritzailearen bidez, enpresei abangoardiako produktu eta zerbitzuak garatzeko aukera emango diegu, eta horrela hainbat sektoretan ezagutza sortzea eta etengabe hobetzea bultzatuko dugu.
- Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana sustatuko dugu, soluzio berritzaileak elkarrekin sor ditzaten. Administrazioen eta enpresen arteko elkarreragina erraztuko dugu, eta elkarriketarako eta lankidetzarako guneak sortuko ditugu. Gune horiei esker, premiak identifikatuko ditugu, ezagutzak partekatuko ditugu eta berrikuntza eta hazkunde ekonomikoa bultzatuko dituzten proiektu bateratuak garatuko ditugu.
- Arreta berezia jarriko diegu enpresa txiki eta ertainei eta startupeei; ildo horretatik, kontratazio publikoko prozesuetan parte har dezaten sustatuko dugu eta merkatura daitezen erraztuko dugu. Sartzeko oztopoak murriztuko dituzten eta lehia sustatuko duten neurriak ezarriko ditugu, eta, hartara, enpresa berritzaileek, beren tamaina edozein izanik ere, sektore publikoan negozio-aukerak balia ditzaten bermatuko dugu.
- Lehentasuna emango diogu gizartean eta ingurumenen inpaktu positiboa duten soluzio berritzaileak eskuratzeari. Herritarren bizi-kalitatea hobetzen, zerbitzu publikoen efizientzia areagotzen eta planetaren jasangarritasuna handitzen lagunduko duten produktu eta zerbitzuen alde egingo dugu. Erosketa publiko berritzailearen bidez, gizarte- eta ingurumen-berrikuntza bultzatzean, ekonomia-eredu bidezkoago, inklusiboago eta jasangarriago baterantz egingo dugu aurrera.

- Kontratazio publikoko prozesuetan gardentasuna eta integritatea bermatuko ditugu, eta aukera-berdintasuna eta hornitzaileen arteko bidezko lehia sustatu. Printzipio etikoak eta kalitate-irizpideak betetzen direla zainduko dugu, eta erosketa publiko berritzailea guztion onerako eta interes orokorrerako tresna gisa erabiltzen dela ziurtatuko dugu.

I+G+B

- Sortzen ari diren teknologien —hala nola adimen artifiziala, gauzen Internet, hodeiko konputazioa eta zibersegurtasuna— arloko ikerkuntza eta berrikuntza sustatuko dugu, ikerkuntzari laguntzeko funtsen bidez eta sektore pribatu eta akademikoarekin lankidetzan aritzearen bidez.
- Sektore publikoari I+G+Baren sustapen eta koordinazio estrategikoko benetako rola esleituko diogu. Horretarako, Euskadiko ikerkuntza-zentro publikoen sare osoa indartu, eta berariaz transferentziara bideratuko den administrazio-unitate bat sortuko dugu, mugako aurrerapen teorikoak gure industriaren hobekuntzan aplikatu daitezkeen laguntzeko eta sektore pribatuari eta sektore berritzaileenei ezagutza berriak eskaintzeko, betiere erabateko gardentasuneko testuinguruan.
- Ihes egindako talentu eta zientzialariak itzultzearen alde lan egingo dugu, eta Euskadiko ikerketa- eta/edo lan-esparruan integratu daitezkeen errazteko neurriak sustatuko ditugu. Helburua da, legealdiaren amaieran, Europar Batasunaren mailan kokatzea ikerkuntzan diharduten pertsonen proportzioari dagokionez.
- Atzerrian dauden ikertzaileak itzultzeko eta talentua erakartzeko programa bat ezarriko dugu. Lau urteko kontratua eskainiko zaie, eta, kontratu horren amaieran, postua egonkortu ahal izango da, betiere aurrez finkatutako irizpide objektiboen arabera.
- Emakumeentzako kristalezko sabairik gabeko zientzia sustatuko dugu, ikuspegi feminista batetik planteatutako jarduera zientifikoa (emakumeak goi-mailako hezkuntzan jada gehiengoa badira ere, unibertsitate publikoetan bostetik batek baino ez ditu betetzen zuzendaritza- eta katedra-karguak). Sektore horretan gertatzen den genero-arrakalaren kausa zehatzei buruzko azterketa egitea bultzatuko dugu, baita oinarritzko desberdintasuna itzularazteko plan estrategikoa bat abian jartzea ere —izatez, ingeniarietako eta arkitekturako ikasketetan ikasleen laurden bat soilik dira emakumeak—.

- Zientzia ireki eta irisgarri baterako bidea sustatuko dugu, eta bide horretan jabetza intelektualaren erregulazioa berrikuntzaren, zientziaren eta aurrerapenaren zerbitzura jarriko da, ekintzailtzarako oztopo izan beharrean.
- Herritarren Berrikuntzarako Zentroen Sarea sortuko dugu, unibertsitateekin eta tokiko administrazioekin elkarlanean. Gizartearen eta zientziaren arteko dibulgazio- eta berrikuntza-jardueretarako topagunea izango da.
- Behar diren baliabideak jarriko ditugu, ikerketak finantzatzeko erabiltzen den diru publikoarekin, ikerketen emaitzak ez daitezen soilik argitaratu korporazio handien aldizkari zientifikoetan, hau da, gure unibertsitateentzat eta ikerketa-erakunde publikoentzat oso garesti diren aldizkarietan.
- Funts publikoekin egiten diren ikerketa guztietarako Open Access ekimena beteko dugu. Zientzia Irekiaren ezarpena eta software librearen sustapena bultzatuko dugu. Funts publikoen bidez finantzatutako zientziarako sarrera libre bermatze aldera, proposatzen dugu Espainiako Gobernuak Budapest Open Access Initiative ekimenean harpidetzea, argitalpen zientifikoak eskuragarri izan daitezen eta I+G+Bko sistema nazionalan ezartzeko programak abian jar daitezen. Ikerketa irekiko proiektuak ere sustatuko dira, eta hori guztia administrazioan zein ikerketa zientifikoan software librerako trantsizioa gidatzearen aldeko apustu argi baten barruan.

Zientzia/gizartea binomioa

- Gizarteko sektore guztiei mesede egingo dien ekonomia digital inklusiboa bultzatuko dugu, eta, helburu horrekin, ekintzailtza teknologikoa, enplegu digitalaren sorrera eta langileak aldaketa teknologikoetara egokitzeko trebakuntza sustatuko ditugu.
- Herritarren Berrikuntzarako Zentroen jarduera handitzearen alde egingo dugu —esaterako, EHUko Kultura Zientifikoko Katedra— zientzia gizartera hurbil dadin eguneroko bizitzako esparru guztietan. Zentro horiek gizartearen eta zientziaren arteko topagune izango dira udalerrietan, udalen eta unibertsitateen laguntzarekin. Zentro horien ardatza izango da: zientziaren hedapena, gizarte-berrikuntza eta benetako hiritar-zientziaren, jakin-minaren kulturaren eta egiten jakitearen garapena.

- Science Shops unitateak sortuko ditugu. Unitate horietan, adituekin elkarlanean, ikerketa sustatuko da, herritarren zalantza eta arazo zientifiko zehatzak argituko dituzten hitzaldi, proiektu eta azterketa teknikoen bitartez. Era berean, loturak sortuko ditugu zentro horien, ikastetxeen, unibertsitateen, ikerkuntza-zentroen, enpresa zientifikoen eta gizarte osoaren artean.
- Ikasleek produkzio zientifikoko guneetara bisita gehiago egitea bultzatuko da eta bisitak koordinatuko dira. Ekimen horrekin batera, bisita horien ondoriozko gizarte-onurak hedatzeko lana egingo da. Bestalde, adinekoentzako zentroetan ere egingo dira dibulgazio-jarduerak.
- Pentsamendu kritikoa sustatuko dugu, batez ere sasi-zientziak gisako gaietan, hau da, maila sozialean eta zientifikoan hain eztabaidagarriak diren sasi-zientzietan.
- Ikerkuntza publikoaren gardentasuna areagotuko duen ikerkuntzako online-ataria sortuko dugu. Baliagarria izango da orotariko proiektuen, lankidetzak-hitzarmenen eta deialdien eskaintza guztiak argitaratzeko, barnean direla ikerkuntza-erakunde publikoek egindako kontratazio-eskaintzak eta enplegu-eskaintzak. I+G+Bko deialdi publiko guztiak nahitaez bete beharko den bi urteko egutegi batean jasoko dira —Eusko Jaurlaritzak eta finantzaketa publikoko agentziek adostutako egutegia izango da—.
- Ikerkuntza- eta unibertsitate-erakundeen sarreran eta kudeaketan gardentasuna babesteko behatokia sortuko dugu.
- Enpresek teknologia eskuragarri izatea erraztuko dugu, betiere enpresa txiki eta ertainei, sektore ugariaren (adibidez, nekazaritza eta abeltzaintza) gizarte-ekonomiari eta startupeei zuzendutako finantzaketa- eta aholkularitza-plan espezifikoaren bidez. Horri esker, aurre egin ahal izango zaie heltze, finantzaketa eta konexio faseetako berariazko erronkei.
- Adimen artifizialean eta I+G+Ban inbertitzeko ildo estrategiko bat sustatuko dugu, eta laguntza publikoak jarriko ditugu arlo horretako ikerketan eta transferentzian diharduten sektore publikoko eta pribatuko ikerkuntza-taldeentzat, betiere adimen artifizialaren indarrak pertsona guztien onerako badira eta gure eskubide zibilak edo lanpostuak kaltetzen ez baditu.
- Aurrera egingo dugu subiranotasun teknologikoaren, pribatutasunaren eta sareko gure datuen kontrolaren lorpenean, eta beharrezko lege-ekimen guztiak sustatuko ditugu sareko pribatutasun-eskubidea behin betiko blinda dadin, halako moldeez non korporazio teknologiko

handiek gure datuak modu bidegabean eskuratu eta negozioa egiteko aukerarik izan ez dezaten.

- Mundu Digitalaren Eskubideen Gutuna egitea bultzatuko dugu. Zeregin horretarako, prozesu parte-hartzaile handia egingo da, herritarrak beren etorkizuneko diseinuaren protagonista izan daitezen.
- Lan egingo dugu Uber motako ekonomiarako joerari aurre egiteko —teknologia berrien esparruan ere bai— eta ekonomia berrirako esparru ekitatiboa ezartzeko, eta saihestuko dugu interes espekulatiboek teknologia erabiltzea laneko babesik gabeko iraganera itzul gaitezen.

Lan-egokitzapena eta enpleguaren babesa aro digitalean

- Robotikaren edo adimen artifizialaren bidez automatizazioaren alde egiten duten eta, horren ondorioz, langile ugari kaleratzen dituzten enpresei zerga progresiboak ezarriko dizkiegu. Zerga horiek bideratuko dira lan-birziklatzearen arloko programetara, etengabeko prestakuntzara eta eraginpean dauden langileak berriro lan-munduratzera, baita sortzen ari diren sektoreak indartzera eta teknologiaren arloko enplegu intentsiboko sektoreak indartzera ere.
- Lan-egonkortasuna kolokan jarri gabe, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetuko duten teknologien ikerketa eta garapena sustatuko dugu. Kalitateko enplegua sortuko duten eta garapen jasangarrirako lagungarriak diren berrikuntza-ekimen sozialki arduratsuak babestuko ditugu.
- Gizarte-eragileen, enpresen eta gobernuaren arteko elkarrizketa sustatuko dugu, lan-egokitzapenerako politika adostuak eta eraginkorrak diseina ditzaten. Herritarrek automatizazioarekin eta lanaren etorkizunarekin lotutako politiken prestaketan eta jarraipenean parte har dezaten sustatuko dugu, eta alde interesdun guztiak barne hartzen direla bermatuko dugu.

Digitalizazioa hezkuntza-sisteman

- Hezkuntza-inguruneetan teknologia erabiltzeko jarraibide argiak ezarriko ditugu, eta ikuspegi soila, biobateragarria, jasangarria, etikoa eta kritikoa lehenetsiko dugu. Horrek barne hartuko luke sarbidearen eta pantailak erabiltzeko denboren erregulazioa, betiere ikasleen garapen-etapetara egokituta.

- Euskadiko eskola-digitalizazioko prozesuaren ebaluazio zorrotza egingo dugu, eta arreta jarriko diegu ikasleen ikaskuntzan eta osasun fisikoan eta mentalean izan ditzakeen ondorio negatiboak.
- Teknologiaren erabilera arduratsuari eta teknologia hori gehiegi erabiltzeak izan ditzakeen arriskuei buruzko prestakuntza-programak ezarriko ditugu irakasleentzat, familientzat eta ikasleentzat. Teknologiak hezkuntzan duen eginkizunari buruzko hausnarketa kritikoa sustatuko dugu, eta ikasgelan elkarren arteko harreman ez-digitala sustatzen duten alternatiben alde egingo dugu.
- Eskolaren desdigitalizaziorako ekimenak babestuko ditugu, hala nola testuliburu inprimatuaren erabilerara itzultzea eta ikastetxeetako liburutegiak sustatzea, ikasteko eta sozializatzeko gune gisa. Liburutegiek hezkuntzan eta ikasleen garapen integralean duten funtsezko zeregina aitortu eta baloratzen dugu.
- Teknologia hezkuntza-inguruneetan erabiltzeak dituen ondorioei buruzko ikerketa independentea sustatuko dugu, unibertsitate eta ikerkuntza-zentroekin elkarlanean. Eskura dagoen ebidentzia zientifikoa erabiliko dugu ikasleen ongizatean oinarritutako hezkuntza-politikak eta -jardunbideak gara daitezen.
- Hezkuntza-inguruneetan haririk gabeko teknologien ordez kable bidezko konexioak erabiltzea lehenetsiko dugu, osasun-arloko adituek irratia-maiztasunekiko esposizioari eta horrek osasunean, batez ere haurtzaroan, izan ditzakeen ondorioei buruz emandako gomendioei jarraikiz.
- Teknologiak hezkuntzan izan beharreko erabilerari buruz eztabaidatzeko elkarrizketa-guneak irekiko ditugu. Gune horietan herritarren parte-hartzea bultzatuko da eta eragile garrantzitsu guztiak inplikatuko ditugu, hala nola irakasleak, ikasleak, familiak, osasunaren, hezkuntzaren eta ingurumenaren arloko adituak eta industria teknologikoetako ordezkariak.

III. ZAINKETEN GIZARTE BERRI BATERANTZ EUSKADI FEMINISTA BATEAN

III. ZAINKETEN GIZARTE BERRI BATERANTZ EUSKADI FEMINISTA BATEAN

ELKARREKIN PODEMOSen uste dugu herri-eredu berri baterantz bideratzeko gizarte gisa egin behar dugun kultura-aldaketa handienetako bat dela zainketak kontsideratzea paradigma berri baterantz eta babes sozialeko eredu berri baterantz igarotzeko erreferentziazko iparrorratz gisa. Izan ere, zainketaz hitz egitea bizitzari eusteko dugun moduaz hitz egitea da, alajaina!

Azken boladan gertatu diren gizarte-aldaketek –biztanleria gero eta zaharragoa, familia-ereduetan dibertsitate handiagoa edo emakumeak orokorki lan-eremuan sartzea— zainketen krisitzat har dezakegun horretara bideratu gaituzte, eta babes sozialeko gure ereduaren funtsezko alderdietan eragiten duten premiazko eraldaketak eskatzen dizkigute.

Euskadin egoera hori larriagotu egiten da babes sozialeko sistema publikoak arian-arian desegiten direnean eta sistema horiei eusteko instituzio publikoak kentzen direnean. Horrela, gehiengo sozial baten ziurgabetasunak eta antsietateak areagotzen dira, bere bizi-baldintzak nola prekariatzen diren ikusten baitu. Horrek, oso bereziki, emakumeen lan-kargari eragiten dio.

Erronka izugarria da, baina gehiegi dugu jokoan bizitza zaintzeko beharrak antolaketa ekonomiko eta sozialaren erdigunean jarriko dituen bide-orri bat ezartzen ez saiatzeko, eta ez, orain arte bezala, merkatuen beharrak erdigunean jarriko dituen. Trantsizio-programa bat egin behar dugu, eta programa horrek helburu izan behar du daukaguna hobetzea (Ongizatearen Estatua), baina, aldi berean, eredu-aldaketarantz aurrera egiteko aldaketak nola egin pentsatu behar du.

Alde batetik, zainketek eredu sozioekonomikoaren paradigma sozial eta printzipio orientatzaile gisa jardun dezakete, eta horrek behartzen gaitu zer bizitza bizi nahi dugun eta horri eusteko nola jokatu behar dugun pentsatzera. Bestetik, zainketarako eskubide kolektiboa errekonozitu behar dugu, eta hari eduki zehatzak emango dizkion politika publiko espezifiko bat garatu beharko dugu. Zainketak bizitzarekiko berarekiko erantzukizun sozial banaezintzat hartu behar dira, eta, horregatik, haiek modu unibertsalean ematea eta eskuratzea bermatu behar da.

Baina kontuan har dezagun, orobat, zaintzeak zentzu integralean zer esan nahi duen. Mende-kotasuna duten pertsonak, kalteberenak, gutxiengo identitarioak, gure adinekoak, gure gazteak eta migratzaileak zaintzeaz ari gara; azken batean, guztiak baldintza berberetan zaintzeaz. Zaint-

zeak babesa esan nahi du, eta hori ezin da banandu aukera-berdintasunetik. ELKARREKIN PODEMOSen ustez, Euskadirako eraldaketa-ardatz hori ezin da bereizi berdintasunaren nozioetatik eta feminismoak lortutako aurrerapenetatik. Hain zuzen, hori da, zalantzarik gabe, azkenaldiko aldaketa-eragilerik handiena.

Horregatik, atal honetan, zainketak guztion ezinbesteko ontzat hartuta, politika feministetan, berdintasunekoetan eta gizarte-eskubideetakoetan gure proposamenak eskaintzen ditugu, hori guztia defendatzen dugun zainketen gizartea ulertzeko modu berri horren elementu integratzailerik baino ez direlako.

13. Zainketak guztion on gisa

Zainketen krisitzat kontsideratzen dugunaren aurrean, premiazkoa da bultzada irmo bat, erantzukizunez eta politika berriekin, guztiok bizitza osoan zehar zainketa duinak eta bermatuak izan ditzagun, pisu guztia familien eta emakumeen sorbalden eta patriken gainean kargatu gabe.

Familiak eta, bereziki, emakumeak ahalegin handiegiz ari dira beste garai baterako diseinatu-tako zainketen eredu zahar eta zaharkitu bati eusten. Emakumeek etxe barruan egiten duten lan ikusezinean eta errekonozitu gabean oinarritutako eredu batetik euskal gizarteak dituen behar, eskaera eta aurrerapen berriekin bat etorriko den eredu baterantz igaro behar da. Era berean, zainketen krisia gainditzeko eta aurrera egiteko, kontuan hartu behar dira honako alderdi hauek: gizartearen zahartze progresiboa, familia-adostasunen dibertsitatea, emakumeen eskubideen eta askatasunen konkista, gizonek gero eta erantzunkidetasun handiagoa hartzea.

Justizia sozial, demokrazia, berdintasun eta solidaritate handiagorantz aurrera egiteko eta, azken batean, hobeto bizitzeko, ezinbestekoa da zainketak funtsezko lekua izatea eskubide eta politika publikoen agendan. Zainketen ekonomia existitzen da, eta produkzio-sisteman aldaketa bat bultzatu behar da bizitza jarduera osoaren erdigunean jartzeko: onura publikoko eta guztion onerako ondasunak eta zerbitzuak produzitzea, ekonomia zuzenekoa eta zirkularra sustatzea, produkzio-eta ugalketa-lanetan erantzunkidetasuna izatea, etab.

Horregatik guztiagatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Zainketak euskal herritarren eskubide subjektibo eta unibertsal gisa errekonozituko ditugu, bizitza osoko eskubidetzat, kontuan izanik bizitzako egoera eta etapa bakoitzaren berezko beharrak, instituzioen betebeharra izan dadin eskubide hori gauzatzeko zerbitzuak eta prestazioak eskaintzea, hau da, hitzarmen publiko-pribatuaren logiken ordezkari logika publiko-sozial-komunitario bat ezartzea.
- Zainketa-zerbitzuen izaera publikoa indartuko dugu, eta osasun-, gizarte- eta hezkuntza-hurbiltasuneko zerbitzuak indartuko ditugu.
- Zainketen Euskal Sistema publikoa, doakoa, integrala, integratua eta unibertsala jarriko dugu abian, pertsona guztiek balia dezaten zainketetarako eskubidea, eta ez daitezen familien gain utzi maite dituzten pertsonei zainketa duinak emateko lana eta kostu handiak.
- Zainketak antolatzeko eredu demokratiko, jasangarri, solidario eta erantzunkide baterako trantsizioa sustatuko dugu, gure bizitzako etapa guztietan zainketak bermatuko dituen.

- Elkarriketa sakonerako eta epe luzerako gune bat irekiko dugu mugimendu feministarekin eta gizarte zibilarekin, Zainketen eta Bizitzaren Jasangarritasunaren aldeko Euskal Itunerako proposamenaren inguruan antolatuta. Horretarako, tokiko, eskualdeko eta auzoko mahaiak antolatuko ditugu, proposamen horiek gauzatu daitezen.
- ‘Elkarrekin Zaintzen’ plana onartuko dugu, zainketa-lanak demokratizatzeko eta banatzeko plan bat, zainketa sozialki antolatzeko beste modu baterako, ikuspuntu eraldatzaile eta erantzunkide batetik. Plan hori diseinatzeko eta abian jartzeko, eztabaida sakona, eskuzabala, publikoa, irekia eta plurala bultzatuko dugu, eta horrek barnean hartuko du instituzioen, inplikaturako gizarte-eragileen, zaintza-zerbitzuen erabiltzaileen, senideen eta zaintza profesionalen eta ez-profesionalen hornitzaileen parte-hartzea, eta, batez ere, emakumeen erakundeen eta mugimendu feminista osoaren parte-hartzea.
- Laneko prekarietatearen aurkako Talka Plana jarriko dugu abian zainketa feminizatuen sektoreetan, hala nola egoitzetan edo etxez etxeko laguntza-zerbitzuetan eta etxeko langileen sektoreetan. Gainera, horiek jasotzen duten diru publikoa kontrolatu eta ebaluatuko da. (Joan Adin-politika sektorialak kapitulura)
- Zainketen sektore indartsu eta duin bat sustatuko dugu, ongizatearen eta bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzura egongo den euskal ekonomiaren ardatz estrategiko bihurtuko dena.
- Gaixo dauden, desgaitasunen bat duten edo mendetasunen bat duten pertsonen etxean profesionalak ez diren zaintzaile guztientzako zerbitzu, prestazio eta baliabideekin lagunduko dugu.
- Etxeko eta eskolako esparruetan zerbitzuak, baliabideak eta laguntzak handitzeko neurriak sustatuko ditugu haur eta nerabeak zaintzeko, bizitzako lehen urteetan enfasia jarrita.
- Adingabeak (18 urte bete arte) ez ezik, mendekotasuna duen edonor ere zaintzearen ondoriozko prestazioak handitzea proposatzen dugu.

14. FEMINISMOAK ETA BERDINTASUNA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 1/2022 euskal Legearen erreforma aurrerapauso historikoa izan da Euskadiko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokan. Genealogia feminista batetik gatz, eskubide bakoitzari, gure gizartean sortutako aldaketa bakoitzari lagundu genealogia batetik. Hala ere, Nazio Batuetako giza eskubideen arloko nazioarteko erakundeek erronka batzuk adierazi dituzte. Erronka horiek oraindik ere gauzatzeko daude eragiten diguten, gure gorputzei eta gure eskubideei eragiten dieten egiturazko diskriminazioen aurka borrokatzeari dagokionez. Zapalkuntzen interseksionalitateak, emakumeen aurkako indarkeriaren kulturak, arrazakeriaren aurkako borroak, pobreziaren feminizazioak eta prekaritateak eskatzen dute berdintasunaren arloan aurrera egiten jarraitzea, sail batean geldirik gera ez dadin, baizik eta teoria eta praktika feministek politika instituzional guztiak bete ditzaten eta emakumeek beren bizitzetara eragiten dieten erabaki-guneetan erabateko parte-hartzea berma dadin.

Berdintasun erreala eta eraginkorra nahi dugu, euskal administrazio guztien eta sektore pribatuko eragileek ekintza bideratuko duen funtsezko zutabea izango dena, eta gizarteak berak defendatutako eta banderatzat hartutako balioa izango dena.

14.1. Politika feministak

- Euskadi feminista nahi dugu, eta horretarako ezinbestekoa da Estatutu feminista bat, gure bizikidetzarako eta etorkizunerako araurik garrantzitsuena baita. Emakumeen eta haien eskubide eta askatasunen justifikaziorik gabeko ahanztura konponduko duen estatutu berri bat defendatzen eta lantzen jarraituko dugu, indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea xedatuko duena, sexu- eta ugalketa-eskubideak blindatuko dituen, zainketak eskubide eta erantzunkidetasun sozial gisa ezarriko dituen, berdintasuna bermatuko duena eta genero-arrazoien ondoriozko diskriminazio mota guztiak desagerraraziko dituen.
- Indarkeria matxisten glosario bat egingo dugu, eta bertan zehaztu eta izendatuko ditugu (izendatzen ez dena ez da existitzen) orain Legean soilik aipatuta agertzen diren indarkeria matxista motak, haien esanahia hartuko duen definiziorik gabe (indarkeria ginekoobstetrikoa, indarkeria bikarioa...).
- Zentro publikoetan abortatzeko aukera blindatuko dugu, klinika pribatuetara joateko baliabidea salbuespena izan dadin.

- Gobernu zentralari eskatuko diogu abortua Konstituzioak blindaturiko eskubide bihur dezala, Karta Magnan jaso dadila, eta ez dadila geratu aldaketa politikoen mende.
- Hilekoaren eta klimaterioaren arloko ekitaterako plan integrala prestatuko dugu, hilekoaren esparruko ekitaterako eskubidea bermatzeko. Plan horrek hilekoaren produktuak doan banatzea aurreikusiko du, batez ere berrerabilgarriak direnak, eta, horren bidez, konpresak eta kotoi organikoaren tanpoiak ekipamendu publiko ugaritan instalatuko dira. Horrez gain, genero-ikuspegia izango duen lan-osasunaren atala ere jasoko du. Horren bidez, osasunari eragiten dion hilekoaren edo klimaterioaren ondoriozko ordutegi-malgutasuna sustatuko da, Administrazio Publikoko langileentzat onartutako ordutegien antzera.
- Euskadiko Sexu eta Ugalketa Eskubideei buruzko Legea bultzatuko dugu. Lege horrek aukera emango die pertsona guztiei sexu- eta ugalketa-eskubideak doan eta modu unibertsalean eskuratzeko, eta pertsona horiek ez dute inolako diskriminaziorik jasango sexu-orientazioagatik, genero-adierazpenagatik, genero- eta sexu-identitateagatik, jatorriagatik, egoera administratiboagatik, arrazagatik, etniagatik, gaitasunengatik eta abarrengatik. Horretarako, zainketaren eta ongizatearen ikuspegitik, eskubideen ikuspegitik, ikuspegi feministatik eta intersektzionaletik, ziurtatuko dugu haur eta nerabeenganako eta adineko pertsonenganako begirada, beren eskubide eta premiei dagokienez, presente dagoela eta dibertsitatearen ikuspegi osoa bermatuko duela.
- Osasun-arloarekiko osagarritasunean hedatu beharreko politikak indartuko ditugu, zehazki hezkuntzaren, ikerketaren eta komunikazioaren arloan, jasaten ditugun eskubide-urraketak prebenitzeko, arreta emateko eta konpontzeko.
- Aztertuko dugu zein taldek dituzten sarbide-oztopoak eta zein motatakoak, eta zein den hobekuntza- eta berrikuntza-esparrua datozen urteetan ugalketa-eskubide eta sexu-eskubide horietan aurrera egiteko. Helburua da eskubide sexualen eta ugalketakoen arloko laguntza eta arreta integralean eskumena duten programa eta administrazioetatik joera arrazistak, ijitoen aurkakoak, LGBTIfobikoak, kapazitistak eta adultistak ezabatzea.
- Oroitzapen- eta erreparazio-politikak garatuko ditugu, biktimak indarkeria sortzen duen sistema politiko baten biktima direla errekonozitzeko.

- Neurri zehatzak hartuko ditugu landa-eremuko indarkeria matxisten eta adineko emakumeen aurkako borroken prebentziorako.
- Neurriak hartuko ditugu emakumearen erabaki askea erabakigarria izan dadin emakumearen eskubide eta askatasunei, duintasunari, osotasunari eta ongizate fisiko eta mentalari eragin diezaieketen kasu guztietan, bereziki sexu-askatasunari, gorputzari eta ugalketa- eta sexu-osasunari dagokienez.
- Amatasun aske eta erabakia izateko erraztasunak emango ditugu, laguntza bidezko ugalketarako sarbidearekin eta emakumeentzako laguntza espezifikoeekin, erabakitzen dutenean, hala erabakitzen badute, ama izatea, ama ezkongabeen diskriminaziorik eza bermatuta, eta Lagundutako Ugalketa Tratamenduak eskuratzen dituzten emakumeen sexu-orientazioaren ondoriozko edo egoera zibilaren ondoriozko diskriminaziorik eza ziurtatuta.
- Lehen haurdunaldia eta ondorengoak sartuko ditugu Estatuko Osasun Sistemari Laguntza Bidezko Giza Ugalketako tekniketara sarbidea izateko. Laguntza bidezko ugalketako tratamenduak hartzen dituzten emakumeak babesteko neurriak sustatuko ditugu, laneko legerian haurdunaldietarako aplikatzen diren baldintza berberetan. Era berean, azken antisorgailu-metodoetarako sarbidea bultzatuko da, gizonezkoen pilula eta premiazko kontrazepzioa barne, eta Estatuan Haurdunaldiaren Borondatezko Etena Zigor Kodean erabat despenalizatzea bultzatuko dugu, emakumearen erabaki askean oinarritutako haurdunaldiaren borondatezko etenerako eskubidearen errekonozimendutik abiatuta eta lehen 24 asteetan Osasun Publikoan gauzatzea bermatuta.
- Zerbixeko minbizia detektatzeko protokoloa berrikusiko dugu, azterketa ginekologikoen denborak murrizteko.
- Neska haur eta nerabeak ahalduztzeko programak indartuko ditugu, bizitza autonomoko proiektuak gara ditzaten, estereotipo, aurreiritzi eta indarkeria matxistarik gabe, ikastetxeekin eta administrazioetako berdintasun-sailekin lankidetzan.
- Emakunde dagokion lekura berriz ere eramango dugu, hau da, zuzenean Lehendakariaren mende egotera, eta ez Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mende. Era horretan, ziurtatzen da aurrekontu egokia izango dutela emakumeen eskubideen alde modu erreal eta eraginkorrean eta independentean lan egin ahal izateko, baita erakunde horrek hainbat kolektibori emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egingo duten programen bidez ematen dien laguntzari dagokionez ere.

- Politika publikoak emakumeen eta gizonen onurarako egingo ditugu, eta desberdintasunekin amaitzeko. Horretarako, aurrekontuen % 100 egingo dira genero-ikuspegiarekin, zeharka, Eusko Jaurlaritzako sail guztietan aurrekontu-partida nahikoak eta giza baliabideak egongo direla ziurtatuta, politika sektorialen garapenean berdintasun-politikak inplementatzen direla bermatzeko.
- Erakunde guztietan, enpresa publikoetan eta kapital publikoko enpresa partaidetueta berdintasun-eragileen figura eraginkorra izan dadin beharrezkoak diren baliabide eta laguntzak emango ditugu.
- Estatuari eskatuko diogu 27/2013 Toki Araubidearen Legearen artikulua aldatzearen ondorioz ezabatutako udal eta aldundien berdintasun-eskumenak berreskuratzeko eta indartzeko.
- Emakumeen erakundeek eta erakunde feministek politika publikoen diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan parte har dezaten sustatuko dugu, Berdintasunerako Euskal Kontseilua bultzatuta. Kontseilu horretan parte hartuko dute sailtako, Emakundeko, foru-aldundietako berdintasun-sail edo -organoetako ordezkariak eta udaletako ordezkariak eta erakunde feministetako ordezkariak.
- Emakumeen elkarre-sarea eta erakunde feministak indartuko ditugu, Euskadiko mugimendu feministaren heterogeneotasuna kontuan hartuta, Horretarako, baliabideak, aholkularitza eta/edo laguntza teknikoak errazteko programa bat garatuko dugu.
- Emakumeen Etxeak irekitzea bultzatuko dugu gaur egun hain beharrezkoa den horrelako espaziorik ez duten udalerrietan. Horretarako, Euskadin dagoeneko dauden esperientzietatik ikasiko dugu, eta eskaera bizi horri historikoki eutsi dioten eta gaur egun eusten dioten erakunde feministek espazio horiek koordinatu eta autokudeatzea bultzatuko dugu.
- Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean jasotako neurriak garatzea bultzatuko dugu, bereziki, nekazaritza-ustategien titularkidetasuna eskuratzearekin, nekazaritza-erakundeetan parte-hartzea handitzearekin eta parekidetasuna bermatzearekin lotutakoak, baita landa-ingurunean indarkeria matxistak artatzeko eta prebenitzeko plan eta programa espezifikoekin lotutakoak ere.

- Emakumeen eta gizonen ordezkaritza paritarioari eta presentzia orekatuari buruzko 3/2007 Lege Organikoa aplikatzea bermatuko dugu. Gobernu zentralak enpresa-esparruan ere ordezkaritza orekatuaren printzipioa txertatu zuen lege horretan.
- Ideologia matxista, misoginoa, sexista edo homofobikoa duten erakundeek edo kolektibo horien aurkako ekintzaren bat egin dutenek baliabide eta funts publikoak eskura izatea saihestuko dugu.
- Finantzaketa publikoa duten komunikabideetan eta administrazio publikoentzat beren jardueraren zati bat garatzen duten publizitate-agentzietan, dietaren kultura, arraza- edo genero-estereotipoak sustatuko ez dituen kode antisexista, arrazakeriaren aurkakoa eta gizentasunarekiko fobiaren aurkakoa landu eta ezarriko dugu modu eraginkorrean. Gainera, emakumeen edukiei, protagonismoari eta rol sozialei eragingo dien genero-ikuspegidun auditoria bat ere egingo dugu urtero.
- Osakidetzan dietetika-zerbitzu bat ezarriko dugu, mundu guztiarentzat irisgarria (ez endokrinia bakarrik), estereotipoak erreproduzitzea helburu izango ez duten nutrizionista eguneratuekin.
- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren erreforma bat egingo dugu, lana, prestakuntza edo prestazioak bilatzen dituzten emakumeek eskubide guztiak erabat baliatu ahal izan ditzaten, sistema osoan genero-ikuspegia txertatuta, zainketekin kontziliatzeko laguntzak emanda, eta jarduera diskriminatzaileak edo gizarte-bazterketa handiagoa eragiteko arriskua sortuko dutenak desagerrarazita.
- ‘Pobreziaren feminizazioa’ri aurre egiteko estrategia bat landuko dugu, lan-merkatuan, etxebizitza eskuratzean edo prestazio ekonomikoetan diskriminazioa desagerrarazteko neurriekin.
- Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden emakumeei eskubide guztiak eskuratzen lagunduko diegu. Helburu horrekin, genero-ikuspegia txertatuko dugu gizarte-politika guztietan, diru-sarrerak bermatzeko politiketan eta politika horiek kudeatzen dituzten erakundeetan, hala nola Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan.
- Estatuko Familien Legea onartu ondoren, guraso bakarreko eta ama bakarreko familiak babestuko ditugu, Familien euskal Legearen bidez.

- Haurrak zaintzeko prestazioak % 20 handituko ditugu, pixkanaka, legegintzaldian zehar.
- Ama bakarreko / guraso bakarreko familiei gainerako familiek dituzten onura berak bermatzera bideratutako neurriak hartuko ditugu kontziliazioari dagokionez (hau da, adingabea hartuko da kontuan), eta gaur egun Estatuan / autonomia-erkidegoan indarrean dauden neurriak aplikatuko dizkiegu.
- Edoskitzeari laguntzeko neurriak ezarriko ditugu ospitaleetan, aisialdi- eta lan-zentroetan eta beste espazio publiko eta pribatu batzuetan.

Enplegua eta politika feministak

- Emakumeen autonomia ekonomiko erabatekoa sustatuko dugu, ekonomiaren, hezkuntzaren, enpleguaren eta diru-sarreraren arloetako berme-politiken bidez. Politika horiek diru-sarrera propioak ziurtatuko dituzte eta emakumeen mendekotasun ekonomikorik eza sustatuko dute.
- Genero-ikuspegia sartuko dugu garapen ekonomikoko, tokiko edo enplegua sustatzeko politika guztietan, helburu hartuta lan-merkatuko bereizketa bertikala eta horizontala iraultzea eta emakumeen eta gizonen enplegurako sarbidea baldintza berdinetan ematen dela ziurtatzea, hau da, kristalezko sabaiak eta lurzoru itsaskorrak apurtzea.
- Administrazio publikoek egiten dituzten enplegu-planetan, genero-berdintasunaren eta familia-bizitza eta lan-bizitza benetan kontziliatzearen aldeko ekintza integrala antolatuko duen berariazko atal bat sartzeko betebeharra ezarriko dugu, tokiko administrazioak, sindikatuak eta patronala inplikaturik.
- Soldata-arrakalarekin amaitzeko neurriak indartuko ditugu, lan-prekarietatearen eta soldata-arrakalaren aurkako plan baten bidez, administrazio publikoan eta esparru pribatuan.
- Lan-ikuskaritzaren bidez, berariaz zainduko dugu emakumeen lan-eskubideak errespetatzen direla, baita lan-baldintzak ere, ordainsaria barne. Zainduko dugu, gainera soldata-arrakala iraultzen dela eta gainerako egoera guztietan sexu-jazarpena prebenitzen dela. Gainera, bermatuko dugu emakumeak haurdunaldiagatik edo amatasunagatik diskriminatuak ez izatea.

- Prestakuntza- eta enplegu-programa bat jarriko dugu abian, oso maskulinizatuta dauden sektoreetan emakumeen enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sustatzeko. Helburua da profesionaltasun-ziurtagiria izango duten emakumeen jarduera- eta okupazio-tasa areagotzea.
- Laneko eta hezkuntzako jazarpen moralak, psikologikoa eta sexuala hautemateko eta horietan esku hartzeko protokoloak indartu eta bultzatuko ditugu.
- Baliabide gehiagorekin, 3/2007 Legeak behartzen ez dituen enpresa guztietan (enpresa txiki eta ertainetan) berdintasun-planak inplementatzea babestu eta sustatuko dugu.
- Oso maskulinizatuta dauden sektoreetan emakumeen kontratazioaren % 50 bermatuko duten programak sortuko ditugu. Programa horiek emakumeen laneratzea errazteko egingo dira, inolako diskriminaziorik gabe adina, arraza, jatorri, genero alternatibo eta abarrengatik.
- Klausula sozialak ezarriko ditugu euskal administrazio publikoaren kontratuen eta dirulaguntzen baldintza-agirietan, ordezkariak txikiak duten lan-sektoreetan emakumeen presentzia bermatzeko.
- Jarduera artistikoetan, kulturaletan eta ikerketakoetan emakumeentzako enplegua sustatzeko programak jarriko ditugu abian.

KIROLA ETA POLITIKA FEMINISTAK

- Kirolaren eskola-praktikan eta praktika amateur eta profesionalean emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna sustatuko dugu, baita genero-arrazoien ondoriozko indarkeria edo edozein diskriminazio-jarduera desagerraraztea ere, soldata-arrakala barne.
- Euskadiko kirol-erakunde eta kirol-ekitaldiak eta -lehiaketak antolatzen dituzten erakunde guztientzat arau-kode bat bultzatuko dugu, genero-estereotipo eta -rol matxistak erreproduzitzen dituzten irudi, publizitate edo sustapenen hedapena kentzera edo emakumeak podiumetan edo ekitaldia edo lehiaketa egiten den edozein unetan publizitate-baliabide eta sexu-objektu huts gisa ez erabiltzera bideratuta.
- Kirol-sektorean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko egungo egoeraren azterlan bat egingo dugu, Kirol Sektorrean berdintasun-plan bat egiteko. Plan horretan, besteak beste, gai hauek jorratuko dira:

- Emakumeen eta gizonen sarbidea eta parte-hartzea kirolean. Edo entrenatzaileen soldatak sexuaren arabera.
- Instalazioak sexuaren arabera erabiltzea kirol-esparru guztietan, erakunde publiko baten dirulaguntzaren bat jasotzen duten klubetan barne.
- Berdintasun-planak bultzatuko ditugu kirol-zentro publiko guztietan eta dirulaguntza publikoren bat jasotzen duten zentro pribatuetan.
- Berdintasun-klausulak sartuko ditugu dirulaguntza publikoen oinarri erregulatzaileretan, bermatzeko erakunde eskatzaileek ez dutela eraginik soldata-arrakalan eta berdintasun-klausuletan, denborak eta erantzunkidetasuna berdintasunez birbanatzeko eta kirola baldintza berdinetan egitea errazteko.
- Gure euskal irrati eta telebista publikoan kirol-informazioaren emisioan gertatzen den genero-arrakala komunikatiboa % 80 murriztuko dugu.
- Informazioa eta estatistikak argitaratuko ditugu denboraren erabilerari buruz, langabezia zabalduari buruz, enpleguaren banaketari buruz eta emakumeen eta gizonen lan-baldintzei buruz urtero, ekonomiaren funtzionamenduaren eta lanen banaketaren berri eman dezaten bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegitik, ordaindu gabeko lanetan arreta berezia jarrita.
- Denboraren Legea lehenbailehen garatzea, helburu hartuta zainketan erantzunkidetasunaren kultura sustatzeko politika publikoak indartzea, telelaneko araubidean dauden langileen eskubideak babesteko neurri zehatzak lantzea, eta denbora-erabilerak Europako inguruneetako legegintza-esperientzien moduan birbanatzeko kontziliazio-politiken garapena sustatzea (Italiako ILP kasu).
- Genero-ikuspegidun zerga-politika bat bultzatuko dugu. Horren helburua da zerga-eskubideak indibidualizatzea, elkarbizitza-eredu batzuk besteen gainean sustatzea saihesteko eta lanaren sexu-banaketa ez bultzatzeko.

Teknologia, hezkuntza, politika feministak

- Hezkidetza eta berdintasunerako hezkuntza bultzatuko ditugu euskal hezkuntza-sistema osoan, 0 urtetik aurrera, haur eta nerabeek eta irakaskuntza arautuaren maila guztiek hezkuntza- eta bizitza-proiektuak garatu ahal izan ditzaten, estereotiporik, diskriminaziorik,

bullyingik eta generoaren, sexu-identitatearen edo genero-adierazpenaren ondoriozko indarkeriarik gabe.

- Hezkuntza-esparruan protokolo espezifikoak prestatzea bultzatuko dugu, genero-ikuspegia eta dibertsitatea kontuan hartuta, nerabeen aurkako genero-arrazoen, sexu-identitatearen edo genero-adierazpenaren ondoriozko jazarpen eta ziberjazarpen sexistaren kasuetan prebentzioa, detekzio goiztiarra, arreta eta babesa sustatzeko, eta haiek laguntza psikologikoko programak izango dituzte.
- Protokolo horiek betetzen direla bermatuko dugu bullyingaren, jazarpenaren eta ziberjazarpenaren kasuetan, trans pertsonen eskola-uztea murrizteko.
- Informatikako eta teknologiko sektore publiko eta pribatuak sentsibilizatuko ditugu bigarren eta hirugarren genero-arrakala digitalaren existentziaz eta horiek prebenitzen eta desagerrarazten laguntzeko neurriak hartu beharraz.
- Hezkuntzaren esparrutik sustatuko dugu hori, teknologia eta zientzia feminizatzeko plan integral bat onartuta, eta nerabe eta gazteak sektore informatikoetara eta teknologietara hurbilduta:
 - Genero-estereotipoak, -aurreiritziak edo -mandatuak zalantzan jarrita argi eta garbi, horiek emakumeen eta gizonen artean oso desberdintasun nabarmena eragiten baitute sektore horiekin lotutako ikasketak eta lanbideak aukeratzean. Orain arte informatikaren eta teknologiaren sektoreak oso maskulinizatuta egon dira.
 - Estereotipoak haustea sustatuko duten eta diziplina guztietan eskema malguak sortuko dituzten hezkidetza-estrategiak sustatuta, hezkuntza- edo lanbide-proiektuaren hautaketan bereizketa horizontalarekin amaitzeko. Izan ere, oraindik ere badira nabarmen feminizatuta dauden lanbideak, hala nola osasunari, hezkuntzari edo gizarte-politikei lotutakoak, eta nabarmen maskulinizatuta dauden beste batzuk, hala nola informatikari, teknologiar, industriari edo eraikuntzari lotutakoak.
 - Emakumezko erreferente informatikoak eta teknologiaren alorrekoak emanda, hezkuntzaren arloko kanpainen bidez, emakumeek sektore horietan duten zereginari balioa emateko eta, horrela, neskatoei eta neska nerabeei sektore informatikoekiko eta teknologiarekiko interesa errazteko.

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

Aske izan nahi dugu, bizirik egon nahi dugu eta ahaldunduta egon nahi dugu emakume izate hut-sagatik aurre egiten diegun mota guztietako indarkeria sexual, fisiko eta psikologikoen aurrean. Beldurrik gabe egon nahi dugu eta gure askatasunez gozatu nahi dugu, kalean, lantokietan, aisialdia-zentroetan eta gure etxeetan.

Aldarri komun horrek, guztiontzako zainketen erreibindikazioarekin batera, azaroaren 30eko greba feministan bizi izan zen bezala, mobilizazioak eragin ditu M8an. Oihu komuna da, mundu osoko milioika emakumerena, indarkeriaren eta bortxaketaren kulturaren aurrean, babesten ez gaituen eta birbiktimizatzen gaituen justizia patriarkalaren aurkakoa.

ELKARREKIN PODEMOSentzat, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak Giza Eskubideen premia bat dira. Premia horri lege-esparru integral baten bidez heldu behar zaio. Lege-esparru horrek kezkatu egin behar du, egoera bidegabe bat konpontzeaz ez ezik, indarkeriei aurrea hartzeko eta horien aurrean babesteko behar diren lotura afektibo eta komunitarioak sortzeaz ere. Eta zeregin horretan, guztiok, gizon eta emakume, eta espazio guztietatik, funtsezkoak gara.

- ‘Indarkeria matxistarik gabeko Euskadiren aldeko Euskal Ituna’ ezar dadin sustatuko dugu:
 - Erakundeen arteko koordinazioa maila guztietan, indarkeria matxistaren biktimei arreta, prebentzioa eta babesa emateko esparruetan.
 - Baliabide ekonomiko, egiturazko eta giza baliabide nahikoak jartzea.
 - Indarkeria matxistak desagerraraztearekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzaren politiken helburuak zein neurritaraino betetzen diren jakiteko jarraipena eta ebaluazioa erraztea.
- Behin Berdintasunerako Legearen erreforma onartuta, erne ibiliko gara arau bidez garatzen direla egiaztatzeko, eta Legearen edukia eraginkortasunez aplikatzen dela kontrolatuko dugu.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxisten definizioa eguneratuko dugu, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak jaso ditzan. Egungo definizioa mugatuta dago. Horregatik, definizioa eguneratuko da Istanbulgo Hitzarmenak eskatzen duenaren arabera eta Estatuan onartu berri den Sexu Askatasunaren Berme Integralaren Lege Organikoaren esparruaren arabera, eta neurriak diseinatuko dira babes horiek diskriminazio interseksionalari aurre egin behar dioten emakumeengana zabaldu ahal izateko.

- Aldatu egingo ditugu 'genero-indarkeria'ren biktima diren emakumeek eta seme-alabek ordainketa bakarreko laguntzak eskuratzeko baldintzak, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuak eskuratzekoak ere.
- Indarkeria matxistaren biktima guztiek Legean aurreikusitako babesa eta laguntza izango dutela ziurtatuko dugu. Lege horren arabera, ez dago salaketa judizialik aurkezteko betebeharririk, biktima-estatusa errekonozituta bermatzen baita zerbitzu espezializatuaren txosten baten bidez. Horretarako, dekretu autonomiko bat ezartzea bultzatuko da, indarkeria matxistaren biktimaren estatusa akreditatzeko.
- Adi egongo gara 2024an Estatuko Legearen arabera onartutako lurralde bakoitzeko krisi-zentroak ireki eta gaitu daitezen. Espazio horietan indarkeria matxisten biktimak artatuko dira, esparru judizialean salaketarik jarri beharrik gabe.
- Hiru lurraldeetako Batzar Nagusietan sinatutako akordioaren data baino lehenagoko espediente guztiak berrikusiko ditugu, Gurasoen Alienazio Sindrome faltsua ez aplikatzeko eta, horrela, espediente horien irismena ebaluatzeko, baita akordio hori aurrera eramateko hartu diren neurriak ezagutarazteko ere.
- 'Guraso-figuren arteko gatazken instrumentalizazioa eta guraso-figuren eta bizikidetzan nukleoko haur edo nerabeentzako esanguratsuak diren beste senide batzuen arteko gatazkak' itema ezabatuko dugu, Balora bezalako protokoloen Gurasoen Alienazio Sindrome faltsuaren adierazle bat baita, dagoeneko debekatuta dagoena. Haren zeregina da Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaletako eta lurraldeetako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna baloratzea.
- Gurasoen Alienazio Sindrome faltsu hori (doktrinamendua, adibidez) ezkutatzen duen antzeko beste terminologia bat ez erabiltzea zainduko dugu.
- Ziurtatuko dugu tutoretzak ez direla administrazio-bidetik kenduko, ebazpen judizial bidez baizik.
- Gure gain hartuko dugu haurrak indarkeria matxisten biktima gisa babestea, genero-indarkeria 'bikario'a errekonozituta (seme-alabekiko indarkeria erabiltzea amen aurkako mendeku gisa).

- Genero-indarkeriaren eraginpean dauden haur eta nerabeentzako laguntza eta babesa indartuko dugu (laguntza eta asistentzia indartzea, arreta pedagogikoa eta hezkuntzakoa, etxebizitza babestua eskuratzeko lehentasuna, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeak artatzeko Familia Elkarguneetako langileen prestakuntza espezializatua hobetzea, etab.).
- Zerbitzu hori erakunde publiko baten bidez ikuskatuko dugu (orain kanpora aterata dago), eta prozesu hori erabat gardena izango da, zerbitzu horrek egiten dituen txostenak opakoak baitira eta aditu-judizioetan erabiltzen baitira.
- Osakidetzaren osasun-protokoloak egokitzeko lan egingo dugu, indarkeria matxisten detekzioan eta alertan behar bezala funtziona dezaten.
- Legegintzaldi honetan abian jarriko dugu Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Prestakuntza Plana, herritarrei zuzeneko arreta ematen dieten euskal administrazio publikoetako profesional guztiei zuzendua.
- Indarkeria matxistak jasaten dituzten emakumeentzako bizi-berme ekonomikoa bultzatuko dugu. Babesteko eta Autonomia Berreskuratzeko Plan Integrala jarriko dugu abian biktimentzat eta bizirik atera direnentzat. Plan horrek bizitza bermatzeko prestazio ekonomiko bat barne hartuko du, autonomia ekonomikorik eza edozein motatako indarkeria matxistako harreman batetik irteteari kalte egingo ez dion faktore bat izan ez dadin. Prestazioa lanbidearteko gutxieneko soldataren baliokidea izango da, 6 hilabeterako (luzatzeko aukerarekin), eta emakume bakoitzak bere kargura duen pertsona kopuruaren arabera handituko da.
- Prestakuntza- eta espezializazio-programa bat ezarriko dugu euskal administrazio orokorreko funtzionario guztientzat, bereziki emakumeen eta adingabeen babesean, berdintasunean eta indarkeria matxisten aurka dihardutenentzat.
- Indarkeria matxisten biktimak eta bizirik atera direnak oroitzeke, errekonozitzeko eta erreparatzeko neurriak abiaraziko ditugu.
- “Genero-indarkeria”ren biktimak babesteko neurriak hobetu eta indartuko ditugu, arreta integrala jasoko dutela eta bizitza normalizatua izango dutela bermatzeko, biktimizazioa saihestuta, eta, eskatzen duten guztietan, kontrol- eta jarraipen-neurriak salatuari aplikatuko zaizkio.

- Udaltzaingoak eta Ertzaintza Justizia Administrazioarekin koordinatzeko protokoloak jarriko ditugu abian, indarkeria matxisten aurka arreta emateko irizpideak bateratzeko eta administrazioen jarduerak hobetzeko.
- Instalazio judizialak berrituko ditugu, biktimek biktimagileekin ez dezaten inola ere sarbideak edo espazioak partekatu beharrik, haurrak testigantza desegokiak entzun ez ditzaten, egungo instalazio judizialeko tirabiren eta etsaitasunaren mende egon ez daitezen, biktimen eta senideen pribatutasuna eta segurtasuna errespetatu daitezen; azken batean, biktimak, emakumeak, haur eta nerabe guztien birbiktimizaziorik ez dagoela eta kalitatezko arreta emango dela bermatzeko.
- Laguntza emango dugu udal-instituzio guztiek tokiko protokoloak izan ditzaten indarkeria matxistak prebenitzeko eta biktimei arreta emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren estaldura handitzea eta behar diren baliabide ekonomiko eta teknikoak areagotzea helburu hartuta.
- Salerosketa eta esplotazio sexualaren aurkako Plan Integral bat sustatuko dugu, biktimak eta bizirik atera direnak eskubideen subjektutzat hartuta. Salerosketa Mahaiari kontsulta eginda diseinatu eta gauzatuko da, eta gizarte zibilak, Estatuko administrazioak eta udalerriek parte hartuko dute.
- Familia Harremanen ekainaren 30eko 7/2015 Legea erreformatuko dugu gurasoen banantze- edo haustura-kasuetarako. Horretarako, lege hori aplikatzeak emakumeenganako eta adingabeenganako indarkeria matxistako egoeretan dituen ondorioei buruzko azterlan bat egingo dugu. Erasotzaileek ezin izango dituzte inola ere seme-alabak zaindu.
- Emakumeenganako indarkeria matxistengatik umezurtz-egoeran dauden haur eta nerabeentzako prestazio ekonomikoa zabalduko dugu.
- Eraginkortasunez erregulatuko ditugu Administrazioaren esparrutik igorritako publizitate eta mezu instituzionalak (kapital publikoa duten enpresa partaidetuak barne), balio sexistak, matxistak edo homofoboak edota genero-estereotipoak eta emakumeen aurkako indarkeria sustatzen dutenak transmititzea saihesteko.
- Gizentasunarekiko fobiaren aurkako prestakuntza espezifiko eskainiko dugu, bai irakasleentzat (Hezkuntza), bai osasun-langileentzat (Osakidetza).

14.2. DIBERTSITATEA GARA – LGTBI ESKUBIDEAK

Gizarte heteropatriarkal batean bizi gara, araudi heterosexuala jarraitzen ez duten pertsonak ikusezin bihurtzen dituen. LGTBI kolektibotzat ezagutzen duguna osatzen duten pertsonak (lesbianak, gayak, transak, bisexualak, intersexualak, etab.), instituzioek etengabe ikusezin bihurtzen dituztenek, eskubidea dute beren eskubideak errekonozitu dakizkien, baita beren sexu-orientazioa edota sexu-identitatea, bere aniztasuna, aukeratu duten moduan bizi dezaten ere, eta inork ez du hori ukatzeko eta ez errekonozitzeko eskubiderik. Sexu-identitatea, sexu-orientazioa edo genero-adierazpena ezin dira oztopo izan indarkeriarik eta diskriminaziorik gabeko bizimodua izateko. Zoritxarrez, gorroto-delituak eta LGTBIfobiak gure gizartean ezarrita jarraitzen dute, eredu heteropatriarkalaren ondorioz. Gero eta gehiago dira salaketa jartzera ausartzen diren pertsonak, baina oraindik asko dira, beldurragatik, isiltzen direnak. Egoera horrek amaitu egin behar du: gorroto-delituak eta delitu horiek babesten dituen kultura errotik desagerrarazi behar dira. ELKARREKIN PODEMOS irmoki agertu da homofobia, lesbofobia eta transfobiako erakustaldien aurka, eta horiek erabat desagerrarazteko lan egingo du.

- Euskadiko LGTBI Lege Integral bat onartuko dugu, pertsona guztiek beren sexu- edo genero-identitatea, sexu-orientazioa eta genero-adierazpena autodefinitzeko duten eskubidea bermatzeko, eta esparru publiko eta pribatu guztietan diskriminaziotik edo tratu-desberdintasunetik babesteko. Horretarako, elkarrizketa eraginkorra izan nahi dugu LGTBI kolektiboekin, eta elkarte eta gizarte-eragile garrantzitsuekin, helburu hauek lortzeko:
 - LGTBI Euskal Kontseilua abian jartzea, Euskadiko administrazioen eta LGTBI elkarten arteko topagune gisa, legea osorik betetzen dela zaintzeko.
 - Berdinu zerbitzua birmoldatzea, sexu-dibertsitateari buruzko politiken Aholku Batzorde bat hartzeko. Batzorde hori arduratuko da Eusko Jaurlaritzak arlo horretan dituen politika espezifikoak diseinatzeaz.
 - Era Berean plataformarentzat giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak gehitzea, aurkeztutako salaketen eta Euskadiko diskriminazioari eta gorroto-delituei buruzko txostenen benetako jarraipena egiteko ahalmena izan dezan. Era berean, LGTBI eskubideen arloko ikerketak bideratzea bilatuko da.
 - Onartu berri den Trans Legean aipatu ez diren pertsona ez-binarioak errekonozitzea.

- Sexu eta Genero Dibertsitatearen Aldeko Lehen Euskal Plana prestatuko dugu. Plan horretan, Euskadin hezkuntzaren, gizarte-babesaren eta enpleguaren arloan garatu beharreko estrategiak jasoko dira, maila horietan guztietan LGTBI diskriminazioaren aurkako borrokari ekiteko eta LGTBI ikuspegia administrazioaren jarduera guztietara egokitzeko. Plan horretan honako hauek jasoko dira:
 - Gorroto-delituen eta LGTBIfobiaren aurkako kanpainak garatzea gizarte-esparru guztietan, bereziki hezkuntzaren, kulturaren, aisiaren eta kirolaren esparruetan.
 - Familia-dibertsitatea aitortzea eta LGTBI familien eskubideak maila administratibo eta sozialean erabat parekatzea.
 - Gorroto-delituen biktimei arreta emateko telefonoa (028) dagoenean, salaketei, kontsultei eta aholkularitzei buruz jasotako datuak aztertuko ditugu, zerbitzua eta kolektiboaren beharrak etengabe hobetzeko.
 - Osasuneko protokolo, programa eta zerbitzuak garatzea, sustapen-ikuspegiarekin, sexu-dibertsitatea errespetatuta eta identifikatutako osasun-premiei erantzunda.
 - Lan-ingurunean LGTBI kolektiboekiko diskriminazioak —batez ere, trans pertsonetikiko diskriminazioak— desagerrarazteko eta kolektibo horiek integratzeko eta gizarteratzeko politikak garatzea.
 - Enplegu publikoko eskaintzetan kupo-erreserba bat egongo da trans pertsonentzat.
 - Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, baita Lanbide Heziketan ere, sexu-hezkuntza integraleko programa bat jarriko dugu abian adingabeen eta nerabeen sexu-identitatea erabat garatzeko eta bullyinga edo LGTBIfobiaren ondoriozko abusuak eta jazarpena prebenitzeko.
- Bai Ikuskaritzaren aldetik, bai ikastetxearen beraren aldetik protokoloak betetzen direla zainduko dugu.
- Euskadiko LGTBI Zentroen Sarea sortuko dugu, LGTBI erakundeen eskura, zeharkako ekipamendu publikotzat, bertatik informazioko, orientazioko eta zuzeneko arretako zerbitzuen katalogo zabal bat eskaintzeko, Euskadiko erakunde eta administrazioekin koordinatuta. Gainera, LGTBI Zentroen Sareak kulturaren, komunitate-ekintzaren eta sentsibilizazioaren

arlotako programak garatuko ditu gizarte osoarentzat irekita, eta erakundeek sustatzen dituzten jarduerak osatuko ditu, sexu-dibertsitateari buruzko topaketako, gogoetako eta agerikotasuneko gune gisa.

- Trans memoriaren egun bat aukeratuko dela bermatuko dugu, Euskadiko Trans Legearn islatuta dagoenez.
- Euskadiko LGTBI borroken eta erreferenteen Memoria Historikoaren estrategia/politika bat ezarriko dugu, LGTBI kolektiboek hura diseinatzen eta gauzatzen parte hartuko dutela bermatzeaz gain. Estrategia/politika horrek Zentro Memorialistiko Komunitario bat sortuko dela bermatuko du, hiri eta herrietan LGTBI Historiaren errekonozimendua eta agerikotasuna sustatzeko.
- Sexu-dibertsitateari eta LGTBI eskubideei buruzko prestakuntza-plan espezifiko bat bultzatuko dugu administrazio publikoetako eta organo judizialeko langileentzat, LGTBI herritarren eskubideak, diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna eraginkortasunez babesteko.
- Laguntza publikoa eta doakoa bermatuko diegu sexu-identitate edo -orientazioagatik jasandako diskriminazioaren eta bazterkeriaren ondorioz beren bizilekutik ihes egin duten pertsona guztiei. Administrazioek beharrezko laguntza eman beharko dute, bai psikologikoa, bai orientazio juridikoaren, harrerako etxebizitzaren eta abarren arlotakoa. Ildo horretatik, protokolo espezifikoak garatuko ditugu eta baliabide espezifikoak bideratuko ditugu, Harrerako Euskal Sistemaren barruan, LGTBI fobia dela-eta migratutako biztanleen beharrak estaltzeko.
- Sexu-dibertsitateari eta bizikidetzaren unitate mota berriei buruzko prestakuntza-prozesu bat gauzatuko dugu Euskadiko Segurtasun Kidegoetan, kolektibo horiei arreta hobe bermatuko dien protokolo bat ezartzeko. Gorroto-delituen arloko polizia-jarduketaren arloan dauden protokoloak berrikusiko ditugu, eta beharrezko neurriak hartuko ditugu datuak modu fidagarri eta seguruan biltzen laguntzeko, baita gure lurraldean dauden segurtasun-indarren arteko koordinazio hobe bermatzeko ere.
- Sexu-dibertsitatea eta Justizia Globala Sustatzeko Estrategia espezifiko bat onartuko dugu, Euskadik kanpo-ekintzaren eta garapenerako lankidetzaren esparruan sexu-eskubideak sustatzeko eta defendatzeko ekintzak eta proposamenak gauzatu ditzan.

- Abusu eta diskriminazioen aurrean LGTBI pertsonen arreta emateko plan bat ezarriko dugu.
- Sexu-dibertsitatearen ikuspegia txertatzeko estrategia bat ezarriko dugu, euskal administrazioen jardura guztietan arreta soziosanitarioa emateko.
- Zeharkako prestakuntza eskainiko dugu Osakidetzan eta hezkuntza-sistema publikoan dibertsitatearen inguruan, LGTBI kolektiboen errealitateak ezagutu ditzaten.
- Transfobiaren aurkako prestakuntza espezifiko eskainiko dugu, bai irakasleentzat (Hezkuntza), bai osasun-langileentzat (Osakidetza).
- Gaur egun Osakidetzan dagoen genero-identitatean espezializatutako unitate bakarra zabalduko dugu eta lurralde historiko bakoitzeko gutxienez bat jarriko dugu. Medikuek (psikiatria) eta erizainak ez ezik, arreta psikologikoko profesionalak ere sartu beharko lirateke.
- Trans pertsonentzako kirol inklusiboko programak egingo ditugu, baita kirol-arloko sentsibilizazio-programak ere, LGTBI kolektiboaren dibertsitateak, genero-identitateak eta genero-adierazpenak ezagutzeko.

15. ESKUBIDE SOZIALAK

15.1. ADIN-POLITIKA SEKTORIALAK

Haurrak eta nerabeak

2024an onartutako Haurren eta Nerabeen Euskadiko Legea mugarri bat da haurren eta nerabeen eskubideak prebenitzeko, sustatzeko eta babesteko politiketan, eta politika horien partaide bihurtzen ditu haiek, baina behar bezala inplementatu behar da eta jasotzen dituen erronka izugarriei heldu behar die. Ildo horretatik, neurri hauek planteatzen ditugu gure programan.

- Haurren eta Nerabeen Euskadiko Legearen garapen arauemaile bat egingo dugu, bertan ezarritako eskubideak eta jarraibideak zabaltzeko eta egikaritzeko.
- Hirugarren sektore sozialarekin eta haurtzaroan espezializatutako erakundeekin batera, EAEko Haurren I. Plana onartuko dugu.
- Euskadiko haurren eta nerabeen egoerari buruzko diagnostiko osatu bat egingo dugu, neurri zehatzei helderakoan eraginkorrakoak izaten laguntzeko. Neurri horien artean egongo dira haurren eta nerabeen ongizatean neurri horiek duten benetako eragina neurtzeko jarraipen-adierazleak.
- Ziurtatuko dugu haurrak oinarri izango dituen aurrekontu-analisi bat, baita aurrekontuen legean haurrengan horrek izango duen eraginari buruzko txostena ere.
- Tresna eraginkor bat onartu eta abian jarriko dugu, haur eta nerabeek politika publiko guztien diseinuan eta ebaluazioan duten interes gorenaren printzipioa neurtzeko eta ebaluatzeko.

Haurrak babestea

- Modu eraginkorrean artikulatuko ditugu “Ongizate- eta babes-koordinatzailea”ren eta “Babes-ordezkaria”ren figurak. Horiek legean jasota daude haurren aurkako indarkerien prebentzioaren bermatzaile gisa, eta prestakuntza espezifikoa eta nahikoa eta dedikazio eskusiboa izango dute.
- Prestakuntza espezifiko eta nahikoa izango duten figura horien titulu homologatu bat sustatuko dugu gaian adituak direnen ardurapean.

- Bermatuko dugu ikastetxe publiko guztiek titulu eta prestakuntza espezializatua izango duten ongizate-koordinatzailearen figurak edukitzeko betebeharra betetzen dutela. Horiek irakasle edo zuzendariekiko independenteak izango dira.
- Ziurtatuko dugu haur eta nerabeekin zuzeneko lana egiten duten era askotako gizarte-erakunde guztietan (kirol-klubak, federazioak, aisiako elkarteak, etab.) babes-ordezkaria izateko betebeharra.
- Sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei arreta integrala eta espezializatua emateko zerbitzua, legean aurreikusitakoa, sortzea bultzatuko dugu, eta Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu haren sailarteko eta diziplinarterako izaera berma dezala, erreferentzia gisa Barnahus ereduari eta PROMISE sareari jarraituz.
- Legegintzaldi honetan hiru lurraldeetan Barnahus Etxeak sortzea eta ezartzea bermatuko dugu, baita sistema judizialean aurrez eratutako frogak aplikatzea ere.
- Hurrekiko indarkeriak salatzeak multikanal bat gaituko dugu (telefono espezifikoak, helbide elektronikoa, WhatsApp linea, etab.) hainbat hizkuntzatan, irisgarria eta hizkuntza egokituarekin eta profesional espezializatuarekin.
- Haur eta nerabeek teknologiak eskura izatea eta behar bezala erabiltzea ziurtatuko dugu. Horretarako, ingurune digitalean dituzten eskubide guztiez goza dezaten beharrezko neurriak hartuko ditugu.
- Adingabeak babes-sisteman egoitzaratzea prebenituko dugu, haurrak behar bezala garatzeko baldintzetan etxera itzultzea bermatzeko moduan.
- Pertsona bakoitzeko arreta-orduak areagotuko ditugu babes-sisteman dauden haur eta nerabeei laguntza psikologikoa/terapeutikoa emateko zerbitzuetan.
- Haurren gizarte-babeserako aurrekontuaren ehunekoa handituko dugu, aurrekontu osoaren % 3,5etik % 8,5era, Europako batezbestekoaren arabera.
- Lehen haurtzaroko politikak hartuko ditugu, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako kalitatezko egiturak, zerbitzuak eta baliabideak ziurtatzeko.

- Neurriak hartuko ditugu 0-3 urtekoentzako Haur Hezkuntza goiztiarra (Haurreskolak), unibertsala, publikoa eta doakoa, modu unibertsalean eskuratzea arian-arian bermatzeko.
- Neurriak hartuko ditugu haurren malnutrizioari aurre egiteko eta haien elikadura egokia bermatzeko.
- Neurriak hartuko ditugu begietako edo aho-hortzetako prebentzio-arreta integrala emateko, foku berezia jarrita haur kalteberengan.
- Haur eta nerabeen osasun mentaleko ekintza-plan autonomiko espezifiko bat garatuko dugu, prebentzioko, detekzio goiztiarreko, sustapeneko eta arretako zerbitzuak barne hartuko dituen, ikuspegi multisektorial, komunitario eta psikosozial batetik.
- Indarkeria matxisten eraginpean dauden adingabeentzako babes- eta laguntza-zerbitzu espezializatuak ezarriko ditugu, haien segurtasuna bermatzeko.
- Indarkeria matxistaren ondoriozko umezurtzentzako partidak eta prestazioak areagotuko ditugu.

Haurren pobreziaren aurkako borroka

- Bermatu egingo dugu haur kalteberenentzako funtsezko zerbitzuak (hezkuntza, nutrizioa, osasuna, energia eta etxebizitza) eskuratzea eta haurren pobreziaren aurka borrokatzea, Europako Haur Bermea Euskadin inplementatzen dela ziurtatuta.
- Pobreziaren belaunaldiarteko transmisioari aurre egiteko neurri espezifikoak diseinatu eta inplementatuko ditugu, adingabeak ardurapean dituzten bizikidetza-unitateen kasuan diru-sarrerak bermatzera bideratutako politika orokorrak indartuta.
- Horretarako, adingabeek DSBEa (diru-sarrerak bermatzeko errenta) jasotzeko duten eskubide subjektibo indibiduala babestuko dugu, gurasoek edo zaintzaileek beren betebeharrak bete ala ez.
- Haurrak beren ardurapean dituzten familia guztientzako zerga-kenkari itzulgarri unibertsala inplementatuko dugu.

- Haurren ongizatearen prebentzioan eta sustapenean oinarritutako politikak hartzea sustatuko dugu.

Haurrak eta familiak

- Lana eta familia kontziliatzeko politika zabalak eta nahikoak inplementatuko ditugu, haur guztiek gurasoekin kalitatezko denbora izateko duten eskubidea bermatzeko (IKUS atal laborala).
- Familientzako arretarako jarduketari lotutako administrazio-esparruen diagnostiko bat egingo dugu, eta neurri espezifikoak planteatuko ditugu, honako helburu hauekin:
 - Familia-eredu guztiak berdintasun-baldintzetan errekonozitzea esparru guztietan.
 - Familia-eredu berriak errekonozituko dituzten hirigintza-, bizitegi- eta mugikortasun-politikak garatzea.
 - Familia barruko zainketa eta arretarako baimenak berdintasun-baldintzetan parekatzea.
 - Adopziorako, harrerarako eta tutoretzarako laguntza LGTBI familiei.
 - Beren ardurapean seme-alaba adingabeak dituzten pertsonen baliabideak eta zerbitzuak eskuratzen laguntzearen alde egingo dugu, arreta berezia jarrita bi gurasoak langabezia dituzten familiengan.
 - Berdintasunaren aldeko gizarte-sentsibilizazioko kanpainak eta gurasoen erantzunkidetasunerako programak bultzatuko ditugu.
 - Zerga-pizgarriak ezarriko ditugu benetako lan- eta familia-kontziliazioa errespetatu eta bultzatzen duten enpresentzat, malgutasun handiagoa ahalbidetuko duten neurrien bidez.
- Ama bakarreko eta guraso bakarreko familiei laguntzeko politika, zerbitzu eta prestazio espezifikoak garatuko ditugu, Euskadin pobrezia feminizatzearen eta infantilizatzearen fenomenoak ezabatzen laguntzeko.

- Familia tipologia desberdinei buruzko kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egingo ditugu.
- Landa-esparrua garatzera bideratutako politikak inplementatuko ditugu, hurrek, nerabeek eta familiek eskubide, zerbitzu eta prestazio guztiak eskuratu ahal izango dituztela bermatzearen, landaguneak zahartzeko eta despopulatzeko joera alderantzizatzeko.
- Familientzako prestazio ekonomikoa gorantz berrikusiko dugu ardurapeko seme-alaba bakoitzeko.
- Familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko 154/2012 eta 32/2015 dekretuak aplikatzen direla ziurtatuko dugu.

Arreta goiztiarra

- Arreta goiztiarreko benetako sistema bat garatuko dugu, oso garrantzitsua baita asalduek eta garapen-nahasmenduak dituzten edo horiek jasateko arriskua duten haurrenganako esku-hartzeen eraginkortasunerako eta haien egungo eta etorkizuneko ongizaterako.
- Arreta goiztiar integrala, unibertsala, doakoa eta publikoa izateko eskubide subjektiboa errekonozituko dugu.
- Erregulazioak harmonizatuko ditugu hori gauzatzeko, bizilekua eta zerbitzu arduraduna edozein izanda ere.

Haurrak mugimenduan

- Bermatuko dugu bakarrik migratzen duten haur eta nerabeek Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioaren arabera tratamendua jasotzen dutela, betiere haien adingabe-izaera kontuan hartuta migrazio-estatusaren aurretik.
- Haur eta nerabe gisa tratatzearen lehentasunaren barruan, garrantzitsua da haien emantzipazio-prozesuak babestea, autonomia eta bizitza-proiektu duin bat lortu arte lagun egitea, haiek erakundeetan ad hoc ez bereiztea eta, baita ere, haiek sozializatzea eragozten duten neurriak saihestea.

- Mugimenduan, errefuxiatuta edo bakartuta dauden eta salerosketaren biktima diren haurrak artatu, babestu eta gizarteratzeko mekanismoak, espazioak eta baliabideak diseinatu eta eguneratuko ditugu.
- Haurrak, nerabeak eta haien familiak oztoporik gabe eta premiaz erroldatzeko aukera bermatuko dugu.
- Inoren kargura ez dauden adingabeen adina egiaztatze prozedura inbaditzaileak debekatuko ditugu.
- Inoren kargura ez dauden adingabeen arretarako sare paraleloa ezabatuko dugu. Horretarako, ez dugu onartuko 25 plaza baino gehiagoko zerbitzurik, eta zerbitzu horietan bertakoen sareko zerbitzu berak eskainiko ditugu.

Haur eta nerabeentzako politikak

- Abian jarriko ditugu Haur eta Nerabeen Euskal Kontseilua eta Haur eta Nerabeen Foroa, onartu beharreko araudi osorako nahitaezko irizpenak emango dituzten organo gisa.
- Haur eta Nerabeen Behatokia indartuko dugu, datuak biltzeko eta politika publikoen inpaktua indartuko duten azterlanak sortzeko.
- Gobernuak inplementatutako politika publikoekin lotuta, haur eta nerabeekiko kontuak emateko sistema bat ezarriko dugu.
- Euskadiko haurren bizi-kalitatean eta ongizatean eraldaketak lortzeko 2030 Estrategia ezarriko dugu, adierazleak, aurrekontuak eta inpaktuaren ebaluazioa barne.
- Toki-, foru- eta autonomia-administrazioetako organoetan haurrek parte hartzeko bide egonkorrak indartu eta finkatuko ditugu. Halaber, araudi espezifiko bat garatuko dugu, haurrak elkartzeko moduei buruzko gutxieneko esparru osagarri bat eskainiko duena, eta hezkuntza-administrazioetatik ikasleek parte hartzeko bideak sustatuko ditugu.

Gazteak

- Eusko Jaurlaritzaren gazte-politikaren benetako inpaktua berrikusi eta ebaluatuko dugu. Diagnostiko kritiko bat egingo dugu, jakiteko administrazioaren kontrataziorako laguntza-sistemak laneko behin-behinekotasuna eta prekarietatea larriagotzen duen, emantzipaziorako baliabide egonkorrik ez dagoen eta gazteentzako beste ondorio negatibo batzuk dauden. Halakoetan, neurri zuzentzaileak ezarriko ditugu.
- Lehen Aukera programa erreformatuko dugu. Euskadiko enplegu-estrategia birpentsatu behar dugu, euskal gazteen etengabeko prekarietate-dinamikak desagerrarazteko. Haren eskakizun batzuk birformulatuko ditugu (6 hilabeteko gehieneko enplegua, edo prestakuntza-edo praktika-kontratu bidezko kontratazioa).
- Enplegu-plan bideratu baten bidez, gazteen laneratzea indartuko dugu gorantz doazen hainbat produkzio-sektoretan. Horien artean daude, besteak beste: energia berriztagarrien garapena, jasangarritasuneko eta energia-efizientziako irizpideen arabera eraikinen birgaitzea, basoberritzea eta baso-mantentzea edo zainketen sektorea.
- Eusko Jaurlaritzaren sailarteko organo bat sortzearen alde egingo dugu gainerako euskal erakundeekin (udalak eta aldundiak), Euskadin gazteen enplegu-politikak koordinatu, sustatu eta estrategikoki bideratzeko.
- Gazteen aldeko apustua egingo duten eta lantokietan langile gazteak integratzea sustatuko duten kontratazioko klausula sozialak sartuko ditugu. Gazteen kuotek, gainera, belaunaldiarteko erreleboa sustatzen dute, gazteen artean langabezia-tasak murrizteko eta zaharrenen pentsioei eutsiko dien enplegu-sistema bat sortzeko moduan.
- Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakunde publikoen egituren barruan txanda-kontratuak jarriko ditugu abian, pixkanaka zahartzen ari den plantilla publikoa gaztetzeko, eta, aldi berean, gazteak lanpostu publikoetan sartzea bermatzeko. Baldintza horiek berak sartuko ditugu Administrazioak, klausula sozialen bidez, sinatzen dituen kontratu publikoetan.
- Gazteen enpleguaren kalitate-protokolo bat prestatuko dugu, enpresek konpromisoa har dezaten horretarako neurri espezifikoak ezartzeko. Protokolo horrek partaidetzazkoa izan behar du, gazteen eta enplegu-ereduan esku hartzen duten erakundeen esku-hartzearekin. Neurri horrekin batera, betetzeko epeak finkatu behar dira eta zehapen positiboak ezarri behar zaizkie neurri hori betetzen duten enpresei.

- Curriculum-praktiken eta curriculumetik kanpokoan behatoki autonomiko bat sortuko dugu, unibertsitateetan sortzen diren bekek lanposturik ordezkatzeko ez dutela egiaztatzen. Neurri horren bidez, lan-merkatuko bekarizazio-prozesua ezabatu nahi dugu.
- Prestakuntza-kontratuen jarraipen zorrotza egingo dugu, honako hauek bermatzeko: adin-muga, prestakuntzaren eskakizuna betetzen dela zorrotz kontrolatzea, soldatak duintzea eta praktikak langilearen prestakuntzara egokitzea.
- Itzulera-politikak berriro bideratuko ditugu emigratzean galdutako eskubideak berreskuratzera eta bermatzera, Euskadira itzultzen diren pertsonentzat etxebizitzako, enplegu eta gizarte-babeseko politiketarako sarbidea bermatuta. “Galdutako” talentua erakartzeko programa bat sortuko dugu, beste herrialde batzuetan lan egiten ari den kapital gaztea helmugako baldintza berberetan berreskuratzeko.
- Atzerrian dauden gazteei laguntzeko plan bat egingo dugu: Emigratzeko interesa duten pertsonentzako informazio- eta orientazio-programak ezarriko dira, baita atzerrian jarraipena eta babesa emateko programak ere. Enpleguaren arloan eskumena duten agintariekin harremanak eta hitzarmenak ezarriko ditugu EBko beste herrialde batzuekin eta kanpokoekin, emigratzaileen eskariei erantzutea ahalbidetuko duten enplegu-eskaintzak lortzeko.
- Politika publiko guztietan gazte-ikuspegia zeharka txertatzen dela bermatuko dugu.
- Gazte-antolakuntzaren eta Gazteriaren Euskal Kontseiluaren egiturak indartuko ditugu. Gazteen asoziazionismoa bultzatuko dugu, eta gazteen parte-hartze aktiboa sustatuko dugu bizitzaren esparru guztietan (kulturan, aisian, politikan, ekonomian...).
- Euskadiko IV. Gazte Plana prestatuko dugu, gazteen eta kolektiboen parte-hartze protagonistatik abiatuta.
- 16 urterekin hauteskunde-eskubide aktibo eta pasiboak baliatzeko adin-nagusitasuna errekonozitzea defendatzen dugu.
- Beken finantzaketa handituko dugu Europako mailetara iritsi arte, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak nabarmenduta eta arrazoi sozioekonomikoengatik beka eskuratzeko aukera ezarrita, baliabide gutxien dituzten biztanleria-tarteetara iritsiko direla bermatzeko.

- Hezkuntza-sisteman 18 urte bete arte irautea sustatuko dugu, hezkuntza-laguntzako ibilbide eta programa askotarikoekin, alternatiba errealak izan daitezen.
- Gazteen Emantzipaziorako Informazio Bulego bat garatuko dugu. Bulegoak zentralizatu egingo du etxebizitza bat, edozein modalitatetan, eskuratu nahi duten edo eskuratu duten gazteen eskubide eta betebeharrei buruzko informazio eta aholkularitza.
- Euskal gazteei zuzendutako informazio- eta dibulgazio-estrategia bat diseinatuko dugu dauden eta etorkizunean izango diren zerbitzu, prestazio, laguntza eta onuren inguruan. Horretarako, sare sozialak (WhatsApp, Instagram, Facebook, Twitter...) integratuko dituen multikanal bat erabiliko dugu, Hezkuntza Sailarekin koordinatuta, ikasgelak hedabide gisa erabiltzeko.
- Sail guztietako (etxebizitza, enplegua, kontsumoa...) informazio guztia bilduko duen app bat sortuko dugu 16 eta 35 urte bitarteko biztanleentzat.
- Emantzipa programa (gazteei alokairurako laguntza emateko programa) egungo 24 hilabetetik 48 hilabetera eta 300 eurotik 600 eurora zabalduko dugu, zifra hori errealagoa delako eta Euskadiko etxebizitzaren eta bizitzaren kostuetara egokitzen delako. Eta laguntza jasotzeko adina 35 urtera arte luzatuko dugu.
- Biztanle gazteei zuzendutako zerga-kenkariak handituko ditugu.
- Doako garraio-abonu bat ezarriko dugu 35 urte arteko gazteentzat, Euskadi osoan balioko duena, eremu bakartuen eta hiri handien arteko desberdintasunak saihesteko tarifa-sistema integratu batekin.
- Unibertsitate-zentroetara doazen autobusen maiztasuna aztertuko dugu, unibertsitateetara joateko puntako orduetan autobusen maiztasuna areagotu behar den ala ez erabakitzeko.
- Genero-edukiak, feminismoak eta maskulinitate berriak indartuko ditugu hezkuntza-sisteman, etapa eta maila guztietan, lanbide-hautua genero-ikuspegirik gabe alderantzikatzeke.

- Ikastetxe publiko guztietan 16 eta 35 urte bitarteko gazteentzat kulturaren doakotasuna deklaratu dugu.
- Gazteentzako zuzkidura-etxebizitzaren eskaintza zabaltzeko beharrari erantzun diogu.

Adinekoak

Adinekoentzako hurbileko zainketak

- Sare komunitarioak eta garraio publiko iragarria eta eskuragarria bultzatu ditugu.
- Adinekoentzako etxebizitza-sare bat sortu dugu: Cohousing Senior, belaunaldien arteko etxebizitza partekatua, tutoretzapeko etxebizitzak eta abar.
- Osasun-zentroetako arreta-ratioen egokitzapena berrikusiko dugu, hurbiltasuneko osasun-eredu bat ahalbidetzeko, eta, baloratzen den kasuetan, etxeko bisitak bultzatzeko.
- Adinekoentzako arreta-zerbitzu guztietan zaintzaileen lan-eskubideak duintzeko akordio soziala bultzatu dugu.
- Podologoak eta logopedak jarriko ditugu 65 urtetik gorakoentzako osasun-zentroetan.

“Romoko Nagusien Etxea”

Romoko Nagusien Etxearen esperientzia zahartze aktiboko eredu baten paradigmatikoa iruditzen zaigu, politika instituzionalen bidez sustatu eta babestu behar dena.

Zenbait zentro pilotu experimental irekitzea proposatzen dugu. Zentro horien helburu nagusia zahartze osasuntsua, integrala eta aktiboa eskaintzea izango litzateke, eredu komunitario baten autoantolaketan oinarrituta. Eredu horrek, oro har, adinekoen behar guztiak ase beharko lituzke: eguneko zentroa; arreta medikoa, osasun-arreta (funtzio hori OLT batek beteko luke). logopeda, erizaintza eta medikuak. Lehen mailako osasun-arretaren iragazki-lanak egingo lituzke. Adinekoen osasun-jarraipena egiteaz arduratuko litzateke: fisioterapia, podologia, ile-apainketa; gizarte-laguntzailea (bere misioa izango litzateke adinekoak nola bizi diren jakitea, haien bizi-baldintzak zein diren ezagutzea: bakardadea, laguntzaileak, bizilagunak, senideak...); kultura-arreta; kirol-jarduera eta ariketa fisikoak; jarduera ludikoak eta jaietakoak, aisia eta astialdia. Demokrazia partizipatiboa eta autogestioa izango dira zentro horien funtzionamendua gidatuko duten printzipioak, bertan parte hartu nahi duten pertsonak abiapuntu hartuta.

Parte-hartze soziala, politikoa eta komunitarioa

- Herritarrek parte hartzeko programa integral inklusibo bat ezarriko dugu. Programa hori honako zutabe hauetan oinarrituko da:
 - Parte hartzeko bide errazak eta herritarrengandik hurbilak
 - Auzoetan eta herrietan norbanakoen parte-hartzea erraztuko duten espazioak eta plataformak ezartzea, pertsona bakoitzari bere ideia eta ikuspegiekin bere esperientzia eta testuingurutik bertatik ekarpenak egiteko aukera emanez. Horrek barnean hartuko lituzke auzoko bulegoak, herritarren batzarrak eta herri-kontsultak.
 - Eztabaidarako eta adostasunerako guneak bermatzea: Interes komuneko gaiak eztabaidatu eta tartean diren eragileen artean adostutako konponbideak bilatuko dituzten eztabaidaguneak irekitzea, parte-hartze eraginkorra eta adierazgarria ziurtatuz.
 - Baliabideen bidez, tokiko elkarteak eta erakundeak sortzea eta indartzea bultzatzea, komunitatearen interesak eta kezkak hainbat eremutan ordezkatzeko. Elkarte horiek herritarrek parte hartzeko eta arazo zehatzen konponketarako bideak izan daitezke.
 - Teknologia erabiltzea ideiak partekatzeko eta pertsona gehiagorengana iristeko, partaidetza inklusiboa eta askotarikoa ziurtatuz.
- Adinekoen aldeko kanpaina instituzionalak egingo ditugu, gizartearen esparru guztietan presentzia izan eta parte har dezaten.
- Informazio-kanpainak egingo ditugu, adinekoentzako baliabideak eta zerbitzuak gainerako herritarren baldintza berberetan eskuratzeko modukoak izan daitezen.
- Egoitzetako langileek, egoiliarrek eta horien familiek egoitza-zentroen kudeaketa- eta erabaki-esparruetan elkarrekin parte hartzea bultzatuko dugu. Horretarako, egoitza guztietan partaidetzarako kontseilu bat sortzea sustatuko dugu.
- Berriz formulatuko dugu Elkarriketa Zibilerako Mahaia arautzen duen dekretua, emakumeen eta zainketen elkarteak sartzeko.

- Egoitzetako erabiltzaileen eta senideen kolektiboen proposamenak eta eskariak kontuan hartzeko eskubidea gauzatuko dugu, haiei eragiten dieten erabaki politiko guztietan eta zerbitzuen eta zentroen eguneroko kudeaketan.

Adinekoentzako egoitza-zentroak

- Euskadiko egoitza-zentroak arautzen dituen dekretua lehenbailehen berrikustea planteatzen dugu, honako eskumen hauekin:
 - Egoitza sortu berriek gehienez ere 50 plaza izango dituzte, dekretuak planteatzen duen 150 plaza arteko makroegoitzen politikaren aurka.
 - Egoitzetan izandako irregulartasunen kasu ugari ezagutu ditugunez, egoitzen ebaluazioa eta ikuskaritza areagotzea planteatzen dugu. Egoitza-zentroen kalitatearen ebaluazioa urtero egin behar da, gutxienez, eta ez hiru urtean behin, planteatzen den bezala, asistentziaren eta gauzatzen diren prestazioen kalitatea duina dela bermatzeko, eta, bestela, neurri egokiak lehenbailehen hartzeko. Gainera, egoiliarrek eta senideek zuzenean parte hartu behar dute eginkizun horretan.
 - Ikuskaritza funtsezko funtzioa da gizarte-zerbitzuetan, eta ez da eraginkorra eta arduratsua izaten ari egoitzen jarduerari dagokien funtzioetan. Ikuskari kopurua handitzea proposatzen dugu, 30 egoitzako ikuskari bateko (1) ratioa lortzeko. Era berean, goi-ikuskaritzako langile kopurua areagotzea proposatzen dugu, gaur egun pertsona bat eta erdi besterik ez baitago EAEko lurralde-esparru osorako.
 - Adinekoen funtzio eta behar guztietarako behar diren profesional guztiak bermatu behar dituen diziplinarteko taldearen osaerak hainbat gabezia larri ditu, eta bi hauek aipatuko ditugu: lehenenik, logopedaren figura, irensteko arazoei eta mintzamen- eta komunikazio-arazoei aurre egiteko (kalkuluen arabera, egoitzetan sartutako 65 urtetik gorako pertsonen % 40 eta mendekotasun-maila larriak dituzten adinekoen % 80 hartzen dituzte eraginpean). Bigarrenik, hiru lurralde historikoetako erizainen elkargoek egindako erreklamazioen berri ematen dugu; izan ere, dekretu berriak erizainaren eta erizaintzako laguntzailearen figura profesionalak parekatzen dituela salatzen dute.
 - Era berean, salatu nahi dugu dekretuak egoitza-zentroetan adinekoen aurkako tratatu txarrak saihesteko planteatzen duen estrategia langile guztiei etikaren eta tratatu onaren inguruko prestakuntza ematea dela (hori iraingarria da lan-baldintza zailak dituztela eta

profesionalki buru-belarri aritzen direla kontuan hartuta), baita familiak sentsibilizatzea ere. Uste dugu premiazkoa dela kontrolerako neurri eta protokolo serioak hartzea, lehen aipatutako ikuskaritza indartzea eta langileen ratioak handitzea arreta egokia emateko.

- Dekretu-zirriborroak 365 eguneko eta 24 orduko arreta proposatzen du, eta gaueko eta asteburuetakoko arreta arautzen du. Baina horri funtsezko bi neurri falta zaizkio, hala nola arreta presentziala, telelaguntzarekin eta bitarteko digitalekin ordeztzen dena (ulertezina adinekoekin eta mendekotasuna dutenekin), eta profesional/erabiltzaile ratioak handitzea, pandemiaren aurreko berberak izaten jarraitzen baitute (2019ko dekretua), eta horiek handitzea exijitzen dugu, 2 egoiliarreko langile bateko (1) ratioa lortu arte.
- Familiak eta erabiltzaileak egoitza-zentroetako ordezkaritza-, zuzendaritza- eta kudeaketa-organoetan sartzea exijitzen dugu, parte-hartze erreala eta protagonista modukoa izan dezaten zentroaren kudeaketan, antolaketan eta funtzionamenduan.

Pentsio duinen sistema publikoa

ELKARREKIN PODEMOSen banaketako pentsio publikoen sistema batean oinarritutako Gizarte Segurantzaren eredu baten aldeko konpromisoa adierazten dugu, eta kapitalizazio-sistemen sustapena baztertzen dugu. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzaren eskumenetan oinarrituta, pentsioen sistema publikoa blindatzea bultzatuko dugu, baita honako neurri hauek ere:

- Euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordezkaritza sindikalarekin negoziatuko dugu, ahalik eta lasterren Eusko Jaurlaritzak funtzionarioen BGAE-ei ekarpenak egiteari amaiera emateko, eta soldata-baldintzak konpentsatzeko hobekuntzak negoziatuko ditugu.
- Lurralde historikoetako Batzar Nagusietan sustatuko dugu aurrezteko pizgarri fiskal guztiak kenduko dituen erreforma fiskala, bereziki pentsio-planen, BGAE-en eta gizarte-aurreikuspeneko beste sistema osagarri batzuen bidez aurreztea sustatzen dutenak.
- EAEko aurrekontu orokorraren funts publiko propioekin handitzeko behar diren mekanismoak garatuko ditugu, Europako Gutun Sozialak pentsioei buruz emandako gomendioak betez, pentsioen osagarri indibidualen bitartez bermatzeko Euskadin pentsioen eta pentsioetarako

osagarrien batukaria batez besteko soldata haztatuaren % 60ko gutxieneko zifrara iristen dela: gutxieneko pentsioak bizitza duina bermatu behar du.

- Nolanahi ere, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezarriko dugu, pentsiodunen kolektiboaren erreklamazioekin bat etorritz.
- Pentsioen zenbatekoaren igoera eta eguneratzea sustatuko dugu, kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera.
- Behar diren erreformak bultzatuko ditugu, pentsioak ezin egon daitezen, ezein kasutan ere, lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik (LGSaren % 110 ezkontidea ardurapean duten pentsiodunentzat), Europako Gutun Sozialak pentsio publikoei buruz emandako gomendioak betetzeko.
- Jasangarritasun-faktorea ezabatuko dugu eta pentsioen erreserba-funtseko dirua erabiltzeko debekua ezarriko dugu.

Zahartze aktiboa eta osasuntsua

- Gailuak eta tresnak sortuko ditugu, pertsonak, lan-bizitza amaitzean, bizi diren gizarteko kide aktibo izaten jarrai dezaten eta haien parte-hartzea susta dezaten. Zahartze aktibo eta osasuntsurako euskal estrategia bat bultzatzea proposatzen dugu, bereziki adinekoek esparru guztietan (soziala, kulturala, ekonomikoa eta politikoa) benetan parte har dezaten, pertsonen arteko berdintasuna bermatuz bizi-ziklo guztietan.
- Zahartzea Ikertzeko Euskal Zentroa sortzearen aldeko apustua egingo dugu, zahartze osasuntsua bermatuko duten eta zahartzaro duina eta osasuntsua bermatzeko maila sozioekonomikoan behar diren aldaketak bideratuko dituzten politika publikoak garatzeko ikuspegi estrategiko baten alde egiteko. Zentro horren orientazio politikoak ez ditugu planteatuko Silver Economyren profil ekonomizista batetik, alor publikoaren zentralitatetik eta arretaren kalitatetik baizik. Ikerketa-zentro horrek bat egingo du Euskadiko Ikerketa Zentroen Sare Publikoarekin.
- Konpainian hiltzeko eskubidea defendatuko dugu. Zainketa aringarrietako ospitaleek edo heriotza-arriskuko pertsonen unitateek kaltetutako pertsonarekin behar den denboran laguntzaile bat hartzeko baliabideak izango dituzte.

- Bitarteko zainketetarako erabilgarri dauden oheen kopurua handituko dugu. Asistentzia-laguntza eman behar zaie arazo kronikoak dituzten herritarrei, zainketa-eskakizun handiak dituztenei, espezializatuak ez direnei, era askotako inguruabarren ondorioz haien etxean eman ezin direnean.
- Osasun-koordainketa berreskuratzeko diegu pentsiodun guztiei, eta Osakidetza finantzatzeko tratamenduak doan izango dituzte.
- Adinekoen Eskubideen aldeko Nazio Batuen Konbentzio baten erreklamazioa babestuko dugu, gizarte-erakunde ugariak sustatua.

15.2. Inklusio eta babes soziala

Mendekotasuna

- Abenduaren 14ko 39/2006 Legea (autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa) aldatzen duen lege-aurreproiektua Diputatuen Kongresuan onartzea exijituko dugu. Estatuaren esparrutik eskubideak, estaldurak eta prestazioak areagotuko dira, arau berriak zerbitzu, laguntza eta prestazio duinak berma diezazkien status hori aitortuta duten pertsona guztiei. Eta konpromisoa hartzen dugu tramiteak arintzeko eta behar duten pertsonentzat eraginkor egiteko behar diren bitarteko guztiak jartzeko.
- Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko Euskal Legearen erreforma eta garapena sustatuko dugu, mendekotasuna duten pertsonentzako iraupen luzeko zainketa-sistema unibertsal, publiko, duin eta nahikoa bermatzeko. Sistema horrek haien autonomia funtzionala bermatuko du, familiako beste kide batzuen zainketa informalaren mende egon gabe, kideok ia beti emakumeak izaten dira-eta.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetarako sistema koordinatua sustatuko dugu, maila anitzeko lankidetzan, mendekotasunaren arloan eskumena izango duena, administrazio-auzotasuna diskriminazioa eragiten duen faktorea izan ez dadin mendekotasunaren arloan erabilgarri dauden zerbitzuei dagokienez.
- Itxarote-zerrendak legealdi bakar batean desagerrarazteko talka-plan bat sortuko dugu, mendekotasun-egoera aitortuta dutenei prestazioak eta zerbitzuak emateko.

- Diru-sarreraren aldagaia sartuko dugu koordainketa-sisteman, baliabide urriak dituzten familia askok mendekotasunaren arretarako zerbitzu batzuei uko egin behar ez diezaieten.
- Egoitza-zentro publikoetan plazak bermatuko ditugu II. eta III. graduako mendekotasun aitortua duten euskal herritar guztientzat. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak (ZLPE) pixkanaka kentzearen alde lan egingo dugu, eta Gizarte Zerbitzuen Legeak zuzeneko kudeaketa publikoko eredu mistoa nagusitzearen alde egin dezan, gizarte-ekimenaren bitartez.
- Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoan katalogoko zentro-mota bakoitzerako planteatutako hurbiltasun-maila indartu eta areagotu egingo dugu (hurbiltasun altukoak oso altura, hurbiltasun ertainekoak altura, eta horrela ondoz ondo...), arreta komunitarioaren eredua indartze aldera, bereziki azpimarratuz kategoria guztietarako eguneko zentroak (mendekotasuna, inklusioa...) eta adinekoentzako, desgaitasunerako eta emakumeentzako egoitza-zentroak.
 - Etxeko arreta-zerbitzuari dagokionez, honako honen alde egiten dugu:
 - Etxeko laguntza-zerbitzua birdefinitzea. Aurrerantzean, Etxeko Zainketen Zuzeneko Arreta Zerbitzua izango da, eta mendekotasun-maila guztiaz arduratuko da, kalitatezko zainketak eta zaintzaileentzako atsedenaldiak bermatuko dituen aldi berean.
 - Diziplinar-teko zainketa-talde profesionalak osatzea, etxeko arreta-zerbitzu hori emateko.
 - Erabiltzaile bakoitzeko arreta-orduak gehitzea, benetako zaintza-premiei dagokienez, eta etxeko zainketen ikuspegi integralago batetik egiten dituen lanak areagotzea.
 - Orain arte etxeko langiletzat jo direnak lan-baldintza duinetan kontratatuko direla bermatzea.
 - Etxeko arreta-zerbitzuari dagokionez, EAE osorako baldintza orokor unibertsalak ezartzea, zerbitzuaren lan-baldintzetan eragina duten kontratazio-agiriak idaztean nahitaez bete beharrekoak.
 - Familia zaintzaileei laguntzeko estrategia soziosanitarioaren esparruan, erakundeek laguntzaren intentsitatea handitzeko konpromisoa hartzen dugu, bereziki laguntza ekonomikoari eta atsedenaldi-sistemari dagokienez.

- Familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoak eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak bateratzea sustatuko dugu, zainketen prestazio ekonomiko bat sortzeko. Prestazio horren zenbatekoa (LGStik beherakoa ez) nahikoa izango da zainketa-lan formala (hirugarren bat kontratatuta) eta informala (familiakoek egiten badute) modu duinean ordainduta egongo dela bermatzeko, eta orain arte etxeko langiletzat jo direnak lan-baldintza duinetan kontratatzeko bermea izateko.
- Lan-prekaritatearen aurkako Plan bat jarriko dugu abian zainketa-sektore feminizatuetan, hala nola egoitzetan edo etxeko laguntza-zerbitzuetan eta etxeko langileen artean.
- Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoaren esparruan, Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren “Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako zentro eta zerbitzuen egiaztapen- eta kalitate-irizpide komunei buruzko” akordioaren baldintzak integratzeko eta hobetzeko lan egingo dugu.

Desgaitasuna

Dibertsitate funtzionalaren arloko programa bat aurkezten dugu, dibertsitate funtzionala duten pertsonak beren bizitzaren eta erabakien jabe izan daitezen sustatuko duten politiken premian zentratzea proposatzen duena, estereotipoen, oztopoen eta kolektiboak jasaten duen diskriminazioaren aurka borrokatzen den aldi berean. Dibertsitate funtzionalari buruzko politikek sustatu behar dute pertsona eta bere erabakiak hartzeko eskubidea izan dadila eztabaida guztiaren erdigunean dagoena: behar-beharrezkoa da kolektiboaren diskriminazioa eta infantilizazioa amaitzea, eta hori posible izango da dibertsitate funtzionala duen pertsona bere bizitzaren eta erabakien jabe denean. Horretarako, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Modu efektiboan betearaziko ditugu irisgarritasun unibertsalaren arloko lege-manuak. Zerbitzu eta espazio publiko guztietarako (kaleak, plazak, garraioa, eraikinak, osasuna, hezkuntza, aisia...) irisgarritasun unibertsala (fisikoa, sentsoriala eta kognitiboa) baldintza-berdintasunean lortzeko estrategiaren aldeko konpromisoa.
- Edozein diskriminazioren aurka borrokatzeko neurriak garatuko ditugu.
- Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia garatuko dugu eta Irisgarritasun Kognitiboaren I. Plana hedatuko dugu.

- Euskadiko garraio publiko osoak irisgarritasun-baldintzak beteko dituela bermatuko dugu.
- Garraio publikoan desgaitasuna duten pertsonen laguntzen dien pertsonaren doakotasuna deklaratu dugu.
- “IL” osasun-txartelaren sistema ezarriko dugu (zenbait autonomia-erkidegotan erabiltzen dute jada). Osasun-zerbitzuak erabiltzen dituzten herritarren artean, oro har, zaurgarritasun handiagoko egoeran dauden pazienteak daude, eta zerbitzuetara iristeko eragozpenak izan ditzakete. Horrek eragin negatiboa du pertsona horien egoera emozionalean eta jokabidean. Beren beharretara egokitutako laguntza bermatzeko, “Irisgarritasuna eta Laguntza” esan nahi duten IL letrak inprimatuz identifika daitezke osasun-txartelak.
- Eskubideak eta zerbitzuak irispidean izatearen unibertsalizazioa sustatu dugu pertsona guztientzat, betiere aniztasunarekiko errespetua eta arreta oinarri hartuta. Eta horretarako, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen zorroan jasotako zerbitzu espezifikoak kolektibo horrentzat hedatu direla ziurtatu dugu.
- Dekretu espezifikoaren bitartez garatu dugu desgaitasuna duten pertsonentzako Euskadiko Zorroaren zerbitzuak (eguneko zentroak, zentro okupazionalak, eguneko arreta...).
- Bizimodu independentearen ereduaren arau-garapena bultzatu dugu. Eredu hori Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan (NBE) aitortu zen, eta Euskadiko Elkarrikeria Zibilerako Mahaian adostu zen, “Euskadin desgaitasun-egoeran dauden pertsonentzako bizimodu independentearen ereduaren oinarriak ezartzeko egindako diagnostikoa” dokumentuaren bitartez.
- Dibertsitate funtzionalaren inguruko herritarren partaidetzarako organoak sustatu dugu, eta interesa adierazten duten pertsona taldeak eta/edo elkarteak integratzeko ahalmena eta pertsona guztien eskubideen aurkako politikei betoa jartzeko gaitasuna emango diegu.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako irispidea bermatu dugu. Horretarako, komunikazio-oztopoak edo oztopo arkitektonikoak ezabatu dugu, eta erakunde-komunikazioan zeinu-hizkuntza, irakurketa erraza eta piktogramak erabiltzea sustatu dugu.
- Indarkeria matxistaren biktimak babesteko neurrietarako irispidea bermatu dugu, behar diren mekanismoak dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat egokitzea bilatuz.

- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen egungo eskubide subjektiboak eta, zehazki, Etxebide - Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua eta gizarte-prestazioak irispidean izango dituztela bermatuko dugu.
- Desgaitasunaren eta, hala badagokio, mendekotasunaren balorazioa irispidean izatea eta kolektibo horren eskubideak betetzea bermatuko dugu, eta, era berean, balorazio horiek lortzeko 3 urteko itxaronaldia kenduko dugu.
- Konpetentzia teknikoei buruzko prestakuntza emango diegu lan-kontratuko teknikariei, bitartekoei edo funtzionarioei, dibertsitate funtzionala duten pertsonen era guztietako administrazio publikoetan arreta egokia emango zaiela bermatzeko.
- Zeinu-hizkuntzaren interpretazioaren implementazioa sustatuko dugu euskal telebista publikoaren ikus-entzunezko komunikazioan, baita Eusko Jaurlaritzak sustatutako kultura-programazioan ere.
- Enplegua eskuratzeko eta lan-munduan txertatzeko plan autonomikoa onartuko dugu, honako neurri hauetan oinarritua:
- Enplegu publikoko zein sektore pribatuko enpleguko programak sustatuko dituzten neurriak garatzea, enplegu babestuaren programen aurretik enplegu lagundua lehenesten dutenak, dibertsitate funtzionala duten pertsonen premiak eta lehentasunak kontuan hartuta.
 - Lan-espazioen irisgarritasuna bermatuko duten neurriak garatzea lan-eskaintza publikoetan eta lan-merkatu arrunteko lan-espazioetan.
 - Lanbiden lan-ildo espezifiko bat garatzea, dibertsitate funtzionala duten pertsonen premien araberako eskaintzak abian jartzeko egokia den enplegurako prestakuntza garatzeko.
 - Enplegu publikoaren arloan, desgaitasun funtzionala duten pertsonentzako enplegu-erreserbaren gutxieneko kuota igotzea EAEko administrazio publikoan eta mendeko organoetan.
- Hezkuntza inklusiboa sustatzeko Euskal Estrategia sustatuko dugu, honako hauek jorratuko dituenak: curriculum-mailan hezkuntza zeharka garatzea, oztopo arkitektonikoak kentzea,

eta hezkuntza-komunitatea egokitzea dibertsitate funtzionala duten haurrak eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak goi-mailako hezkuntza-graduetan sustatzeko eta errespetatzeko.

- Euskadin dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta emateko eta osasun unibertsala irispidean jartzeko plan autonomiko bat onartuko dugu, honako hauek bilduko dituenak:
 - Oztopo arkitektonikoak kentzea eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen osasun-sistemako zerbitzuak irispidean izango dituztela bermatzeko behar diren laguntza teknikoak inplementatzea eta egokitzea.
 - Euskal osasun-zerbitzuetan informazio orokorra irispidean izatea, baita tramiteak eta laguntza ere, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, talde profesionalen prestakuntza sustatuz, behar den dokumentazioa zeinu-hizkuntzara edo brailera egokitzeke.

Inklusio, justizia eta babes soziala

Pobreziaren eta esklusio sozialaren aurkako borroka

- Pobreziaren, Esklusioaren eta Desberdintasun Sozialaren aurkako Ituna gauzatuko dugu, Lehendakariak esleitutako aurrekontua, ildo estrategikoak eta plangintza izango dituen, eta 2030 Agendaren eta Garapen Jasangarrirako Helburuen 1. helburuarekin bat etorriko dena. Gabezia materialak, esklusioak eta desberdintasunak gero eta eragin larriagoa dute Euskadin politika publikoetatik kanpo geratzen den biztanleria-sektore batean. Haien egiturazko kausei ikuspegi global eta integraletik (ez soilik errealitate horien ondorioetan esku hartuz) aurre egiteko herrialde-erronka geure gain hartu behar dugu, hirugarren sektore sozialaren laguntzarekin.
- Ziurtatuko dugu esparru ekonomiko, fiskal eta laboralean hartutako neurri guztiek inpaktu sozial positiboa dutela, sozialki progresiboak eta birbanatzaileak direla eta Euskadin dagoen desberdintasun-maila murrizten laguntzen dutela.
- Gizarte-politiken aurrekontua kontingentzia eta estaldura guztietan handituko dugu.
- Euskadin aitortutako eskubide subjektiboen estaldurari, horien benetako aplikazio- eta gozamen-mailari eta horien hedapen eraginkorra hobetzeko neurriei buruzko azterlan bat garatuko dugu.

- Euskadin errotik borrokatuko dugu pobretzea sortzearen aurka; etxebizitza-politikak eta kontrol-mekanismoak erabiliko ditugu, funtsezko zerbitzu publikoen operadoreek (elektrizitatea, gasa, ura, telefonia) diru-sarrera txikiak dituzten familiei zerbitzuok eskuratzea eragozten dieten tarifak aplika ez ditzaten.
- Erakundeen artean artikulatutako politika publikoak izango direla bermatuko dugu, Gizarte Babeserako Euskal Sistemari pertsonen autonomiari harrera eta laguntza emango diotenak, lurraldeen arteko berdintasuna bermatzeko, eta EAEn bizi zaren lekuaren arabera eskubideak irispidean izateko aukera desberdina izatearekin amaitzeko.
- Politiken koherentziari buruzko euskal lege bat sustatuko dugu, sistema eta espazio instituzional guztiak 2030 Agendarekin bat etorriz artikulatuko dituenak, maila anitzeko politikei, sektore arteko politikei eta gizarte-babeserako politikaren jarduketari instituzional osoaren zeharkako ikuspegiari helduz.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Publikoa ('Gizartekidetza')

- Euskadin gizarte-babeserako erakundeen arteko sistema publikoa defendatuko dugu, hiru lurraldeetako bakoitzean eta lurraldeen artean eskubideak, zerbitzuak, baliabideak eta prestazioak berdinduko dituenak. Gizarte-zerbitzuak irispidean izateari dagokionez, Euskadiko herritar guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatuko dugu. Hiru lurralde historikoetan eskumenak eta funtzionamendua modu homogeneoan garatzea proposatzen dugu, herritarrek beren eskubideak bermerik handienekin egikaritzeko aukera izan dezaten.
- EAEn bizi diren pertsona guztiei eskubidez dagozkien gizarte-zerbitzuen zorroa lurralde osoan eta zerbitzu edo prestazio bakoitzaren arduraren duten erakunde guztien aldetik eraginkortasunez hedatuko dela bermatuko dugu.
- Zorroari buruzko dekretuaren hedapenari buruzko datuak biltzeko urteko eragiketa bat erreibindikatu dugu, lurralde osoan gizarte-prestazio eta -zerbitzuei dagokienez, Eusko Legebiltzarrean aurkez dadin, egin eta hurrengo hiruhilekoan baloratzeko.
- Gizarte-politikak ebaluatuko ditugu, pertsonentzako arreta giza eskubideen, errespetuaren eta enpatia-ikusez egiten dela bermatzeko, eta pertsonen autonomia bultzatzeko. Gizarte-politika kalitatezkoen eta pobreziaren aurkako borrokan efizienteen oinarriak ezarriko dituen ebaluazioa egingo dugu.

- Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoaren indarraldian egiten diren ebaluazio guztietan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bitartez eskainiko diren zerbitzu eta prestazioen hartzaileek parte hartuko dutela ziurtatuko dugu, eta euskal administrazioek abian jarritako politika publikoen hobekuntzan haiek duten balioa errekonozituko dugu.
- Gizarte-zerbitzuen zorroari buruzko dekretuaren ebaluazioa sustatuko dugu, plaza kopuruaz eta egikaritutako gastuaz bestelako gako gehiago sar ditzan, hala nola kalitatea eta eskaria; generoaren eta interseksionalitatearen ikuspegia behar bezala aplika dezan; pertsona guztien eskubideak aitortzen direla bermatzeko eta inplikaturako eragile guztien parte-hartzea errazteko: erabiltzaileak, senideen elkarteak, profesionalak, sindikatuak, Eusko Legebiltzarrean dauden talde politikoen ordezkariak, emakumeen eta feministen erakundeak, hirugarren sektorea...
- Maila guztietako erakundeen (udalak, aldundiak eta Eusko Jaurларitza) eta gizarte zibilaren arteko partaidetzazko hausnarketa-prozesua sustatuko dugu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema ebaluatu eta hobetzeko.
- 2008ko Legea hobetu eta berrituko duen Gizarte Zerbitzuen Lege berri bat onartuko dugu, eta gauzatzeko dauden zorroko zerbitzueta bakoitza arautzeko dekretuak garatuko ditugu.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantzaketa handituko dugu, behar diren erreformek aurrera egiteko funtsezko elementua baita. Proposamen horrek alde aurreko urrats bat du, lehendik dauden zerbitzuak ebaluatzea eta dauden baliabideak optimizatzeko azterketa bat egitekoa, funtzionamendu egokia bermatzeko.
- Euskal unibertsitateetako ikerketa-taldeek eta Behatuz - Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiak gizarte-politikei buruzko azterlanak ikertzeko eta argitaratzeko lana indartuko dugu, langileekin, finantzaketarekin, bitartekoekin eta apustu politikoarekin. Gizarte-problematikak behatu eta diagnostikatu ditzaketen zerbitzuak indartzearen aldeko apustua egiten dugu, eta euskal administrazioei beharrezko baliabideak emango dizkiegu gizarte-egoeren gainean eragin dezaten, horiek esku hartu beharreko arazoak ekarri aurretik.
- Berriz formulatuko dugu gizarte-zerbitzuen maparen planteamendua, hiru probintzietako gizarte-zerbitzu guztiak kontuan hartuta, eta zerbitzuak ez dauden lekuetan sortzearen aldeko apustua egingo dugu.

- Langile gehiago jarriko ditugu (batez ere oinarrizko gizarte-zerbitzuetan), gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten herritarrei laguntza teknikoa emateko, eta udalei eta foru-aldundiei behar den finantzaketa eskuratzen lagunduko diegu.
- Nolanahi ere, tokiko ingurunea eta herritarren beharrak errespetatuko dituzten gizarte-zerbitzu ekitatiboen egitura bermatuko dugu.
- Talde psikosozialak (diziplina anitzekoak) arautu eta zabalduko ditugu lehen eta bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuetan, eta ahalegin berezia egingo dugu psikologiako eta gizarte-laneko figura profesionalak indartzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren mendeko leihatila bakarreko bulego bat sortzea sustatuko dugu, herritarrentzako prestazioei eta laguntzei buruzko informazioa emateko eta Euskadiko gizarte-zerbitzuen irispidearen eta kudeaketaren inguruan izan daitezkeen erreklamazio, informazio eta kontsultetarako.
- Berriz formulatuko dugu Elkarrizketa Zibilerako Mahaia arautzen duen dekretua, kopuru mugatuak (numerus clausus) kentzeko, mahaia beste erakunde batzuetara irekitzeko, eta bere irizpenen nahitaezko izaera ezartzeko. Ekonomia sozial eta solidarioa ordezkatzeko duten erakundeen parte-hartzea sustatuko dugu sustapen ekonomikoarekin, enpleguarekin, gizarte-politikekin (Elkarrizketa Sozialerako Mahaia, aholku-kontseiluak, Lanbide bezalako organo publikoetako administrazio-kontseiluak eta abar) zerikusia duten esparru instituzionaletan.
- Elkarrizketa zibilerako mahaitik haratago joango diren erakundeen eta gizarte zibilaren arteko partaidetzarako eta elkarrizketarako 'zubi' moduko organoak sortuko ditugu, gizarte-zerbitzuak eta horiek abian jartzea erregulatzen dituen araudiaren funtzionamendua, zerbitzuen funtzionamendua eta Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailaren gainbegiratua baloratzea ahalbidetuko dutenak, herritarrentzat modu bermatzailean funtzionatzen ari ez diren zerbitzu berriak proposatu eta sortzeko edo dauden gaiak aldatzeko gaitasunarekin. Era berean, parte hartzeko organo horiek gizarte-zerbitzuen zorroa eta mapa proposatu ahal izango dute, eta, behar izanez gero, ebaluazioan eta aldaketan parte hartu.
- Informazio-, balorazio-, orientazio- eta diagnostiko-zerbitzuak sortzea bermatuko dugu, baita gizarte-larrialdiei arreta emateko zerbitzuak ere, mapan esleitzen den lurralde-banaketan. Arreta 24 ordukoa izango da, langile kualifikatuak izango dira, eta behar adina baliabide

eta konpetentzia izango dituzte gizarte-larrialdiak pertsonentzako soluzio integralen bidez ebazteko. Artatu beharreko gizarte-larrialdiko egoeren artean, arreta berezia eskainiko zaie gizarte-larrialdiko egoerei: etxegabetzeak, indarkeria matxista eta abar.

- Dauden eta sortu berri diren laguntzak eskuratzea erraztuko dugu, beharrezkoak ez diren traba burokratikoak kenduz, sistema zentralizatu eta eskuragarrien bitartez, bai online modalitateetan, bai modalitate fisikoetan, eta auzoko leihatila bakarrak sustatuz, herritarrei arreta pertsonala emateko.
- Gizarte-zerbitzu publikoen giza baliabideak eta baliabide materialak benetan dagoen eskarira egokituko ditugu. Gizarte-zerbitzuak kanpora ateratzea pixkanaka eta etengabe murrizteko eta haien pribatizazio ezkutuari amaiera emateko, erakunde pribatuak beren gain hartutako gizarte-zerbitzuen berri emango dute urtean behin administrazio publikoek.
- Hitzartutako, itundutako eta azpikontratutako zerbitzuak kontrolatzeko, ebaluatzeko eta horien jarraipena egiteko legerian aurreikusitako organoak indartuko ditugu, gizarte-zerbitzuak ematen dituzten enpresetan irabazi-asmorik ez dagoela lehenesteko.
- Klausula sozialen eta kontratazio publikoaren aldeko apustua egingo dugu, balio soziala sortzeko tresnak direla ulertuta. Enplegua sortzeko konpromisoetan, tokiko garapenean, gizarte-kohesioan eta gizarte-erantzukizun korporatiboan (GEK) oinarritutako lehiaketa publikoetan sartzeko klausula sozialen aplikazio efektiboa bultzatuko dugu. Kendu egingo ditugu enpresa horietako batzuen lehiakortasuna eragotzi edo kaltetu dezaketen traba eta baldintza diskriminatzaileak kontratazio publikoko sistemetak sarbidean, eta, aldi berean, erraztu egingo ditugu kontratazio publikoaren araudiaren mende ez dauden eta Europako zuzentzarauetan baimenduta dauden baimen- edo lizentzia-sistemak, gizarte-zerbitzu publikoen edo irabazi-asmorik gabeko erakundeen ardura pekoen kudeaketa hornitzeko.
- Mugatu egingo dugu beren ardura pean dituzten langileentzat indarrean dauden hitzarmen kolektiboak aplikatzen ez dituzten enprekin kontratuak, itunak eta dirulaguntzak sinatzea.
- Sistemen arteko eta sistema barruko kasuen koordinazio egokia, efizientea eta eraginkorra bermatuko duten organoak sortuko ditugu, arreta integrala bermatzeko eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik pertsonak erdigunean jartzeko.

Gizarte-zerbitzuetan koordainketa-politika berrikusi eta aldatu egingo dugu.

- Behar diren lege-erreformak abiaraziko ditugu, Arartekoaren gomendioak Eusko Jurlaritzak nahitaez bete beharreko jarraibide izan daitezzen, eta behar diren neurri teknikoak bultzatuko ditugu, gainerako erakundeek ere nahitaez bete beharreko neurri bihur ditzaten, herritarrek, haien arazoak eta eskubideak erdigunean jartzeko eta erakundeak herritarren zerbitzura egongo direla bermatzeko
- Baliabide gehiago emango dizkiogu Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzari, bere funtzioak garatzeko eta horien artean arretaren kalitatearen ebaluazioa sartzeko, pertsona eta haren harremanak ardatz dituen ikuspegitik. Era berean, foru-ikuskaritzei eskatuko diegu gizarte-zerbitzuen kalitatea kontrolatzeko lanak neurri handiagoan hedatzeko lurraldeetan ikuspegi horrekin.
- Gizarte-inklusioko politikak
- Inklusioaren/esklusioaren esparrua indartzeko konpromisoa hartzen dugu. Horretarako, erabakitasunez egingo dugu apustu zerbitzuak eta plaza kopurua handitzearen alde, zerbitzuetan profesional/erabiltzaile ratioak handitzearen alde, ekipamenduak nabarmen hobetzearen alde... eta mendekotasunari edo desgaitasunari eskainitako zerbitzuen baldintza ekonomikoetara eta baliabideetara hurbiltzearen alde.
- Eusko Jurlaritzaren aurrekontu-partida handituko dugu, udalerriek Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL) irispidean izatea berma dezaten, eskubide subjektibo gisa, diru-sarrerarik ez duten edo diru-sarrera nahikorik ez duten pertsona guztientzat.
- Koordinazioa eta bitartekoak hobetuko ditugu gizarte-esklusioaren aurkako borrokaren esparruan lehen eta bigarren mailako arretaren arteko trantsizio eraginkorra artikulatzeko, arretaren jarraitutasunari eta malgutasunari dagokienez, eta horretarako behar diren baliabideak eta koordinazioa bermatuko ditugu, administrazio eskudunek Gizarte Zerbitzuen Legeak esleitzen dizkien eskumenak egikari ditzaten, lehen eta bigarren mailako arretaren arteko iragaitzan botila-lepoak sortzea saihesteko.
- Malgutasun handiagoa ezarriko dugu gizarte-inklusioko laguntzak eskuratzeko betekizunetan, onuradun izan daitezkeen pertsona guzti-guztiek izan dezaten haien onura eta estaldura lortzeko aukera.

- Auzotasun Dokumentua Eskuratzeko Sistema inplementatuko dugu, gizarte-zerbitzuen sistema irispidean izateko berme gisa. “Guztionezko auzotasuna”. Uste dugu Euskadin bizi diren pertsona guztiek izan behar dutela zerbitzuak eta baliabideak irispidean izateko aukera, haien egoera administratiboa dena dela ere.
- Azterketa sakonak egingo ditugu, gizarte-zerbitzuen “radarretik kanpo” dauden eta zaugarritasun- eta arrisku-egoeran edo gizartetik baztertuta dauden euskal herritar guztiek gizarte-babesa non take-up edo «ez hautematea» ikertzeko.
- Administrazio publikoaren zenbait erakunde eta organotako administrazio-tramiteek eta laguntzen dibertsifikazioak EAEko gizarte-prestazioetarako irispidean duten inpaktuari buruzko azterketa egingo dugu, pertsona batek eskubidez dagokion gizarte-prestazio bat lortzeko bidean aurki ditzakeen oztopo edo arazo nagusiak identifikatzeko.
- Gizarte-esklusioa baloratzeko egungo tresna berrikusiko dugu, baita balorazio hori hiru lurralde historikoetan nola egiten den ere, eta bermatuko dugu balorazio horrek pertsonen beharrei erantzungo diela. Eginkizun horretan, tresna hori sortu zenean kontuan hartu ez ziren gizarte-eragileen gomendioak jaso, berrikusi eta aintzat hartzea baloratuko dugu.
- Maila eta eragile anitzeko gobernantza areagotuko dugu, gidaritza-lanen bat gauzatuz toki mailako politiken koherentziaren bitartez espazio inklusiboak sortzera bideratutako auzo zaugarrien berrurbanizazio jasangarriko proiektu aktiboetan.
- Etxegabetasunaren Arretarako Euskal Plan Estrategiko berri bat proposatzen dugu, euskal erakunde publiko guztientzat loteslea, honako hauek bermatuko dituenak:
 - Euskadiko etxegabetasun-egoeraren diagnostiko eta ikerketa zorrotza, ETHOS tipologian jasotako mota guztiak barne hartuta, eta ikerketa feministaren arloko espezialistekin, emakumeen etxegabetasuna identifikatzeko eta kuantifikatzeko metodologiaren analisi espezifikoak egiteko.
 - Toki-izaerako eta lurralde-koordinazioko zerbitzu-katalogoaren zuzkidura-baliabideak handitzea.
 - Etxegabetasunaren arretarako egoitza-zentroak dekretu bidez arautzea.
 - Estrategian genero-ikuspegia eta etxegabetasun-egoeran dauden emakumeentzako

baliabide espezifikoak sartzeari. Horretarako, bizitegi-esklusioak emakumeengan duen eraginari, haien artean dauden etxegabetasun-moduei eta etxebizitza segurua eta egokia izateko eskubidea bermatzeko estrategia egokiei buruzko azterketa eguneratua egingo da, bizitegi-esklusio larrian dauden emakumeen egoera identifikatzeko, ikusarazteko eta modu proaktibo eta egokian aurre egiteko.

- Emakumeentzako zentro eta zerbitzuetarako plazak esleitzean, etxegabetasuna kontingentzia sozial gisa kontuan hartzea.
 - Lehentasuna emango diegu etxebizitza eskuratzeko estrategia eta laguntzei, baita arreta soziosanitarioari eta kolektiboaren gainerako premiei ere.
 - Etxerik gabeko pertsonen eskubideen inguruan sentsibilizatzeko euskal estrategia garatzea eta abian jartzea.
 - Etxebizitza eskuratzeko gizarte-berrikuntzako neurriak sortuko ditugu, gizarte zibila, erakunde sozialak eta erakundeak eta eraginpeko pertsonak koordinatzeko espazio batean.
 - Etxegabetasunaren arretarako etxebizitza-parke publikoa mobilizatuko dugu.
 - Etxebide - Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua irispidean izatea bermatuko diegu gizarte-esklusioko egoeran edo arriskuan dauden pertsonen, eta, zehazki, etxegabetasun-egoeran daudenei edo egungo baremoen arabera bizitzeko baliabiderik ez dutenei.
 - Helburu eta jomugetarako esleitutako aurrekontua, baita hirugarren sektorearekin batera jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleen sistema bat ere.
 - Benetako eskaria kontuan harturik, Trapezistak programaren aurrekontua eta plazak hirukoiztu egingo ditugu, gazte migranteak integratzeko arrakasta handiko eredua da-eta.
- Berriz planteatuko dugu egungo euskal exekutiboak lanerako erabiltzen duen familiaren eta bizikidetzaren kontzeptua. Izan ere, familia- eta bizikidetzaren eredua berrien errealitatea txertatuko dugu, neurri horiek guzti-guztiak haientzat guztientzat hedatzeko modukoak, eskuragarriak eta egokiak izan daitezen, betiere pertsonen intimitatea eta duintasuna errespetatuz eta eskubideak, bereziki haur eta nerabeenak, indibidualizatzerantz bideratuz.

- Energia eta energia-hornidurak izateko eskubidea bermatuko dugu, funtsezko zerbitzuak baitira. Eginkizun horretan, kontsumitzaile zaurgarriak argi eta garbi definitu eta identifikatuko ditugu, irizpide sozialak eta errenta-irizpideak kontuan hartuta.
- Bizitzeko gutxieneko kontsumoaren adierazle bat ezarriko dugu, eta beherapen progresiboak ezarriko ditugu errenta baxuak dituzten etxeentzat.
- Enpresa hornitzaileen aurrean bitartekotza egingo dugu pertsonen egoera ekonomikoarekin zerikusia duten ez-ordaintzeen ondoriozko etxeetako argi- eta gas-eteteak bertan behera uzteko, betiere ohiko etxebizitza bada. Euskal energia-kooperatibekin akordioetara iristeko aukera aztertuko dugu, Euskadin bizi diren pertsonen hornidura bermatuak eta ikuspegi jasangarrikoak izateko duten eskubidea bermatzeko.
- Gizarte-esklusio larriko egoeran dauden pertsonen Euskadiko baliabide eta zerbitzu publiko guztiak irispidean izango dituztela bermatuko dugu, hirugarren sektorearen laguntzarekin, zainketen metodologia eta ikuspegi espezifikoekin eta kolektiboaren beharretara eta berezitasunetara egokitutako zerbitzu eta baliabideekin.
- Enplegu-programa egokituak jarriko ditugu abian, lan-mundu normalizatura pixkanaka eta pertsona ardatz hartuta egokitzeko behar diren tresnak eta trebetasunak eskuratzen laguntzeko.
- Laneratzeko enpresak sustatuko ditugu, baita kontratazio publikoetan klausula sozialak sartzea ere, obra eta zerbitzueterako lehiatzeko aukera izan dezaten, pobreziaren eta gizarte-esklusioaren aurka borrokatzeko tresna gisa.
- Gizarte-zerbitzuen funtsak eskuratu ahal izateko administrazio publikoekin ordaintzeko ezintasunagatik zorrik ez izatearen betekizuna kendu egingo dugu. Gizarte-larrialdietarako laguntzak funts edo eskubide enbargaezin bihurtu behar dira, eta mota horretako edozein prestazioren gaineko enbargoak edo kobrantzak geldiaraziko ditugu.
- Berriz jarriko dugu indarrean etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria (EPO), etxebizitza izateko eskubide subjektibotik bereiz, eta Etxebide diru-sarrerak bermatzeko errentatik (DSBE) bereiziko dugu.

Baldintzarik gabeko oinarritzko errenta

Aurreko legealdian herritarren 22.075 sinadura jaso ondoren Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako legeegintzako herri-ekimenak Baldintzarik Gabeko Oinarritzko Errenta onartzeko oinarriak ezarri zituen. Horrek goitik behera aldatzen du pobreziaren aurkako borrokaren egungo eredua. Baldintzarik Gabeko Oinarritzko Errentak defendatzen duen paradigma honako hau da: botere publikoek herritar guztiei bermatzen badiete bizitza duin baten proiektua gauzatzeko aukera emango dien diru-sarrera bat, jatorrizko pobrezia ekonomikoa bertan behera uztea lortzeaz gain, askatasun-baldintzak sortuko dira pertsona guztiek, beren bizi-proiektua planteatzeko garaian, bizirik irautea bermatzeko baliabide ekonomikoak beste batzuen mende egon behar izan gabe lortzeko.

ELKARREKIN PODEMOSen babesa ematen diogu proposamen horri, izenpetu egiten dugu eta haren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu. Proposatzen den Baldintzarik Gabeko Oinarritzko Errentak funtsezko ezaugarri hauek ditu: unibertetsala, indibiduala eta baldintzarik gabekoa (diru-sarrerak, ondasunak, enplegua...). Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuek finantzaturako diru-prestazioa da. Prestazioa jasotzeko eskubidea izango dute eskubidea egin aurreko 3 hilabeteetan Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiek. Eskubide hori eskubide subjektibotzat hartuko da, hau da, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuei eragin diezaiekeen edozein inguruabarri nagusituko zaio, eta ukaezina, besterenezina, preskribaezina eta enbargaezina izango da, eta eskubide horretaz egiten den lagapen oro, arrazoa edozein dela ere, deuseza izango da.

Baldintzarik Gabeko Oinarritzko Errentaren finantzaketa Eusko Jaurlaritzaren ardura izango da. Horren zenbatekoak, gutxienez, diru-sarrera baxuen atalasea estaliko du, Eurostat - Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoak definitzen duen moduan, Baldintzarik Gabeko Oinarritzko Errenta jasotzeko eskubide subjektiboa sortzearen bidez.

- Herritarren benetako autonomia- eta askatasun-maila areagotuko dugu lanari, prestakuntzari eta, oro har, bizi-proiektuei dagozkien hautaketetan. Bizi-proiektu horiek jarduera kolektiboetan eta zodiakaletan jarrera parte-hartzaileak eta solidarioak integratzea eta sustatzea nahi dugu, gizarte kolaboratiboago baten bila.
- Orain arte indarrean egon den gutxieneko errenta bermatuen eta baldintzatuen sistema gaindituko dugu, eta prestazio-sistema integratuagoa eta koherenteagoa proposatuko dugu.
- Pobrezia-egoerak eta horiek ugaltzeko zikloa ahalbidetzen duten baldintzak desagerraraziko ditugu.

- Bizirik irauteko erabat edo partzialki laguntza-prestazioen mende dagoen biztanleriaren zati bat estigmatizatzea saihestuko dugu.

15.3. Migratzeko eskubidea

Erakunde eta pertsona migranteek errealitate sozial bat islatzen duen subjektu politikoa eratu dute. Leku askotan jaiotako jendeak osatzen duen subjektu politikoa, zeharkakoa eta askotari-koa, borroka komun baten inguruan artikulatzen dena, erakundeentzat ikusezina. Baina egunetik egunera indar handiagoa hartzen du, eta gure programaren bidez babestu eta indartu egin nahi ditugu haren proposamenak.

- Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren Euskal Legea onartzea izango da gure lehenengo lehentasuna, gizarte inklusibo baten lege-oinarriak ezartzeko, aurreko gobernuak inoiz ez baitzuen bete bere konpromisoa.

Atzeritarrei buruzko Legea

- Estatuan Atzeritarrei buruzko Legea erreformatzeko lan egingo dugu, migrazio-fenomenoei giza eskubideen ikuspegitik helduko dien lege-proiektu baten alde, eta migrazio-bide seguruak ezartzeko.
- Konpromisoa hartzen dugu bermatzeko Euskadin ez dela “berehalako itzulketarik” egiten, eta agintari zibilen eta segurtasun-kidegoen mugako jarduerak zorrotz betetzen dituztela giza eskubideen araudia eta migrazio-fenomenoak aztergai dituzten nazioarteko itunak.
- Migrazioen eskumena Euskadira eskualdatzea soilik lan-arloan ez gauzatzearen alde egingo dugu, hau da, helburua ez dadin izan migranteak enplegatzeko administrazio-egoerak erregularizatzea, giza eskubideen eta bete-beteko herritartasunaren errekonozimenduaren paradigma batean oinarritzea baizik.

Migratorako Euskal Itun Soziala eta Euskadiko Harrera Sistema

- Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna salatuko dugu, baita Euskadiko eta Espainiako politiketan duen isla ere, mugak ixtea eta migranteen eskubideak babesik gabe uztea baitakar. Politika horren aurrean, premiaz eskatzen dugu joan-etorri seguruak bide seguruen eta legalen bitartez egitea eta harrera-gizartean integratzea ahalbidetuko duten araudiak garatzeko.

- Migrazioen Euskal Itunari beharrezko baliabideak emango dizkiogu, gure lurraldean migratutako/iragaitzazko haur eta gazteen babesa ziurtatuko duen Euskadiko Harrera Sistema abian jarriko dela bermatzeko. Migratutako pertsonen giza eskubideak eta bete-beteko herritartasuna izatezko bizilekuaren arabera errekonozitzea izango dira itun hori garatzeko ardatz nagusiak.
- Udalerrietara eta autonomia-erkidegora iritsi berri diren migratzaile eta errefuxiatuentzako informazio-, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzu espezifikoak sustatuko ditugu.
- Honako ezaugarri hauek izango dituen Euskadiko Harrera Sistema eraikiko dugu:
 - Asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonen zein arrazoi ekonomikoengatik migratzen duten pertsonen oinarritzko giza eskubideak babestea.
 - Diziplinarteko esku-hartzeak sustatzea.
 - Arreta pertsonalizatua eta integrala bermatzea.
 - Jarduketa guztietan genero-ikuspegia txertatzea.
 - Arretaren jarraitutasuna bermatzea.
 - Herritarren elkartasunaren eta gizarte-ekimenaren egiten jakitea eta jardunbide egoki guztiak integratzea.
 - Herritarren parte-hartzea bermatzea, bereziki sistemaren erabiltzaileena. Erabiltzaileek sistema ebaluatzeko mekanismoak izango ditu.
 - Prozesu guztietan mugimenduan dauden haurren eta nerabeen behar eta eskubide espezifikoak kontuan hartzea, eta haien interes gorena beti lehenetsiko duten neurriak hartzea.
 - Euskadiko bi hizkuntza koofizialak ikasteko eskubidea bermatzea.
 - Egitura hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Gizarte Zerbitzu eta Prestazioen Zorroaren berrikuspenean txertatzea.

- Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaz ezartzea, baita Espainiako Estatuko eta Europako erakunde-sarearekin ere.
- Nazioarteko babes-sistamarako harrera-plazak indartuko ditugu autonomia-erkidegoan eta toki-mailan, eta arreta berezia eskainiko diegu larrialdi-egoerei. Aldi berean, funtsezkoa da tokiko trantsizio-programak abian jartzea, pertsonen oinarritzko premiak beteta izan ditzaten irtenbide egonkor eta iraunkor bat aurkitu arte. Horretarako, beharrezkoa da egoitza-plazak ehuneko jakin bat identifikatzea eta zehaztea baliabide espezializatuetan, eguneko zentroetan eta okupazio-zentroetan, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzat eta premia espezifikoak dituzten eta kalteberatasun-egoeran dauden migratzaileentzat.

Eskubide sozialak eta herritartasuna

- Auzotasun Dokumentuaren errekonozimendua inplementatzea bultzatuko dugu, gure lurraldean bizi diren pertsona guztiek bizilekuak ematen dizkien eskubideak eta zerbitzuak irispidean izatea bermatuta dutela ziurtatzeko.
- Gainera, biztanleek erroldatzeko aukera izango dutela bermatuko dugu, biztanle migranteei bereziki begiratuta. Euskadin bizi diren atzerritarrei erroldatzeko aukera erraztuko zaie, erroldatzea biztanleen eskubideak irispidean izateko giltza dela ulertuta. Hainbat hizkuntzatan jarriko ditugu martxan kanpainak eta informazio-gidak, pertsona guztiei erroldatzeko legezko betebeharra betetzea errazteko. Kanpaina eta gida horiek administrazio publikoko langileei, herritarrei oro har eta, bereziki, migratzaileei, asilo-eskatzaileei eta errefuxiatuei zuzenduta egongo dira.
- Indarkeria matxistaren biktimak babesteko neurriak irispidean izango dituztela bermatuko dugu, edozein dela ere haien egoera administratiboa.
- Indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeen arreta hobetuko dugu, berriz biktimizatu gabe, indarkeria non erabili den bazter utzita: jatorrizko herrialdea, igarobidea edo helmuga. Horretarako, beharrezkoa da estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko administrazioen arteko koordinazio hobea, pertsonak bere historia behin eta berriz kontatu behar ez izateko eta horrek dakartzan ondorio negatiboak saihesteko.

- Era berean, LGTBIQ+ migratzaileei eta nazioarteko edo aldi baterako babesaren eskatzaileei edo onuradunei ematen zaien arreta hobetuko dugu, birbiktimizaziorik ezaren ikuspegitik.
- Gizarte-prestazioak, gizarte-zerbitzuak eta hezkuntza- eta osasun-zerbitzu publikoak berdintasun-baldintzetan eskuratuko dituztela bermatuko dugu.
- Arreta berezia jarriko dugu dibertsitate funtzionalaren eta mendekotasunaren balorazioa irispidean izatean eta kolektibo horren eskubideak betetzean.
- Migratzaileek eta nazioarteko babesaren eskatzaileek eta onuradunek osasun mentaleko baliabideak eskura ditzaten sustatu eta erraztuko dugu, hizkuntza-oztopoak eta arretaren ikuspegi transkulturala kontuan hartuta.
- Zerbitzu publikoak irispidean izateko eta horien erabilera egokia sustatzeko informazio-kanpainak egingo ditugu, herritar guztientzat, eta bereziki azpimarratuko dugu kulturalki heterogeneoak diren gakoak erabiltzea, biztanle migranteek informazioa irispidean izatean berdintasuna bermatzeko.
- Informazio-baliabideak garatuko ditugu, udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubidea duten atzerriko nazionalitateetako pertsonen eskubide hori irispidean izan dezaten.
- Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen, errefuxiatuen eta harrera-dispositiboetatik kanpo dauden migratzaileei etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emango dizkieten politikak eta neurriak diseinatu eta ezarriko ditugu. Besteak beste, etxebizitza sozialen parkea handitzea, alokairua ez ordaintzearen gaineko aseguruak eta etxebizitza baten jabeentzako pizgarriak abian jartzea, adibidez ahultasun-egoeran dauden pertsonen (asilo-eskatzaileak, errefuxiatuak, aberrigabeak eta migratzaileak, besteak beste) alokatzen dieten partikularrei onura fiskalak emanez.
- Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen, errefuxiatuen eta migratzaileek etxebizitza pribatuen eta etxebizitza sozialen merkatuan sartzeko dituzten administrazio-oztopoak ezabatuko ditugu, eta gure inguruko beste herrialde batzuek dutenaren antzeko sistema harina sustatuko dugu etxebizitza eta etxebizitza publikoak hornitzeko, benetako gizarteratzea bermatzeko “giltza” gisa. Genero-indarkeriatik bizirik atera diren eta arrazoi horregatik beren herrialdeetatik ihes egin duten emakumeak bereziki babestea.

Arrazismoaren aurkako borroka

- Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren Euskal Legea onartuko dugu Eusko Legebiltzarrean.
- Aniztasuna positiboki kudeatzeko eta bizikidetza sustatzeko politikak garatuko ditugu, inklusioa bultzatzeko. Elkartasunean, erantzunkidetasunean, pluralismoan, giza eskubideetan eta berdintasunean oinarritutako bizikidetza-kultura bultzatzea, sexuan, sexu-orientazioan, adinean, arrazan, desgaitasunean, gaixotasun mentalean edo familia-osaeran oinarritutako edozein diskriminazio mota gaitzetsiko duena.
- Arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko kanpaina instituzionalak garatuko ditugu, eta zurrumurruen aurkako hezkuntza-eragileen prestakuntza sustatuko dugu, diskurtso xenofoboiei eta kolektibo zaurgarrienganako gorrotoari aurre egiteko.
- Migrazioen inguruan dauden herritarren partaidetzarako organoak indarberrituko ditugu, eta interesa adierazten duten pertsona taldeak eta/edo elkarteak integratzeko ahalmena eta pertsona guztien eskubideen aurkako politikei betoa jartzeko gaitasuna emango diegu.
- Kulturartekotasunari, bizikidetzari eta diskriminazioaren aurkako borrokari buruz baita lan egiten duten administrazioetan aniztasuna ere kudeatzeko konpetentziei buruzko prestakuntza emango diegu administrazio publikoetako lan-kontratuko teknikariei, bitartekoei edo funtzionarioei.
- Migrantei informazioa eta laguntza emateko bulegoak sortuko ditugu, eta emakume migratuentzako laguntza espezifikoak eta haien premiei erantzutekoak txertatuko ditugu, baita nork bere burua antolatzea sustatu ere.
- Amaiera emango diegu profil etnikoan eta nazionalitatean oinarritutako polizia-identifikazioei.
- Pertsona autoktonoen eta migranteen arteko eskubide-berdintasunaren eta bizikidetzaren aldeko borroka sustatzen duten gizarte zibil antolatuaren ekimenak babestuko ditugu.
- Gorroto-diskurtsoen edozein adierazpideri aurre egiteko neurriak hartzea.
- Gorroto-delituak jazartzeko unitate espezifiko bat sortuko dugu Ertzaintzan.

Migranteentzako lana eta enplegua

- Migrazioen arloko Estatuaren transferentzia osatuko dugu, Euskadin bizi diren migrante guztiak erregularizatzeko, legezko kontratu bat eskura dezaten, etxeko langileei arreta berezia eskainiz.
- Enplegu Plan Berezi bat egingo dugu, migratzaileak eta nazioarteko babesa ukatu zaien pertsonak erregularizatzeko, errotzeko figuren bidez integratu eta erregularizatzeko.
- Informazio-, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak garatuko ditugu tituluak homologatzeko eta akreditazio profesionala lortzeko prozesuetan, eta migratzaileen, asilo-eskatzaileen eta errefuxiatuen curriculum ezkutua berreskuratzea ahalbidetuko duten formulak aztertuko ditugu.
- Etxeko barne-langilearen figura desagerraraziko dugu, eta figura hori zainketa-sistema publiko komunitario baten esparruan ordeztuko dugu, arreta-behar horiek lanaldi duinetan eta lan-baldintza hitzartu eta babestuekin beteko dituzten profesionalekin.
- Lege- eta prestakuntza-esparru bat ezarriko dugu, EAEko eskumen-esparruaren barruan, migranteen curriculumaren ziurtapena errekonozitzea bermatzeko, jatorrizko lan-ibillbidea kontuan hartuta, eta titulazioak eta lanbide-esperientzia egokitzeko trebakuntza-programak bermatuta.
- Beharrezko ekintzak abiaraziko ditugu banketxeek indarrean dagoen araudia bete dezaten oinarrizko ordainketa-kontuak eskuratu eta mantentzeko dagokionez, pertsona migratzaileei, asilo-eskatzaileei eta ahultasun ekonomikoko egoeran dauden errefuxiatuei zuzenduta.
- Emigratu nahi duten pertsonentzako (atzerrikoak zein nazionalak) informazio- eta orientazio-programak inplementatuko ditugu, baita atzerrian jarraipena egiteko eta laguntzeko ere. Programek honako hauek hartuko dituzte kontuan:
- Enpleguaren arloan eskumena duten agintariekin harremanak eta hitzarmenak ezartzea Europar Batasuneko eta Erresuma Batuko beste herrialde batzuekin eta kanpokoekin, emigranteen eta beren herrialdeetara itzuli duten pertsonen eskariak asetzea ahalbidetuko duten enplegu-eskaintzak lortzeko, eta, hartara, nahi duten nazionalen zein atzerriarren itzulera-ahalmena bermatzeko.
- Posta bidezko botoa benetan egikaritzea bermatzeko informazio-kanpainak.

Migranteentzako hezkuntza eta osasuna

- Ratioak murriztuko ditugu eta laguntza-beharra duten adingabeekin ikasgelan esku hartzen duten laguntzako langile espezializatu gehiago jarriko ditugu.
- Ikasle bakoitzari ematen zaion laguntzaren doikuntza eta ikaskuntza esanguratsua ahalbidetzen dituzten metodologia pedagogikoak inplementatzea sustatuko dugu, hala nola elkarlanerako taldeak, proiektu bidezko ikaskuntza, prozesuetan oinarritutako ebaluazioa eta abar.
- Komunitatearen garapena eta aniztasuna bizikidetzarako aberastasun gisa kudeatzea ardatz nagusitzat duten eskoletan ekimen komunitarioak sustatzearen aldeko apustua egingo dugu.
- Hizkuntza-arloko lotura-gelak indartuko ditugu, ikasturtean zehar jatorri desberdineko ikasleen etorrerari behar bezala erantzuteko, eta migrazioekin eta asiloarekin, babeslekuarekin eta kulturartekotasunarekin lotutako edukiak sartuko ditugu eskola-curriculumean eta irakasleen prestakuntzan, ezagutza-arlo desberdinetako funtsezko elementu gisa. Egokitzapen, prestakuntza eta eduki horiek sustatu ahal izango dira pertsona horiekin lan egiten duten ikastetxeen eta erakunde espezializatuaren arteko zuzeneko harreman koordinatuaren bidez.
- Euskadira matrikulazio-epeetatik kanpo iristen diren haur eta nerabeentzako matrikulazio-epe malguak handituko ditugu eta behar beste plaza jarriko ditugu ikastetxeetan, derrigorrezkoaren ondoko prestakuntza egiteko aukera izan dezaten.
- Euskadin osasun unibertsalerako irispidea bermatuko dugu. Horretarako, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzua eskubide hori bermatzeko tresna izatea ahalbidetuko duten protokoloak garatuko ditugu.
- Osakidetzako osasun-langileentzako prestakuntza-planak garatuko ditugu, kulturarteko konpetentzian eta osasunaren prebentzioan eta hezkuntzan trebatzeko.
- Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak, errefuxiatuek eta migratzaileek osasun-sistema publikoan sartzeko dituzten zailtasunak ezabatuko ditugu, haien administrazio-egoera edozein dela ere. Besteak beste, funtsezkoa da bermatzea osasun-arloko langileek itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak eskuratu eta erabili ahal izango dituztela, zerbitzu espezializatuera bideratuko direla, osasun mentaleko baliabideak indartuko direla, asiloa

eskatzen duten pertsona desgaituei eta migratzaileei osasunerako sarbidea erraztuko zaiela eta dokumentazioa berritzeko aldietan arreta medikoak jarraipena izango duela bermatuko dela.

- Asiloa eskatzen duten pertsonentzako, errefuxiatuentzako eta migratzaileentzako osasun-txartel komun bat sortzea bultzatuko dugu. Txartel horrek kudeaketa erraztuko du eta asiloa eskatzen duten pertsonak, errefuxiatuek edo migratzaileek gaur egun beren administrazio-egoeraren arabera dituzten osasun-txartelen modalitate ugariak sortutako trabak ezabatuko ditu.
- Kulturarteko Komunitate Garapenerako I. Programa Autonomikoa jarriko dugu abian, Euskal Herrian dauden herri migratuen elkarte eta kolektiboekin eta bizikidetzaren eta kulturartekotasunaren alde lan egiten duten gizarte-erakundeekin lankidetzan estuan planifikatu, inplementatu eta ebaluatuko dena.

Gizakien salerosketaren aurkako borroka

- Gizakien salerosketaren aurkako borrokaren inguruan dauden protokoloak ebaluatu eta hobetu egingo ditugu, besteak beste, autonomia-erkidegoen artean arin eta azkar bideratzea bermatzeko, lehentasuna eta nagusitasuna emanez biktimen babesari, segurtasunari eta errehabilitazioari, eta ez delitua gertatu den lekuari.
- Sexu-erasoak eta indarkeria matxistak prebenitzeko eta haietatik babesteko estrategia espezifikoak garatuko ditugu salerosketa-egoeran dauden emakumeentzat eta neskatoentzat, Sexu Askatasunaren Legean aurreikusitakoaren arabera.
- Kidego polizial eta judizialei prestakuntza emango diegu gai espezifiko horretan.
- Administrazioak ofizioz emango dituen Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemari lotutako laguntzak eta prestazio ekonomikoak inplementatuko ditugu.

Atzerritarrak barneratzeko zentroak (CIE)

- Gobernu Zentralari eta Europar Batasunari zuzendutako eskaera instituzionala egin eta sustatuko dugu, euskal erakundeek eta gizarteak atzerritarrak barneratzeko zentroak berariaz gaitzesten dituztela adierazteko, eta konpromisoa hartuko dugu Euskadiko lurraldean bakar bat ere martxan jartzea ez onartzeko betebeharrarekin.

Eskumeneko segurtasun-kidegoetan immigranteak egoera irregularrean egote hutsagatik helburu dituen edozein polizia-operatibo desagerraraziko dugu.

Errefuxiatuak

- Euskadin bizi diren errefuxiatuak gure herrialdean egokitu eta integratzeko prozesua erraztuko dugu, haien ahalduntzea eta autonomia sustatze aldera, laguntza-prozesu integralen bidez.
- Erakundeei (aldundiak, udalak eta gizarte-erakundeak) Euskadin bizi diren errefuxiatuen babesa, gizarteratzea eta eskubide-bermea ziurtatuko duen laguntza-lana egiteko behar beste baliabide emango dizkien programa bat jarriko da abian. Programa hori gauzatzeko honako neurri hauek hartuko dira:
 - Pertsonen Gizarte Babeserako Sistema Publikorako irispidea erraztea eta bermatzea (gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, etxebizitza eta abar).
 - Prestazio ekonomikoak eskuratzeko irizpideak berriz formulatzea, eta horien beharra duten kolektibo onuradunen irismena areagotzea.
 - Estatuko laguntza-prozesuetatik ateratzean lagun egiteko baliabideak sortzea, gizarteratzeko prozesuak bermatzeko errefuxiatuen benetako autonomiari begira.
 - Administrazio publikoko profesionalei prestakuntza ematea, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonekin harremanetan jartzeko, babes hori hobetzeari begira eta eskatzaileentzat zein administrazioarentzat ahalik eta eraginkorrena izan dadin.
 - Osasun mentalaren arretarako sarerako eta/edo lan psikologikoko talde-egituretarako sarbidea erraztea.
 - Osasunaren arretarako programa integralak sortzea.
 - Prestakuntza-eskaintza areagotzea eta kolektiboarentzat eskuragarri egitea.
 - Gizartea sentibilizatzea eta herritarren elkartasuna bideratuko duten egiturak sortzea, pertsona guztiak herritar berriei harrera egiteko prest egon daitezen.
 - Aisia eta astialdiko jarduerak sustatzea.

15.4. Hirugarren Sektore Soziala indartzea

- Hirugarren Sektore Sozialak gizarte zibilaren solaskide legitimo gisa duen zeregina indartuko dugu erakundeetatik.
- Politika publikoen diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan elkarrikeria zibil erreala eta efektiboa indartuko dugu, baita erakunde publikoen eta Hirugarren Sektore Sozialeko sareen eta erakundeen arteko elkarlana eta lankidetzaren ere.
- Elkartasuneko eta parte-hartze sozialeko politikak garatuko ditugu, eta, horretarako boluntarioria eta Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak eta sareak sustatuko ditugu.
- Boluntarioria-ekintzen ikusgaitasun handiagoa sustatuko dugu.
- Boluntariorien eta parte-hartzearen inguruko ikerketa sustatuko dugu.
- Boluntarioria-ekintza sustatuko dugu, herritarrak hezteko eta garapen jasangarriko ekintzak bultzatzeko balio-elementu gisa.
- Lankidetzaren publiko-sozialeko eredu egonkorra definituko dugu, herrialde-finantzaketaren eredu publiko eta gardena barne hartuko duena, hiru lurraldeen artean partekatutako irizpide homogeneoekin, zerbitzu publikoen finantzaketa erabaki politikoen edo negoziozko partikularren mende egon ez dadin.
- Egungo finantzaketa-tresnen jardunbidea hobetzea, batez ere dirulaguntzen ereduarena, finantzaketa-sistema hauskorrena baita. Izan ere, sistema horren egungo tresnek gehiegizko burokratizazioa dakarte justifikazio-sistemetan, eta horrek lan administratiboaren gainkarga dakar berekin. Horren ordean, estatu-esparruko egungo dirulaguntzei buruzko legearen erreforma globala egiten ez den artean, gizarte-esparrurako desegokia baita, justifikazio-sistema arinagoak erabil daitezke, kostu-sistema sinplifikatuen bitartez, kudeaketa-gastuak eta karga administratiboa murrizteko.
- Botere publikoen kontratu-jarduketa inspiratu behar duten gizarte-izaerako printzipioak eta irizpideak sustatuko ditugu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, gizarte-erakundeek zerbitzugintzan ematen dituzten alderdi sozialak eta balioa eta sortzen duten itzulera soziala aintzat hartuko dituztenak.

- Hirugarren Sektore Soziala finantzatzeko esparru bat ezarriko dugu, egonkorra, nahikoa, bermatua, aurreikusgarria eta sendoa, eta euskal esparruko eta gizarte-onura ezaguneko gizarte-sare eta -erakunde mota guztientzat izango dena.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren jarduketak garatzeko finantzaketaren urteko eta, hala badagokio, urte anitzeko gutxieneko konstante eta jasangarri bat bermatuko dugu.
- Elkarriketa Zibilean parte hartzen duten Hirugarren Sektore Sozialeko sareei beren misioa gauzatzea eta horien iraunkortasuna ziurtatzea ahalbidetuko dien urteko gutxieneko konstante eta jasangarri bat bermatzea. Urtean eguneratzeko mekanismo automatiko bat ezartzea.
- Urtero argitaratuko dugu zergadunek Euskadin, lurralde historiko bakoitzean, “interes sozialeko beste xede batzuetara” bideratzen duten PFEZren zerga-esleipena, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeei gizarte-programak egiteko bideratzen zaiena.
- Euskadiko hiru lurraldeetan “interes sozialeko beste xede batzuk” finantzatzera bideratzen den PFEZren bilketaren kuota osoaren ehunekoa argitaratuko dugu.
- Urtero argitaratuko dugu bide horretatik bildutako funtsak zertarako erabiltzen diren.
- Funts horien konturako dirulaguntzak banatzeko eredu bat bermatuko dugu, tarte bikoitzeko sistema batean oinarrituta; sistema horretan, Euskadiren kasuan, foru-aldundiek ehunekoa bat kudeatuko dute, eta Eusko Jaurlaritzak gainerako ehunekoa.
- Enpresek sozietateen gaineko zergaren % 0,7 gizarte-erakundeei garatzen dituzten programetara borondatez bideratu ahal izatea erraztuko dugu, Estatuko Aurrekontuen Legeak 2019az geroztik baimentzen duen moduan. Horrek enpresen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea du, haien arteko harremanak lankidetzaren sozial, egonkor eta jasangarriaren esparru batean oinarritu daitezen.
- Itun sozialaren dekretua erreformatu egingo dugu, irabazi industrialak dituzten erakundeak baztertzearen ordean irabazi-asmoa duten erakundeak baztertzeko. Erantzukizun publikoko zerbitzuen kudeaketan edo horniduran irabazi-asmorik gabeko erakundeen bidezko kudeaketaren lehentasuna ezartzea.

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako erantzukizun publikoko zerbitzuetarako gizarte itunaren dekretua ezartzea babestuko dugu, orientazio koherentea izanik hiru lurralde historikoetan.
- Hirugarren Sektore Sozialako erakundeekin gauzatzen diren gizarte-zerbitzuen arloko kontratu eta itun publikoen desindexazioa malgutu egingo dugu. Inflazio-maila handiak direla-eta, defizitarioak dira erakundeentzat.
- Foru-ogasunekin lankidetzan arituko gara Hirugarren Sektore Sozialaren finantzaketaren araudiaren hobekuntza bultzatzeko. Horretarako, dohaintza-emaeleen eta laguntzaileen kopurua eta dohaintzan emandako zenbatekoak handituko ditugu, gizarte zibileko erakundeen partaidetza eta sarea indartu, eta mezenasgoaren kultura handiagoa sustatuko dugu.
- Lehenetsunez, Europako funtsak, Next Generation funtsak eta autonomia-erkidegoak jasotzen dituen beste finantzaketa-tresna batzuk gizarte-inklusioko politika, estrategia eta ekintza berritzaileetara bideratuko ditugu, eta Hirugarren Sektore Soziala onartuko dugu haien diseinuari, kudeaketari, administrazioari eta ebaluazioari buruzko erabaki-prozesuetan.
- Ustekabeko krisien aurrean malgutasuna eta erresilientzia ahalbidetuko duten gizarte-erakundeentzako erreserba-funtsak eta erreskate-funtsak sortzea bultzatuko dugu.
- Hirugarren Sektore Sozialaren jardueraren inpaktua neurtzea sustatuko dugu. Eginkizun horretan, Hirugarren Sektore Sozialaren lanaren inpaktua ebaluatzeko eta neurtzeko mekanismoak jarri eta baliabide gehiago bideratuko ditugu, baliabideak modu efizienteagoan banatuko ditugu eta Hirugarren Sektore Sozialaren kontuak emateko eta gardentasunerako prozesuak arinduko ditugu.

IV. LURRALDEA, HIZKUNTZA ETA BIZIKIDETZA

Ezinezkoa da erantzun berriak ematea eta herrialde-ereduaren aldaketaranzko bideari ekitea Euskadin beti eztabaida politikoaren lehen lerroan dagoen baina inoiz erabakitasunez eta ausardiaz konponbidea eman ez zaion gai bati heldu gabe: unea da, behingoz, gure lurralde-eredua berriz hausnartzeko eta plurinazionalitatearen ideia inguruko eztabaida zorrotza irekitzeko, erreibindikatzeko dugun Estatu plurinazionalaren kontzepzioa eraginkortasunez aseko duen lurraldearen antolaketa berrirako erreferente gisa.

Euskadirentzat hain beharrezkoa den eta ELKARREKIN PODEMOSen programa honetan geure egiten dugun laugarren eraldaketa-ardatz horretan heltzen diogu garrantzi handiko gai horri. Eta garrantzi handiko gaia dela esaten dugu, izan ere, kontua delako euskal herritar guztientzako bizikidetza-proiektu erkidea sortzea, Estatuarekin eta gainerako lurraldeekin (baita nazioartean ere) ahalik eta artikulazio onena izateko. ELKARREKIN PODEMOSen jakin badakigu helburu hori lortzeko elkarrekiko errekonozimenduaz, herritarren parte-hartzeaz eta adostasun zabalaz bestelako biderik ez dagoela. Gure horizontea garbi dago: errepublika plurinazionala, laikoa eta solidarioa.

Bide horretan, ziur gaude ELKARREKIN PODEMOSen badugula zer ekarri, eta badakigu lurralde-antolaketako eredu berri hori osatzeko pieza funtsezkoa eta beharrezkoa garela.

16. LURRALDE-EREDUA: PLURINAZIONALITATEA, AUTOGOBERNUA ETA ERRE-PUBLIKANISMOA

Jakina, asmoen adierazpen irmo horrek leku pribilegiatua du ELKARREKIN PODEMOSek datoren legealdirako eskaintzen duen programan, jakitun baikara prozesu hau luzea eta etorkizunari begirakoa dela, eta horretarako neurri kosmetikoek eta epe laburrekoek ez dutela balio.

Lurralde-ereduari buruzko gure proposamenak euskal ezker eraldatzailearen ikuspegitik sai-hetsezinak diren hiru bektore kontuan hartuta planteatzen ditugu, eta horiek, ezer baino lehen, euskal herritarren arteko bizikidetzarako itun politiko eta sozial berri baten beharra ezartzen dute:

- Estatuaren eta Euskadiren beraren errealitate plurinazionalaren eta aniztasun identitarioaren errekonozimendua.
- Eskubideak areagotzeko tresna den aldetik, autogobernuan sakontzeko premia.
- Horizonte errepublikanoa erreferente gisa.

A) Errealitate plurinazionalaren errekonozimendua

ELKARREKIN PODEMOSen uste dugu Euskadi izaera nazionala duen erkidegoa dela, identitatez, kulturaz, hizkuntzaz edo ideologiaz pluralak diren herritarrek osatzen dutena, eta plurala izaten jarraitzeko bokazioa duena. Guretzat ezin ukatuzkoa den premisa hori oinarri hartuta, eta Euskadiko hurrengo legealdirako Programa honen barruan islaturik, ELKARREKIN PODEMOSen:

- Babesa ematen diogu Euskadi naziotzat hartzeari, Espainia estatu plurinazional eta eleaniztun gisa konfiguratzearen aldeko gure apustuarekin bat.
- Euskal herritarren erabakitze eskubidea erreibindikatzeko dugu, hau da, pertsonek beren borondatea askatasunez eta demokratikoki adierazi ahal izatea, eta hori ELKARREKIN PODEMOSentzat funtsezko elementua da edozein sistema demokratikotan:
 - Erabakitze eskubidea modu legal eta itunduan aplikatzea bultzatuko dugu, eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren barruko negoziazio- eta akordio-esparru batean benetan erabili ahal izatea.
- Argitasun Itun bat proposatzen dugu, eduki zehatzak definituko dituen eta, adierazpen-elementuez harago, Estatuko botere legegileari eta betearazleari eskatuko diona lurralde-estatusari buruzko kontsulta itunduak ahalbidetuko dituzten lege-mekanismoak artikulatitzala, galdera garbiekin eta lotesleak izateko gehiengo kualifikatuekin.

- Herritarrek parte hartzeko mekanismo demokratikoak eta legalak aplikatuko ditugu, euskal herritarrek berak izan daitezen, beren identitate-pluraltasunean eta -aniztasunean, lurralde-estatusaren inguruko hainbat proposamen legitimori buruzko iritzia emango dutenak, adostasun zabalen bila.
- Iparraldearekin eta Nafarroarekin aliantzak egitearen aldeko apustua egingo dugu, gure interes kultural, ekonomiko eta politiko komunak defendatzeko.
- Estatuaren pluraltasuna, kulturala eta linguistikoa, euskal hezkuntza-sisteman eta komunikabideetan berariaz balioztat hartzeko printzipioa finkatu nahi dugu.

B) Autogobernua: estatutu plurala eta berritua

Euskadi tradizio baten eta bere burua gobernatzeko eskubidearen gordailuzaina da, eta eskubide hori Gernikako Estatutuan islatzen da. Izan ere, euskal herritarren autogobernurako eskubide horren erabilera bidezkoa baino ez da, eta, ELKARREKIN PODEMOSen beti azpimarratu dugun bezala, herritarren beren bizi-baldintzak hobetzea du lehen helburu.

Nahiz eta itun sozial horiek irauteko borondatez sortzen diren, egia da, halaber, haien bizitza baliagarria mugatua dela ezinbestean. Haren iraupena faktore ugariaren mende dago, baina herritarrek hura berritzeko edo berri bat lortzeko adierazitako borondateak izan beharko luke beti faktore nagusia. Ezaugarri hori, ohiz kanpokoa edo dramatikoa izan beharrean, naturala balitz bezala bizi behar da. Gure kasuan, eta akordio haietatik lau hamarkada iragan ondoren, nabarrena da euskal herritarren belaunaldi berri bat dagoela, aurrekoa baino inklusiboagoa izango den itun berri bat lortzea eskatzen duena, identitate nazional desberdinen artean zeharkakoagoa, eta asmatutakoak balioetsiko dituen, baina iraganeko akatsak ere aitortuko dituen.

Horregatik, datozen lau urteetan gure bizikidetza-akordioak berritzeko herritarren eta politikaren premia horri erantzun behar diogu, hala taxutzen baitu belaunaldien arteko erreleboak, azken urteotako eraldaketa sozial, ekonomiko eta instituzionalek bultzatuta. ELKARREKIN PODEMOSen ustez, une honetan baldintzak betetzen dira aurrera egiteko eta gure itun soziala berritzen jarraitzeko, eta horrek lurralde-estatus berri bat ekarri behar du, gehiengo sozial zabal baten atxikipenarekin lortu beharrekoa, baita identitatearen arloko zeharkako gehiengo baten atxikipenarekin ere. Konbentzimendu hori da Programa honetan autogobernuari eta Estatutuari buruz jaso ditugun proposamenen inspirazioa.

- ELKARREKIN PODEMOSek filosofia garbi batekin aurre egiten dion autogobernuari buruzko ponentzia berri bat irekitzea eskatzen dugu: benetan ausartzea herri gisa ezkerreko eredu politiko eta sozial bat eraikitzea, jendearen eskubideak bermatzen dituzten tresnen kontrol publiko eta demokratikoa ahalbidetzeko.
- Gernikako Estatutuan jasotako eskumen guztien transferentzia eskatzen jarraitzen dugu, eta eskumen horiek oso-osorik betetzen direla zainduko dugu.
- Itun politiko eta sozial handi bat proposatzen dugu, euskal herritarrek berretsiko duten Estatutu berri batean zehaztuko dena; izan ere, gure ustez, bizi-proiektuak partekatzen dituzten desberdinen arteko bizikidetza- eta errekonozimendu-esparrua da.
- Ziurtatuko dugu Estatutu berriak euskal gizartearen pluraltasuna islatuko duela, ahalik eta partaidetza handiena izango duela, eta erreferendum itundu, aldebiko, argi eta gardena izango duela.
- Indarreko lege-esparrua gaindituko ez duen baina aukera guztiak arakatuko dituen Estatutua proposatzen dugu, inolako uko politikorik egin gabe. Izan ere, osagarria izango da eta erabakitzeke eskubidearen lurralde-dimentsioa jorratzen duten beste tresna batzuekin paraleloan joango da.
- Arauak eta erakundeak sortzen eta erreformatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, defendatzen ditugun balio erkideak gizarte osoan hedatu daitezzen eta ongizate, eskubide eta aukera bihurtu daitezzen.
- Estatutu berrian eskubide sozialak finkatzearen edo blindatzearen aldeko apustua egiten dugu, eskubideok beti baldintzapean edo beste eskubide batzuen azpitik daudelako premisa faltsu hori desagerrarazteko.
- Proposatzen dugu Estatutuak izendatuki bere gain har dezan, erreferentzia gisa, Giza Garapen Jasangarriaren paradigma, Nazio Batuek sustatzen duten garapen-eredua, ondasun erkidearen ekonomiari eta ekonomia sozial eta solidarioari lehentasuna emate aldera.
- Proposatzen dugu Lurralde Historikoen Legea aldatzea, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko, diferentzia larriak baitaude garapen-mailan eta baliabide publikoetan herrien artean, eskualdeen artean eta lurraldeen artean. Ildo horretan, ELKARREKIN PODEMOSen honako apustu hau egiten dugu:

- Euskal erakundearen Finantzaketari buruzko Legea sustatzea, euskal administrazio guztiek finantza-nahikotasuna eta -autonomia izan dezaten, administrazio bakoitzaren tributu propioen gaineko behar adinako araugintza-gaitasuna izanda.
- Herritarrengandik hurbilen dauden erakundeei pisu, gaitasun eta baliabide handiagoak ematea. Udal-alorraren eginkizuna indartu behar da.
- Lurraldeen arteko berdintasuna ziurtatzea, eskualde- eta gizarte-garapenaren ikuspuntutik, lurralde historikoen arteko oreka ziurtatuz.
- Lurralde historikoen artean kide anitzeko tresnak artikulatzea, haien artean elkartasun-elementu esanguratsuak bidera ditzaten.

C) Horizonte errepublikanoa erreferente gisa

Errepublikanismoaren balioek eragina izango dute ELKARREKIN PODEMOSen politika guztietan. Horrek esan nahi du erakundeetan eta kalean lanean jarraituko dugula horizonte politiko baten alde, non Espainia errepublika plurinazionala izango baita, Estatuko Buruzagitza demokratiko-ki hautatuko baita, eta lurraldeek aurkituko baitute beren aniztasuna errespetatu eta baloratuko duen eta pertsona guztien eskubideak bermatuko dituen egokitzapena. Egokitzapen hori lurralde bakoitzarekin eztabaidatu beharko da, baina ELKARREKIN PODEMOSen apustua federalismo asimetrikoaren sistemapeko Errepublikaren formula da.

Baina, ELKARREKIN PODEMOSen iritziz, horizonte errepublikanoa ez da mugatzen Estatu-burua hautatzeko aukerara; aitzitik, gaur egungo erregimena eta hori kudeatzen eta sostengatzen duen oligarkia inpugnatzea da asmoa. Errepublikanismoa da askatasunaren, berdintasunaren eta senidetasunaren balioak eta berekin dakarten guztia errebindikatzea. Errepublikanismoa da oso gogoan izatea herritarrak direla gure politikak gidatu behar dituen ardatza; botere publikoen ekintza zaintzeko eta kontuak eskatzeko prest dauden herritarrak, protesta egiteko, informatzeko, eztabaidatzeko, aldaketak bultzatzeko, interes publikoen defentsan elkartzeko eta lankidetzan jarduteko prest. Horrela, bada, errerepublikanismoak alternatiba bat eskaintzen digu eredu sozioekonomiko zaharkitu batentzat, porrot egin duen lurralde-eredu batentzat eta sistema politiko ez oso demokratiko batentzat. Errepublikanismoak esan nahi du pertsona guztiak berdinak izango diren eta lurralde-sentsibiltate guztiak errespetatuta sentituko diren Estatu-forma bat sortzea.

Errepublika, hortaz, ELKARREKIN PODEMOSentzat, Estatuaren bete-beteko demokratizazioa erdietsi ahal izateko baldintza beharrezkoa da, baina ez behar bestekoa, baita herritarren erreibindikazioak bete-betean gauzatzeko aukera-baldintza ere. Filosofia horrekin bat, ELKARREKIN PODEMOSen programak ezinbestean txertatu behar ditu Euskadi “errepublikanizatzeko” konpromisoak eta proposamenak.

- ELKARREKIN PODEMOSek Errepublika plurinazional eta solidarioa erreibindikatzen du, hori baita behar dugun lurralde-antolaketaren eredua. Baina Errepublika exijitzea ez da soilik demokratikoki hautatzen ez den estatuko buruzagitza nahi ez dugula esatea: Errepublika exijitzea balio jakin batzuk erreibindikatzea da, demokrazia eta berdintasuna da, aniztasuna errekonozitzea da, eskubide sozialen eta guztion onean oinarritutako filosofiaren bermea da, eta gure errealitate plurinazionala errekonozitzeko eta gure autogobernua justizia sozialari dagokionez bete-betean garatzeko modu bakarra da.
- Estatu federal edo konfederal bat proposatzen dugu, non herritarrek aukera izango baitute Estatuko buruzagitza zuzenean hautatzeko, herritarren parte-hartzea errespetatuz eta sustatuz, baita esparru guztietan erabakiak hartzen parte hartzeko eskubidea ere, hori baita instituzionaltasuna ulertzeko modu berri bat artikulatzen duten oinarrietako bat.
- Gure indar guztiekin lan egingo dugu, gizarte zibil antolatuarekin batera, Errepublika berria lehenbailehen errealitatea izan dadin lortzeko.

17. LURRALDEA ETA HIZKUNTZA

Gure lurraldearen inguruko eztabaidaren esparruan, hizkuntza-politikak funtsezko lekua du. ELKARREKIN PODEMOSen euskara euskal ondareztat eta euskal kulturaren funtsezko osagaitzat hartzen dugu, eta uste dugu haren adierazpen askea eskubidea dela, baita komunitate inklusiboa sortzeko eta nahi ditugun gizarte-aldaketak sustatzeko aukera ere. Pertsona orok du Euskadiko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan komunikatzeko, harremanetan jartzeko eta administrazio publikoetan arreta jasotzeko eskubidea, hizkuntza-berdintasunaren printzipiotik abiatuta. Garbi daukagu ez dugula nahi herritarretako batzuk baztertuko dituen hizkuntza-politikarik, eta, horregatik, neurri ekonomiko zehatzak sustatuko ditugu hizkuntza ofizialak ezagutu eta ikasi nahi dituen orok horretarako aukera izan dezan, inposaketarik eta baldintzarik gabe. Hori guztia, betiere, hainbat arrazoren ondorioz bi hizkuntzetako bat ez dakien jende asko errespetatuz eta baztertu gabe.

Beraz, hizkuntza-normalizazioaren esparruan emango ditugun urrats guztiek irmoak izan behar dute, baina intrantsigentziarik gabeak, gizarte benetan elebiduna lortuko badugu. Euskara euskal gizarte osoaren ondarea da. Euskara esparru pribatuan zein publikoan erabiltzearen aldeko apustua egiten dugu (hezkuntzan, lanean, administrazioan, komunikazioan, politikan eta kulturaren). Uste dugu edozein pertsonaren oinarritzko eskubideen eta Euskadiren ondare immaterialaren parte dela. Beraz, funtsezkoa da pertsona guztiei euskara ikasteko aukera ematea.

- Euskara ikasteko erraztasunak emango ditugu, eta, horretarako, euskararen irakaskuntzaren doakotasuna bermatuko dugu C1 mailaraino, baita kontziliazioa eta ordutegi-malgutasuneko politikak ziurtatu ere, eta espazio euskaltzaleak zeharka sortuko ditugu, helburu gisa titulu bat lortzeaz haratago joango den eta beste helburu informalago batzuk aintzat hartuko dituen Euskaltegi-moduluen eskaintzaren bidez.
- Laguntza ekonomikoak proposatuko ditugu matrikulazioaren unetik aurrera, eta doako matrikulak kolektibo espezifikoentzat (zainketen sektorea, langabeak, kontratu murriztuak dituzten pertsonak, besteak beste), baita C2 mailarako ere, gazte eta helduentzako euskararen irakaskuntzaren doako eskaintza unibertsala izatera iritsi arte.
- Lanaldia eta familia-bizitza euskara ikastearekin bateragarri egiteko neurriak garatuko ditugu, eta, horretarako, sektore publikoan eta haren mendeko enpresetan lan egiten duen orok jendearentzako arreta elebiduna ziurtatu ahal izateko behar adinako hizkuntza-gaitasuna eskuratzeko behar diren baliabideak izango dituela bermatuko dugu.

- Gizarte osoaren elebitasun erreal eta eraginkorraren aldeko apustua egingo dugu, arian-arian eta gauzatzeko moduan, euskara gizartea oro har kohesionatu eta integratuko duen adierazpen- eta komunikazio-elementua izan dadin.
- Hizkuntza-politiketako inbertsioa handituko dugu, elkarte-ehuna eta Euskaltegi-sarea gai horretako eragile aktibotzat hartuta, herritarrek euskara ikasteko aukera handiagoak izan ditzaten.
- Hizkuntza-eskakizunen politika berrikusiko dugu, eta duela gutxi onartu den 1997ko dekretuaren erreformatik kanpo geratu diren gaiak ere sartuko ditugu. Eginkizun horretan, lanpostuei exijitzen zaizkien mailen egokitasuna ebaluatuko dugu, merezimendu gisa baloratzea euskaraz ez dakitenentzat oztopo gaindiezina izan ez dadin neurtuko dugu, eta kompetentzia pasiboak eta aktiboak bereiziko dituen profil asimetrikoen sistema bat ezarriko dugu, lanpostua jendaurrekia den ala ez kontuan hartuta, funtzio publikoan sartzeko erraztasunak emateko, adibidez, euskaldun agrafoei edo mintzamen-maila ez baina ulermen-maila ona duten pertsonen. Aldizkako azterlanak egingo ditugu, esparru publiko bakoitzean euskararen erabilera-maila ebaluatzeko (hezkuntza, lana, administrazioa, komunikazioa, politika eta kultura), hizkuntza-politika birbideratu eta haren efizientzia hobetze aldera. Hori guztia 1982ko Euskararen Legeak dioena errespetatuta.
- Estatuari eskatuko diogu herritarrei arreta emateko guneetan euskarazko arreta ziurtatu behar duela kontuan hartzeko.
- Euskara herritar guztientzako komunikazio-hizkuntzatzat izango duten aisia-, kirol- eta kultura-jardueren programazioa bermatuko dugu, eta zorrotz zainduko dugu haurren artean ere hala izan dadin.
- Euskararen erabilera bultzatuko dugu, tokiko merkataritza hizkuntza-normalizazioaren eragile gisa baliozkotuz.
- Euskara sustatzeko programak bultzatuko ditugu, batez ere haren ezagutza eta erabilera mugatua den eskualde eta udalerrietan.

- Gizarte-kolektibo espezifikoei euskalduntzea eragozten dieten oztopoen diagnostiko bat egingo dugu, eta, ondoren, oztopo horiek desagerrarazteko neurriak ezarriko ditugu, haien gizarteratzea errazteko, batez ere immigranteen kasuan.
- Euskarazko produkzioaren eta kultura-jardueraren beharrei lehentasunez erantzungo diegu, eta sortzaileei garapenerako behar dituzten baliabideak emango dizkiegu.
- Adin guztietarako euskarazko literaturari bultzada emango diogu, baita gazte literaturari ere, gaur egun garapen txikiena duena baita.
- Itzulpengintzan eta Interpretazioan graduatu edo lizentziadun titulazioetarako Euskal Herriko Unibertsitateak eskainitako kredituen kopurura eta baldintzetara egokituko ditugu euskara/gaztelania zinpeko itzultzaileak eta interpreteak gaitzeko baldintzak, baita beste hizkuntza-pare batzuekin lan egiten dutenak ere.
- Estatuko eta Europako erakundeei eskatuko diegu konpromisoa har dezatela beren errealitate plurinazional eta eleaniztunarekin, lurralde osoan hizkuntzen ezagutza sustatuz, hizkuntza-eskolen eta unibertsitateen bitartez, eta Estatuko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezagutaraz dezatela kultura-sarearen bidez eta oinarritzko hezkuntza-sisteman. Euskal esparrutik Hizkuntzen Estatuko Institutu bat sortzea sustatu nahi dugu, sustapen eleaniztunerako espazio bat, estatuaren hizkuntza-aberastasuna errespetatzen lan egingo duena; besteen hizkuntzen oinarritzko hastapenak irakatsiko dituen; komunitateen arteko ikasleen bizikidetza sustatuko duena; dauden errealitate kulturalak ezagutzeko.
- Hirueletasuna erabakitasunez sustatuko dugu, gizarte erabat elebiduna (euskara-gaztelania) oinarri hartuta. Aurrera egin behar da beste hizkuntzen ezagutzak dakarren aberastasuna positiboki baloratuko duen kultura sortzen, kultura jatorrizko bertsioan ahalbidetuz. Ingelesak izan behar du gure gazteek nazioartean inongo zailtasunik gabe komunikatzeko erabiliko duten hizkuntza.
- Euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza zabala eta askotarikoa bultzatuko dugu, herritar guztiei zuzendua, eta euskalkien sustapena eta babesa ahalbidetuko duena.

- Euskararen eta gaztelaniaren erabilera progresiboa sustatuko dugu ETBren bi kanal jeneralistetan, behar denean azpтитuluak erabilia, elebitasun harmonikoa ahalbidetzeko eta jende guztiak bi hizkuntzekin harremana izan dezan.
- Ahaleginduko gara ETBn zinema-titulu nabarmenak, lehen mailako fikziozko telesailak eta dokumentalak eta askotariko animazio-zinema euskaraz ematen.
- Era askotako jarduerak bultzatuko ditugu, autogestionatuak eta doakoak, nahi duten guztiek euskaraz hitz egiteko eta beren hizkuntzan komunikatzeko aukera izan dezaten.

18. BAKEA, MEMORIA ETA BIZIKIDETZA

Gure lurralde-ereduari erreferentzia egiten dion eraldaketa-ardatzaren barruan —bizikidetza-eredu baten esparruan—, nahitaez hartu beharko ditugu aintzat bakeari eta memoriari buruzko proposamen programatikoak, gai hori garrantzi handikoa baita euskal herritarrentzat. Hain zuzen, motibazio politikoa duen indarkeriaren ondorioetako bat da askatasunik eza eta frontismoa nagusi zituen testuingurua inposatzea. Testuinguru horrek lerrokatze estuak sortu zituen, askotan interesatuak, identitate edo sentimendu nazionalaren, lurralde-estatus jakin bat lehenestearen eta bozkaturako aukera politikoaren artean.

Denbora luzeegian pentsatu zen indar batzuek estatus-lehentasan jakin batzuk modu eskusiboan ordezkatzeko zituztela, edo estatus jakin baten aldeko lehentasuna adierazteak nahitaez identitate nazional jakin bat zekarrela, edo, are gehiago, alor nazionallean nolabait identifikatzeak aukera politiko jakin batzuk bozkatzeko esanahi zuela. Indarkeriaren amaierako zikloan, PODEMOS EUSKADI bezalako indar plurala eta askotarikoa agertzeak, agerian uzten du planteamendu horien iraungipena. ELKARREKIN PODEMOSen geure gain hartu behar dugu, oraindik ere, Euskadik eskatzen eta behar dituen memoriarako, adiskidetzarako eta erreparazioarako onuragarriak diren proposamenak eskaintzeko erantzukizuna eta Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren arloan aurrera egiten jarraitzeko erantzukizuna (urrats handiak egin dira bide horretan), betiere askotariko indarkerien biktimen aitortzaren eskutik —bizitzeko eskubidearen urraketen biktimak, polizia-abusuen biktimak, torturaren biktimak—.

Hortaz, ELKARREKIN PODEMOSen Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren arloko politika aktiboa defendatzen jarraitzen dugu, erakundeek gidatuta, baina Euskadiko mugimendu memoria-listaren, biktimen elkarteen eta giza eskubideen urraketen ondorioz errepresaliatutako pertsonen eskutik, baita erakunde sozial, politiko eta sindikalen eskutik ere. Eta, horretarako, honako gai hauek bultzatuko ditugu:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala oso-osorik bete dadin zainduko dugu, euskal gizarteak adierazpen horrekin duen konpromiso irmoa berretsiz eta berrituz, eta bere erakundeetatik datorren ezein lege edo erabaki ezin izango da haren aurkakoa izan. ELKARREKIN PODEMOSen ustez, giza eskubideen defentsa ezin uko eginezko absolutu etikoa da proiektu politiko demokratiko ororentzat, baita pluraltasun identitario eta politikoarentzat ere, euskal gizartearen berezko elementu den aldetik.
- Botere publikoetatik sustatuko dugu euskal herritarren bakerako eskubidea, betiere ulerturik indarkeriarik eza ez ezik, parte-hartzea, inklusioa, lankidetzak eta gatazkaren gainditzea sustatuko dituzten prozesu positiboak abian jartzea ere badela.

- Bakearen eta Bizikidetzaren Legea bultzatuko dugu, memoriaren, errekonozimenduaren, bizikidetzaren eta bake-kulturaren sustapenaren politiketan eragiten duten elementuak integratzen dituen lege inklusiboa.
- Eusko Legebiltzarretik eskatuko dugu Amnistiaren Legea indargabetzea, frankismoko krimenen inpunitatearekin amaitzeko.
- Biktima guztien eskubideak estaltzeko, osatzeko eta parekatzeko behar diren araudiak bultzatuko ditugu, giza eskubideen urraketa berdin-berdinen aurrean haien artean kategoriarik ezar ez dadin. Ezinbestekoa da biktima guztiak eta sufrimendu bidegabe guztiak errekonozitzea, baita haientzat guztientzat egia, justizia eta erreparazioa sustatzea ere. Biktimen kategorian esplizituki sartzea arrazoi politikoen, ideologikoen, erlijioaren, jatorri etnikoko arrazoen edo genero-adierazpenaren edo -identitatearen ondorioz diktaduraren errepresioa edo jazarpena pairatu zuten pertsona guztiak.
- Euskadiko udalerri guztietan bultzatuko dugu, Euskadiko Memoria Demokratikoaren egunean, giza eskubideen urraketa larrien biktimei errekonozimendua eta omenaldia eskaintzeko ekitaldiak egitea, haien oroimena iraunarazteko asmoz, errespetuaren, integrazioaren, bizikidetzaren eta bake-kulturaren balio demokratikoak babesteko planteamendu batetik abiatuta.
- Hezkuntza-curriculumak berrikusiko ditugu, ikasleek Euskadiko Memoria Demokratikoari lotutako iraganeko gertakariei buruzko informazio egiazkoa eta eguneratua eskura izan dezaten, diziplina historikoaren berezko praktika zientifikoetan oinarrituta. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak inplementatuko ditugu, curriculum-edukiak nabarmen indartzeko; besteak beste, Memoria Demokratikoaren Ibilbide eta Leketara bisitak egitea, eta ikasleek gerraren eta diktaduraren garaian izandako gertakariak ezagut ditzaten sustatzea.
- Euskal erakunde guztietan sustatuko dugu bizikidetzaren, bakearen eta giza eskubideen kultura esparru guztietan, baina bereziki hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalaren esparruari lotutakoetan. Bizikidetzaren, bakearen eta giza eskubideen kultura sustatuko duten ekintzak, neurriak eta ekimenak bultzatuko ditugu, eta helburuak betetzeko behar adina baliabidez hornituko ditugu.

- “Euskadin bizikidetza, pluraltasuna eta giza eskubideak sustatzeko plan” berri bat diseinatu eta inplementatuko dugu, Eusko Jaurlaritzaren ekintza osoarekiko zeharkakoa, erakunde arteko lankidetzara bideratua eta Gogora Institutuak egina. Gizarte zibil antolatuak aktiboki parte hartuko du plana egiten, betearazten eta ebaluatzen.
- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko Legea (azaroaren 27ko 4/2014 Legea) eta Institutuaren beraren estatutuak aldatuko ditugu, benetako gizarte-kontseilu zabalagoa eta parekideagoa izan dezan, eta bertan modu aktiboan parte har dezaten euskal erakunde publikoen eta unibertsitateen ordezkariak, gizarte-eragileak eta, oso bereziki, gizarte zibil antolatuaren ordezkariak.
- Gogora Institutuaren eta Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroaren arteko ulermen eta lankidetzaren handiena sustatuko dugu.
- Aurreko Bake eta Bizikidetzaren Planeko ekimenak gauzatzen jarraituko dugu aldi baterako. Berezi, abian jarri diren giza eskubideen urraketei buruzko ikerketekin zerikusia dutenak.
- 1960tik gaur egunera arte izandako giza eskubideen urraketen ikerketa-lerroetan sakonduko dugu, alderdi kuantitatiboak eta kualitatiboak azpimarratuz.
- Memoriaren Banku ahaltsu bat eraikitzeke lana bultzatzen jarraituko dugu, giza eskubideen urraketeak pairatu zituzten biktimen eta senideen lekukotasunak hainbat formatutan biltzeko.
- Biktima hezitzaileen proiektua zabaltzeko indartuko dugu, ahalik eta ikastetxe gehienetara eta askotarikoenetara iristeko. Programa hori edo antzeko beste ekimen batzuk hezkuntza ez-formalarena bezalako beste esparru batzuetara hedatzeko aukera baloratuko dugu. Era berean, eragile hezitzaileen beste tipologia batzuek (mehatxuen biktimak, estortsio ekonomikoarenak, biktinario damutuak eta abar) baliatzeko aukera ere baloratuko dugu.
- Kolektibo eta erakunde sozialek bakerako eta bizikidetzaren aldeko hezkuntzaren arloan gauzatzen dituzten ekimenak babestu, ezagutarazi eta bultzatuko ditugu. Euskadiko udalerri guztietara hedatuko ditugu “hiri hezitzaileak” bezalako programak, eta, esparru horretan, “bakearen aldeko astea” bezalako herri-ekimenak.

- Erakundeen eta gizarte-ehunaren arteko lankidetzak-ekimen bat sustatuko dugu, iragan hurbilaren berrikuspen kritikoa egiteko gizarte- eta hezkuntza-kanpaina bat bultzatuko duena, pluraltasunaren, aniztasunaren, bizikidetzaren eta pluralismoaren balioetan oinarrituta.
- Komunikabideekin (publikoak, pribatuak eta sozialak) lan egiteko eta lankidetzan jarduteko programak indartuko ditugu, gai horien tratamendu egokiak sustatzeko —adierazpen- eta prentsa-askatasuna errespetatuz— eta bakearen kultura zabaltzeko.

Bakea, elkartasuna eta nazioarteko ekintza

Hain zuzen ere, Euskadi bezalako lurralde batean bakearen auziaren inguruan dagoen sentsibiltate berezia kontuan harturik, eta historikoki euskal gizartea gizarte solidarioa, mundura irekia eta bokazio global sendokoa izan dela eta dela azpimarratu behar dugunez, ezin diogu uko egin auzi hori bera nazioarteko begirada batekin aztertzeari.

Globalizazio neoliberalaren ereduaren aurrean, ELKARREKIN PODEMOSen beste dinamika batzuen aldeko apustua egin nahi dugu, eredu eta bizimodu berdinzale eta jasangarriagoetarantz aurrera egitea ahalbidetuko diguten politiken aldeko apustua, eta horixe nahi dugu izatea gure lurraldeak gizadiako gainerako herriei duen konpromisoa.

Illo horretan, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Ekintzak Garapen Jasangarrirako Agendarekin (2030 Agenda) bat datorren politika izan behar du, modu praktikoa, eta ez soilik adierazpen modura; lankidetzak-politika hondar-politikatzat hartzei utzi behar dio, eta gizarte-eraldaketarako tresna gisa duen eginkizuna errekonozitu; eta ikuspegi bereizgarriak eskaini behar ditu, egungo garapen-politikek eta -ereduek munduko natura-ondarean duten inpaktua baloratzeko eta politika feministak aldaketa-eragile gisa hartzeko. Hori guztia, ezin bestela izan, giza eskubideen errespetua eta sustapena izanik gainerako herri eta nazioekiko harremanen elementu nagusia. Hori guztia dela eta, honako neurri hauek hartzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Lankidetzak-politika geure gain hartu eta bultzatuko dugu, politika publiko finkatu eta egonkor gisa, eta, horretarako:
 - Nazioarteko elkartasunaren arloan indarrean dagoen legeria betetzen dela zainduko dugu, armamentu-enpresentzako edo armamentu-osagaien enpresentzako dirulaguntzen arloan, eta debeku hori modu eraginkorrean betearaziko dugu.

- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legean aurrekontu-zuzkiduraren % 0,7 bideratzearen inguruan xedatutakoa betetzeko konpromisoa hartzen dugu, legealdi honetarako konpromisoa aurreratuz. Horretarako, aurrekontu-egutegi garbia eta helburu hori lortzeko aukera emango diguna ezarriko dugu.
- Lankidetzarako eragileak sendotzea bultzatuko dugu. Legeak berak GGKEak euskal lankidetzaren eragile nagusitzat hartzen dituela ahaztu gabe, subjektu estrategikoak indartzea eta lotura berezia duten lurraldeekin aliantza egituratua egitea proposatzen dugu, garrantzi eta inpaktu politikoa duten ekimenei eta prozesuei emandako babesa berreskuratzeke.
- Protokolo bat sustatuko dugu, baita gardentasun- eta konpromiso-baldintza jakin batzuk ere, lankidetzarako eragile gisa parte hartu nahi duten irabazi-asmoko erakunde edo enpresa guztientzat.
- Behar diren ekintza guztiak sustatuko ditugu Eusko Jaurlaritzaren TOSSDren (Total Official Support for Sustainable Development) inguruko estrategiak finkatzeko. Horretarako, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundean (ELGA) eta Nazio Batuen foroetan gizarte zibilaren partaidetzarekin gauzatzen ari den nazioarteko estandarren eztabaidan parte hartu eta ekarpenak egingo ditugu, eta argi eta garbi bereiziko ditugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatzen dituen Garapenerako Laguntza Ofizialera bideratutako zenbatekoak (zuzenekoak zein zeharkakoak) eta beste sail batzuetatik datozen 2030 Agenda finantzatzera bideratutako funts gehigarriak.
- Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren aldeko apustua egingo dugu, kontzientzia kritikoa sortzeko esparru estrategiko gisa, eta haren izaera politikoa nabarmenduko dugu. Apustu horren ondorioz, handitu egingo da lankidetzaren eta aurrekontu-politikaren garrantzia, eta giza baliabideak jarriko dira berariaz politika hori inplementatzeko eta euskal hezkuntza-curriculumean txertatzeko.
- Era berean, ebaluazio-prozesuen finantzaketa bultzatuko dugu, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren inpaktua kuantifikatzeko eta 30 urte baino gehiagoko ibilbidean ikasitako ikasgaiak berreskuratzeke. Ziurtatuko dugu Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak barnean hartuko dituela komunikazioaren, prestakuntzaren, ikerketaren, mobilizazioaren eta eraginaren dimentsioak.

- Euskal lankidetza finantzatzeko tresnen erreformari helduko diogu, eraldaketa-prozesuen inplementazioaren errealitatera hobeto egokitu daitezen eta, hartara, esku hartzen duten eragileen lana errazte aldera. Horretarako, lankidetza-tresnak eta jarraipenerako, ebaluaziorako eta kontuak emateko ereduak berrikusteko asmoa dugu. Baita GGKE-en egiturak itotzen dituzten justifikazio-betekizunak malgutzeko asmoa ere.
- Lege berriak ituntze publiko-instituzionalerako aurreikusten dituen espazioak indartu nahi ditugu, Legeak organo horri aitortzen dizkion funtzio guztiak garatzea ahalbidetuko duen funtzionamendu-erregelamenduarekin, euskal gizarte zibilak lankidetza-politika eraikitze prozesuan aktiboki parte har dezan.
- Erakundeen arteko koordinazioaren bitartez, aurrera egingo dugu udalerrien, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko ahaleginak artikulatzerantz, euskal lankidetza deszentralizatuaren identitate espezifikoak edo espezifikoak planifikatzeko, kronograma eta irizpide administratiboak harmonizatzeko, eta larrialdi humanitarioei elkarrekin aurre egitea ahalbidetuko duen Larrialdietarako Euskal Funtza sortzeko. Hori guztia, betiere, administrazio bakoitzaren autonomia eta ikusmolde politikoa errespetatuta.
- Berriz definituko dugu Basque Country 2030 Agenda, Agendaren helburuak eta jomugak gobernuaren ekintzaren osotasunean lekutzeko, esleitutako aurrekontu baten eta neurri lekutuago eta asmo handiagokoen bidez, Lehendakartzaren mende, eta inplikaturako eragile guztiek monitoriza ditzaketen adierazleak, jomugak eta mugarri zehatz eta ukigarriak definituz. Agenda horrek honako eginkizun hauek izango ditu nagusiki:
 - Garapenerako Politiken Koherentzia Plan baten inplementazioa gauzatuko dugu, ikusmolde hori Eusko Jaurlaritzako sail guztietan integratu ahal izateko; neurtzeko adierazleak barne hartuko dira eta betetze-mailari buruzko urteko txostena egingo da.
 - Paradisu fiskalak desagerrarazteko eta multinazionalen zerga-oinarrien higaduraren aurkako benetako konpromisoa, nazioarteko elkartasunean, justizia sozialean, ingurumen-jasangarritasunean, ustelkeria desagerraraztean, emakumeen eskubideen eta, oro har, giza eskubideen defentsan oinarritutako merkataritza-harremanak eta -politikak sustatzea. Era berean, kontratazioa eta erosketa publiko arduratsua sustatzeko plan instituzional bat egitea proposatzen dugu, genero-berdintasunaren irizpideak, irizpide sozialak, etikoak eta ekologikoak barne hartuko dituen.

- Kontrolatzeko eta kontuak emateko mekanismoak jasotzen dituen lege-esparru baten bidez, garapenerako politiken koherentziaren printzipioa bermatzea, Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek beren gain hartu dutena, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea errespetatzen eta bermatzen eta ingurumena zaintzen aurrera egiteko, bai gobernuaren kanpoko ekintzari dagokionez, bai Euskadiren barrukoari dagokionez, biak berez lotuta baitaude. Esparru hori kontuan hartuta:
 - Enpresak nazioartekotzeko politikak nahitaez bete beharreko konpromiso sozial, laboral eta ekologikoak ezartzen dituela bermatzea, bere jarduerak Giza Eskubideen nazioarteko esparrura egokitzeke.
 - Kontratazio publikoko politikak giza eskubideen nazioarteko esparrua urratzen duen enpresa edo erakunde oro baztertzea bermatzea, eta, aldi berean, nahitaez bete beharreko klausula sozialak, lanekoak eta ekologikoak sartzea.
 - Garapenerako laguntza-funts ofizialak irabazi-asmoa duten enpresen artean banatzen ez direla bermatzea; izan ere, enpresa horien helburua onura ekonomikora bideratutako ondasunak eta kapitala metatzea da.
 - Gure lurraldean megaproiektuen garapena eragozte, baldin eta, estrategia kontinental zabalagoetan txertatuta (hidrogenoa, interkonexioak, etab.), Hegoalde Globaleko herrialdeetan megaproiektu berrien ugalketan sostengatzen badira, beren esparru politiko laxoenak aprobatxatuz eta ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-inpaktu larriak sortuz.
- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearekin bat etorritik, giza garapen jasangarriko politiken koherentzia-printzipioa betetzeari buruzko urteko txostena egingo dugu, eta horrek publikoa, eskuragarria eta ingurumen-jasangarritasunaren eta genero-ekitatearen ikuspegia aintzat hartuko du.
 - Emakumeen eskubideen defentsa eta zapalkuntzen interseksionalitatea bultzatuko ditugu, esku-hartze guztietako zaugarritasun-faktore gisa eta lankidetzaren desafio gisa.
 - Kanpo Harremanetarako Euskal Legea egingo dugu, kanpo-harreman guztien eskumen-esparruak ezartzeko, politika, ekonomia, giza eskubideak eta Euskadiren gaur egungo eta etorkizuneko eskumenak oinarri hartuta.

- Nazioarteko Zuzenbide publikoa eta Giza Eskubideen Gutuna izango dira elkarriketan, bakean, lankidetzan, subiranotasunarekiko errespetuan eta elkarrekiko onuran oinarritutako kanpo-harremanetarako politikaren gida, betiere gaur egun dauden asimetriak kontuan hartuta.
- Proposatzen dugu Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordeari Euskadiren kanpo-harremanetarako politika diseinatzeko eta ebaluatzeko eskumen argiak ematea, eta, horretarako, haren osaera birformulatzea eta Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten indar politiko guztien eta euskal gizarte-eragile nagusien presentzia bermatzea.
- Eusko Jaurlaritzak Batzorde horri eta Legebiltzarrari igorriko die, legealdi bakoitzaren hasieran, kanpo-harremanen plangintza-proposamena, eztabaidatu, proposamenak egin eta baliozkotu ditzaten, eta egindako jardueraren kontuak emango ditu urtero.
- Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuen eta Europar Batasunaren zenbait erakundetan parte hartzen du. Parte-hartze hori oinarrituta egingo da, Eusko Legebiltzarrak egin ditzakeen proposamenak entzun ondoren.
- Pobrezia murrizteko eta herrialde guztiak nazioarteko sistema politiko eta ekonomikoetan sartzeko nazioarteko elkartasun-programak proposatuko ditugu.
- Neurri zehatzak hartuko ditugu, inportatutako produktuak modu jasangarrian administratutako iturrietatik lor daitezen edo munduko natura-ondarearen kontserbazioa eta ekosistemen zerbitzuak arriskuan jarri gabe produzi daitezen, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan. Ildo horretan, Mendebaldeko Saharako produktuen etiketatzearen alde lan egingo dugu, Estrasburgoko Auzitegiaren epaia betez, eta BDS mugimenduaren nazioarteko kanpainarekin (israeldarren kolonizazioaren, apartheidaren eta okupazioaren aurkako Nazioarteko Boikot, Desinbertsio eta Zigor Kanpaina) erakunde-mailan bat egitearen alde.
- Memoria, egia eta erreparazioa berreskuratzeko eta sistematizatzeko politikak garatuko ditugu, duintasuna eta mundu osoko giza eskubideen urraketei buruzko kontakizunak defendatzeko, genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzen direla ziurtatuz.
- Euskal Herriak Kapitalari Planto! plataformak bultzatutako Enpresen eta Giza Eskubideen Euskal Zentroa abian jartzea onartuko dugu, borondatezko akordioen aurrean arau lotesleak bultzatzeko, exijigarritasunean, justiziagarritasunean eta gardentasunean aurrera egiteko,

justiziara eta erreparaziora iristeko bideak hobetzeko, erregulazioaren sorreran, aplikazioan eta jarraipenean gizarte-eragile guztien parte-hartzea bultzatzeko eta kanpoko ebaluazio-mekanismoak txertatzeko.

- Mendebaldeko Sahararen determinazio askearekiko nazioarteko konpromisoan lagunduko dugu: saharar herriaren determinazio askerako eskubidea defendatzen dugu. Horregatik, Euskadiren nazioarteko presentziak Mendebaldeko Sahararen eta sahararren giza eskubideak gainbegiratzen, errespetatzen eta defendatzen lagun dezan bultzatuko dugu.
- Sahararren kanpamenduetarako laguntza humanitarioaren partidak handituko ditugu, eta sahararren prestakuntza- eta mugikortasun-programak bultzatuko ditugu. Aldi berean, baliabideak eta zerbitzuak gainerako herritarren baldintza berberetan eskuratzeko konpromisoa ezarriko dugu.
- Palestinar herriarekin dugun nazioarteko konpromisoa berretsiko dugu.
- Palestina estatu gisa errekonozitzeko adierazpen instituzional bat egingo dugu, giza eskubideen defentsarekiko eta Nazio Batuen ebazpenekiko errespetuzko eta koherentziazko ekintza gisa.
- Eusko Jaurlaritzak Israelekin harremanak eta armen eta teknologia militarren eta segurtasun-teknologiaren salerosketa etetearen alde egingo dugu, baita Israelen interesak dituzten euskal enpresetan inbertsio- eta babesletza-harremanak edo akziodunen partaidetza uztearen alde ere, Gazako palestinarren genozidioari erantzuteko.
- Gernika-Palestina ekimenari babesa eta laguntza emango diogu Nazioarteko Zigor Auzitegian Benjamin Netanyahuaren aurkako demanda bat jartzeko proposamenean, palestinar herritarrei egindako erasoengatik.
- Euskadiren Adierazpena sustatuko dugu, Nekazarien Eskubideen Adierazpena eta Herrien Nazioarteko Tratatu euskal legerian eta gobernu-konpromiso instituzionaletan txertatuko dituen lurraldetzat jotzen duena.
- Kubaren eta Venezuelaren blokeoaren aurkako elkartasun-ekintzak areagotuko ditugu, eta herrien subiranotasuna errespetatuko duen barne-gatazken konponbide baketsu eta

demokratikoaren alde egingo dugu. AEBen lurraldeaz kanpoko politikak pairatzen dituzten herriekiko elkartasuna erakusten jarraituko dugu, eta eskualdeko gobernu aurrerakoi guztiekin lan egingo dugu demokraziaren eta giza garapenaren alde.

- Euskadi merkataritza libreko trataturik gabeko eremutzat jotzeko adierazpen instituzionala sustatuko dugu. Esplizituko baztertuko da merkataritza pertsonen eskubideen gainetik jartzen duen edozein proposamen.
- Klima-aldaketaren aurkako borrokarako, euskal erakundeek 'Klimaren aldeko Aliantza' moduko Iparralde-Hegoalde dimentsio globala txertatuko duten klima-aldaketaren aurkako borroka-sareetan parte hartzea bultzatuko dugu.
- Zor ekologikoa konpentsatzeko mekanismoak martxan jartzen lan egingo dugu, % 0,7 tradizionaletik bereiz.
- Erosketa publiko arduratsua sustatuko dugu, kontratazio/erosketa publikoaren bitartez, eta klausula sozialak, lan-arlokoak, ekologikoak eta eskubideei buruzkoak sartuta. Klausula horiek lotesleak izango dira, halaber, enpresak nazioartekotzeko laguntza publikoak ematea erabakitzeko, egungo ehuneko zerotik % 40ra igaro dadin.
- Administrazio publikoek bidezko merkataritzaren etiketa duten produktuak eros ditzaten sustatuko dugu.
- Intermon Oxfamen Paradisu Fiskalik Gabeko Eremuak (PFGE) sortzeko proposamenean aurrera egitea proposatzen dugu, eta, horretarako, hustubide fiskaletan diharduten edo horiekin lotura duten enpresa handiak zigortuko dituzten lizitazio-irizpideak sartzea. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei proposatuko diegu administrazio-kontratazioko agirietan eta kontratazio-erregelamenduetan PFGE ekimena gauzatzeko klausulak txertatzeko.

GEHIGARRIA: EUSKADI DEMOKRATIKOAGOA ETA KOLABORATIBOAGOA

Programa honetan zehar lau eraldaketa-ardatzen bitartez Euskadirentzat marraztu dugun herrialde-eredu berri bateranzko bidea egingo badugu, ezinbestekoa da guztion artean elkarlanean jardunez gure demokrazia konkistatzea eta erakundeak jendearen zerbitzura jartzea. Programaren konfigurazioak berak jaso du erreibindikatzen dugun parte hartzeko espiritu hori. Horrexegatik, amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu gizarte zibileko pertsona eta kolektibo guztiei, hobetzeko proposamenak eta iradokizunak egin dizkigutelako, ELKARREKIN PODEMOSen hurrengo legealdirako programa autonomikoa ahalik eta ongien bideratzeko. Baina lehenago, programa-mailan, gure erakundeei exijitzen dizkiegun ezaugarriak eskainiko ditugu, eta konpromisoa hartzen dugu gauden leku guztietan aplikatzeko, benetan demokratikoagoak, gardenagoak eta parte-hartzaileragoak izan daitezen.

19. ERAKUNDE DEMOKRATIKOAGOAK, GARDENAGOAK ETA PARTE-HARTZAIL-LEAGOAK

ELKARREKIN PODEMOSen beti jarri dugu aurre-aurrean demokrazia biziberritzeko beharra, alor publikoa gardentasunean, herritarren parte-hartzean eta gobernantza onean oinarrituta kudeatzeko modu berrien bitartez. Horretarako:

- Ezin uko eginezko premisatzat hartuko dugu demokrazian sakontzea ahalbidetuko duen gobernantza-eredu berri irekiago, banatuago, eztabaidagarriago eta erantzunkideago baterantz aurrera egitea, gizarte gisa aurre egin behar diegun erronka konplexuei elkarrekin heltzeko, lankidetzaz publiko-sozial handiagoan oinarriturik eta ikuspegi integrala aintzat hartuta (administrazio publikoa /gizartea / enpresa / ikerketa-sistema / lurraldea).
- Euskadiko Ondareari buruzko Legea erreformatzea proposatzen dugu, ondasun publikoak babesteko, honako hauei dagokienez: edozein instituzio edo erakunde publikok irabazi-asmoa duten enpresei edo partikularrei ematen dizkien laguntza ekonomikoen zenbatekoak; edozein instituzio edo erakunde publikok irabazi-asmoa duten enpresei edo enpresa partikularrei egiten dizkien gauzazko ekarpenak; lursailen edo zerbitzu-ustategien lagapenak (horiek kuantifikatu eta baloratu egin beharko dira); eta instituzio publikoek, erakundeek eta unibertsitateek egiten dituzten era guztietako azterlanak, pribatuen eskura jarri ondoren negozioa sor dezaketenak.
- Eusko Jaurlaritzako plantilla egonkortzeko prozesuak sustatuko ditugu, bitarteko kontratuak ahalik eta gehien murrizteko.
- Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren kudeaketaren auditoriak egingo ditugu, gardenak eta kanpokoak, aurreko kudeaketan izan daitezkeen akatsak eta baliabide publikoen okerreko erabilera detektatzeko, egungo egoera egiaztatzeko, bikoiztasunak detektatu eta ezabatzeko, eta etorkizuneko ekintzak planifikatzeko.
- Baliabideen kudeaketa publikoan oinarritutako eredu bat defendatuko dugu, eta eskaintzen duen zerbitzuan kalitatezko gizarte-zerbitzuen kudeaketa publikoko eredu bat garatuko dugu, kontratatutako langileei bidezko baldintza soziorabiorak ziurtatuz.
- Kanpora ateratako funtsezko zerbitzuak berreskuratze eta zuzenean kudeatzeko plan zabala gauzatuko dugu, enpleguari eusteko eta lan-baldintzak hobetzeko konpromisoa hartuta.

- Gizarte-zerbitzuen mapak berrikusiko ditugu, horien kudeaketan inplikaturako guztien parte-hartzearekin eta erabiltzaileen eta senideen partaidetzako ebaluazioen bidez, benetako beharretara egokitzeko eta haien kudeaketa hobetzeko.
- Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legearen onarpena bultzatuko dugu. Legealdiaren amaierarako utzi da, eta hauteskunderen deialdiak geldiarazi egin du haren tramitea. Erabakiak hartzerakoan herritarren parte-hartzea sustatu eta bermatuko duen legea, interes orokorreko gaietarako erakunde-maila guztietan erreferendumen sistema legez sustatzea ere barne hartuko duena.
- Herritarren Partaidetzarako Euskal Agentzia sortuko dugu, prozesuen kalitatea zaintzeko eta legeetan aurreikusitako betebeharrak beteko direla bermatzeko. Aldi berean, toki-erakunderen eta/edo gizarte zibilarekin harreman estuan dauden beste erakunde batzuen partaidetza-prozesuak sustatzeaz eta horietan laguntzeaz arduratuko da.
- Klientelismo-sareen, lobbyen jardueraren eta ate birakarien aurkako plan espezifiko bat egingo dugu, energia-oligopolioan eragin berezia izango duena, ekonomia jasangarri bateranzko trantsizioa moteldu ez dezan.
- Kontratu Publikoen Euskal Behatokia bultzatuko dugu, gardentasuna sustatzeko, klientelismoa eta ustelkeria prebenitzeko eta kontratu publikoen kudeaketa publikoa hobetzeko.
- Euskadin ustelkeriaren aurkako fiskaltza bat irekitzeko eskatuko dugu, fiskalek aspalditik eskatzen duten bezala.
- Euskadiko ustelkeriari eta klientelismoari buruzko azterlan bat eskatuko diogu Euskal Herriko Unibertsitateari, jokabide horiek diru-kutxa publikoetan duten inpaktua baloratzeko eta praktika hori desagerrarazten laguntzeko.
- Elkarriketa Sozialerako Mahaia sustatuko dugu, Enpleguaren 15/2023 Legean jasotako helburu eta estandarren arabera, sindikatuek, patronalak eta gainerako gizarte-eragileek parte hartzeko espazio eraginkorra izan dezaten, kontratazio-agirietan xedatutakoa betetzen dela zaintzeko. Enpresa emakidadunetako langileen soldata- eta lan-betebeharrak betetzen direla zaintzea.

- Zainketa-lanak egiten dituzten kanpoko enpresekin (mendekotasuna, etxeko laguntza, tutoretzapeko etxebizitzak, besteak beste) zerbitzuak lagatzeko kontratuetan izenpetutako baldintzak betetzen direla zainduko dugu, foru-aldundiekin eta udalekin lankidetzan.
- Kontratu publikoak osorik argitaratuko ditugu, Gardentasunaren Atarian lizitazioa justifikatzen eta babesten duten edukiak eta txostenak barne.
- Zuzeneko kudeaketa publikoa ezinezkoa den kasuetarako, klausula sozialak, berdintasun-klausulak, ingurumenekoak eta jardunbide egokiei dagozkienak sartzea bermatuko dugu, kontratuaren tipologiaren arabera, eta ezaugarri teknikoek garrantzi handiagoa emango diegu eskaintza ekonomikoari baino.
- Ingurumen-irizpideak arian-arian txertatuko ditugu Eusko Jaurlaritzaren mendeko arlo eta erakundeetako produktuak erostean eta zerbitzuak kontratatzean, baita administrazio-klausuletan ere. Gainera, ekintza horiek gidatzeko prestatutako lantalde espezifiko bat sortuko dugu.
- Kontratazio publikoa sustatuko dugu ETE-ekin, langile autonomoekin, hirugarren sektoreko erakundeekin eta gizarte-ekonomiako enpresekin.
- Kontratazio publikoaren agirietan berdintasun-klausula bereziak sartuko ditugu, langileen kopurua eta proportzioa, enpresak erantzunkidetasun-planak izatea eta abar kontuan hartuko dutenak.
- Kolektibo zaurgarriek enplegua lortzeko erraztasunak ematen dizkiegu, kontratuetan kontratazio arduratsuko klausulak sartzearen bidez.
- Lan-eskaintza publiko guztietan, gutxienez % 2ko erreserba finkatuko dugu dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, gai-zerrenda eta hizkuntza egokitzeko betebeharrarekin, kolektiboaren barruko errealitateetara egokitutako irakurketa errazeko metodoaren bidez.
- Software libreko sistema eragileak eta kode irekiko programak sartuko ditugu pixkanaka eta lehentasunez.

- Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legearen onarpena bultzatuko dugu. Legealdiaren amaierarako utzi da, eta hauteskunderen deialdiak geldiarazi egin du haren tramitea. Erabakiak hartzerakoan herritarren parte-hartzea sustatu eta bermatu beharko du, eta legez jasoko du erreferendumen sistema bat. Era berean, herri-kontsultak egingo ditugu azpiegitura estrategiko handien proiektuen inguruan eta herritarren interes orokorreko gainerako gaietan.
- Herritarren Partaidetzarako Euskal Agentzia sortuko dugu, prozesuen kalitatea zaintzeko eta legeetan aurreikusitako betebeharrak beteko direla bermatzeko. Aldi berean, toki-erakunderen eta gizarte zibilarekin harreman estuan dauden beste erakunde batzuen partaidetza-prozesuak sustatzeaz eta horietan laguntzeaz arduratuko da.
- Herritarren Eskaeren Batzordea sortuko dugu, eta modu sinbolikoan gaituko dugu 76. jarlekua. Kontua da herritarrek, banaka edo taldeka, Eusko Legebiltzarrari zuzenean eskatzen dizkieten eskaerak legebiltzarraren bidez bideratzea, herritarrek legebiltzarreko osoko bilkuran hitza izango dutela bermatzeko.
- Herri-tresna arauemaileen lege bat formulatuko dugu, zuzeneko demokraziako tresnak legez artikulatzea ahalbidetuko duena, hala nola legegintzako herri-ekimen eta -ekintzak, herri-oposizioko ekimenak eta legegintzako herri-eskaerak. Beste autonomia-erkidego batzuetan dauden parlamentu irekiaren antzeko formulak bultzatzeko aukerak aztertuko dira.
- Irisgarritasun handiagoa emango diegu legegintzako herri-ekimenei (LHE), gizarte zibiletik datozen ekimenei legez besteko proposamenak aurkezteko erraztasunak emango baitizkiegu, eta horiek aurkezteko gutxieneko baldintzak 6.000 sinadurara murriztuko baititugu (gaur egun 10.000 dira).
- Partaidetza-aurrekontu autonomikoen prozesuak jarriko ditugu abian, eta genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna ziurtatuko dugu. Aurrekontuek, partida bakoitzari esleitutako funtsen bidez, herrialdeko politika publikoaren benetako lehentasunak ezartzen dituzte urterako, baita hamarkadetarako ere; beraz, ezinbestekoa da parte hartzeko prozesuak abian jartzea, eta prozesuotan herritarrak eta gizarte-taldeak izatea politikak eta horien benetako finantzaketa modu loteslean erabakiko dituztenak.
- Hainbat esparru sektorialetan eta zeharkakoetan Herritarren Kontseiluak sortzea sustatuko dugu. Herritarren Kontseilu horiek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Gobernu autonomikoarekin elkarrizketa erraztuko duten espazioak sortzeko guneak eta abaguneak bilatuko dira. Beren erabakiak kontuan hartu beharko dira.
 - Lehendakaritza gobernu kanpoko alderdiak beteko du. Garrantzitsua da, halaber, autonomia-erkidegoetako arloetako arduraduna (lehendakariordetza beteko du) gonbidatu gisa bakarrik joan daitekeen bilerak izatea.
 - Herritarren Kontseiluak ikusgaitasun publikoa izan behar du, eta autonomia-erkidegoak funtsezko solaskidetzat hartu behar du.
 - Kontseiluari dagokio Eusko Legebiltzarraren eta gizarte-mugimendu eta -taldeen arteko elkarrizketa arin eta eraginkorra artikulatzea, kontseiluko kideak ahaldunduko dituen parte-hartzea lortzeko baldintzak ahalbidetze aldera.
 - Herritarren Kontseiluaren ahala izango da prentsurrekoak, topaketak, lantegiak eta abar modu autonomoan deitzea. Eusko Legebiltzarrak independentzia hori errespetatu beharko du.
-
- Demokrazia digitaleko tresnak jarriko ditugu abian, arrakala digitala murrizteko ekimenekin batera, IKTak gutxien ezagutzen dituzten pertsonak eta taldeak trebatzeko.
 - Gardentasunaren Atarian argitaratuko dugu Eusko Jaurlaritzaren ondasun-zerrenda.
 - Gardentasunaren Atarian aldian behin argitaratuko dugu Eusko Jaurlaritzak izenpetzen dituen hitzarmen eta akordioen zerrenda, baita emandako dirulaguntza eta laguntza guztiak ere.
 - Herritar guztien irisgarritasuna bermatuko dugu, batez ere dibertsitate funtzionala duten pertsonena, eta, horretarako, oztopo arkitektonikoak eta komunikazio-oztopoak ezabatuko ditugu.
 - Gardentasunaren Atarian argitaratuko ditugu publizitate instituzionaleko kanpainen xehetasunak: gastua, kontzeptua, helburua, saila eta abar.

- Edukiak egoitza elektronikoetan eta web-orrietan argitaratuko ditugu, modu irisgarri, erraz, egituratu eta ulergarri, nabigazioa eta irakurketa erraza ahalbidetuko duen formatu batekin. Web-orrietan eta egoitza elektronikoetan multimedia-edukiak sartuko ditugu, hala nola irudiak, bideoak edo grafiko didaktiko eta editagarriak.
- Administrazioa eta lotutako eta partaidetzapeko erakundeak gardentasunaren, gobernu onaren kodeen eta legeria betetzearen printzipioen arabera kudeatuko direla bermatuko dugu, gardentasunaren, kontratazio publikoaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren arloan.
- Jarduneko gobernuak sartzen den exekutiboaren lana errazteko behar den dokumentazioaren egoera utz dezan zainduko dugu; horrela, sail-esparru bakoitzean ezinbestekotzat jotzen diren artxiboen eta ebazteke dauden gaien egoera zehatzaren berri emango zaio, baita dagokion aurrekontuaren betearazte-egoeraren berri ere.
- Osoko bilkuretan eta batzordeetan boto telematikoaren aukera gaituko dugu baja-egoeretarako eta kontziliazioan laguntzeko.
- Eusko Legebiltzarraren barruko antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko gida bat egin eta zabalduko dugu, sartzen diren kargudun publikoentzat. Horrez gain, azalpenak emango ditugu, haien funtzioak eta lanerako bideak ulertzeko.
- Alfabetatze digitaleko ekimen pedagogikoak bultzatuko ditugu arrakala teknologiko eta ekonomikoa murrizteko, teknologien erabilera eta parte-hartze digitaleko tresna berriak sustatzeko.
- Genero-diskriminazioaren aurkako neurriak garatuko ditugu, parekotasun-irizpideak eta edozein diskriminazioaren edo tratu txarren aurrean defendatzekoak aplikatuz legebiltzarreko politika eta erabaki guztietan, baita gobernu-organoetan edo edozein kudeaketa-mailatan ere.
- Hitzematen dugu Elkarrekin Podemoseko ordezkari hautetsi guztiek jardun instituzional guztiak alderdiaren Kode Etikoaren arabera ontzat hartzeko eta zuzentzeko betebeharra izango dutela, bai kargudun hautetsientzat, bai aholkularientzat, aukera libreko karguentzat, behin-behineko langileentzat eta legebiltzar-taldeko kideentzat.

20. EUSKAL GIZARTE ZIBILAK EKARPENAK EGITEN DITU

Partaidetzaren bidez ikasten da. Besteengandik ikasten da.
Antolatzen saiatzen garen pertsonengandik ikasten dugu”

NOAM CHOMSKY

Programa hau ez zen posible izango antolatutako euskal gizarte zibilaren ekarpen, truke eta borrokarik gabe. Urte hauetan guztietan, PODEMOS Euskadi sortu zenetik, harremanak lotzen joan gara erakunde, elkarte, plataforma, sindikatu, erakunde eta gizarte-mugimendu askorekin. Kaleak partekatu ditugu haiekin, baita haien eskaerak eta proposamenak ere, gauden erakundeetara eramateko.

PODEMOS “haserrea antolatzeko” helburuarekin sortu zen, aldaketa politiko bihurtzeko. Horixe da gure izateko eta egoteko modua markatu duena, “behetik” politika egitea, jendearen parte izanik, gizarte eta auzo mugimenduetan parte hartuz, eta programa eta helburuak eraikiz gizarte zibilak eskatzen duena entzutetik abiatuta.

ELKARREKIN PODEMOS da apirilaren 21ean gizarte zibilak Eusko Legebiltzarrean parte hartu ahal izateko tresna, bere eserlekuarekin, jendearen interesak defendatzeko. Bildu ditugun bilera, proposamen, eskaera eta bidezko eskakizun horien guztien emaitza da dokumentu hau. Eskerak eman nahi dizkiegu hemendik programa hau elikatu duten eta zentzua eta etorkizuna ematen diguten erakunde eta mugimendu horiei guztiei.

ADARRA Pedagogi Erakundea

AGORA filosofia elkarte

ALDEE (Asociación Vasca de Profesionales de Archivos, Bibliotecas y Centros de Documentación)

AMNISTIA INTERNACIONAL

ApsidE - Asociación de psicopedagogía de Euskadi

ARABA BIZIRIK

Argilan - ESK

Asociación Agharas

Asociación Bebés Sustraídos Bizkaia “Itxaropena”

Asociación BIZITEGI

Asociación de Autónomos de Euskadi, ABAT

Asociación de familiares y usuarios de residencias BABESTU

Asociación de familiares y usuarios de residencias Gipuzkoako Senideak

Asociación de Gerentes de Servicios Sociales

Asociación de Mujeres Gitanas (AMUGE)
 Asociación Federal Derecho a Morir Dignamente (DMD)
 Asociación HIRUKIDE Familias Numerosas de Euskadi
 Asociación por la igualdad LGTBIQ+ Anitzak
 CARITAS
 COLCAFYD - Colegio Oficial de Licenciados y Licenciadas en Ciencias de la Actividad Física y el Deporte del País Vasco
 Colegio Profesional de Logopedas del País Vasco
 Colegios profesionales de Enfermería de la CAV
 Colegios profesionales de Trabajo Social de la CAV
 Comisiones Obreras CCOO de Euskadi
 Confederación de Forestalistas del País Vasco-Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundea
 Confederación vasca de comercio, EUSKOMER
 Cooperativa de generación y consumo de energía renovable- GOIENER
 Coordinadora de ONGD de Euskadi
 Coordinadora de Pensionistas de Bizkaia (CPB-BPK)
 Coordinadora Estatal de apoyo a la Querella Argentina-CeAqua
 Coordinadora Saharaui
 EHIGE, Confederación de AMPAS de la Escuela Pública vasca
 EHNE y ETXALDEKO emakumeak
 EKOLOGISTAK MARTXAN
 ELA Sindikatua
 ELKARTEAN, Coordinadora de Asociaciones de personas con discapacidad física de Euskadi
 ENDOEUSKADI. Asociación de mujeres enfermas de endometriosis de Euskadi
 Esku Hutsik - Asociación de duelo gestacional, perinatal y neonatal de Euskadi
 Euskadi Cuba
 Euskadiko Gazteriaren Kontseilua- CONSEJO DE LA JUVENTUD de Euskadi
 Euskal Herriko Emakume Migratu Feministak EMFS-Sociosanitarias
 Euskal LGTBI+ Behatokia
 FEDEAFES, Federación de Euskadi de Asociaciones de familiares y personas con enfermedad mental
 Federación de entidades vascas de Inclusión FEVAS-Plena Inclusión
 GREENPEACE
 Gure Platera Gure Aukera, plataforma por el cambio de modelo de comedores escolares
 Iniciativa ciudadana GERNIKA PALESTINA
 Kale Dor Kayiko
 KONFECOOP, Confederación de Cooperativas de Euskadi

LAB Sindikatua
 Liga de mujeres saharauis
 Madres solteras por elección
 Movimiento Pensionistas de Euskal Herria
 NAIZEN
 OLATUKOOP - Ekonomia Sozial eta eraldatzailea Saretzen
 OPA Herri Plataformak, Coordinadora de Plataformas Ciudadanas en Defensa de la Sanidad Pública vasca
 OSATZEN, Sociedad vasca de Medicina de familia y comunitaria
 Plataforma ciudadana ORAIN- Por una Renta Básica Universal
 Plataforma Estatal de Organizaciones de Familiares y Usuarias de Residencias
 Plataforma KULTURATIK
 Plataforma vasca REGULARIZACIÓN YA
 REAS- Red de Economía Alternativa y Solidaria de Euskadi
 Red de lucha contra la pobreza y exclusión social EAPN Euskadi
 Red de mujeres Racializadas
 Red de resistencia contra el SAP
 Sabeletik Mundura
 Salvamento Marítimo Humanitario
 SAREEN SAREA, red de entidades del Tercer Sector Social, que engloba a 17 redes de entidades (ASTIALDI Sarea, EHLABE, EUSKAL GORRAK, EUSKOFEDERPEN, GIZATEA, HIREKIN, HARRESIAK APURTUZ, HIRUKIDE, ONCE, entre otras...)
 SATSE Sindicato de enfermería
 Save The Children
 STEILAS, sindicato de trabajadores y trabajadoras de la educación
 Teknikariok Sindikatua
 UMEEKIN, Federación vasca de Asociaciones de padres y madres de niños con cáncer
 UN Etxea, portavoz y promotora de la iniciativa “Futuro en Común”, que reúne a más de 50 organizaciones, redes y plataformas de la sociedad civil vasca
 UNICEF, Comité País Vasco
 Unión General de Trabajadores UGT Euskadi
 UPTA Euskadi
 Zehar Errefuxiatuekin